

# ADIN TXIKIKO LEGE-HAUSLEAK





# ADIN TXIKIKO LEGE-HAUSLEEKIKO ESKUHARTZEA

Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia

**Txostenaren egilea:** SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

**Ararteko erakundearen aldetik, txostena egokitzen arituak:** Xabier Markiegi,  
Mercedes Agúndez, Faustino López de Foronda, Fermín Barceló, Miren Ortubay,  
Amaia Pagola, Nieves Oca.

**Itzulpena:** L. Auzmendi, K. Biguri, K. Diez de Ulzurrun, Ana Sagasti eta  
L. Zenarruzabeitia.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: *Niños jugando a los toros*. Ohol gaineko margolana, Eduardo Zamacois y Zabalak egina.

Irudiaren ©. Bilboko Arte Ederren Museoa.

Paper erreziklatua.

ISBN: 84-89776-03-2.

L.G.: VI-454/98.

ADIN TXIKIKO  
LEGE-HAUSLEEKIKO  
ESKUHARTZEA

**AURKIBIDEA**

<b>AURKEZPENA</b> .....	23
<b>SARRERA</b> .....	31
1. HELBURUA .....	33
2. ESPARRUA .....	33
3. METODOLOGIA .....	34
3.1. Adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartze sistemaren azterketan aplikatutako metodologia.....	34
3.2. Adin Txikikoen Epaileek erabakitako neurrien betearazpenaren azterketarako aplikatutako metodologia .....	39
<b>LEHENDABIZIKO ZATIA: ADIN TXIKIKO LEGE-HAUSLEEKIKO ESKUHARTZEAREN SISTEMA</b> .....	45
<b>I. ATALA: MARKO TEORIKOA</b> .....	47
1. Lege-hausle gazteen populazioa .....	49
2. Eskuhartzearen jarraibideak .....	50
<b>II. ATALA: MARKO JURIDIKOA</b> .....	57
1. Araudiaren bilakaera .....	59
2. Araudiaren oinarrizko alderdiak .....	62
2.1. Estatu mailako araudia .....	62
2.2. Autonomia mailako araudia .....	68
3. Eskumenen banaketa .....	69
4. Etorkizunerako joerak: Adin Txikikoen Justizia arautzen duen Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	72

<b>III. ATALA: ZERBITZUEN SAREA ETA ATENDITUTAKO POPULAZIOA</b> .....	77
1. Organo judizialen osaketa .....	79
1.1. Adin Txikikoen Epaitegiak .....	79
1.2. Adin Txikikoen Fiskaltzak .....	81
2. Talde Teknikoak .....	82
3. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza .....	85
4. Arabako Foru Aldundiko Haur, Gazteria eta Familiako Lurralde Zerbitzua .....	87
5. Atenditutako populazioa .....	91
5.1. Zenbakiak .....	91
5.2. Populazioaren ezaugarriak .....	96
6. Arau-haustek eta hartutako neurriak .....	100
<b>IV. ATALA: PROZEDURAK</b> .....	105
1. Jarduera-prozeduren deskribapena .....	107
2. Eskuhartze-faseen azterketa .....	114
2.1. Poliziaren atxiloketa .....	114
2.2. Prozeduraren instrukzioa .....	121
2.3. Agerraldia .....	133
2.4. Entzunaldia eta Ebazpena .....	136
2.5. Neurrien betearazpena .....	139
<b>BIGARREN ZATIA: ERABAKITAKO NEURRIEN ETA HAIEN BETEARAZPENAREN AZTERKETA</b> .....	141
<b>V. ATALA: NEURRIAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK</b> .....	143
1. Eskuhartze-maila .....	145
2. Aplikatutako neurrien izaera .....	147
3. Eskuhartzearen epeak .....	155
4. Neurrien berrikuspena .....	153

<b>VI. ATALA: BITARTEKOTZAK EGITEKO ETA NEURRIAK BETEARAZTEKO BALIABIDEAK .....</b>	<b>155</b>
1. Bitartekotzak .....	157
2. Ingurune irekiko neurriak .....	158
3. Barrualdi neurriak .....	159
<b>VII. ATALA: KONPONBIDEEN AZTERKETA. BITARTEKOTZA ETA NEURRIAK .....</b>	<b>161</b>
1. Bitartekotza .....	164
1.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	164
1.2. Aplikazioaren maiztasuna .....	167
1.3. Eskuhartzearen epeak .....	168
1.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	169
1.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	174
2. Ohartarazpena .....	174
2.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	174
2.2. Aplikazioaren maiztasuna .....	175
2.3. Eskuhartzearen epeak .....	176
2.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	177
2.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	181
3. Asteburu bat eta hiru asteburu bitarteko barrualdia .....	181
3.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	181
3.2. Aplikazioaren maiztasuna .....	182
3.3. Eskuhartzearen epeak .....	182
3.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	183
3.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	186
4. Zaintzapeko askatasuna .....	186
4.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	186
4.2. Aplikazioaren maiztasuna .....	188
4.3. Eskuhartzearen epeak .....	188
4.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	189
4.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	200



5.	Beste pertsona edo familiagune baten harrera .....	201
5.1.	Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	201
5.2.	Aplikazioaren maiztasuna .....	202
5.3.	Eskuhartzearen epeak .....	202
5.4.	Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	203
5.5.	Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	207
6.	Komunitatearen onurarako zerbitzuak ematea .....	207
6.1.	Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	207
6.2.	Aplikazioaren maiztasuna .....	208
6.3.	Eskuhartzearen epeak .....	209
6.4.	Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	209
6.5.	Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	214
7.	Tratamendu ambulatorioa .....	214
7.1.	Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	214
7.2.	Aplikazioaren maiztasuna .....	214
7.3.	Eskuhartzearen epeak .....	214
7.4.	Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	215
7.5.	Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	218
8.	Barrualdia .....	218
8.1.	Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak .....	218
8.2.	Aplikazioaren maiztasuna .....	219
8.3.	Eskuhartzearen epeak .....	220
8.4.	Prozedura eta aplikazio praktikoa .....	221
8.5.	Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua .....	231
8.6.	Barrualdi-zentroei buruzko ebaluaketa .....	236
<b>VIII. ATALA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA .....</b>		<b>291</b>
1.	Hezkuntza .....	293
2.	Osasun Mentaleko Zerbitzuak .....	298
3.	Gizarte Zerbitzuak .....	299

<b>IX. ATALA: NEURRIEN KONTROLA ETA EBALUAZIOA .....</b>	<b>301</b>
1. Neurrien betekizun mailaren kontrola .....	303
2. Zerbitzuen ebaluaketa .....	306
<b>HIRUGARREN ZATIA: LABURBILKETA ETA GOMENDIOAK ..</b>	<b>307</b>
<b>X. ATALA: LABURBILKETA .....</b>	<b>309</b>
1. Sarrera: helburua, esparrua eta metodologia .....	311
2. Marko teorikoa eta marko juridikoa .....	311
3. Zerbitzu sarea eta atenditutako populazioa .....	313
4. Prozedurak .....	315
5. Neurriak ezartzeko bideak .....	317
6. Konponbideen azterketa .....	318
7. Erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana .....	323
8. Neurrien kontrola eta ebaluaketa .....	324
<b>XI. ATALA: GOMENDIOAK .....</b>	<b>325</b>
Esparru teorikoa, esparru juridikoa eta eskuduntza banaketa .....	327
Zerbitzu sarea .....	328
Atenditutako populazioa .....	330
Prozedurak .....	331
Neurriak ezartzeko bideak .....	332
Erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana .....	336
Zerbitzuen kontrola eta ebaluaketa .....	338
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>339</b>

**TAULEN AURKIBIDEA**  
**ETA**  
**GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

# TAULEN AURKIBIDEA

<b>1. taula</b>	
Espediente kopurua, inplikaturako adin txikikoen kopurua eta dagozkien neurriak (1996 eta 1997ko lehen seihilabetekoa) .....	35
<b>2. taula</b>	
Agintari administratiboei egindako igorpenaren eta erabakitako neurriaren araberrako espediente sailkapena .....	38
<b>3. taula</b>	
Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegiari atxikitako Talde Teknikoa .....	82
<b>4. taula</b>	
Bilboko Adin Txikikoen Epaitegiari atxikitako Talde Teknikoa .....	83
<b>5. taula</b>	
Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiari atxikitako Talde Teknikoa .....	83
<b>6. taula</b>	
Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Sailaren pertsonala - Gazteentzako Justizia Zerbitzua .....	85
<b>7. taula</b>	
Arabako Foru Aldundiko Haur, Gazteria eta Familia Zerbitzuko pertsonala .....	88
<b>8. taula</b>	
IPACEko pertsonala - Instituto de Psicología Aplicada Clínica y Empresarial .....	89
<b>9. taula</b>	
Gurutze Gorriko pertsonala - Gazteria Zerbitzua .....	90

<b>10. taula</b>	
Adin Txikikoen Fiskaltzetan artxibatutako eta hasitako espedienteak (1996 eta 1997 urteak) .....	93
<b>11. taula</b>	
Hasitako espedienteak eta inplikaturako Adin Txikiko lege-hausleen kopurua (1996 eta 1997ko lehen seihilabetekoa) .....	94
<b>12. taula</b>	
Adin Txikikoen Epaitegietan hasitako espedienteetan partaide diren adin penal txikiko pertsonak, 16 urtez beheko populazioari buruz .....	95
<b>13. taula</b>	
Espedienteetan inplikaturako pertsona kopuruaren arabera aztertutako espedienteak .....	97
<b>14. taula</b>	
Hasitako espedienteetan aplikaturako neurrien sailkapena (1996 eta 1997ko lehen seihilabetekoa) .....	101
<b>15. taula</b>	
Espediente laginetan agertzen den arau-haustearen arabera aplikaturako neurriak .....	103
<b>16. taula</b>	
Talde teknikoek 1996an eta 1997an egindako txostenen kopurua .....	127
<b>17. taula</b>	
Neurriak eta ondorioak. 1996 urtea .....	146
<b>18. taula</b>	
Neurriak, bitartekotzak eta ondorioak. 1997 urtea .....	146
<b>19. taula</b>	
Proporzioa neurrien aplikazioan (1996 eta 1997ko lehen seihilabetekoa) .....	148
<b>20. taula</b>	
Lantalde Teknikoek atenditutako kasuak. 1997 urtea .....	157
<b>21. taula</b>	
Ingurune irekiko neurrietan atenditutako kasuen kopurua langileko .....	158

<b>22. taula</b>	
Adin txikiko lege-hausleentzako heziketa zentroak Euskal Autonomia Erkidegoan .....	238
<b>23. taula</b>	
Ebaluatutako heziketa zentroetako adin txikiko lege-hausleak .....	239
<b>24. taula</b>	
Adin txikiko lege-hausleentzako heziketa zentroetako langileak .....	241

# GRAFIKOEN AURKIBIDEA

<b>1. grafikoa</b>	
Aztertutako espedienteetan inplikaturako adin txikikoen adina .....	98
<b>2. grafikoa</b>	
Adin Txikikoen Epaitegietan aplikaturako prozedura .....	113
<b>3. grafikoa</b>	
Atestatu poliziala egiten denetik Fiskaltza eskudunean sartu arteko eskuhartze epeak - Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa .....	117
<b>4. grafikoa</b>	
Atestatu poliziala egiten denetik Fiskaltza eskudunean sartu arteko eskuhartze epeak - EAE .....	119
<b>5. grafikoa</b>	
Eskuhartzeko epea Fiskaltzan sartzeko erregistratzen denetik espedientea Adin Txikikoen Epaitegira eramaten den artean - Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoa .....	131
<b>6. grafikoa</b>	
Eskuhartzeko epea Fiskaltzan sartzeko erregistratzen denetik espedientea Adin Txikikoen Epaitegira eramaten den artean - EAE .....	132
<b>7. grafikoa</b>	
Eskuhartzeko epeak espedientea Epaitegira eraman eta ebazten den artean - Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa .....	137
<b>8. grafikoa</b>	
Eskuhartzeko epeak espedientea Epaitegira eraman eta ebazten den artean - EAE .....	139
<b>9. grafikoa</b>	
Ingurune irekia eta barrualdia (1996 eta 1997ko lehen seihilabetea) .....	149

<b>10. grafikoa</b>	
Eskuhartzearen epeak, ebazpenak indarra hartzen duenetik betearazpena hasi arte - EAE .....	150
<b>11. grafikoa</b>	
Eskuhartzearen epeak ebazpenetik betearazpena hasi arte - Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa .....	151
<b>12. grafikoa</b>	
Bitartekotzak eta neurriak. 1997. urtea .....	168
<b>13. grafikoa</b>	
Ohartarazpen neurriak aplikatutako neurrien baitan (1996 eta 1997ko lehen seihilabetea) .....	176
<b>14. grafikoa</b>	
Erabakitako neurri guztien aldean ezarritako zaintzapeko askatasun neurriak (1996 eta 1997ko lehen seihilabetea) .....	188
<b>15. grafikoa</b>	
Komunitatearen onurarako zerbitzuak emateko neurriak neurrien multzoaren arabera (1996 eta 1997ko lehen seihilabetea) .....	209
<b>16. grafikoa</b>	
Barruratzeko neurriak neurrien multzo osoaren arabera (1996 eta 1997ko lehen seihilabetea) .....	220



# **AURKEZPENA**

- \* **Txosten berezi honetan, adin txikiko lege-hausleei dagokienez EAEn erakunde desberdinek daukaten eskuhartzea aztertzen da.** Beraz, gure Erkidegoan arrisku egoera berezian dagoen 12 eta 16 urte arteko kolektiboari erakundeetatik eskaintzen zaion erantzuna deskribatu eta baloratzen da bertan. Eta, noski, hobekuntza proposamen edo gomendio multzo bat ematen da eskuhartze horiek hobetzen joateko.

Aurreko txosten berezien bidetik doa oraingo Arartekoaren txosten monografiko hau ere; besteetan kolektibo bereziki ahulen egoera aztertu da (atxilotuak, espetxeratuak, gaixoak, zaharrak...). Neurri batean, babesik gabeko egoeran dauden adin txikikoen egoera aztertu zuen aurreko txosten bereziaren osagarri izan nahi du oraingo honek.

Txosten hau, **esanahi bereziko eta ikusminez betetako egoera berezi batean aurkezten da.** Horrela:

- 1996ko urtarrila geroztik, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak bere gain hartua du neurriak ezartzeko erantzukizuna, eta horrela, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan aspaldiko urteetan bizi izandako egoera kezkarri bat gainditzen da. Erantzukizun hori gauzatzeko, berriki (1998ko otsailean), Adin Txikikoen Auzitegiek Hartutako Neurriak Exekutatzeko Plan bat onartu da, eta gure Erkidegoko beharretarako barrualdi-zentroen sarea (Andollu, Aramaio, Ortuella, Zumarraga) osatuko duten obra ezberdinak martxan jarri dira.
- Bestalde, 1995eko Kode Penalak adin penala 16 urtetik 18ra igo zuen, baina, aldi berean, agindu hori indarrean sartzeko epea gaia arautuko duen lege berezi bat onartu arte atzeratzea ere erabaki zuen. Lege hori ez da oraindik onartu; aurreproiektu bat badago, eta ezbairik gabe adin txikikoekin lana egiten duten zerbitzuen eskuhartzea gehitzea ekarriko du.

Ikus daitekeen bezala, **txostenak hiru atal berezitu dauzka:**

- **Lehenengoan**, adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartze sistema aztertzen da bere osotasunean: bere aspektu teorikoak eta praktikoak, zerbitzu-sarearen osakera eta atenditutakoen ezaugarriak, poliziak kasuak detektatu

eta neurriak hartzen diren bitartean eskuhartzean jarraitzen diren prozedurak, etabar. Azken gaiari dagokionez, prozedurak deskribatzeko eta baloratzeko ehun espediente judizialek gora aztertu dira.

- **Bigarreanean**, legeak aurrikusten dituen neurriak banan-banan aztertzen dira: horien izaera, zenbateko sarritasunarekin ezartzen diren, dauden bitartekoak eta zein eperekin burutzen diren, etorkizunari begira, etabar. Kasuen deskribapen eta azterketaren bidez, egun dauden aukera guztiak erreparasatzen dira:
  - Bitartekaritzak.
  - Ingurune irekian ezarri daitezkeen neurriak (zaintzapeko askatasuna, harrera, edo komunitatearen onurarako zerbitzuak egitea).
  - Barrualdi-neurriak (gure Erkidegoan dauden hiru zentroyen ebaluaketa-rekin).
- **Hirugarrenean**, ondorioak ateratzen dira. Txostenaren laburpenaren ondoren, bertan Arartekoak gai honetan erantzukizuna daukaten erakundeei egiten dizkien gomendioak jasotzen dira. Eta gomendioak, aztertutako gaien ingurukoak dira eta horietan hobekuntzak sartzea proposatzen da: prozedurak, zerbitzuen sarea, erakundeen arteko lankidetzak, zerbitzuen ebaluaketa...

Aztertu den gai honetan zuzenean erantzukizuna daukan erakundeetako bat Justizia Administrazioa da, eta zehazkiago Adin Txikikoen Auzitegiak eta Fiskaltzak, horiei dagokielako neurriak hartzea. Sistema judizialaren ardurapeko gaietan Arartekoak eskuhartzeko legeak ezartzen dituen mugen ondorioz, txostenean sekula ez da baloratzen hartutako neurriak egokiak edo desegokiak ote diren; baina, aztertzen den gaia kontuan izanik, organo judizialek beraiek eskainitako justiziaren praktikari buruzko datu adierazgarri batzuk bai bildu eta deskribatzen dira.

Bestalde, txostena argitaratu baino lehen eta ahalik eta zorrotasun handienarekin jokatu nahirik, txostenaren zirriborua adin txikikoen erreformarekin zerikusia daukaten erakunde guztiei eskuratu zaie: Adin Txikikoen Auzitegiei, Adin Txikikoen Fiskaltzei, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordeari eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailari. Bestalde, txostenean aztertzen diren hiru barrualdi-zentroyei ere eskuratu zaie, bakoitzari dagokion parteak bidaliz.

- \* Aurkezpen honetan, irakurleak txostenean aurkituko dituen **zenbait aspektu azpimarratu nahi ditut, ikuspegi bermatzaitetik oso bereziki kezkatzen nautelako:**

## **1. Legeak iragarri eta heziketa eta sozializazio helburuak lortzeko aukera handiak eskaintzen dituzten neurri batzuk oso gutxi erabiltzen dira.**

Legeak, adin txikiko lege-hausleei ezartzeko bitarteko eta neurri asko iragartzen ditu:

- bitartekaritza;
- erazarpena;
- asteburu batetik hiru asteburu arteko barrualdia;
- zaintzapeko askatasuna;
- beste pertsona batek edo familia gune batek eman diezaiokeen harrera;
- komunitatearen onurarako zerbitzuak egitea;
- tratamendu ambulatorioa;
- barrualdia;

Auzitegiek eskuratu eta txostenean jasotzen diren datuek erakusten dutenez, ordea, errealitatea ez da hain anitza: neurri batzuk asko erabiltzen dira, eta, beste batzuk, berriz, aukera asko eskaintzen dituzten arren, apenas batere ez.

Batzuetan, badirudi zenbait neurri ez ezartzeko dagoen arrazoia, neurri horiek behar bezala exekutatzeko bitarteko gabezia dela. Hori horrela balitz, legearen izpiritua perbertitzen arituko lirateke. Horrela, ez da ahaztu behar nolako arriskua egon daitekeen laster asko zabalduko diren barrualdi-zentroak neurririk gabe erabili eta ingurune irekian ezar daitezkeen beste neurri batzuk baliabide gutxi daudelako urriago erabiltzearen ondorioz.

## **2. Sarritan, egintzen eta neurrien ezarpenaren artean denbora gehiegi igarotzen da.**

Ikuspegi pedagogikotik, eta ez dugu ahaztu behar 12 eta 16 urte arteko nerabeetaz hitz egiten ari garela, inork ez du zalantzatan jartzen egintza salagarriei ahalik eta lasterren erantzun behar zaiela. Berehalakotasunak aukera ematen dio adin txikikoari bi elementuak erlazionatzeko, gizartearen erantzuna bera jarduerarekin errazago lotzeko, eta era horretan errazago egiten da bere jardueraren kargu.

Txostenak erakusten duenez gero, egintzen eta neurrien artean sarritan denbora gehiegi igarotzen da. Batzuetan, beharrezkoa da egintzen eta neurriak ezartzearen arteko denbora murriztea; beste batzuetan neurriak ezarri eta horiek gauzatzeko hasi arteko denbora murriztu behar da, organo judizialen eta neurriak indarrean jartzen dituzten administrazioen arteko

koordinazioa hobetu behar da, prozedurak errebisatu edo bitartekoak alde aurretik iragarri behar dira...

**3. Gaur egun dagoen behin-behinekotasun egoera gaindituko duen legedirik ez dago.**

Mila bederatziehun eta laurogeita hamabosteko Kode Penalaren onarketak adin penalerako muga 18 urtetan finkatu, eta adin txikiko lege-hausleei dagokien araudia 18 eta 21 urte arteko gazteei ezartzeko aukera ematen du. Aurrikuspen horiek, ordea, ezin dira indarrean sartu, eskuhartze hori breziki arautuko duen estatu mailako araudia onartu eta indarrean sartu arte. Eta araudi horren beharra larria eta igaro den denbora luzea den arren, oraindik onartu gabe dago.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak arau mailan dagokion eskuduntzaz baliatu behar du eta zerbitzua hobetzeko zenbait gai arautu beharra dauka, hala nola ondorengo gaitetan: neurriak ezartzen dituzten zentro eta zerbitzuek bete beharreko baldintzak, zerbitzu horien kontrolerako mekanismoak, neurriak erabakitzen dituzten organo judizialen eta indarrean jartzen dituzten administrazioen arteko koordinaziorako sistemak...

**4. Adin txikiko hauei ematen zaien erantzunean ohiko sistemek daukaten implikazioa txikia da.**

Garbi dago adin txikiko pertsona hauekin, hala delitu-egintzak burutu aurretik, nola neurriak indarrean jarri baino lehen edo ondoren, zerbitzu desberdinek (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, poliziak...) prebentzional handia egin dezaketela. Baina, garbi dago ohiko sareek, baita neurriak indarrean jarrita dauden denboran ere, abantaila izugarriak eskaintzen dituztela.

Horrela, derrigorrezko aroan ohiko hezkuntz sistematik kanpo eskolaratzea bezalako egoera batzuk berehala zuzendu behar dira.

**5. Hiru lurraldeen artean praktika judizialari dagokionez desberdintasunak nabari dira.**

Adin txikikoen Auzitegi bakoitzak, noski, eskuduntza osoak dauzka ezarritako marko juridikoaren barruan epaitutako kasuei egokienak iruditzen zaizkion neurriak ezartzeko.

Normala da, beraz, auzitegien artean desberdintasunak egotea. Baina, txostenean jaso diren datuen arabera, aldeak oso nabariak dira gai garrantzitsu batzuetan, esate baterako eskuhartze tasetan, bitartekaritza

eta neurrien arteko proportzioan, neurri desberdinen ezarketa-sarritasunetan, hartutako neurri guztien artean ingurune irekira bideratutakoetan, etabar.

Erakunde judizialen askatasuna osoki errespetatzen badugu ere, erakunde honek datu hauek helburu honekin ematen ditu: talde judizialek beraiek bidezkoa ikusten badute desberdintasun horien arrazoiak azter ditzaten.

## 6. **Pertsona horien eskubideak bermatzeari dagokionez gabeziak ikusi dira.**

Ikuspegi bermatzaile batetik, eta hori da Arartekoari dagokiona, txosteneko zenbait datu kezkarriak dira, adin txikiko pertsona horiek giza eskubideetaz guztiz baliatzeko arrisku objektiboa edo ezintasuna erakusten dutelako. Eta hori erakusten dute ondorengo datuek:

- polizia egoitzetan pertsona horiek jasan behar izan dituzten baldintzak;
- adin txikikoei ez zaie informaziorik eman edo hizkuntza ulergaitza erabili dute beraiekin;
- prozeduretan, abokatuaren irudiariez da zehataztasunez azaldu;
- zerbitzuen kontrol eta ebaluaketarako sistemarik ez dago; autoebaluaketa baino ez dago;
- kexa edo erreklamazio mekanismoetan gabeziak daude;
- kontentzio-moduloen erabilera posiblea gehienez 15 egunera arte luzatzen da...

Begibistakoa denez gero, txosten honetan egiten diren 45 gomendioetatik gehienak hain zuzen aipatu diren arazo horiek konpontzera bideratuta daude. Ararteko erakundeak eragindako zerbitzu edo sail guztiei helaraziko dizkio gomendio horiek, eta, ondoren, jarraipen lana egingo du zenbateraino onartu eta bete diren ezagutzeko.

\* Aurkezpenarekin amaitzeko, **txosten hau egiteko lanean aritu eta lankidetzaz eskaini duten pertsona eta erakundeei eskerrak eman nahi dizkiet**, eta bereziki ondorengoei:

- SIIS Dokumentazio eta Ikasketa Zentroari, bere esku egon baita txostenaren diseinua eta osaketa;
- Adin Txikikoen Auzitegiei, Adin Txikikoen Fiskaltzei, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordeari eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailari, beharrezko datuak eta dokumentazioa eskura jarri eta txostenaren zirriborroari zenbait zehaztasun egin dizkietelako, eta baita Eusko

Jaurlaritzako Barne Saileko langileei ere, beraien informazioarekin parte hartu dutelako;

- gure Erkidegoan dauden hiru barrualdi-zentroetako profesionalei (Andollu, Aramaio eta Ortuella) eta erabiltzaileei, azken hilabeteetan beraiekin lanean aritu garelako;
- nerabeei eta horien familiarteko eta hezitzaileei, kasuen azterketan parte hartzeko prest egon direlako;
- txostenaren errebisio eta argitalpen lanetan aritu diren Ararteko erakundeko langileei.

Espero dut etorkizun hurbilean hemen jasotzen diren ikusminak eta proposamenak egia bihurtzen joatea, eta horien bidez adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartzea modu eraginkorrean hobetzea.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko ekainak 5

**Xabier Markiegi Candina**

**ARARTEKOA**

**SARRERA**



## **1. HELBURUA**

Txosten honetan adin txikiko lege-hausleei buruzko eskuhartze sistema aztertzen da. Horretarako, esparru honetan erakundeek daramaten eskuhartzea deskribatu eta baloratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan, beti ere.

Lehendabiziko zatian, prozedura hasten denetik bukatzen den arteko jokamoldea aztertzen da, hau da, arau-haustea antzematen denetik nola jokatzeko duen agintari judizial eskudunak, hala egokitze-kotan, dagokion neurria ezartzen duen arte. Halaber, laburki bada ere, Europako gaur egungo joerak gazteentzako justiziaren alorrean zeintzuk diren agertzen dira; azaltzen da zein den, egun, legeetan eta eskumenetan indarrean dagoen markoa, eta, deskribatzen dira Fiskaltzak eta Adin Txikikoen Epaitegiek jokabide arau-hausteen erabakimenean, eta, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak neurrien betearazpenan, aplikatutako prozedura mailako jokabideak, osaketa eta funtzionamendua.

Bigarren zatian, hartutako neurriak eta horien betearazpena aztertzen dira. Era berean, adiskidetze-erreparazioa aztertzen da, eta, neurri hori «bitartekaritza» hitzaren bidez agertzen da. Auzitaratzearen aurreko bidea da, liskarren konponbiderako.

Azterketa honen helburu nagusia errealitatea ezagutzeko da, modu horretan gauza onak antzeman eta zabaltzeko, eta disfuntzioak ikusten diren alderdietan neurriak proposatzeko. Horretarako, nazioarteko testuetan eta Europako ikerketarik berrienetan agertu eta gomendatzen diren printzipioak eta jarduketak aintzat hartu dira. Xedea ez da, inolaz ere, oraindik antzeman ez diren arrisku egoerak identifikatzea, ezta adin txikikoek egiten dituzten arau-hausteen etiologia eta ezaugarriak aztertzea ere. Era berean, ez da iritzirik ematen hartutako neurriak kasuen inguruabarretara egokitzen ote diren, hori eskuduntza judizialari baitagokio.

## **2. ESPARRUA**

Gaur egun, Adin Txikikoen Epaitegien eskumenekoak diren jokamoldeen egileenganako, hau da, lege-hausleenganako eskuhartze-sistemara mugatu da ikerketa honen esparrua, Adin Txikikoen Epaitegien Eskuduntzaren eta

Prozeduraren Lege Arautzailearen erreformaren gainean<sup>1</sup>, ekainaren 5eko, 4/1992 Lege Organikoak aurrikusten duen moduan, beti ere. Esan nahi baita, 12 eta 15 urte bitarteko pertsoneri dagokiela, biak barne. 16 urtez gaineko eta 18 urtez beheko pertsonenganako eskuhartzeak oraindik ere Argibide Epaitegiei eta Penaleko Epaitegiei dagokie, nahiz eta adin horretan daudenak AdinTxikikoen jurisdikzioan sartzea aurreikusita dagoen Kode Penalaren<sup>2</sup> 19. artikuluan.

### **3. METODOLOGIA**

Gauzak argi azaltzeko asmoz ikerketaren bide metodologiko nagusiak zehazten dira, txostenaren bi zatiak nabarmenduz.

#### **3.1. Adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartze-sistemaren azterketan aplikatutako metodologia**

Sistemaren azterketa osoa ondoko osagaiotan oinarritu da:

- a) Alor honi dagokion estatu eta nazioarte mailako agiri berrienen eta garrantzizkoenen azterketa.
- b) Lurralde Historiko bakoitzeko Adin Txikikoen Fiskaltzek eta Epaitegiek, -eskudunak baitira alor honetan-, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Haur, Gazteria eta Familiako Lurralde Zerbitzuak emandako agiriak, hala nola, zuzenean edo zeharka, adin txikiko lege-hausleen atentzioan erakunde horiekin batera parte hartzen ari diren beste zerbitzu batzuek emandakoak.
- c) Elkarrizketak. Elkarrizketatuak ondoko hauek izan dira:
  - Adin Txikikoen Fiskalak;
  - Adin Txikikoen Epaileak;
  - Adin Txikikoen Epaitegiei atxikitako Talde Teknikoetako profesionalak;
  - Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzako arduraduna, eta baita Zuzendaritza horri atxikitako teknikariak eta profesionalak ere;
  - Arabako Gizarte Ongizate Foru Erakundearen Haur, Gazteria eta Familia Zerbitzu Burua, Nerabeentzako Laguntza Hezigarrirako

---

<sup>1</sup> 1992ko ekainaren 11ko EBO.

<sup>2</sup> 1995eko azaroaren 24ko EBO.

- egitarauaren arduradun tekniko eta programa horretan neurrien aplikazioan laguntzaile diren entitateetako profesionalak;
- Eusko Jaurlaritzako Seguritate Kontseilariordetzako talde teknikoan dauden profesionalak eta Bizkaia Ertzaintzaren Hiritar Seguritateko Lurralde Burua;
  - Arrazoi hau edo hura dela medio esku artean darabilgun alor honetan eskuduntza zuzena ez badute ere, Gazteentzako Justizia sistemarekin zerikusia duten beste erakunde batzuetako profesionalak.

d) 1996an eta 1997ko lehen sei hilabetekoan hasitako 651 espediente judizialeetatik 102 aztertu dira, eta aukeraketa hori erabakitako neurrien arabera egin da. Hiru Adin Txikikoen Epaitegien jarduketara judizialak ezberdinak dira, eta, horrexegatik, 1. taulan ikusten den moduan, erabakitako neurriak ez datoz bat proportzio berean, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hasitako espediente kopuruarekin eta inplikaturako Adin txikikoen kopuruarekin. Era berean, ez datoz euren artean bat hartutako neurrien maiztasunari dagokionean, 2. taulak agertzen duen bezala.

### **1 TAULA: ESPEDIENTE KOPURUA, INPLIKATURAKO ADIN TXIKIKOEN KOPURUA ETA DAGOZKIEN NEURRIAK (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetekoa)**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Gasteizko		Bilboko		Donostiako			
	Adin Txikikoen Epaitegia		Adin Txikikoen Epaitegia		Adin Txikikoen Epaitegia			
	1996	1997	1996	1997	1996	1997	1996	1997
	(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)	
Hasitako espediente kopurua	101	43	213	100	125	69	439	212
Adin Txikikoak	191	60	330	142	230	97	751	299
Erabakitako neurri kopurua	100	57	154	83	42	8	296	148
Agintari administratiboei igorpen kopurua	4	5	1	4	-	-	5	9

Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Elaborazioa SIOS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Ezberdintasun horiek direla eta, zaila da, Lurraldez Lurralde, neurri mota bakoitzari dagozkion proportzioak erakusten dituen espedienteen lagin bat aukeratzea, eta, aldi berean, espediente horien arteko alderaketa egitea. Horren ondorioz, ezarritako neurri bakoitza aztertu da, jakinda ere, zenbait kasutan, aukeraketa horrek laginaren adierazgarritasuna murrizten duela. Izan ere, nabaria da neurri batzuen gainadierazgarritasuna, eta, beste batzuen azpiadierazgarritasuna. Komenigarria da beste gauza hau ere gogoan hartzea: erabakitako neurriek

banakako tankera badute ere, neurrien arabera aukeratutako espedienteek lege-hausle bat edo batzuk har ditzakete euren baitan, eta, horrek ere distortsioa areagotzen du. Hortaz, lege-hausle horien guztiengan egindako eskuhartzeak aztertzea erabaki da.

Bestalde, neurritz neurri aukeratutako espedientei babesaren alorrean eskudun diren administrazioei igorritako kasuen espedienteak gehitu zaizkie. Ez da aukeratu, ordea, bitartekaritza kasurik, espediente horiek, duela gutxi arte, ez dutelako adiskidetzeko prozedurari buruzko informazio idatzirik izan. Dena dela, aipatutako hutsune hori betetzen saiatu da izaera horretako kasu baten azterketaren bitartez, eta hori ikerketaren bigarren zatian egin da.

Azaldutako irizpideen aplikazioaren arabera kasuen aukeraketak, beraz, ez du lagin tankerarik. Hala ere, aukeraketa horrek balio dezake prozeduraren bidearen lerro nagusiak zertan diren erakusteko.

Espedienteen azterketan lortutako datuak ondoko berezitasunoi jarraikiz hartu behar dira aintzat:

- Gaur egun, instrukzioaldian, ez da pertsonako espediente-batasunaren printzipioa aplikatzen, baizik eta arau-haustetzat jo daitekeen egintza bakoitzeko espedientearen printzipioa hartzen da kontuan. Beraz, aztertutako espediente bakoitzak bere baitan biltzen du tankera horretako egintza bat, eta egintza horretan partaide izan daitezke adin txikikoa bat edo batzuk. Neurriek, aldiz, banakako izaera dute eta gisa horretan ere ulertu behar dira neurri horiek adierazten dituzten zenbakiak.
- Espediente batzuetan, zenbait auzi pilatu egiten dira. Izan ere, adin txikikoa berberak, denbora labur laburrean, tankera bereko zenbait egintzatan parte hartzen duenean, komenigarritzat jotzen da prozeduren ugaritasuna sailhestea.
- Espediente judizialen kontsulta egiterakoan, gauzak ez dira berdin gertatu hiru Lurralde Historikoetan. Izan ere, Arabako eta Gipuzkoako Epaitegietan ikerketa taldeak aukera izan du espedienteak bere kabuz kontsultatzeko, aintzat hartu baitute Ararteko erakundeak men egiten diola isilpeko informazioa gordetzeari<sup>3</sup>. Bizkaiako Epaitegian, ordea, Epaitegiko Idazkariaren iritzia du ez zela posible baimena ematea talde horrek informazioan sarbide zuzena izan zezan. Beraz, Epaitegi honi

---

<sup>3</sup> Adin Txikikoen Justiziaren Lege Organiko arautzailearen Aurreproiektuak, 1997ko bertsioan, neurriaren betearazpenaren pean dagoen pertsonaren espediente pertsonalari buruz ari denean, bere 48. artikuluan aurreikusten du, «Herriaren Defendatzaileak edo dagokion Erkidego Autonomoko maila bereko erakundeak» sarbidea izango dutela. Artikuluak ikerketen prestaketa aipatzen ez badu ere, begi bistakoa dirudi kontsiderazio hori oinarritzen duela hiritarraren eskubideen defentsaren eginkizunean Administrazioen aurka.

dagozkion espedienteen azterketa zeharka egin da. Horretarako, aukeratutako espediente bakoitzari buruzko zenbait aldaeraren gaineko informazioa, hitzez eskatu eta, idatziz bildu da, Epaitegiko Idazkariak delako espedienteak ikusi ondoren, hitzez ere, emandako informazioaren edukia. Agerian dauden arazoak direla medio, kasu horietan eskuratutako ezagutza ez da kualitatiboki konparagarria Araban eta Gipuzkoan aztertutako espedienteen kontsultan eskuratutakoarekin.

**2. TAULA: AGINTARI ADMINISTRATIBOEI EGINDAKO  
IGORPENAREN ETA ERABAKITAKO NEURRIAREN ARABERAKO  
ESPEDIENTE SAILKAPENA <sup>(1)</sup>**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegia	Aukeratutako lagina	Bilboko Adin Txikikoen Epaitegia	Aukeratutako lagina	Donostiako Adin Txikikoen Epaitegia	Aukeratutako lagina	Guztira	Aukeratutako lagina
	166	36	242	36	50	30	458	102
<b>Erakunde administratiboen esku uztea</b>	9	1	5	1	0	0	14	2
<b>Ohartarazpena</b>	36	9	146	9	25	9	207	27
<b>Asteburu bat eta hiruen arteko barruraztea</b>	3	1	5	1	0	0	8	2
<b>Zaintzapeko askatasuna</b>	42	8	20	8	12	8	74	24
<b>Beste pertsona edo familia batek bere gain hartzea</b>	1	1	0	0	0	0	1	1
<b>Ziklomotoreak edo ibilgailu motordunak gidatzeko eskubidea kentzea</b>	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Zerbitzuak egitea erkidegoaren onerako</b>	34	7	29	7	7	7	70	21
<b>Tratamendu ambulatorioa edo tankera terapeutikoko zentroan barruraztea</b>	5	1	1	0 <sup>4</sup>	0	0	6	1
<b>Zentroan barruraztea erregimen irekian</b>	6 <sup>2</sup>	1	3	3	1	1	10	5
<b>Zentroan barruraztea erregimen erdi irekian</b>	27 <sup>3</sup>	4	30	4	2	2	59	10
<b>Zentroan barruraztea erregimen itxian</b>	3	3	3	3	3	3	9	9

Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Egilea: SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

<sup>1</sup> 1996 urteari eta 1997ko lehen sei hilabetekoari dagozkio.

<sup>2</sup> 5 betetzen ari dira zaintzapeko askatasun baldintzatuan. Baldintza da ez dutela deliturik egin behar neurriaren iraupenaldian eta ez dute jokabide makurra agertu behar.

<sup>3</sup> 5 betetzen ari dira zaintzapeko askatasun baldintzatuan. Baldintza da ez dutela deliturik egin behar neurriaren iraupenaldian eta ez dute jokabide makurra agertu behar.

<sup>4</sup> Ez dugu sarbiderik izan espediente honen edukian, Epaitegiko Idazkaritzak uste izan baitu kasuaren ezaugarriek hori eragozten zutela.

### **3.2. Adin Txikikoen Epaileek erabakitako neurrien betearazpenaren azterketarako aplikatutako metodologia**

Ondoko metodologiabideak aplikatu dira:

a) Azken urteotan, gure inguru sozio-kulturaleko beste herrialde batzuetan gauzatu diren ikerketa teorikoei eta enpirikoei dagozkien estatu eta nazioarte mailako agirien azterketa. Era horretan, ezarritako neurri bakoitzari buruzko deskribapena egin ahal izan da:

- ohartarazpena;
- asteburu bat eta hiru asteburuaren arteko barruratzeara;
- zaintzapeko askatasuna;
- beste pertsona batek edo familia batek bere gain hartzea;
- zerbitzuak egitea erkidegoaren onerako;
- tratamendu ambulatorioa edo tankera terapeutikoko zentroan barruratzeara;
- zentroan barruratzeara erregimen irekian;
- zentroan barruratzeara erregimen erdi irekian;
- zentroan barruratzeara erregimen itxian.

Azterketatik kanpo utzi da ziklomotoreak edo ibilgailu motordunak gidatzeko eskubidea kentzea, ez baita neurri hori gaur egun aplikatzen<sup>4</sup>. Sartu da, ordea, adiskidetze-erreparazioaren azterketa. Izan ere, neurri honek kasua bide judizialek ateratzeko modua dakarren heinean, eta liskarrak konpontzeko bide alternatiboa den heinean, ikusi nahi izan da zein den bere eduki zehatza, nola aplikatzen den eta zein den bere eraginkortasunaren maila.

b) Agirien ikerketan oinarriturik, kasuen azterketaren aukeraketari heldu zaio. Esan nahi baita, neurri baten aplikazioa aztertu da neurri horretan, zuzenean edo zeharka, modu aktiboan edo pasiboan, parte hartzen duten pertsonen ikuspuntutik. Hauexek dira: Adin txikikoa, bere legezko ordezkariak, dagokion Adin Txikikoen Epaitegian kasuarekin lotura handiagoa izan duten pertsonak, neurriaren betearazpenaren ardura-dunak, eta neurri horretan parte hartu duten beste gizarte-agente batzuk edota neurriaren akaberan esku hartu dutenak. Neurriaren betearazpenaldia aztertu da bereziki. Hala ere, egoki iritzi zaio, marko horretan,

---

<sup>4</sup> Estatuko Fiskal Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak dio 4/92 Legean bildutako neurria aldeaz aurreko gabetze gisa hartu behar dela, espektatiba gisa, ez baita oraindik eskubidea sortua.

pertsona horiek prozedura osoan izan duten esperientzia ere aztertzeari. Modu horretan, informazio osagarria lortu da, txostenaren lehendabiziko zatiaren aberasgarri gertatu dena. Horretarako, aztertutako kasu bakoitzari koadro bat gehitu zaio. Koadro horretan biltzen dira elkarrizketatuen iruzkinik esanguratsuenak, eta, era berean, adierazten da, elkarrizketatu horiek iritzi ona edo txarra agertzen ote duten; helburua denez bizi behar izan dituzten egoeren gaineko euren esperientzia eta oharmena ezagutzea, ekiditen da ikerketa taldearen edozein iritzi islatzea.

Horrela, bada, aipatutako metodo horren bitartez kasu bat aztertu da neurri mota bakoitzeko, salbuespen izanik zaintzapeko askatasunarena. Azken horretan, eskuhartzeko dauden bi sistemak aztertu dira, Eusko Jaurlaritzarena eta Arabako Foru Aldundiarena. Aukeraketak bi irizpide izan ditu oinarrian: batetik, kasua apartekoa ez izatea, eta, bestetik, Adin txikikoaren gaitasun komunikatiboa. Horretan oinarriturik, beraz, Epaitegietakako Talde Teknikoek, Ordezkaritza Teknikoek, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiko Haur Lurralde Zerbitzuak, aukeraketari ekin eta harremanetan sartu dira Adin txikikoarekin eta honen legezko ordezkariekin, ikerketa horretan parte har zezaten proposatuz. Ondoko alderdiok azpimarratu dira, beti ere: borondatezko izaera, neurriarekin inolako loturarik ez izatea, Arartekoaren erabateko askatasuna neurriaren aplikazioan parte hartu duen Adin Txikikoaren Epaitegiaren aurrean eta beste edozein erakundearen aurrean, ikerketaren xedea, eta txostenean Adin txikikoaren identitateari buruzko daturik ez sartzea.

Informazioa ikerketa taldearen esku uzten zen pertsona horien baimena lortutakoan baino ez. Modu horretan kontaktu zuzenak has zitezkeen eta, segidan, beharrezko elkarrizketak antolatu.

- c) Aplikatutako neurrien azterketaren galdetegiaren elaborazioa.
- d) Barrualdi zentroen ikerketarako aukeratu da Erresuma Batuan, maila nazionalean, *-Social Services Inspectorate-*, delako erakundeak aplikatutako ebaluazio kualitatiboboaren sistema, erakunde hori baita ezaugarri horiek dituzten zentroen ebaluazioaz eta ikerketaz arduratzen dena. Eredu hori gure errealitatera egokitu da.

Metodo honek bidea ematen digu jakiteko nolakoa den barruratzeko neurria hartu duten adin txikikoentzat zuzendurik dauden egoitza-zerbitzuen diseinua, antolaketa eta funtzionamendua, bai erregimen irekian, erdi-irekian edo itxian. Ikusi nahi izan da pertsona horien beharrak asetuta ote dauden eta euren eskubideak aintzat hartuta. Hona hemen aztertutako gaiak:



- instalazioak: zerbitzuaren kokapena eta diseinua, eremu amankomuneko eta geletako apainketa eta altzariak, eta seguritate neurriak;
- langilegoa: aukeraketa, plantilaren egokitzapena, profesionalen trebakuntza iraunkorra, gainbegiratzea eta laguntza;
- antolamendua eta kudaketa: antolaketa mailako alderdiak, erregistro administratiboak eta neurrien betearazpenaz arduradun diren agintarien kontrol eta ebaluazio neurriak;
- zerbitzuaren helburuen eta eginkizunen adierazpena;
- barruratutako nerabeek informaziorako, partaidetzarako, pribatutasunerako, konfidentzialitaterako eta erreklamaziorako duten eskubidea;
- nerabeen babesa bermatzeari buruzko neurriak: bisiten kontrola, eta nola jokatu antzematen baldin bada euren eskubideak urratzen dituzten jokaerak gertatzen direla;
- pertsonen arteko harremanak: langile eta nerabeen arteko harreman moldeak, lege-hausleen beraien artekoak, eta elkarbizitzako arauak;
- erabiltzaileen bilakaera onerako bermeak: elikadura, osasuna, heziketa, identitate sozio-kulturala, norberaren itxura, ekitaldiak;
- atentzioaren banan banako programazioa ondoko alderdiotan: barruratzera, kasuaren orientabidea, familiarenganako kontaktuak, kanpoko laguntza profesionala, banan banako egitarau hezigarria, bakoitzari tutorea ematea erreferentziatzko figura profesional gisa, eta irteerarako prestaketa.

Hona hemen metodo hau aplikatzeko egin diren jarduerak:

- barrualdi zentroein dokumentazioa eskatu zaie: nolako antolamendua duten, nolako funtzionamendua. Halaber, langilegoari buruzko datuak eta barruratutako nerabeei dagozkienak;
- zentro bakoitza bi egunez bisitatu da, modu horretan zentroko bizitzaren eguneko jardunaren unerik garrantzikoena ikusi ahal izateko. Zerbitzuko zuzendariari elkarrizketa egin zaio, baita langile batzuei ere, eta zenbait nerabari ere bai<sup>5</sup>, eta, argi adierazi da edozein pertsonak, nahi izanez gero, ebaluatzailearekin pribatua elkarrizketa izan dezakeela;
- dagokion ebaluazio-txostena egin da, oinarrian hartuz eskuratutako dokumentazioa, begi hutsez eskuratutako informazioa eta elkarrizketen bitartez lortutako datuak;

---

<sup>5</sup> Miguel A. Remírez eta Andollu Zentro Hezigarrietan ebaluazio-bisita egin zenean, lege-hausleen kopurua oso txikia zenez, elkarrizketa denei egin zitzaion. Aramaion dagoen zentroari dagokionean, 8 nerabe egonik, 3 elkarrizketatu ziren eta barruratutako gainontzeko gazteei inkesta idatzi laburra banatu zitzaion, nahi izanez gero, izenik eman gabe, zentroari buruzko euren iritzia ager ezatzen.

- zentroen esku utzi dira espreski euren egoerari buruz agertzen diren emaitzak. Modu horretan, txostenean, haiei buruz agertzen diren aipamenen gainean interesatuei egoki irizitako iruzkinak edo azalpenak emateko aukera eskaini zaie.

Ebaluazio honek ikuspuntu kualitatibotik heltzen dio barrualdi zentroen eskaintzaren azterketari, eta, erabiltzaileen eskubideen bermean oinarrituriko ikuspuntu soziologikoa aplikatzen du. Xedea da ikustea zein heinetan egokitzen diren zerbitzu hauetako ezaugarri materialak, funtzionalak eta pertsonalak Epailetzako ebazpenarengatik barruratu behar duten pertsonen beharretara. Beraz, ikerketatik kanpo dago, barruratzeak nerabe bakoitzaren bilakaeran izan duen inpaktuaren azterketa. Era berean, ez da aztertu zein neurritan barruratzea lagungarri gertatu ote den, gertatu baldin bada, neurri hori erakarri duten jokamoldeak gainditzeko. Horretarako beharrezkoa litzateke bilakaerari buruzko azterketa egitea. Hortaz, barruratzearen uneko hasierako diagnostikotik abiatu eta, aldiaren behingo ebaluazioa egin beharko litzateke nerabeak zenbait eskuhartze-alorretan egindako aurrerapenak neurtzeko.

- e) Adin Txikikoen Epaitegiek, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzak, eta Arabako Foru Aldundiko Haur, Gazteria eta Familiako Lurralde Zerbitzuak emandako dokumentazioaren azterketa egin da.
- f) Elkarrizketak ondokoekin:
- Adin Txikikoen Epaitegietako Talde Teknikoekin. Elkarrizketagaia hauxe: adiskidetze-errearazioaren aplikazioa, hori liskarren konponbidea den aldetik;
  - Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzako profesionalekin, eta, Zuzendaritza horren menean egonik, Bilboko eta Donostiako Epaitegietan, tratamendu ambulatorioaz, zaintzapeko askatasunaz eta erkideagoaren onerako zerbitzuen emateaz arduratzen diren Ordezkarri Teknikoekin;
  - Arabako Foru Aldundian, tratamendu ambulatorioaz, zaintzapeko askatasunaz eta erkideagoaren onerako zerbitzuen emateaz ardura duten profesionalekin, hala nola azken bi neurri horien aplikazio efektiboan esku hartzen duten Gurutze Gorriko eta IPACEko (Instituto de Psicología Aplicada Clínica y empresarial) pertsonekin;
  - neurrien exekuzio zuzenerako, zeharka edo zuzenean, esku hartzen duten beste gizarte-agenteeekin (hastapen profesionaleko zentroak, heziketa konpentsatzailerako zentroak, gizarte zerbitzuak, Renfe, e.a).

Txostena egiteko kontsultatu den bibliografia azken eranskinean gehitu da.

Ikerketa taldeak eskerrak eman nahi dizkie lan honetan parte hartu duten pertsona guztiei eta, bereziki, era honetako ikerketen erabilgarritasunaz eszeptikoak zirenei.

**LEHENDABIZIKO ZATIA**

**ADIN TXIKIKO  
LEGE-HAUSLEEKIKO  
ESKUHARTZE-SISTEMA**

**I. ATALA**

**MARKO TEORIKOA**

Izenburua piska bat handizalea da. Izan ere, ez da posible, txosten honen luze zabaleraren baitan, gazteen gaiztagintzari lotutako alderdi oro biltzea. Hau da, ezinezkoa da kriminologiatik eta soziologiatik gaiztagintza molde honen ezaugarriak azaltzen saiatu diren teoria guztien ikuspen osoa eta zehatza ematea, edota bere etiologiaren nondik norakoa, edota zer eta nola jokatu edo eskuhartu behar den azaltzea. Eskuliburu anitzek delako afera horiek aztertu dituzte eta komenigarria da lan horiei lotzea. Beraz, lan honetan, soil-soilik eskaintzen dira berriki estatu zein nazioarte mailako literatura espezialduan plazaratutako argitalpenetan biltzen diren alderdirik azpimarragarrienei buruzko zenbait orientabide.

## **1. LEGE-HAUSLE GAZTEEN POPULAZIOA**

- Badirudi nazioarteko estatistikek haxe islatzen dutela, hots, gora egin dutela agintarien ezagutzaraino iristen diren pertsona gazteek egindako egintza deliktiboek. Estatistika horiekin, ordea, zuhur ibili beharra dago, erregistro judizialeetatik kaleratutako datuak izaten baitira. Eta, erregistro horiek, nahitaez, eskuhartze gehiagoren berri islatzen dute, gazteen gaiztagintzari ematen zaion erantzuna, batez ere, judiziala denean. Azken urteotan mendebaldeko herrialde askotan gazteriaren justiziaren modeluak indartu dira, eta, hori ere zenbakietan islatutako handitzearen atzean dago.
- Dena dela, helduek egindako delituetan gertatzen den bezala, esan daiteke poliziaren edo epaitegien ezagutzara iristen den arau-hausteen kopurua txikiagoa dela benetan gertatzen den arau-hausteen kopurua baino. Horixe diote, behintzat, biktimologiaren alorrean egindako inkesten emaitzek.
- Adin txikikoek egindako egintza deliktibo gehientsuenak ondasun materialen aurkakoak dira.
- Pertsonen aurkako delitu larri larriak, proportzioan, gutxi dira.
- Maiz gertatzen da adin txikikoen aurka egindako arau-hausteeetan, biktima ere adin txikikoa izatea.

- Hona hemen zeintzuk diren arrisku faktoreak:
  - auzunean gaiztagintza maila handia izatea;
  - inpultsibitate eta hiperaktibitate maila handia izatea;
  - adimen maila txikia eta eskolako emaitza txarrak;
  - ez da behar bezalako kontrolik gurasoen aldetik;
  - funtsik gabeko disziplinabide gogorrak;
  - familia barruko gora beherak eta familiaren desegituraketa.
- Ikerketek emaitza kontraesankorrak ekartzen dituzte lege-hausle berberak egindako delituen kopuruari dagokionean. Batzuek diote badela gune gogor bat, Adin txikikoa gutxi osatzen dutena, eta, horiexek direla egintza deliktibo askoren eta askoren arduradunak. Beste batzuek diote, ordea, lege-hausle gazteen artean, asko direla delituen mundura sartu eta atera ibiltzen direnak. Horixe dela gehien gertatzen dena.
- Zenbaki orokorreari erreparatuta, ikusten da neskek mutilak baino askoz ere gutxiago direla. Halere, neska asko ibiltzen da halako tankera zehatz bateko delituetan (saltegi handietan egindako lapurretak bereziki). Maiz askotan, delitu horiek izaten dira itxura pertsonalarekin zer ikusia dutenak (lurrindendako gaiak, kosmetikoak eta arropa).
- Ikusten da jokabide deliktiboaren pilaketa handiagoa gertatzen dela 15 urtetik gora.

## 2. ESKUHARTZEAREN JARRAIBIDEAK

- Alor honi dagokionez, hauexek dira indarrean dauden nazioarteko testuak: bereziki Adin Txikikoen Justiziaren Administrazioarako Beijinggo Arauak (Nazio Batuak - 1985), Askatasuna Kendu dieten Adin Txikikoen Babesarako Arauak (Nazio Batuak - 1990), Europako Kontseiluak Gazteen Gaiztagintzaren gainean egindako Gizarte Erantzunen gaineko Gomendioak (1987) eta Riadeko Arauak Gazteriaren Gaiztagintzari Aurrea hartzeko, (Nazio batuak - 1990). Bada, horiek guztiek eskuhartzearen oinarritzko jarraibideak ezartzen dituzte. Honatx hemen:
  - Prozeduraren zenbait unetan aukeraren printzipioa aplikatzen da. Horrek esan nahi du badela joera hasierako faseetako eskuhartzeak bide judizialek ateratzeko. Horren helburua da, Epaitzakako prozedurak Adin txikikoaren bilakaeran izan dezakeen ondorio samingarria, ahalik eta gehien, mugatzea.
  - Oinarritzko berme prozesalak aintzat hartzea: tipikotasun printzipioa eta defentsarako eskubidea.

- Prozeduran esku hartzen duten instantzien espezializazioa: Epaileak, Fiskalak, Abokatuak, eta Polizia Gorputzak.
  - Inguru komunitarioan aplikagarri diren neurriei lehentasuna eman behar zaie.
  - Uneoro kontutan hartu behar da Adin txikikoaren interesa.
  - Erantzunkizun penalaren adin minimoa ezarri behar da, eta lehentasunez 13 urtetik gorakoa izan behar du. Gauza honetan, batetik bestera, Europako legerietan agertzen den aldea izugarria da. Beraz, ez daiteke estatistika mailako alderaketa fiagarrik egin.
- Gaur egun, mendebaldeko herrialdetan, oinarrizko hiru eskuhartze eredu daude: gazteen justiziaren eredu, babesaren eredu, eta erreparazio eta adiskidetzaren eredu. Azken honi ere justizia errestitutiboa deritze. Lehenak sekulako nagusitasuna dauka. Eta hori gertatzen da, hein batean, eredu horrek modu argiagoan bat egiten duelako nazioarteko testuetan proposatutako printzipioekin, eta, beste hein batean ere, krimen larri bakan batzuk egin izanak sortu duen gizarte erreakzio gogorrarengatik. Alde horretatik, ondoan dihoan taulak islatzen ditu eredu horien funtsen ezaugarri nagusiak eta zer nola funtzionatzen duten. Hala ere, kontutan hartu behar da inon ere ez dela, huts hutsean, eredu bakar bat aplikatzen. Beraz, batzuen eta besteen elementuak aldi berean aplikatzen dira, hori bai, maiz ez oso modu harmonikoan.

## **Gazteen gaiztagintzari emandako erantzunen eredu nagusiak**

### **Gazteen justizia penalaren sistema**

Delitu edo falta sortu duen egintza egiteak esan nahi du oinarrian Estatuaren aurkako delitua edo falta izan dela. Beraz, indarrean dagoen zuzenbidezko antolamenduren urratzea.

Justiziaren sistemari dagokio adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartzea.

Lege-hausleen erantzunkizuna, nahitaez, zigor-tankera duen neurri baten aplikazioari lotuta dago, neurri horren xedea hezigarria izanda ere.

Delituaren egintza bakoitzaren erantzunkizunaren ekintza indibiduala da.

### **Babes sistema**

Delitu edo falta sortu duen egintza egiteak esan nahi du badela subjektuarengan egoera arazotsua.

Jarrera hauen kontrola familiar edo zaintzaileei dagokie.

Erantzunkizuna ez da adin txikiko lege-hauslearengan jartzen.

Delitu edo faltaren egintza egitea zor zaio gizartearen erantzunkizun kolektiboari.

### **Justizia errestitutiboaren sistema**

Delitua sortu duen egintza egitea beste pertsona edo erkidegoaren aurka egindako ekintza da.

Gaiztagintzaren kontrola bereziki oinarritzen da erkidegoaren baitan ezartzen diren erlazioetan.

Egintza egiteagatik erantzunkizuna bakarrik gertatzen da lege-hausleak erantzunkizuna bere gain hartu eta kaltea erreparatzen duenean.

Delitu edo faltaren egintza egitea lepora dakiokela hala erantzunkizun sozialari nola erantzunkizun indibidualari.



### Gazteen justizia penalaren sistema

Zigor neurriak eraginkortzat jotzen dira bi alderdiotan:

- aurrea hartzeko: tankera horretako neurria aplikatua izango delako mehatxuak, lege-hausle potentzialak uzkuritzen ditu egintza deliktiboak egitetik;
- errehabilitatzailea: zigorrak jokabidea aldatzen du.

Biktimik ez dute protagonismo-rik prozeduran.

Lege-hauslearen ezaugarrietan gabeziak agertzen dira, batez ere.

Sistemaren xedea da errua zehaztea.

Prozeduraren izaera kontraesan-korriari ematen zaio garrantzia.

Zehapena zigor gisa eta aurrea hartzeko modu bezala ezartzen da.

Erkidegoak ia ez du eginkizunik.

Neurria datza arau-hauslearen iragandako jokabidean.

Neurriaren betearazpena profesionalen esku uzten da.

Helburua bidezko zigor mereziaren aplikazioa lortzea da.

### Babes sistema

Neurri zigortzaileak ez dira eraginkorrak.

Biktimak prozeduratik kanpo daude.

Lege-hauslearen ezaugarri nagusiak bere gabeziak dira.

Prozedurak arazo pertsonaletan, sozialetan eta familiarretan egiten du azpimarra.

Ez dira prozedura kontraesan-korriaren arauak aplikatzen.

Aplikaturako neurria xede errehabilitatzailea duen tratamenduan datza.

Erkidegoa bitartekoa da errehabilitazioa lortzeko.

Protagonismoa ematen zaio lege-hauslearen nortasunari eta bere bizimoduari.

Neurrien betearazpena profesionalen esku uzten da.

Helburua da adin txikiko lege-hauslearen errehabilitazioa lortzea.

### Justizia errestitutiboaren sistema

Neurri zigortzailea, beste osagarrizko neurririk gabe aplikatzen bada, ez da eraginkorra jokabidea aldarazteko eta ondorio disruptiboak ditu elkarbizitza sozialean

Biktimak prozeduraren figura nagusiak dira.

Lege-hauslea, batez ere, definitzen da, kaltea erreparatzeko daukan gaitasunaren arabera.

Prozedura etorkizunera begira jartzen da, eta saiatzeko arazoa konpontzen obligazioen ezarretaren bitartez. Obligazio horiek zuzenduta daude arau-haustea egiteagatik hartutako erantzunkizunari erantzuna. ematera.

Indarra jartzen da elkarriketan eta bitartekaritza.

Erraparazioa jotzen da biktimaren edota erkidegoaren interesak eta lege-hauslearen erantzunkizuna kontziliatzeko bitartekotzat.

Erkidegoak bitartekari dihardu.

Erantzunak azpimarra egiten du egintza deliktiboak biktimarengan eta erkidegoan izan duen ondorioetan.

Inplikaturako bi parteek modu aktiboan parte hartzen dute neurriaren betearazpenan.

Helburua da bi aldeentzako erkidegoarentzako kontziliazio egokia lortzea, lege-hausleak bere erantzunkizun hartzean oinarritua.

Aldi berean izateak edo aplikatzeak zailtasun batzuk erakartzen ditu, eskuhartzeko eredueta dauden oinarrizko kontraesanetatik sortzen direnak:

- Justiziaren ereduari ezarritako neurriak nahiago dute penal tankerakoak ez deitzea, baizik eta zigor tankerakoak, modu koerzitiboan aplikatzen baitira, eta esaten da horien xedea, oroz gain, hezigarria dela. Bi faktore horiek, ez beti, baina bai maiz askotan, nekez izaten dira bateragarri. Zenbaitetan, ezarritako neurriari beharrezkoa zaiolako subjektuaren borondatea (konparazio batera, desintoxikazio tratamenduetan), neurria bera eraginkorra izan dadin, eta, beste zenbaitetan, aldiz, nerabeek ez diotelako erreparatzen eskuhartzearen tankera hezigarriari, neurria instantzia judicial batetik etorri denean, eta ezarria izan denean, auzitaratze kriminalaren arau prozesalean aurreikusita dagoen prozedurarekin zer ikusi handia duen beste batean.
- Babesaren ereduari -Eskoziakoa da adibiderik argiena- eskuhartzeko instantzia arduradunak gizarte zerbitzuak dira, inguru komunitarioko beste zerbitzu batzuekin elkarlanean, beti ere. Ez dute egintza deliktiboaren egiketaren egiletzaz eta inguruabarrez ezer esaten. Beraz, soil-soilik, gizarte zerbitzuen ardura da egokien irizitako neurriak hartzea, lege-hauslearen ongizatearen sustapenari eta bere babesari begira. Gisa horretan, jokabide hori agertaraztera bultzatu duen arrisku sozialaren egoera saihestu egin nahi da. Are, neurri horiek zentroan barruratzekoak ere izan daitezke, baina, halakoetan, beharrezkoa da Epailearen berrespena. Dena dela, sistema honek ez die erantzunik ematen deliturik larrienei, eta, gisa horretako delituez Epaitegiak arduratzen dira beti.
- Justizia errestitutiboaren edo erreparatzailearen sistema da berriekin eratutakoa, eta bere funtsa bitartekaritzan datza. Hau da, helburua da pertsona lege-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzera jotzen duen prozedura baten aplikazioa, eta, ahal delarik, kaltea erreparatzea. Bitartekaritzari indar handia eman zaio azken urteotan, eta are, beste bi eredueta prozeduraren zenbait fasetan hirugarren honi ere hel dakiok. Aztertu da hirugarren eredu hau baliatzea adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartze sistemaren oinarri gisa. Eta azterketa hori egin da, hein batean, justiziaren eta babesaren erduei hautabide bideragarriak bilatzeko, nazioarteko testuetan esaten baita, bi ereduok ez omen dakartela konponbide eraginkorrik. Eta, hein handi batean ere, hirugarren eredu honek biktimari eta erkidegoari benetako protagonismoa ematen dielako prozesuan, eta, pertsona lege-hausleari benetako aukera eskaintzen dielako eragindako kalteez erantzunkizuna bere gain hartzeko. Gisa horretan, gainera, lege-hausleak badu sortu duen inpaktuaren berri zuzena. Eredu honi leporatzen zaion

eragozpenik handiena hauxe da, hots, arrisku handikoa izango lizatekela pertsonen aurkako delitu larrietan aplikatzerakoan. Gaur egun, indarrean dago Zelanda Berria eta Australian.

- Azken urteotan, Europako herrialdeek gazteen justiziaren sistemaren alde jokatu dute, eta, askotan, eskuhartzeak gogortzearen aldeko jarrera erakutsi du. Izan ere, ikusten da badela joera kezagarri bat, funtsean konponbide erretributiboan alde ari direnak, eskubideak izugarri murrizten dituztenak. Era horretako konponbideak ez dira luzaroan alor honetan onartutako planteamenduetan agertu. Gertatzen ari dena erakusteko, esan daiteke zenbait herrialdetan gora egin duela izugarri barruratzeko kopuruak, eta, zenbaitetan, hori gertatzen ari da Adin txikikoek egindako krimen larri baina bakanen aurrean sortu den gizarte presioari erantzuteko.
- Ereduen aplikazioan ikusten diren kontraesanak sortzen dira, erantzuna eman behar zaielako maiz elkarren aurka jarrita dauden interesei eta eskubideei: saiatu behar da biktimarenak eta gizarte gorputzaren interesak eta eskubideak Adin txikiko lege-hauslearenekin kontziliatzen. Azken hau, lege-hauslea, arrisku sortzailea izan daiteke, baina bere adinarengatik arrisku egoera horretan dagoenez, gizarteak eta administrazio eskudunek babesema eman behar diote. Horixe da eztaibaidaren muina gazteen gaiztagintzari buruzko eskuhartzeari dagokionean.

Zenbait herrialdetan aukera egin dute eskuhartze-sistemari ekiteko gizarte zerbitzuetatik. Bada, herrialde horiek eskuhartzerakoan, ez dute ezberdintasunik ezartzen babesaren esparruari, argi eta garbi, dagozkion kasuengatik gaiztagintzan sartzen diren gazteen eta arau-hauste bat egin dutelako mundu horretan sartu diren gazteen artean. Hauxe da euren abiapuntua, hots, beharretan dauden mutiko, neskato eta nerabeak izanik, lehendabizikoen eta bigarrenen beharrak berberak izan daitezke, batzuetan oso markatuak, bestetan errazago konpon daitezkeenak erkidegoaren eskuhartzearen bidez.

Gazteen justiziaren sistemek, ordea, aurre egiten diote ikuspegi honi. Haien iritziz, beste ikuspegi honetan lege-hausleari ez zaiolako erantzule egiten. Hori egia bada ere, esan beharra dago justiziaren sistema ere ez dela oso eraginkorra gertatzen alde horretatik. Izan ere, erantzunkizuna adierazten du, eta erantzunkizun horretatik neurri baten aplikazioa eratoritzen da, gehienetan tankera hertsatzaile-hezigarria duena. Baina lege-hausleek berek, nazioarte mailan, euren buruaren gainean egindako txostenetan diote, neurri hori zigortzat jotzen dela eta horrek ez dakarrela berekin barne erantzunkizunik. Horretan, beraz, kostatzen ari zaio sistema erretributibotik bereiztea.

Soil-soilik, justizia errestitutiboaren sistema saiatzen ari da mahai gainean agertzen diren interesak oro kontziliatzen. Biktimaren aurrean buruz buru agertzeak eta erreparazio modalitateek aukera ematen dute zentzatzeko, eragindako kaltea aitortzeko, eta, are, baita batzuetan ere, bere ekintzek beste bati kaltea egin diezaioketela konturatzeko. Era berean, kontziliatze eta adiskidetze taldeek, Australian edo Zelanda Berrian gertatzen den bezala, familiaren partaidetza handia eta guzti, koordinatu egiten dituzte inguru babesletik eta komunitariotik positiboak gertatuko liratekeen eskuhartzeak.

**II. ATALA**

**MARKO JURIDIKOA**

## 1. ARAUDIAREN BILAKAERA

1991ko otsailaren 14ra arte, egun horretan Auzitegi Konstituzionalaren 36garren epaia ematen baita, adin txikikoek, hau da, 16 urtez behekoek egindako arau-hausteen alorrean indarrean dagoen legeria, 1948ko Legea zeritzaiona zen. 1948ko ekainaren 11ko Dekretuak, zeinak Adin Txikikoen Turoretzako Auzitegiei<sup>6</sup> buruzko Legeriaren Testu Berritua biltzen baitzuen, -aipatutako Auzitegien Batasun Nazionaleko Estatutoa, Legea eta burutzeko Araudia-, esku artean darabilgun alor hau egokitzen zien tankera administratiboko organoei. Organo horiek ere eskudunak ziren babes alorreko kasuez erabakitzeko.

Araudi horrek ekarritako ereduari paternalista edo babeslea deituko genioke, gaur egun:

- adin txikikoa ez zen eskubideen subjektua, baizik eta babesgaia, eta, horrexegatik, egokien irizitako erabakiak har zitezkeen pertsona horri buruz, bere ongizatea, bere berreziketa eta bere gizarteratzea bermatzeari begira;
- hona hemen noiz esku hartzen zuten Auzitegi horiek: legeria penalean delitu eta falta bezala titpifikaturik zeuden jokabideak gertatzen zirenean, eta, horiez gain, baita probintzia eta udal mailako legeetan bildutako arau-haustea ere gertatzen zirenean. Era berean, baziren arau-haustearen tankera ez zuten zenbait jokabide, baina Auzitegiaren iritziz beharrezkoa baldin bazen jokabide horiei bere ahalmen erreformatzailearen bitartez aurre egitea, ba halakoetan ere esku hartzen zen;
- ezarritako neurrien xedea gizarteratzea da. Beraz, helburu hori betetzea, horixe zen neurrien denboraren muga. Horrek esan nahi du, ezartzen zirenean, akabera jakinik gabeko tankera zutela;
- adin txikikoek ez zuten auzitaratze penalei berariaz dagozkien inolako berme prozesalik.

---

<sup>6</sup> 1948 uztailaren 19ko EBO.

1978an Konstituzioa onartu eta horrek marko juridiko berria ekarri zuen. Horren arabera, berme prozesalak (24. artikulua) eta jokabideen tipikotasuna (25. artikulua) funtseko eskubideak ziren. Nolanahi ere, 1985. urtea arte ez zen zehaztu gazteentzako justiziaren erreforma ekarriko zuen testuaren beharra. Izan ere, urte horretan 6/1985, uztailaren 1eko Botere Judizialaren Lege Organikoak<sup>7</sup>, urtebeteko epea ematen dio Gobernuari lege proiektu bat egiteko. Epea ez zen bete eta egoera deitoragarri horri ez zitzaion konponbiderik eman harik eta, Auzitegi Konstituzionalak 1991ko otsailaren 14ko Epaiaren bidez, Adin Txikikoen Tutoretza Auzitegien Legearen 15. artikulua inkonstituzionalizat jo zuen arte. Modu horretan 1988eko ekainetik aurrera, Adin Txikikoen bost Epaillek sustatutako beste hainbat inkonstituzionalitate arazori erantzuna emateko erabaki zen epai hori. Era berean, Gorteak premiatu zituen Adin Txikikoen tutoretza-legeria berritzeko.

Beraz, premiazko erreformaren tankera hartuz, urte t'erdi geroago onartzen da 4/1992, ekainaren 5eko Lege Organikoa, Adin Txikikoen Epaitegiaren Eskumenaren eta Prozeduraren Lege Erregulatzailaren Erreformari buruzkoa<sup>8</sup>. Legearen Zioen Azalpenetan iragartzen denaren arabera, legea «*Adin Txikikoen erreformari buruzko legeria berrituaren*» abiapuntua da.

Prozedura tankerakoa izanik ere, arau honek funtsezko aldaketak ekartzen ditu alor honetara:

- marko malgu bat ezartzen da Adin Txikikoen Epaillek erabaki ahal izan ditzaten arau-hauste penal bezala tipifikatu daitezkeen egintzak egin dituzten adin txikiko pertsonen aplikagarri zaizkien neurriak. adin txikikoaren interesa lehenetsi behar du beti;
- behar adina berme prozesal ezartzen ditu. Horrela, instrukzioa Ministerio Fiskalaren esku uzten du, era horretan Epaillearen inpartzialtasuna gordetzeko. Epailari bestalde, ahalmen handiak ematen dizkio prozesuaren akabera erabakitzeari begira. Azken horren helburua da prozesuak sor zitzakeen ondorio samingarriak, ahalik eta gehien, saihestea;
- neurrien iraupena mugatua dago halako denbora jakin baterako; bada epaia bertan behera uzteko aukera, eta, aukera ere badago ezarritako neurriak berrikusteko adin txikikoaren inguruabarren bilakaerari erreparatuta.

---

<sup>7</sup> 1985eko uztailaren 2ko EBO.

<sup>8</sup> 1992ko ekainaren 11ko EBO.

Behin-behinekora bada ere, premiazko erreformaren tankera duen Lege honek bete ditu dagoeneko, ia sei urte indarrean.

Bien bitartean, 1995ean, Kode Penalaren<sup>9</sup> azaroaren 23ko Lege Organikoa onartu zen. Bere 19. artikuluan erantzunkizun kriminalaren adina 18 urtetara altxatu zuen. Beraz, adin zibil nagusiaarekin parekatu eta izugarri zabaltzen da Adin Txikikoen Epaitegien jardueraren esparrua. Azken zazpigarren xedapenean, haatik, aipatutako prezeptuaren indar hartzea salbuesten du harik eta Adin Txikikoaren erantzunkizun penala arautzen duen legea indarrean sartu arte. Horrek bide ematen die, eta, hala dio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak berak 1997an egindako Justiziaren Liburu Zurian, *«intseguritate juridikoa dakarten zenbait interpretaziori»*. Ordura arte, 16 eta 18 urte arteko pertsonak epaitzeko Epaitegi eskudunek legeria penala aplikatu behar zuten. Zehaztopen bakarra hauxe da, hots, Adin Txikikoen Epaileei atxikitako Talde Teknikoei txosten bat eskatu behar diete erabakiak hartu baino lehen asesoramendua izan dezaten. Adin Txikikoen Epaileek gisa berean jokatzten dute.

Halaber, Kode Penalak bere 69. artikuluan aurreikusten du 18 eta 21 urteko pertsonen gazteentzako justiziaren araudi erregulatzaila aplikatzeko aukera, onartzen denean, jakina.

Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren azken Aurreproiektua 1997ko uztailaren 1ekoa da, txosten hau egiterakoan jakina denez. Baina egun horretatik hona eztabaida handia egiten ari da Kode Penalaren aldaketaren bigarren xedapen osagarriari buruz, oso eztabaidatsua baita. Izan ere, hirugarren pasartean hemezortzi urtez beheko pertsona txikien erantzunkizun penalaren salbuespenari dagozkion xedapenetatik kanpo uzten ditu ondoko delituok, hots, Kode Penalaren XXII. Tituluaren V. Atalaren bigarren idatz-zatian aurreikusitako delituak sortzen dituzten egintzak, hamasei urtez gorako pertsonen eginak izaterakoan. Idatz-zati horrek arautzen ditu terrorismoari dagozkion delituak, horien artean sartuz 577. artikuluan aurreikusitakoak, eta delitu hauek pertsona hauexei dagozkie, *«banda armatuan, antolamendu edo talde terroristan partaide ez izanik ere, eta ordena konstituzionala asaldatzeko xedearekin, edo bake publikoa larriki nahastekoarekin, hilketak, 149 edo 150. artikuluetan tipifikatutako lesioak, legez kontrako atxiloketak, bahiketak, pertsonen aurkako mehatxuak edo bortxak egiten dituztenei, edota sute, txikizioak, arma edota munizioen edukitzea, trafikoa eta gordetegiari (...) dagozkion delituak aurrera eramaten dituztenei (...)*». Begi bistakoa denez, kale istiluetan egiten diren ekintzetako batzuk kategoria honetan sar daitezke. Ondorioa hauxe lizateke: indarrean dagoen antolamenduaren arabera, kasu hauei buruzko erabakimena Entzutegi Nazionalaren eskumenean sartuko lizateke, eta ez Adin Txikikoen Epaitegien eskumenean.

---

<sup>9</sup> 1995eko azaroaren 24ko EBO; okerren zuzenketa 1996ko martxoaren 2ko EBOean.



Dagoen Aurreproiektuaren testua onartuta ere, Estatuko Boletin Ofizialean argitaratu eman eta oraindik ere urtebetez atzeratuko litzateke indarrean sartzea, azken zortzigarren xedapenak diotenaren arabera. Beraz, horra hor Justizia eta Laneko eta Gizarte Aferetarako Ministerioek esku artean edukiko zuten epea Kode Penalaren 19 eta 69. artikuluen aplikaziorako beharrezkoak diren arau erreglamentarioak agintzeko. Administrazio Autonomikoei dagokienez, urtebeteko epe hori baliatu beharko zuten euren baliagaiak eta euren araudia egokitzeko ematen zaizkien eginkizunetera.

## **2. ARAUDIAREN OINARRIZKO ALDERDIAK**

### **2.1. Estatu mailako araudia**

4/1992 Legeak horrela zehazten du bere burua: Adin Txikikoen Epaitegien Eskumenaren eta Prozeduraren Erregulatzaila, eta, egiazki, 1948ko Adin Txikiko Tutoretza Auzitegien Legearen zenbait xedapenen aldaketa gisa dago egituratuta.

Legearen urritasuna zor zaio premiaz erreformatu behar izateari eta, seguru aski, horrexegatik ere, zehaztasunik gabeko idazketa dario, eta, horrek, jakina, interpretazio arazo asko sortzen ditu, hala nola, hutsune garrantzizkoak. Egia da jokabide judiziala hutsune horiek betetzen joan dela, baina, lurraldeen arteko ezberdintasunak ez dira gutxi izan, noski.

Prozeduraren berezitasunei orain heldu gabe, -txostenaren IV Atalean zehazten baitira-, beharrezkoa da azaltzea zeintzuk diren indarrean dagoen legeriaren oinarriko alderdiak:

*Bereizketa dago adin txikikoen lege-hausleei aplikagarri zaien justiziaren sistemaren eta babeseko sistemaren artean*

- Adin txikikoek egindako arau-hausteen erabakimena Adin Txikikoen Epaitegiei dagokie. 1985eko Botere Judizialaren Lege Organikoa onartu zenetik, aipatutako Epaitegi horiek ohiko jurisdikziotik egituratzen dira, bazter utzirik Tutoretza Auzitegi zegoen espezialitatearen izaera. Berariaz tutoretzari dagozkion gaiak, hau da, ahalmen babesleari dagozkionak, azaroaren 11ko, 21/1987 Legeak Familia Epaitagien esku utzi zituen. Lege horren arabera, Kode Zibilaren eta Auzitaratze Zibilaren Legearen zenbait artikulua aldatzen dira Adopzioaren alorrean<sup>10</sup>.
- Maila administratiboan ere bereizketa dago. Zehazki adin txikiko lege-hausleenganako babesaren eta atentzioaren bereizketa hori errotzen

---

<sup>10</sup> 1987ko azaroaren 17ko EBO.

hasten da, 1996a arte<sup>11</sup> banaketaren poderioz sortutako liskar konpetentzialen ondotik. 1985ean dagozkion eskumenak eskuz aldatu zirenetik babesa Lurralde Historikoei dagokie. Bizkaiako eta Gipuzkoako Lurraldeetan Adin Txikikoen Epaileek hartutako neurrien betearazpena Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dago eta hori horrela da 1996ko urtarrilean delako eskumen horiek hartu zituenetik. Arabako Lurralde Historikoan Foru Aldundiarekin partekatzen du eskumen horien jarduna.

### *Prozeduraren izaera*

Gure alorrari dagokionez, indarrean dagoen sistemak ez du eredu zehatzik ezartzen Adin Txikiko lege-hausleekin nola jokatu esateko. 4/1992 Legean, modu inarmonikoan, aldi berean daude eredu batzuetako alderdiak. Beraz, legeak badu eredu babesletik, justiziakotik eta erreparatzailetik edo errestitutibotik. Horrez gain, badirudi nola halako nahasketa gertatzen dela prozeduraren izaera juridikoaren zehaztapenean eta xede diren ondorioetan. Beti adin txikiko lege-hauslearen interesari hobekien egokitzen diren konponbideak erabakitzeko beharra oinarritzat hartuta, kontua da prozedurari izaera hezigarria ematea eta ez penala, eta, horretarako jotzen da zuzenbide penaletik kanpo dauden hitzak erabiltzera: ahozko epaiketa esan beharrean audientzia esaten da, ez dira epaiak ebazpenak baizik, eta penak esan ordez neurriak esaten da. Eta, hala ere, funtsezko erreferentziak penalak dira: esate baterako, arau-hausteen tipifikazioa ezartzen da Kode Penalaren arabera, eta, ordezko zuzenbide ondokook dira: batetik, Auzitaratze Kriminalaren Legea, eta, bestetik, Kode Penala. Neurriek, beren aldetik, izena hala izanik ere eta xede hezigarria edukita ere, ez dira behar bada izaera penalekoak izango, baina bai zehatzaileak. Izan ere, neurriak modu hertsatzailean ezartzen dira eta arau-hauste baten egiketari erantzuna emateko.

Adin Txikikoen Justizia Arautzen duen Lege Organikoaren Aurreproiektuak afera antzera ezartzen du, baina modu esplizituagoan, eta, Zioen Azalpenetan aipamena egiten dio «*funtsean izaera hezigarria, eta ez izaera penala, duen lege zehatzailearen nahikotasunari*». Eta azken bigarren xedapenean aldaketa sartzen du Kode Penalaren idazketan. Aldaketa horren arabera, hemezortzi urtez beheko pertsonak erantzunkizun penaletik salbuesten ditu.

### *Erantzunkizun penalaren adina*

- 1995eko Kode Penalak, bere 19. artikuluan, adin penal nagusia 16 urtetik 18ra goratzen du, baina prezeptu hau ez da indarrean sartuko harik eta gaia arautuko duen lege baten onarpena gertatzen den artean (azken

---

<sup>11</sup> Atal honetako 3. apartatuak eskumenen banaketa zehazten du hala nola aipagai den liskarra.

zazpigarren xedapena). Salbuespena harritzeko modukoa da. Kontsiderazio teknikoek eta doktrinalek legegilea bultzatu baldin badute uste izatera adin penal nagusia 18 urtetan ezarri behar dela, ez dirudi zentzuzkoa denik arrazoi praktikoengatik bere aplikazioa atzeratzea, aldi berean, ezartzen ez baldin bada, bete beharreko epe maximoa Gazteentzako Justiziaren Lege erregulatzaileraren onarpenerako. Kontutan hartu behar da gainera, egoera honek zer nolako ondorioak izan ditzakeen oinarritzko eskubideetan.

Hortaz, gaur egun, oraindik ere 16 urtez beheko pertsonak baizik ez dira adin txikikoak. 16 eta 18 urte bitarteko pertsonentzat ezartzen den espezifikitate bakarrak hauxe dio Epaitegi eskudunek duten beharrari buruz: Adin Txikikoen Epaitegiei atxikitako Talde Teknikoari alde aurreko txosten bat eskatu behar diote, eta, txosten horretan bildu behar dira gazte horien egoera psikologikoa, heziketa maila eta giro familiarra. Halaber, agertuko da zer nolako inguru sozialean bizi den, eta, oro har, leporatzen zaien egintzan eragin ahal izan duen beste edozein inguruabar ere.

- Adin Txikikoen Epaitegien eskuhartzerako adin minimoa 12 urtetan ezarria dago 4/1992 Legearen onarpenetik, -aurreko legeak, Adin Txikiko Tutoretza Epaitegien Legeak, ez zuen inolako mugarik ezartzen-. Beraz, arau-hausteak egiten dituzten 12 urtez beheko mutiko eta neskatok utziko dira, hala badagokio behintzat, babes alorreko administrazio eskudunaren mende. Aurreproiektuak adin minimo hori 13 urteetara goratzen du. Beraz, aldatu egin da aurreko zirriborro batek aurreikusitakoa, proposatzen baitzuen 14 urtetan ezartzea.

### *Tipikotasun printzipioa*

Konstituzioaren 25. artikulua dakarrenez, 4/1992 Legeak esaten du Adin Txikikoen Epaileek eskumena dutela Lege Penaletan delitu edo falta bezala tipifikaturik agertzen diren egintzetan erabakitzeko. Beraz, tipifikatu gabeko jokabide antisozialei egindako aipamen oro kentzen da.

### *Berme prozesalak*

- Instrukzioa Fiskalari egokitzen zaio, hari baitagokio eskubideen defentsa egitea, eskubideen bermeak betearaztea eta Adin txikikoaren osasun fisikoaren eta moralaren zainketa. Horiez gain, Fiskalari ere dagozkie akusazioaren ahalmenak, berak bakarrik hasi baitezake espedientea, eta, prozedura honetan, ez du lekurik akusazio partikularrak. Zenbait teorikoren eta profesionalen iritzia da eginkizun hirukoitz horrek, -Adin

txikikoen interesaren defentsa, intrukzioa eta akusazioa egitea-, Fiskalaren egitekoa indargabetzen duela.

- Abokatu denfendatzailearen figura sartzen da, agertzealdiaren tramitean izaera boluntarioa duena eta izaera derrigorrekoa entzutegiaren tramitean, esan nahi baita, bistak dirauen bitartean. Adin txikikoaren legezko ordezkariak izendatu dezake abokatu, edo, bestela ofiziozkoa agertuko da, pertsona gazteak berak hala eskatzen baldin badu, edota abokatu izendatzeko ezarrita dagoen epea iraganik, izendapenik egin ez baldin bada.
- Jokabide tipifikatua egin izana leporatzen zaion adin txikikoak eskubidea badu informazioa eman diezaioten. Informazioa gainera, hizkera argian eta errazean eman behar zaio, bere adinera egokitutakoa. Informaziogaia, berriz, hauxe izango da: leporatzen zaizkion egintzak, baduela eskubidea deklaraziorik ez egiteko, halaber bere burua egintza horien egileztat ez jotzeko, eta eskubidea ere badu Abokatu baten laguntza izateko.
- Erabakitako neurriak 4/1992 Legearen 2-4. artikuluetan aurreikusitakoak dira:
  - ohartarazpena;
  - asteburu batetik hiru asteburu arteko barrualdia;
  - zaintzapeko askatasuna;
  - beste pertsona edo familia batek hartzea;
  - ziklomotoreak edo ibilgailu motordunak gidatzeko duen eskubidea kentzea;
  - zerbitzuak egitea erkidegoaren onerako;
  - tratamendu anbulatorioa edo tankera teraupetikoko zentroan barruratzeko;
  - zentroan barruratzea erregimen irekian, erdi irekian edo itxian.

Neurri horien iraupena ebazpenean zehaztu behar da, kontutan hartuz, gehienez ere, bi urterako izan behar duela.

- Bada helegitearen aukera, bai Epaileen probidentzien aurka nola epileen beraien auto eta ebazpenen aurka. Lehendabiziko kasuan aurreikusita dago erreforma errekurtsioa egin ahal izatea Epaitegiaren beraren aurrean, notifikazioa eman eta, gehienez ere, hiru eguneko epe barruan ezarri daitekeena, eta, bigarren kasuan, aurreikusita dago apelazio helegitea Probintzia Entzutegiaren aurrean, notifikazioa eman eta, gehienez, ere bost eguneko epe barruan ezarri daitekeena.

## *Desjudizializazioaren printzipioa*

Gazteentzako justiziaren nazioarteko testu erregulatzailuetan desjudizializazioaren printzipioaz egiten den proposamenaren helburuak, posible den heinean, ahalik eta gehien saihestu nahi ditu prozedurak sor zitzakeen ondorio samingarriak. Printzipio honen aplikazioaren bitartez, sistemari eta, zehatzago, Fiskalari eta Adin Txikikoen Epaileari aukera ematen zaie jokabide alternatiboei heltzeko, nola halako mugen barrenean eta egoki den ala ez ikusi ondoren.

Hori dela eta, lehendabizikoak, Fiskalak, instrukzioaldian, baimena eman dezake bitartekaritza-erreparazio ekitaldi bat egin dadin, eta, era berean, jarduerak bukatzea proposa diezaioke Epaileari. Gero bada beste gauza bat eztabaidagarriagoa dena, hots, ia Fiskalak, bere baitatik, kasua artxibatu dezakeen ala ez, egintzen larritasun arinari eta egilearen inguruabarrei erreparatuta. Nazioarteko testuak aukera horren alde agertzen baldin badira ere, 4/1992 Legearen idazketa ez da zehatza puntu horretan, eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993ko Instrukzioaren interpretazioak dio ez dela posible aukera hori aintzat hartzea.

Adin Txikikoen Epaileak, bere aldetik, jarduerak artxibatu ditzake agertzearen ondotik, edo erabaki dezake berehalako ohartarazpena egitea entzutegiaren irekiera saihestuz, edo kasua utz dezake babesaren alorreko agintari eskudunen bizkar gain, delako agintari horiek izan daitezen egokien iritzitako neurri hezigarriak eta formatiboak erabakitzen dituztenak. Halaber, Adin Txikikoen Epaileek badute epaia bertan behera uzteko ahalmena, Ebazpena agindu ondoren, beti ere. Dena dela, hori baldintza bati lotuta agertzen da, bide judizialaz kanpoko erreparazio akordioa egin beharra baitago lege-hauslearen eta biktimaren artean.

## *Prozeduraren laburtasuna*

Legeak eskuhartze epeak aurreikusten ditu prozeduraren fase nagusietarako. Honen xedea da ahalik eta lasterren, berehalakotasunez, gertatzea jokabide legehauslei eman beharreko erantzun judiziala. Hasieran behintzat, eskatutako aldien arabera, Adin txikikoen prozeduraren iraupena, gutxi gora behera, 50 eta 80 egunen artekoa litzateke, espedienteari hasiera ematen zaion unetik zenbatuta. Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Eskuhartze faseen azterketa zehatzak erakutsiko duen bezala, prozedura nabarmen luzatzen da, arrazoi hau edo hura dela medio. Horregatik, erantzun judiziala gehienetan iristen da denboraldi luzeegia joana denean, egintzak gertatu zirenetik, eta, are denbora luzea ere iragaten da espedienteari hasiera eman zitzaionetik. Eta horrek, zalantzarik gabe, lortu nahi den xede hezigarriaren eraginkortasuna murrizten du.

### *Kautelazko neurriak*

Prozeduraren edozein momentutan, Fiskalak Adin Txikikoen Epailari eska diezaioke har ditzala Adin txikikoaren babeserako eta zainketarako kautelazko neurriak. Era honetako neurriak aurreikusita daude 4/1992 Legearen 2.-2 artikulua 5garren arauan, eta, are gehiago, egintzen larritasunari, edo ondorioei edota inguruabar pertsonalei zein sozialei erreparatuta, neurri horiek barruratzeara ere ekar dezakete erregimen itxian. Hautabide honen erabilpen zuzena bermatzeko, legezko testuak zehazten du neurri honen iraupena ezinbesteko denborari lotuta egongo dela, eta, gehienez ere, hilabete bat pasatu denean, neurri hori aldatu edo berretsi beharko dute. Era berean, neurri hori aplikatzeko Abokatua izendatu behar da, bai auziperatutako parteak hala eskatuta, bai ofiziozkoa.

### *Talde Teknikoaren eskuhartzea*

Fiskalak, espedienteari hasiera ematen dion unetik beretik, Adin Txikikoen Epaitegiari atxikitako Talde Teknikoari txostena eskatu behar dio Adin txikikoaren egoeraz. Txostenak gazte horren alde psikologikoa, edukatiboa eta familiarra bilduko ditu, hala nola bere inguru soziala, eta, oro har, leporatzen zaion egintzan eragin ahal izan duen beste edozein inguruabar ere. Talde Teknikoak gainera, eskuhartuko du prozedura osoan zehar: bitartekaritzak proposatzen ditu eta, egokitzen baldin bada, bitartekari gisa aritzen da, agertze eta entzutegi tramiteetan esku hartzen du, eta epaia bertan behera uzten den kasuetan bere iritzia ematen du.

### *Nazioarteko testuekiko adostasuna*

4/1992 Legeak, konpetentziala eta prozedimentala esaten baldin bazaio ere, egiazki aldaketa sakona ekarri du Adin Txikikoen justizian. Izan ere, legeak adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartze alorreko filosofia berri bati, berariaz, dagozkion elementuak sartu ditu antolamendu juridikoan. Lege hori bestalde, bat dator gure inguruan indarrean dauden nazioarteko testuetan aurreikusitako xedapenekin. Hona hemen, konparazio batera: Adin Txikikoen Justiziaren Administrazioarako Nazio Batuen Batzarre Nagusiaren, 40/33 Ebazpena, 1985eko azaroaren 29an emana, Beijinggo arauak izenarekin ezaguna da; Askatasun Gabetutako Adin Txikikoen Babesarako Arauei buruz, Nazio Batuen Batzarre Nagusiaren 1990eko abenduaren 14ko 45/113 Ebazpena; Europako Kontseiluak Gazteen Gaiztagintzaren gaineko Gizarte Erantzunei buruz emandako 87(20)Gomendioa, 1987ko irailaren 17koa eta, Gazteen Gaiztagintzari Aurrea hartzeko, Nazio Batuen Jarraibideak, 1990ekoa, eta Riadeko Jarraibideak izenarekin ezagunak direnak.

## 2.2. Autonomia mailako araudia

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutoak bere 10-12 eta 10-39 artikuluetan biltzen du eskumen osoa duela gizarte laguntzaren eta haurren nahiz gazteen politikaren alorrean. Eta artikuluko bereko 14garren idatz zatian, esaten da, eskumen osoa duela Adin Txikikoen babeserako eta tutoretzarako erakunde eta egoitzen antolaketan, barne egituran eta funtzionamenduan hala nola gazteen gizarteratzearen alorrean.

Arriskuan edo babesik gabe dauden mutiko, neskato eta nerabeen babesaren alorrean gertatzen den bezala, araudi zehaztapen bakarra agertzen da 1982ko<sup>12</sup> eta 1996ko<sup>13</sup> Gizarte Zerbitzuen Legeetan. Esan beharra dago, aruatean ez dela inolako garapen zehatzik egin adin txikiko lege-hausleen atentzioaren alorrari dagokionez. Zehatzago esateko, ez da inolako garapen zehatzik ondoko gaiotan: Adin Txikikoen Epaileek erabakitako neurrien betearazpena, Adin Txikikoen Epaileen eta erakunde eskudunen arteko koordinaziobideetan, neurriak betearazteko, neurriak betearazteari begira zuzenduta dauden zentroek eta zerbitzuek dauzkaten betebeharrak materialetan, pertsonaletan eta funtzionaltan, eta delako zentroen eta zerbitzuen funtzionamenduz ezarri beharreko kontrolbidean.

Hutsune juridiko honi erantzen baldin bazaio, ez bakarrik ahalmen normatiboari, baizik eta ahalmen ejekutiboari ere zegokion eskumenik ezaren afera, ikusten da zer nolako ondorioa gertatu den, hots, Bizkaian eta Gipuzkoan ia ez da zaintzapeko askatasunaren, erkidegoaren onerako zerbitzu egitearen eta tratamendu anbulatorioaren neurriak aplikatzeko zuzenduta dagoen zerbitzurik izan. Araban, berriz, Foru Aldundiak zenbait baliagai garatu baldin baditu ere, hori gertatu da behar bezalako marko normatibo egokirik gabe, Jaurlaritzak ez baitio alor horri ekin. Barrualdi zentroein dagokienez, bakoitza ibili da bere kasa ezarritako jarduerazko irizpideei jarraikiz. Zenbaitetan, irizpide horiek beste Erkidego Autonomo batzuetan dauden ereduetatik hartu dituzte, eta aritu dira maiz erreformaren eta babesaren artean kokaturik dagoen alor batean.

1996ko hasieran, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak bere gain hartu zituen neurrien betearazpenaren alorreko erantzunkizunak, eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzak, epe ez luzeegietan, bere

---

<sup>12</sup> 6/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 1982ko ekainaren 2an EBOean argitarata emana.

<sup>13</sup> 5/1996 Legea, urriaren 18koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 1996ko azaroaren 12an EBOean argitarata emana.

<sup>14</sup> Eusko Jaurlaritzak plan hori onartu zuen 1998ko otsailaren 3an, Gobernu Kontseiluaren Akordioan.

eskumen normatiboan jardun beharko luke. Izan ere, duela gutxi<sup>14</sup>, Adin Txikikoen Epaitegieiek Erabakitako Neurrien Exekuziorako Plana onartu da, eta, plan horrek badakar Adin Txikikoen Atentziorako Beharren Egitaraua.

Aldi berean, Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza, aipatutako alor honetako erantzule zuzena den heinean, jarduteko jarraibide batzuk ematen ari da. Dagokion araudia ailegatzen ez den bitartean, jarraibide horiek nola halako homogeneitatea bermatzen dute neurrien exekuziorako erabilitako baliagaien funtzionamenduan.

Gaur egun dagoen hutsune juridikoa, hein batean, beteta geldituko litzateke Haurren eta Nerabeen Atentziorako eta Babeserako Legea onartuko balitz, -bada egina zirriborro bat-. Izan ere, lege horren edukietan, sartuko litzateke jardunbidearen printzipioen definizioa, baita marko kompetenzialarena ere, eta adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartzearen esparruekin zer ikustekorik duten zerbitzuen definizioa ere.

### **3. ESKUMENEN BANAKETA**

Aurreko apartatuan adierazi da, gai honetako legeria egiteko eskumenak Eusko Jaurlaritzari dagozkiola, kalte egin gabe Estatuari erreserbatzen zaizkion eskumenei legeria penalaren, zibilaren eta prozesalaren markoan. Era berean, arestian aipatu denez, egundaino ahalmen hori ez da edukiz bete.

Adin Txikikoen Epaileri, beren ebazpenetan erabakitako neurrien betearazpenari egokitutako neurriak eman behar zaizkie. Bada, horren erantzunkizuna eskuduntza ejekutiboari dagokio, eta, delako eskuduntza ejekutibo hori liskargai kompetenziala izan da Adiministrazio Autonomikoaren eta Lurraldeko Administrazioen artean, luzaroan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutoaren 10.-14. artikulua dioena betetzeko, -horren arabera, Erkidego Autonomoak eskumen osoa du Adin Txikikoen babes eta tutoretzako erakundeen eta egoitzen antolaketan, erregimenean eta funtzionamenduan, baita penitentiario eta gizarteratzekoetan ere-, ekainaren 11ko 196/1985 Dekretuak onartzen du 1985eko martxoaren 25eko Transferezentzien Bitariko Batzordearen Akordioaren argitalpena, Adin Txikikoen babeserako alorrari dagokiona, maiatzaren 8ko, 815/1985 Errege Dekretuak ezarri zuen bezala, Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora alor honetako zerbitzuen eskumen aldaketari buruzkoa.

Urte horretan berean, Tranferentzien Bitariko Batzordearen Akordioek onartzen dute Eusko Jaurlaritzaren babeserako zerbitzuen eskumen aldaketa Lurralde Historikoen Administrazioek bere gain har zituzaten. Bada, Tranferentzien



Dekretuek<sup>15</sup>, beren tituluan, aipatzen dituzte ez soilik babesaren eta tutoretzaren esparruan dauden zerbitzuak, baizik eta baita Adin Txikikoen gizarteratzeari begira eratuta dauden zerbitzuak ere. Xedapenei dagokien zatian ordea, ez zaie inolako aipamenik egiten azken horiei.

Horixe izan da hainbeste urtetan alor honetako jarduerak oztopatu dituen liskarraren sorburua.

Eusko Jaurlaritzak, egitez, Estatuko Adiministrazioetik hartutako bitarteko pertsonal eta material guztiak transferitu zizkien Lurralde Historikoei, gisa horretan bete zitezten babesaren eta tutoretzaren alorrean hala nola gizarteratzerakoan agindutako neurriak. Haatik, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Erakundeek eskumen aldaketaren Dekretuen xedapenen zatiek hitzez hitz ziotenari men eginez, esan zuten euren eskumena babeseko eta tutoretzako baizik ez zela. Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, bere gain hartu zituen transferitutzat jo zituen eskumenak eta laguntza ematen segitu zien erreforma neurriak hartuta zeuden nerabeei, Caja Hogar Nuestra Señora del Carmen bezalako zentroetan.

Nola betearazi dira orduan, Epailleek adin txikiko lege-hausleentzat erabakitako neurriak?

Barruratzeei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak baliatu ditu bere exekuzio zuzeneko eskumenak, eta Adin Txikiko Lege-hausleen Atentziorako Beharren Egitarauak berak hitzez hitz dioenez, Jaurlaritzak erabaki ditu konponbide «*transitorioak eta partzialak, nolana ere nahiko ez direnak eskuhartze prebentiboaren, edukatiboaren eta zuzentzailearen betebeharrak minimo batzuetatik ikusita*», berriki onartutakoak. Mutikoen barruratzek erregimen irekian eta erdi irekian bete diren zentroetan babesaren esparrutik zetozen nerabeak ere hartu izan dituzte, zenbait alditan. Lurralde autonomoan ez da barruratzeko itxiko erregimenaren ezaugarriak dituen zentrorik. Horregatik, era horretako

---

<sup>15</sup> Bitariko Batzardeetako akordioak onartuak izan ziren ondoren onartutako Dekretu aipatuetan:

- Arabako Lurralde Historikorako eskumen-aldaketak onartu ziren 1985eko uztailaren 2an Eusko Jaurlaritzak emandako dekretuaren bidez, eta, 1985eko uztailaren 1eko Foru dekretu bidez. Azken honek Erkidego Autonomoko Amankomuneko Erakundeetatik zerbitzuak pasatzen zituen Arabako Lurralde Historikora, Adin Txikikoen Babesaren, Tutoretzaren eta Gizarteratze gaietan.
- Bizkaiaiko eskumen aldaketak onartu ziren Eusko Jaurlaritzak 1985eko uztailaren 2an emandako dekretu bidez eta 1985eko ekainaren 25eko Foru Dekretu bidez. Azken honek Erkidego Autonomoko Amankomuneko Erakundeetatik zerbitzuak pasatzen zituen Bizkaiaiko Lurralde Historikora, Adin Txikikoen Babesaren, Tutoretzaren eta Gizarteratze gaietan.
- Gipuzkoako Lurralde Historikorako eskumen-aldaketak onartu ziren 1985eko uztailaren 2an Eusko Jaurlaritzak emandako dekretu bidez. Azken honek Erkidego Autonomoko Amankomuneko Erakundeetatik zerbitzuak pasatzen zituen Gipuzkoako Lurralde Historikora, Adin Txikikoen Babesaren, Tutoretzaren eta Gizarteratze gaietan.

barruratzeak beste Erkidego Autonomo batzuetan dauden zentroetan bete dira. Neskei dagokienez, 1997ko udan Andolluko Zentroa zabaldu zen arte, barruratzeko guztiak, bai erregimen irekian, bai erregimen erdi irekian edo itxian, betetzen ziren beste Erkidego Autonomo batzuetan, Kataluñan, Murtzian eta Gaztela eta Leonen.

Ia ezinezkoa gertatu da inguru irekian bete beharreko neurriak Bizkaian eta Gipuzkoan betetzea. Salbuespen bezala, aipatu beharra dago Tutoretza Auzitegi zaharretako Ordezkeri Profesional teknikoek, bitartekorik gabe, egiten zituzten ahaleginak. Esfortzuak egiten zituzten zaintzapeko askatasunen segimenduan eta erkidegoaren onerako zenbait zerbitzu egite betearazteko, neurriaren aplikazioan parte hartzea onartzen zuten baliabide komunitarioen kolaborazioa hartzen zutenean.

Arabian, Foru Aldundia 1993rik aurrera hasi zen esku hartzen zaintzapeko askatasunaren neurriaren betearazpenean. Erkidegoaren onerako zerbitzu egitearen neurria ez zen aurrera eramaten hasi 1995 urtera arte.

1991. urtetik aurrera Euskadiko Justiziako Auzitegi Gorenaren Gobernu Aretoko errekerimenduak aurkeztu zituen egoera aldatzeko eta Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko Presidenteak berak ere antzera jokatu zuen Adiministrazioak erantzunik ematen ez zuelako. Baina egoerak bere horretan iraun du 1996 urtera arte.

Kode Penal berrian aurreikusita dago 18 urtetara goratzea adin penal nagusia. Bestalde, aurreikusita ere dago Adin Txikikoen Epaitegien eskuduntzaren zabalpena, halako inguruabar zehatzak gertatzen direnean, erabakimena izan dezaten 18 eta 21 urte arteko pertsonak egindako delituetan. Bada, bi gauza horiek Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren kontseilaria bultzatu dute betearazpenaren eskumena bere gain hartzera. Hori, 1996ko urtarrilaren 1ean izan da, eta, gaur egun, eskumen hori aurrera eramaten ari da Giza Eskubideen eta Justizierekiko Lankidetzarako Zuzendaritzan.

Bi urte honetan, eskuhartzea erabaki da neurrien betearazpena oso mugatuta gelditzen zen Lurralde Historikoetan, hau da, Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban berriz, eskuhartzearen data atzeratu da beste bi Lurraldeetan sistema abian jarrita egon arte, eta, Arabako Foru Aldundiarekin erabaki arte zein zen Lurralde horretan esku hartzeko modurik egokiena.

Gaur egun, badira elkarriketak Giza Eskubideen eta Justizierekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailaren artean, neurrien betearazpena, azkenean, nola erabakitzen den zehazteko xedearekin. Foru Aldundiak neurrien betearazpena bere gain hartu zuen beste inongo erakunderik konpromezurik hartu ez zuenean, eta, bere eskuhartzearen oinarrian beti bere uste osoa agertu du babeseko sistemaren eta gazteentzako justiziaren

sistemaren artean lotura estua mantentzearen beharraz. Bada, Foru Aldundia ez dago neurrien betearazpena prozedura bateratuaren bidez egitearen aurka<sup>16</sup>, ezta jarduerak Eusko Jaurlaritzan zentralizatzearen aurka ere. Beste bi Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek sekulan ez dutenez alor honi dagozkion eskumenak bere gain hartu, Arabako Foru Aldundia prest dago bat egiteko 1996ko hasieran zehazten den ereduarekin. Data horretan, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak heldu zion eskumen horiek aurrera eramateari. Hala ere, Foru Aldundi horrek uste du ezinbestekoa dela, Araban, behar beste mekanismo egituratzea, adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartzeetarako zuzendutako bitartekoak murriztu ez daitezen eta eskuhartze horiek jarduera-egitarau berezi baten barranean antolatu daitezen, behar adina langile gaiturekin, gainera. Alde horretatik, komenigarria da gogoan hartzea aipatutako Zuzendaritzak egindako aurreikuspenak eta txostenaren VI atalean bilduta daudenak.

#### **4. ETORKIZUNERAKO JOERAK: ADIN TXIKIKOEN JUSTIZIA ARAUTZEN DUEN LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUA<sup>17</sup>**

Jarraian, laburrean islatzen dira testu berriak aintzat hartu dituen printzipioak eta ekartzen dituen berritasunak. Horren xedea da, informazioa ematea etorkizunean gazteentzako justiziak, seguru aski, segituko dituen oinarrizko orientabideei buruz.

##### *Aintzat hartutako printzipioak*

- Adin Txikiko lege-hausleei aplikagarri zaizkien prozeduraren eta neurrien tankera ez-penala baizik eta zehatzaile-hezigarria.
- Adin Txikikoaren eskubide konstituzionalak aintzat hartzetik eratorritako berme guztien aitortpen zehatza, baita Adin Txikikoaren interesetik eratorritako esigentzia bereziak ere.
- Zenbait adin tarteren bereizketa, ondorio prozesalei eta zehatzailei begira.

---

<sup>16</sup> Informazio hau emana izan da txostenaren azken bertsioa egiterakoan, txostena bera argitaratu eman baino lehentxeago.

<sup>17</sup> Txosten hau egiten ari zela ezaguna zen azken Aurreproiektuak 1997ko uztailaren 1eko data du.

- Malgutasuna neurriak hartzerakoan eta betearazterakoan, kasuz kasuko inguruabarren arabera.
- Erkidego Autonomoetako erakunde publiko arduradunen eskuduntza neurriak betearazteko babeseko edo erreformako alorrean.
- Betearazpenaren kontrol judiziala.

#### *Oinarrizko osagaiak eta berritasunak 4/1992 Legearekin alderatuta*

- Erantzunkizunaren adin minimoa goratzen da 12 urtetik 13ra. Muga horren beheetik dauden lege-hausleek egindako egintzei dagozkien kasuak igorriko zaizkie babesaren alorrean arduradun diren agintarieei.
- Adin Txikikoen Epaitegien eskuduntza zabaltzen da 16 eta 18 urte arteko pertsonak egindako egintzen erabakimenera, 1995eko Kode Penalaren 19. artikulua dionari jarraikiz.
- Halaber, indarrean dagoen Kode Penalarekin bat eginez, Adin Txikiko justiziaren araudi erregulatzailaren aplikazio-esparrua zabaltzen da egintzen egilea 18 eta 21 urte bitartekoa den kasuetara, Epaila eskudunak hala erabakitzen baldin badu, ustez erantzule den pertsonaren nortasunari eta heldutasun mailari erreparatuta, beti ere. Aukera hori alde batera uzten da indarkeriazko egintzak edo arrisku larrikoak direnean (hilketa, lesioak, ez legezko atxiloketak, bahiketak, eraso sexualak, lapurketa indarra erabiliz, seguritate kolektiboaren aurkako delituak, suteak, atentadiak, leherkariak edukitzea edo gordetzea, terrorismoa eta jendeen zuzenbidearen aurkako delituak eta genozidioa).
- Adin Txikikoen Epaitegien eskuduntza zabaltzen da, eta, horren arabera, badute eskumena ez legezko egintzen komisiotik eratorritako hala erantzunkizun zehatzailea nola erantzunkizun zibila eskatzeko.
- Hala egindako egintzen, nola Adin txikikoaren edo bere inguruabarren interesaren balorazio-irizpideari eusten zaio, neurri baten ala bestearren komenigarritasunari dagokion erabakia hartzerakoan.
- Aplikagarri diren neurrien sorta zabaltzen da, eta, sorta horretan sartzen dira: eguneko zentrora joan behar izatea, asteburuko arrestatzea lanak eginez, zaintzapeko askatasuna gainbegiratze estuarekin, familia edo talde hezigarri batekin elkarbitzea, lan sozio-hezigarriak egitea, ziklomotoreak edo ibilgailu motordunak gidatzeko baimena lortzeko eskubidea kentzea, eta ehizarako edo edozein arma motarako baimen administratiboak lortzeko eskubidea kentzea.

- Neurrien aplikaziorako arauak ezartzen dira ondokoa aintzat hartuta: egintzen izaera juridikoa, neurrien iraupena, lege-hauslearen adina, eta arau-hauste bat baino gehiago egin izana.
- Fiskalaren esku mantentzen dira argibide mailako eginkizunak, hala nola espedienteari hasiera ematen diotenak, eta, ez da onartzen akusatzaile partikularren figura.
- Espreski onartzen da aukera-printzipioa. Horri jarraikiz, Fiskalak uko egin diezaioke espedientearen hasiera emateari, Kode Penalaren arabera, egintzak delitu ez horren arin edo falta bezala kalifikatu daitezkeenean. Baldintza da egintzak 16 urtez beheko pertsona batek eginak izatea, eta delako pertsona horrek bere zuzenketa aurkitu ahal izatea inguru hezigarrian edo familiarrean.
- Espedientea bere hasieran artxibatzeke aukera mantentzen da, eragindako kaltea konpontzen baldin bada, edota, lege-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzea gertatzen baldin bada, beti ere.
- Mantentzen da, noski, Epailearen baimena edukitzeko beharra oinarritzko eskubideak ukitzen dituzten eginbideak egiteko.
- Aurreikusten da Abokatuak, aldi oro, espedientean sarbidea izatea.
- Talde Teknikoaren txostenaren beharra mantentzen da egintzen ikerketaren osagarri. Txostenean agertuko da Adin Txikiko lege-hauslearen egoera psikologikoa, heziketari dagokiona, familia giroa, inguru soziala, eta daitezkeen konponbide sozio-hezigarriak.
- Baneratze itxiaren kautelazko neurriaren gehienezko iraupena zehazten da, -hiru hilabete eta beste hiru luzagarri- (gaur egungo araudiaren arabera, hilabetekoa da aurreikusten den hasierako epea. Epe horretan neurria aldatu edo berretsi beharra dago, baina neurria berresten baldin bada, 4/92 Legearen testuak ez du epea espreski mugatzen). Horrez gain, alde zuzeneko agertzea aurreikusten da.
- Agintzen da entzutegi-saioa atea itxita dagoela egin beharko dela.
- Epaileak epaian bildutako erabakia bertan behera uzteko duen aukera mantentzen da, gehienez ere, bi urte barruko epean. Horretarako, bertan behera uzte horrek dirauen bitartean, zenbait baldintza bete behar dira, eta, bete ezean, aipatutako suspentsioa kenduko litzateke.

- Espreski sartzten da postulazioaren printzipioa. Horren arabera, Epaileak ezarritako neurriak, bere izaera edo iraupena dela eta, ez dezake Fiskalak eskatutakoa baino eskubide murrizketa handiagoa ekarri.
- Helegiteen sistemak bere baitan biltzen du autoen eta probidentzien aurkako erreforma helegitea Epailearen beraren aurrean tartekatzeo aukera, eta apelaziokoa Auzitegi Gorenaren Adin Txikikoaren Aretoaren aurrean, prozedura bukatutzat jotzen duten autoen kontra eta epaien aurka. Era berean, aurreikusten da doktrina bateratzeko, kasazio helegitea tartekatzeo aukera, Auzitegi Gorenaren Bigarren Aretoaren aurrean, eta, horren arabera, errekurritutako epaiak dira Justiziako Auzitegi Gorenak apelazioan agindutakoak, Aurreproiektuan aurreikusitako neurriak bere gorenako mailan eta 9. artikulua, -4garren eta 5garren arauak<sup>18</sup> -, dioenari jarraikiz, ezartzen direnean.
- Jokabideak ezartzen dira neurriak exekuziorako, eta, horien arabera, haxe gutzia arautzen da: Idazkari judizialak aurrera eramandako likidazioa, espediente pertsonala, nola jokatu neurriak pilatzen direnean edo ezarritako neurria hausten denean, neurri baten ordeztu beste bat ezartzea betearazpenaldian Adin Txikikoaren hobebeharrez egiten denean, eta eman beharreko ebazpen judiziala, neurria oso osorik bete denean. Horrez gain, arau berezi sorta bat ere sartzten da barruratzeko neurrien betearazpenari begira (zentro motak, barruratutako Adin Txikiko lege-hausleen

---

<sup>18</sup> «4garren Araua: Aurreko apartatueta esandakoa bazter utzi gabe, ordea, egintzak egiterakoan hamasei urte bete dituzten pertsonen dagokienez, neurrien iraupen epea gehienez ere bost urtekoa izan ahalko da, proposatutako helburuak bete ahal izan daitezkeen, egindako delitua Lege honen 4.3 artikulua zerrendatutakoaren artean baldin badago, beti ere, eta, subjektuak neurria luzatzeko adina gabezi hezigarri agertzen baldin baditu, Talde Teknikoak bere txostenean idatziz jasotakoak Adin Txikikoaren eta bere giro sozialaren inguruabarrak baloratzerakoan. Kasu horietan, berrehun orduko artekoa izan ahalko da erkidegoaren onerako egiten den zerbitzu egitea, eta hamasei asteburuetakoa, berriz, asteburuko arrestatzearen neurria, lanak eginez, beti ere.

5garren Araua: Salbuespenez, aurreko apartatuan aurreikusitako kasuak muturreko larritasuna edukiez gero, epaiak espreski aipatutakoa, Epaileak gehienez ere bost urte arteko iraupeneko neurria ezarri ahal izango du barruratzeko efektiboko erregimen itxian. Jarraian, Epaileak beste neurri osagarri bat, zaintzapeko askatasuna heziketa-asistentziarekin, ezarri ahal izango du, gehienez ere beste bost urte arteko iraupenarekin. Zaintzapeko askatasunaren neurria auto motibatuaren bidez berretsi beharko da barruratzeko bukatzerakoan, eta, Fiskaltzak, Adin Txikikoaren Abokatuak eta babeseko edo Adin Txikikoaren erreformako erakunde publikoaren ordezkariak esateko dutena entzun ondoren. Neurri hau aurrera eraman beharko dute, propio, penak betearazteko ardura duten erakunde publikoek, indarrean dagoen Kode Penalak, 105.1 artikuluan dioenari jarraikiz. Nolanahi ere, muturreko larritasuna duen delitutzat joko da eguneko lege honen 4.3 artikuluan zerrendatutako delituren batean bererortzea.»

eskubideak eta beharrak, Argibideak eta erreklamazioak, zainketa eta seguritate neurriak, e.a.).

- Delitu edo falta sortu duten egintza diren aldetiko erantzunkizun zibilaren erregulazioan, Aurreproiektuak sartzen du Adin txikikoaren eta bere gurasoen, tutoreen, hartzaileen, zaintzaileen edo egitez zaintzaile direnen erantzunkizun solidarioa, eta Epailearen esku mantentzen da erantzunkizun hori arintzeko aukera bere aldetik dolorik edo zabarkeria larririk izan ez denean. Lege-hauslea Erkidego Autonomoen erakunde publikoen kargura dagoenean, aplikatu beharra dago Indarkeriazko Delituengatiko eta Sexu Askatasunaren aurkako delituengatiko Biktimei Laguntza eta Asistentzia emateko Legeak<sup>19</sup> xedatutakoa, zeinaren bitartez biktimaren onerako laguntzabide publikoa arautzen den.
- Mantentzen da Kode Penalaren eta Auzitaratze Kriminalaren Legearen supletorietatea.
- Agintzen da antolaketa judizialaren-Justiziako Auzitegi Gorenaren Adin Txikikoen Aretoen eraketa, Adin Txikikoen Epaitegien egokitzapena eta Auzitegi Goreneko Bigarren Aretoaren osaketaren egokitzapena-, eta karrera judizialaren nahiz Fiskalaren plantilen egokitzapena, hala nola Justizia Administrazioaren pertsonalarena, eta Epaileen, Fiskalen eta Abokatuen espezializazioa.

---

<sup>19</sup> 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, EBOean 1995eko abenduaren 12an argitara emandakoa.

**III. ATALA**  
**ZERBITZUEN SAREA ETA**  
**ATENDITUTAKO POPULAZIOA**



## **1. ORGANO JUDIZIALEN OSAKETA**

Prozeduran esku hartzen duten tankera judizialeko organoen egitura berdina da hiru Lurralde Historikoetan. Izan ere, egitura horrek men egiten die 39/1988ko abenduaren 28ko Demarkazio eta Planta Judizialaren Legeak Adin Txikikoen Epaitegiei buruz<sup>20</sup>, estatu mailan, ezarritako xedapenei, hala nola, 50/1981ko abenduaren 30ko Ministerio Fiskalaren Estatuto Organikoaren Legeak<sup>21</sup> dioenari, Fiskaltzei buruzko legea baita.

### **1.1. Adin Txikikoen Epaitegiak**

Erkidego Automoan Adin Txikikoen hiru Epaitegi daude, Gasteizen, Bilbon eta Donostian kokatuak, eta, bakoitzak badu dagokion Lurralde Historikoaren gaineko eskuduntza. Hona hemen Adin Txikikoen Epaitegiek duten pertsonalgora:

- Epaile-Magistratu bat;
- Epaitegiko Idazkari bat;
- Ofizial bat;
- Laguntzaile bat;
- Agente bat.

Bilboko eta Gasteizko Magistratuak titularrak dira eta Adin Txikikoen Epaile gisa aritzen dira, hurrenez hurren, duela hiru eta bost urte baino gehiagotik hona. Bere eginkizunak Donostian egiten ari dena, ordea, duela gutxi (1997) iritsi da postura eta zerbitzu-betekizunean dago. Lehendabiziko biek euren lana modu eskusiboan burutzen ari dira eta, hirugarrena, ordea, adli berean da Adin Txikikoen Epailea eta Argibideetako Epailea. Karrera judizialean, bada Adin Txikikoen Epaile gisa espezializatzeke aukera, Karrera Judizialeko 1/1995, ekainaren 7ko

---

<sup>20</sup> 1988ko abenduaren 30eko EBO.

<sup>21</sup> 1982ko urtarrilaren 13ko EBO.

Araudiak<sup>22</sup> araututakoa, eta, Epaille arabarrak badu espezializazio hori. Magistratu gisa, zuzenean daude Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren menpe, eta, beren eginkizunen jardunean, araubidetzat dute Botere Judizialeko 6/1985, Lege Organikoa<sup>23</sup>, uztailaren 1enekoak.

Epaitegietako Idazkaria Zuzenbidean lizentziatutako eta karrerako funtzionaria den pertsona baten kargu dago beti. Idazkariak, autonomiaz eta independentziaz, fede publiko judiziala dihardu, eta, bere gain ditu Botere Judizialeko Lege Organikoak hari esleitutako bulego judizialaren eta prozesuaren antolamenduaren zuzendaritzari dagozkion eginkizunak. Donostiako eta Gasteizko Idazkari Jaunak eta Bilboko Idazkari Andrea, hirurak beren postuaren titular dira eta postu horri atxikiak daude duela zazpi urtetik hona, lehendabizikoari dagokionez, eta ia duela lau urtetik hona, beste biei doakienean. Araubidetzat dute Epaitetzako Idazkarien Gorputzaren Araudi Organikoa, 250/1996, otsailaren 16ko Errege Dekretuak<sup>24</sup> aldatutakoa, eta organikoki Justizia Ministeritzaren menpe daude.

Adin Txikikoen Epaitegietako Ofizialek Epaitetzako Idazkariari berehalako laguntza emateko eginkizunetan dihardute eta Idazkarien berehalako menpekotasunean. Haien ardurapean dago, batez ere, era guztietako prozesuen tramitazioa, eginbideak, espedienteak eta beste jarduera batzuen, Epaileren esku utzi beharreko aktei baimena ematea, Epaitetzako Idazkariaren ordezkatzeta, Botere Judizialeko Lege Organikoak agintzen duen moduan, eta komunikazio ekitaldiak.

Laguntzaileek funtsean tankera administratiboko eginkizunak dituzte: agiriak erregistratzea, trasladoen prestaketa eta espedienteen komunikazio nahiz integrazio alorreko ekitaldiak.

Agenteek aretoa gordetzen eta gordearazten dute, enbarguak betearazten dituzte eta Epaitetzako polizia gisa dihardute.

Ofizialen, Laguntzaileen eta Agenteen eginkizunak bilduta daude euren Araudi Organikoan, otsailaren 16ko 249/1996 Errege Dekretuaren bidez onartua<sup>25</sup>. Organikoki Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Adiministrazioaren menpe daude. Eta hori horrela da Justizia Adiministrazioaren zerbitzuko bitarteko pertsonalen alorreko eginkizunak eta zerbitzuak Estatuko Adiministrazioetik Erkidego Autonomokora pasatu zirenetik. Martxoaren 15eko 514/1996 Errege Dekretuak agindu zuen hori<sup>26</sup>.

---

<sup>22</sup> 1995eko uztailaren 13ko EBO.

<sup>23</sup> 1985eko uztailaren 2ko EBO.

<sup>24</sup> 1996ko martxoaren 1eko EBO.

<sup>25</sup> 1996ko martxoaren 1eko EBO.

<sup>26</sup> 1996ko apirilaren 12ko EBO.

Adin Txikikoek Epaitegietako lan ordutegia zazpi ordu eta erdikoa da egunero, eta, gehienetan betetzen dira goizeko 8ak eta arratsaldeko 15,30 artean. Dena den, bada malgutasun maila bat lan ordutegiaren betekizunean, Epaitegiko atariak 7ak eta 7,30ak bitartean zabaltzen baitira bertan lan egiten dutenentzat.

## **1.2. Adin Txikikoen Fiskaltzak**

Lurralde Historiko bakoitzean bada Adin Txikikoen Fiskaltza bana eta horietako bakoitzak bi Fiskal ditu. Gaur egun, Bizkaiako Fiskaltzaren karguetako bat salbuetsiz, postuak berriki iritsi diren pertsonen hartuta daude. (urtebetea eta bi urteren artean).

Badira trebakuntza ikastaroak eta aukera izanez gero, behintzat, horietan parte hartzen dute. Hala ere, Fiskalen karreran ez da Adin Txikiko lege-hausleenganako eskuhartzeetan inolako espezializaziorik. Etorkizunean, joera litzateke trebakuntza hori ezartzea, Adin Txikiko Justiziaren Lege Organiko Erregulatzailaren azken bostgarren xedapenak aurreikusten duenari jarraikiz eta Justiziaren Liburu Zurian gomendatutakoaren arabera, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak 1997an egindakoa.

Adin Txikikoen Fiskaltzen eginkizunak ez daude mugatuta Adin Txikikoen Epaitegien erabakimenaren menpe dauden kasuetara. Halaber, eskudunak dira arrisku egoeran edo babesik gabe dauden mutikoen, neskatuen eta nerabeen babesaren alorrean, Adin Txikikoaren Babes Juridikoaren 1/1996, urtarrilaren 15eko Legeak, Kode Zibila<sup>27</sup> eta Auzitaratze Kriminalaren Legea aldatzeko, dakarrenaren arabera. Euren eginkizunak aurrera eramateko araubidea Fiskaltzen Estatuto Organikoa da, abenduaren 30eko, 50/1981, Legeak onartutakoa<sup>28</sup>. Adin txikiko lege-hausleen eskuhartzearen esparruan, aplikagarri ere zaio Estatuko Fiskaltza Nagusiaren, 1/1993ko martxoaren 16ko Instrukzioa. 4/1992, ekainaren 5eko Lege Organikoaren prozeduraan Fiskaltzak eduki beharreko jardueraren lerro nagusiei buruzko Instrukzioa zen hura.

Adin Txikikoen Epaitegiek bezala, Fiskaltzek ere badute Bulego Judizial bat. Bulego horietan guztietan nabarmena da bitarteko materialetan eta pertsonaletan duten eskasia 4/1992 Legeak haiei egokitutako instrukzioko lanei aurre egiteko. Aurreproiektuak gainera, zabaldu egiten ditu lan horiek. Izan ere, gazteen justiziaren eskuduntzaren esparruaren baitan sartzen ditu 16 eta 18 urte bitartean dauden lege-hausleak, eta, halako inguruabar zehatzak gertatzen direnean, baita 18 urtez gorako eta 21 urtez beheko delituegileak ere. Bitarteko mugaketa

---

<sup>27</sup> 1996ko urtarrilaren 17ko EBO.

<sup>28</sup> 1982ko urtarrilaren 13ko EBO.

hori modu esplizituan adierazten da, arestian aipatutako Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioan.

## 2. TALDE TEKNIKOAK

Adin Txikikoen Epaitegi bakoitzak badu bere zerbitzuari atxikitako Talde Tekniko bana. Talde tekniko hauen eginkizun nagusia da arau-hauste bat leporatzen zaien adin txikikoen egoera psikologikoaz, edukatiboaz eta familiarraz txostena egitea. Halaber pertsona horien inguru sozialaz, eta, oro har, egintzaren komisioan eragina eduki ahal izan duen beste edozein inguruabarri buruz.

Laburbiltzeko, esan daiteke, Talde Teknikoak administratiboki Eusko Jaurlaritzaren menpe daudela, organikoki Adin Txikikoen Epaitegien menpe, eta funtzionamenduari dagokionean, Fiskaltzen menpe. Lehenbiziko gauza horrek esan nahi du Talde hauetako profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren langileak direla<sup>29</sup>. Bigarrenak, berriz, Adin Txikikoen Epaitegiei atxikita daudela. Eta hirugarrenak, azkenik, Fiskalek eskaturik egiten dutela euren eskuhartze nagusia, txosten teknikoa prestatzea, alegia.

Hona hemen euren osaketaren isla Lurralde bakoitzerako prestatutako taulaotan:

### 3. TAULA: GASTEIZKO ADIN TXIKIKOEN EPAITEGIARI ATXIKITAKO TALDE TEKNIKOAK

Postua	Noren menpe	Noiz atxikia Epaitegiari	Zenbat lan ordu urtean	Titularra/ behin-behinekoa	Sexua	Zenbat urte haurren atentzioan	Zenbat Trebakuntza ordu 1996an eta 1997an <sup>1</sup>	Kualifikazio akademikoa
Hezitzailea	Eusko Jaurlaritza	1988ko Irail.	1.660 <sup>2</sup>	Titularra	E	1,5	80	Historia
Gizarte laguntzailea	Eusko Jaurlaritza	1993ko Otsail.	1.660 <sup>2</sup>	Titularra	E	8	280	Gizarte Lana Familia Terapia
Psikologoa	Eusko Jaurlaritza	1997ko Apiril.	1.660	Behin-behinekoa	E	-	5	Psikologia Psikologia Juridiko Masterra
Psikologoa	Eusko Jaurlaritza	1989ko Uztail.	1.660	Titularra	E	2	25	Psikologia Klinikoa

<sup>1</sup> 1997ko lehen seihilabetekoa.

<sup>2</sup> Urteko lan jardun honetan bilduta dago euskara ikasteko eguneroko 2 orduak.

Iturria: Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegiari atxikitako Talde Teknikoa. Prestaketa SII-S-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

<sup>29</sup> Alde horretatik, euren lan katalogaioa, gaur egun, goi edo goiko tituludunaren mailari dagokion kategoriarik baxuena da, eta, profesionalek diote euren erantzunkizun mailari begiratuta, logikoagoa litzatekeela ertaineko edo goiko kategorian egotea; erabaki gabe dago euren behin betiko kategoria.

#### 4. TAULA: BILBOKO ADIN TXIKIKOEN EPAITEGIARI ATXIKITAKO TALDE TEKNIKOA

Postua	Noren menpe	Noiz atxikia Epaitegiari	Zenbat lan ordu urtean	Titularra/ behin-behinekoa	Sexua	Zenbat urte haurren atentzioan	Trebakuntza orduak 1996an eta 1997an <sup>1</sup>	Kualifikazio akademikoa
Psikologoa	Eusko Jaurlaritza	1992ko Mart.	1.660	Titularra	E	6	36	Psikologia
Hezitzailea	Eusko Jaurlaritza	1988ko Iraila	1.660	Titularra	G	18	36	Maisutza
Gizarte Langilea	Eusko Jaurlaritza	1993ko Mart.	1.660 <sup>2</sup>	Titularra	E	6	36	Gizarte Lana
Hezitzailea	Eusko Jaurlaritza	1988ko Iraila	1.660 <sup>2</sup>	Titularra	E	14	36	Pedagogia Psikologia

<sup>1</sup> 1997ko lehen seihilabetekoa.

<sup>2</sup> Urteko lan jardun honetan bilduta daude euskara ikasteko eguneroko 2 orduak.

Iturria: Bilboko Adin Txikikoen Epaitegiari atxikitako Talde Teknikoa. Prestaketa SISI-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

#### 5. TAULA: DONOSTIAKO ADIN TXIKIKOEN EPAITEGIARI ATXIKITAKO TALDE TEKNIKOA

Postua	Noren menpe	Noiz atxikia Epaitegiari	Zenbat lan ordu urtean	Titularra/ behin-behinekoa	Sexua	Zenbat urte haurren atentzioan	Trebakuntza orduak 1996an eta 1997an <sup>1</sup>	Kualifikazio akademikoa
Hezitzailea	Eusko Jaurlaritza	1991ko Irail.	1.660	Titularra	G	3	64	Maisutza Historia Pedagogia Logopedia
Psikologoa	Eusko Jaurlaritza	1991ko Irail.	1.660	Titularra	E	7	40	Maisutza Psikologia
Gizarte Langilea	Eusko Jaurlaritza	1997ko Apiril.	1.660	Behin-behinekoa	E	2	16	Gizarte Lana Familia Terapia

<sup>1</sup> 1997ko lehen seihilabetekoa.

Iturria: Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiari atxikitako Talde Teknikoa. Prestaketa SISI-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Hara zer esan daitekeen talde teknikoetako plantilei dagozkien datuak ikusita:

- Donostian hiru profesional dituzte, eta launa, aldiz, beste bi Epaitegietan; hori horrela da Bizkaian beste Lurraldetan baino jende gehiago atenditu behar dutelako, eta Araban, berriz, bertako taldeak Familiako, Penaleko eta Instrukzioko Epaitegiek eskatutako txostenak ere prestatzen dituztelako. Bilbon eta Donostian, ordea, azken Epaitegi horiek, nork bere taldea du.
- Kualifikazio akademikoak, burutu beharreko eginkizunaren arabera dira; are gehiago, hamaika profesionaletatik, bostek badute bai kualifikazio bikoitza, bai espezializazioen bat.

- Urtean, 60 ordu ingurukoa da, bana beste, trebakuntzari eskainitako denbora: orduak, gutxienez, 5 eta, gehienez, 280 artean dabilta. Bi mutur horiek Arabako taldean ikusten dira, eta, horrela, bataz bestekoa urtean, 100 ordukoa da. Donostian, bataz bestekoa, 40 ordukoa da, eta Bilbon, berriz, 36koa. Talde Tekinikoetako kide guztiek parte hartu dute Eusko Jaurlaritzak, 1997an, antolatutako trebakuntza ikastaroan. Ikasgaia bitartekaritza izan zen.
- Esperientzia profesionalari dagokionean, bataz beste, ia sei urtekoa da Epaitegiekiko atxikipenaren denbora. Izan ere, 4/1992 Legea indarrean sartu baino lehenago, Epaitegietako profesional askok teknikari gisa ziharduten. Gutxienerako denbora urtebete baino gutxiagokoa da eta, gehienezkoa, aldiz, bederatzikoa. Bizkaiako Taldeak agertzen du bataz bestekorik altuena, zazpi urte baino gehiagoko esperientzia baitute. Araban, ia 6 urtekoa da, eta, Gipuzkoan, berriz, 4 baino gehixeagokoa.

Bataz beste, 6 urte daramate haurren atentzioa lantzeko eginkizunetan, eta, Bilboko Taldeko hezitzaile batek daramatza urterik gehien, 18 urte, zehazki. Halaber, atal honetan ere Bilboko Epaitegiari dagokio bataz bestekorik altuena, 11 urtekoa baita. Donostian lau urtekoa da, eta, Gasteizen ia 3koa.

- Lanpostuetako tankera iraunkorra edo behin-behinekoari dagokionean, bederatzi postuetako titularren esku daude, eta bi besterik ez eginkizun horietan behin-behinekoz diharduten profesionalen esku. Aurreko honek Taldeen egonkortasuna erakusten du.
- Sexuen proportzioan ez da orekarik: 9 profesional emakumeak baitira eta gizonezkoak bi baizik ez dira.
- Talde Teknikoetan, bakar batek ere ez du langile administrazioerik.
- Tamainari dagokionean, nahitaez adierazi beharra dago azken urte honetan, 1995eko Kode Penala indarrean sartu zenetik, euren lanak nabarmen egin duela gora. Hori gertatzen ari da 16 eta 18 urte arteko lege-hausleek eskuhartutako auzien erabakimena bere gain duten Argibide-Epaitegiek txostenak eskatzen dituztelako<sup>30</sup>.

---

<sup>30</sup> Gai horri berriz ere helduko zaio prozedurak aztertzerakoan.

### 3. EUSKO JAURLARITZAKO GIZA ESKUBIDEEN ETA JUSTIZIAREKIKO LANKIDETZARAKO ZUZENDARITZA

Giza Eskubideen eta Justiziarrekiko Lankidetzarako Zuzendaritza Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailean sarturik dago, eta, gaur egun, langile-plantila honela osaturik dago, Adin Txikikoen Epaileek agindutako neurrien betearazpena bere gain har dezaten:

### 6. TAULA: EUSKO JAURLARITZAKO GIZA ESKUBIDEEN ETA JUSTIZIAREKIKO LANKIDETZARAKO SAILAREN PERTSONALA-GAZTEENTZAKO JUSTIZIA ZERBITZUA

Postua	Noren menpe	Noiz atxikia Zerbitzuari	Zenbat lan ordu urtean	Titularra/ Behin-behinekoa	Sexua	Zenbat urte haurren atentzioan	Zenbat trebakuntza ordu 1996an eta 1997an <sup>1</sup>	Kualifikazio akademikoa
Gazteentzako Justizia Teknikaria	Eusko Jaurlariza	1996ko Irail.	1.660	Behin-behinekoa	G	14	60	Psikologia
Gazteentzako Justizia Teknikaria	Eusko Jaurlariza	1996ko Maiatz.	1.660	Behin-behinekoa	E	6	40	Soziologia eta Zientzia Politikoak
Ordezkaritza Teknikoa (Gipuzkoa)	Eusko Jaurlariza	1986	1.660 <sup>2</sup>	Titularra	E	13	38	Z. Politikoak Soziologia Psikologia
Ordezkaritza Teknikoa (Bizkaia)	Eusko Jaurlariza	1967	1.660 <sup>2</sup>	Titularra	E	-	36	Gizarte Lana
Ordezkaritza Teknikoa (Bizkaia)	Eusko Jaurlariza	1967	1.660 <sup>2</sup>	Titularra	E	-	36	Gizarte Lana Soziologia

<sup>1</sup> 1997ko lehen seihilabetekoa.

<sup>2</sup> Berriki Administrazio Autonomikora pasatu denetik.

Iturria: Giza Eskubideen eta Justiziarrekiko Zuzendaritza eta Bilboko, eta Donostiako Ordezkaritza teknikoak. Prestaketa: SISIS- Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

- Esparru honetan lanean ari diren bi teknikariak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzako funtzionariak dira. Funtzionalki zedituak izan dira Giza Eskubideen eta Justiziarrekiko Lankidetzarako Zuzendaritzara 226/1997, urriaren 14ko Aginduak<sup>31</sup> onartutako Lanpostuen Zerrendan sortutako postu bete gabeen estaldura erreglamentarioaren zain. Bi biak goi tituludunak dira -psikologian, eta soziologian nahiz zientzia politikoetan,

<sup>31</sup> 1997ko urriaren 31ko EAEBO.

hurrenez hurren-, eta bi biek esperientzia handia dute haurren atentzioan, 14 eta 6 urte, hurrenez hurren. Bi teknikari hauek lan egiten dute Zuzendaritzako egoitzan eta lan administrazioko lana bere gain duen profesional baten laguntza dute.

- Hiru Ordezkaritza Teknikoak Ordezkaritza Profesional Teknikoak dira. 4/1992 Legea indarrean sartu zenean, Adin Txikikoen Tutoretzako Auzitegietan edo Adin Txikikoen Epaitegietan aritzen ziren lanean. Aipatutako legezko testu horretako azken bostgarren xedapenak, bere bigarren apartatuan, zekarrenez, bertan behera uzten zen langile hauen zerbitzua Justiziako Administrazioan, eta, aldin berean, atxikitzen zituen Adin Txikikoen gaietan eskuduna den Administrazio Publikoari, esan nahi baita, neurrien betearazpenaren erantzunkizuna zuen Administrazioari. Dena dela, horrek ez zion traba egiten Ordezkaritza gordetzen zitzaizkien aukerari, karrerako funtzionarioak izanda, talde teknikoetako langileen plantiletan sartzeko.

Ordezkaritza hauek euren eginkizunak betetzen dituzte Adin Txikikoen Epaitegietako egoitzan, bat Donostian, eta beste biak Bilbon.

Esperientzia handia dute Adin Txikiko lege-hausleen atentzioan eta euren kualifikazio akademikoa bat dator burutzen duten eginkizunarekin. Horiek guztiek 36 orduko trebakuntza izan dute 1996an eta 1997ko lehen seihilabetekoan.

Giza Eskubideen eta Justiziariekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak prestatutako Adin Txikikoen Epaitegiek erabakitako Neurrien Exekuziorako Planaren arabera, plantila handituko da. Plantillari deituko zaio Gazteentzako Justiziaren eta Adin Txikikoaren Talde Espezializatua, eta, euren egoitza Zuzendaritzan bertan egongo da. Orduan, hauek izango dira Taldekideak: Gazteentzako Justiziarako Arduradun bat, psikologian eta pedagogian lizentziatua behar duena, Gazteentzako Justiziarako teknikari bat, psikologian lizentziatua eta beste teknikari bat, gizarte lanean lizentziatua.

Gaur egungo Ordezkaritza teknikarien izena Justizia eta Gazteriaren Lurraldeetako Teknikariak izango da. Zuzendaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko elkarriketen arabera, behar bada, beharrekoa izango da, alor honetarako aurreikuspenak egitea, Arabako lurralderako<sup>32</sup>.

- Gobernuak zenbait komenio sinatu ditu Renfe, Eusko Tren, Metro-Bil-

---

<sup>32</sup> VI atalean zehazten dira Eusko Jaurlaritzak, bitarteko pertsonalen eta materialen horniketari buruz, egiten dituen aurreikuspenak eta hori egiten du, Kode Penalaren 19 eta 69 artikuluen indarrean sartzeko ekarriko dituen eskumenen aplikazioari erreparatuta.



bao-rekin adiskidetze-erreparazioak egiteko eta erkidegoaren onerako zerbitzu egiteen neurriak gauzatzeko. Halaber, asmoa da komenioak sinatzea Caritas eta Gurutze Gorriarekin. Izan ere, euren egoitzak han hemenka daudenez, eta, hiru Lurralde Historikoetan daudenez, komenigarria da haien elkarlana ziurtatzea. Aurrekoari traba egin gabe, Zuzendaritzak dio eskuhartzeek bat egin behar dutela lege-hausle bakoitzak dauzkan behar berezikein. Beraz, zenbait antolamendurekin eginik dauden komenioek haien laguntza bermatu nahi dute, haien eskuhartzea egokitzat jotzen baldin bada, baina ez du esan nahi antolamendu horietara, nahitaez, jo beharra dagoenik.

#### **4. ARABAKO FORU ALDUNDIKO HAUR, GAZTERIA ETA FAMILIAKO LURRALDE ZERBITZUA**

Arabako Foru Aldundiak, adin txikiko lege-hausleenganako bere eginkizunak aurrera eramaten ditu Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen Haur, Gazteria eta Familiako Lurralde Zerbitzuaren bitartez. Erantzunkizuna dauka ondoko neurrien betearazpenan. Zaintzapeko askatasuna, erkidegoaren onerako zerbitzu egiteak, aterpe emateak eta tratamendu anbulatorioa. Barruratzearen betearazpena, berriz, Eusko Jaurlaritzari dagokio, beste Lurralde Historikoetan gertatzen den bezala. Hona hemen eginkizun hauen garapenean parte hartzen duten profesionalak:

## 7. TAULA: ARABAKO FORU ALDUNDIKO HAUR, GAZTERIA ETA FAMILIA ZERBITZUKO PERTSONALA

Postua	Noren menpe	Noiz atxikia Zerbitzuari	Zenbat lan ordu urtean	Titularra/ Behin-behinekoa	Sexua	Zenbat urte haurren atentzioan	Zenbat trebakuntza ordu 1996an eta 1997an <sup>1</sup>	Kualifikazio akademikoa
Zerbitziburua	IFBS	1991ko Apiril.	1.678	Titularra	E	14	128	Psikologia
Gizarte Laguntzailea	IFBS	1997ko Martx.	1.678	Titularra	E	-	36	Gizarte Lana
Nerabeentzako sostengu hezigarriko egitarauaren hezitzaile arduraduna	IFBS	1997ko Urria	1.678	Titularra	E	8	54	Psikologia
Psikologoa	IFBS	1997ko Azaroa	1.678	Behin-behinekoa	E	-	-	Psikologia
Hezitzaile Familiak Hartzea)	IFBS	1990eko Apir.	1.678	Titularra	E	7	106	Gizarte Lana

<sup>1</sup> 1997ko lehen seihilabetekoa.

Iturria: Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizate Foru Erakundeko Haur, Gazte eta Familiako Zerbitzua. Prestaketa: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

- Ezinbestean gogoan eduki behar dugu Zerbitzu hau eskuduna dela arrisku edo babesik gabeko egoeran dauden mutiko, neskato eta nerabeen babesaren alorrean. Halaber, gogoan hartu behar da, talde honetako profesionalak euren erantzunkizunak batez ere, babesaren alorrean betetzen dituztela, alde batera utzita Adin Txikikoen Epaitegiekin zer ikusia duten egitarauen ardura daraman hezitzailea. Zaila da taxutzen zer nolako dedikazioa duten neurrien betearazpenan, eta, hori bereziki zaila da zerbitziburuari dagokionean, baina esan liteke, gainotzeko profesionali beharrezkoa zaiela unean uneko dedikazioa, eta, funtsean, esku hartzen dute hezitzaileari laguntza emateko, honek hala eskatzen duenean.
- Egitarauaren arduraduna psikologian kualifikatua da -zerbitziburua bezala eta, zerbitzuko psikologoa bezala, jakina-, badu 8 urteko haurren atentzioaren alorrean alde zurreko esperientzia eta taldean sartu da duela gutxi. Beste bi profesionalak gizarte lanean daude diplomaturik.
- Hartutako trebakuntza orduen batz bestekoa 65ekoa da 1996an eta 1997ko lehen seihilabetekoan, baina neurri hori oso makurtua dago gorantz, zerbitziburua 128 trebakuntza-orduengatik eta aterpe emate egitarauaren arduradunari dagozkion 106 orduengatik. Bi profesional hauek dira Epaitegiek erabakitako neurrien aplikazioan gutxien esku hartzen dutenak. Ikastaro gehienetako gaiak, oro har, haurtzaroari eta

familiari badagozkio ere, neurrien exekuziorako egitarauaren arduradunak hartutako ikastaroetako batek Gazteriaren Lege Penalaren Aurreproiektua landu du.

- Gaztea famili batean hartzearen neurriak ere badu bere egitaraua, era horretako neurriak aplikatzen dituen babesaren alorrean. Tratamendu ambulatarioko neurria aurrera eramaten da kontaktua eginez bai osasun mentaleko zentroekin, bai gabinete pribatuekin.
- Zaintzapeko askatasunaren betearazpena esleitu zitzaion IPACE enpresari, (Psicología Aplikada Clínica y Empresarial) eta enpresa horrek eramaten du aurrera. Erkidegoaren onerako neurria, berriz, aurrera eramaten da Gurutze Gorriarekin elkarlanean, komenioa sinatu baita. Eginkizun hauetan dabilen langilegoa 8 eta 9 tauletan zehazturik dago.

## 8. TAULA: IPACEko PERTSONALA

Postua	Noren menpe	Noiz atxikia Zerbitzuari	Zenbat lan ordu urtean	Titularra/ Behin-behinekoa	Sexua	Zenbat urte haurren atentzioan	Zenbat trebakuntza ordu 1996an eta 1997an <sup>1</sup>	Kualifikazio akademikoa
Zaintzapeko Askatasunaren Hezitzailea	IPACE	1996ko Martx.	1.700	Titularra	G	6	80	Maisutza
Zaintzapeko Askatasunaren Hezitzailea	IPACE	1997ko Apiril.	1.120	Titularra	G	6	100	Maisutza Geografia eta Historia
Zaintzapeko Askatasunaren Hezitzailea	IPACE	1997ko Urria	186	Titularra	G	8	-	Soziologia
Zaintzapeko Askatasunaren Hezitzailea	IPACE	1996ko Irail.	960	Titularra	E	6	150	Maisutza
Zaintzapeko Askatasunaren Hezitzailea	IPACE	1997ko Abuzt.	164	Behin-behinekoa	E	10	-	Maisutza Geografia eta Historia
Zaintzapeko Askatasunaren Egitarauaren Koordinatzailea	IPACE	1996ko Martx.	640	Titularra	E	8	60	Psikologia

<sup>1</sup> 1997ko lehen sei hilabetekoa.

Iturria: IPACE. Prestaketa SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

## 9. TAULA: GURUTZE GORRIKO PERTSONALA-GAZTERIA ZERBITZUA

Postua	Noren menpe	Noiz atxikia Zerbitzuari	Zenbat lan ordu urtean	Titularra/ Behin-behinekoa	Sexua	Zenbat urte haurren atentzioan	Zenbat trebakuntza ordu 1996an eta 1997an <sup>1</sup>	Kualifikazio akademikoa
Koordinatzaile	Gurutze Gorria	1997ko Urria	473	Praktikak	E	5	24	Gizarte Hezitzailea (3. maila)
Koordinatzaile	Gurutze Gorria	1997ko Uztail.	1.720	Behin-behinekoa	E	5	-	Psikologia
Monitorea	Gurutze Gorria	1996ko Urtarr.	10/astea <sup>2</sup>	Bolondresa	E/G	2 <sup>3</sup>	-	— <sup>4</sup>

<sup>1</sup> 1997ko lehen seihilabetekoa.

<sup>2</sup> Soil-soilik, zerbitzu-emate baten aplikazioa behar denean.

<sup>3</sup> Haurren atentziorako urteen kopurua ezberdina da bolondresen artean; batz bestekoa, bi urtekoa da atentziorako taldean.

<sup>4</sup> Kualifikazio akademikoa ezberdina da bolondresen artean.

Iturria: Gurutze Gorria - Gazteria Zerbitzua. Prestaketa: SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

IPACE enpresari egindako esleipena 1996koa da. Aurretik, Haurren Zerbitzuak berak burutzen zituen eginkizun horiek, eta, horretarako hezitzaile bat kontratatua zuen.

Erakundeak egitarauaren koordinaketaz arduratzen den psikologoa du, eta, gaur egun, baditu bost hezitzaile, den denak goi tituludunak edo ertainekoak. Aldez aurreko esperientzia profesionala ere badute haurren eta nerabeen atentziorako esparruan. Trebakuntza iraunkorraren batez bestekoa 1996an eta 1997ko lehen seihilabetekoan (hau da, zerbitzuari atxikitu baino lehenago) 65 ordukoa da, baina muturren artean dabil, 0 ordu (1997ko lehen seihilabetekoaren ondotik egitarauan sartutako bi profesionalen kasua da) eta 150 orduren artean. Ikusten da badela hezitzaile batzuen eta besteen arteko lan jardunean alde nabarmena. Batzuetan ordu asko, bestetan gutxi. Hori zor zaio une batean zein bestean erabakitako zaintzapeko askatasunaren neurrien kopuruari. Izan ere, hezitzaileen kontratazioa egiten da, indarrean dagoen zaintzapeko askatasunaren neurria bete behar duten lege-hausleen kopuruari erreparatuta. Bestalde, hezitzaileen soldatari buruzko baldintzak ez dira ikerketa taldearen iritziz egokiak. Lanbideak berak, bestalde, eta atenditutako populazioek badituzte zailtasunak. Beraz, profesional askok bokaziozko tankera izan arren, aipatutako horrek guztiak kalte egin liezaioke atentzioaren kalitateari, eta, horrekin batera, pertsonalgoan, egokitzen jotzen dena baino aldaketa gehiago gerta litezke.

Gurutze Gorriaren eskuhartzearen oinarrian elkarlanerako komenio bat dago. Komenio horrek, estaltzen du, batetik, egitarauaren parte hartzen duten adin txikiko lege-hausleen erantzunkizun zibilaren aseguruaren kostea, eta, bestetik,

koordinatzailearen soldata eginkizun horiei dagozkien partean. Halaber, komenioak estaltzen ditu erkidegoaren onerako zerbitzu egitearen neurriari lotuta dauden nerabeei egokitutako ekitaldiek sortzen dituzten gastuak.

Gurutze Gorrian, erkidegoaren onerako zerbitzu emateak kudeatzen dira Gazteriaren Zerbitzutik. Zerbitzu horretan bada arduradun bat, psikologian kualifikatua, behin-behinekoz bada ere, egun osoko lan jardunean kontratatua dagoena. Era berean, bada bolondresen taldea, eta, zerbitzu horretan aritzen dira astean hamar-hamaika orduz. Era honetako neurriak ez dira asko. Horregatik, erkidegoaren onerako zerbitzu egiteen exekuziorako baliatzen den dedikazioa mugatua da. Taldeak badu haurren eta nerabeen atentzioaren alorrean esperientzia. Taldekide guztiek trebakuntza dute aisialdirako monitore gisa, eta, askotan, badute giza zientziekin lotutako trebakuntza ere (psikologia, gizarte heziketa, e.a.). Bestalde, Gurutze Gorriko Aisialdirako Heziketa Eskolak trebakuntza berezirako ikastaroak eman ditu adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartzeari begira.

## **5. ATENDITUTAKO POPULAZIOA**

### **5.1. Zenbakiak**

Segidan, zenbaki batzuk azalduko dira zehazteko zenbat Adin Txikiko lege-hauslerekin esku hartzen den, eta, aurrerago, zenbakiak emango dira ikusteko zein den kopuru horri erantzuna emateko baliatutako bitarteko pertsonalen eta materialaren egokitzapen maila. Aurretik, ordea, aipatu beharra dago, gaur egun, oraindik ere, zailtasunak direla, estatistikako datuak eskuratzeko:

- Epaitegiek aplikatzen dute estatu mailan Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuko Gabinete Estatistikoak ezarritako sistema estatistikoa, eta hiru hilabetetik hiru hilabetera, dagokion estatistika bidaltzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Gorenera. Datu-fitxa honek biltzen ditu: auzien eta epaien mugimendua -aurreko hiruhilabetetik erabaki gabe daudenak, hiruhilabetekoan erregistratuak eta ebatziak, hiruhilabetekoa bukatzean erabaki gabe daudenak, betearazpenak, eta laguntza judizialeko despatxuak-, erabaki gabe dauden espedienteen egoera, nola bukatu ziren espediente ebatziak, -ebazpena, agintari administratiboen esku uztea, artxibora bidaltzea-, eta neurrien exekuzioen egoera. Ez da biltzen tratatutako auzien multzoan zenbatekoa izan den Adin txikikoen kopurua, eta, ez du zehazten bitartekaritza-erreparazioari heldu ote zaion, ezta zein izan den erabakitako neurria ere, neurririk erabaki baldin bada.

Beraz, alderdi horiek ezagutzeko, beharrezkoa izan da Epaitegietako Idazkariek, 1996an eta 1997ko lehen sei hilabetekoan hasitako

espedienteak, banan bana, aztertzea. Inplikaturako adin txikikoen kopurua bildu dute eta, halakorik izan baldin bazen, aplikaturako neurria.

Bestalde, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak eskaturik, Epaitegi bakoitzean hiru hilabetez behin banakako fitxa bat betetzen da. Aipaturako fitxa bakoitza zaintzapeko askatasuna edo barruratze neurri bat hartu duten Adin txikikoa bakoitzari dagokio. Fitxa horretan biltzen da: egindako arau-haustearen gaineko informazioa, hartutako neurria, norberaren datuak, aurretiko familiarrak, inguru soziala eta familiarra eta, eskolasuna. Fitxa honen diseinua iragandako garaietakoa da, eta, konparazio batera, mantentzen du ezkontzako seme-alabatasunaren eta ezkontzaz kanpoko filiazioaren arteko bereizketa.

Datu hauen esplotazioa ez da Epaitegi bakoitzean egiten, Estatistikaren Erakunde Nazionalan baizik, eta, gaur egun, bada hiru urteko atzerapena. Beraz, 1994garren urteari dagozkion estatu mailako datuak baizik ez daitezke erabili<sup>33</sup>.

- Epaitegietan bildutako datuak ezberdinxeak dira Fiskaltzek euren oroitidazkietan edo euren jardueren laburpenean bildutakoekin alderatuta. Hasitako espedientei buruzko datua da, eta, alde txiki hori gertatzen da abenduaren 31n zenbatzen direlako. Behar bada, komenigarria litzateke, bi organoek zenbaketabide bakarra ezartzea halako gora beherak gertatu ez daitezen.
- Nazioarte mailako alderaketak ezinezkoak dira, bi arrazoi direla medio: lehenik, ez datoz bat erantzunkizunaren adin minimoa eta adin penal nagusia gure inguru sozio-kulturaleko herrialdeetan; bigarrenik, esku hartzen duten instantzia administratiboen eta judizialen pluraltasuna eta, zenbaitetan, ez da bereizten babeseko eta gazteentzako justiziaren kasuen artean, eta, horrek zalantzan jartzen du alderaketen fiagarritasuna.

Hona hemen Fiskaltzek 1996 eta 1997rako ekarritako zenbakiei erreparatuta, 10. taulak islatzen dituen datuak:

- Lurralde Historiko bakoitzeko Adin Txikikoen Fiskaltzetara iristen diren auzi erregistratuen kopurua (atestatuak, salaketak, eta beste Epaitegietatik aldatutakoak);

---

<sup>33</sup> EINren Estatistika Judizialaren zerbitzuaren arabera, 1995eko datuen esplotazioa sarri egongo da erabilgarri. Nolanahi ere, ez da oso erabilgarria izango. Batetik, Estatuko Adin Txikikoen Epaitegi guztiek ez dute alko informazioa modu sistematikoan igortzen, eta, bestetik, soil-soilik jasotzen ditu halako neurri zehatzei dagokien datuak (esate baterako, 1994ko datuek ez dute zerbitzu egiteen inolako neurrik islatzen).

- kopuru hori guztia kontutan hartuz, Fiskaltzan berean artxibatzen diren kasuen proportzioa, arrazoi hauengatik: bai 12 urtez beheko edo 16 urtez gorako pertsona bat delako, bai egintzak delitu ez direlako, bai beste Epaitegi bati dagokion eskumengai delako (familiakoena, esate baterako);
- espediente bati hasiera emanarazten dioten kasuen proportzioa. Beraz, Fiskaltzak Adin Txikikoen Epaitegiari jakinarazitakoak.

## 10. TAULA: ADIN TXIKIKOEN FISKALTZETAN ARTXIBATUTAKO ETA HASITAKO ESPEDIENTEAK (1996 eta 1997 urteak)

	ARABA Gasteizko Adin Txikikoen Fiskaltza		BIZKAIA Bilboko Adin Txikikoen Fiskaltza		GIPUZKOA Donostiako Adin Txikikoen Fiskaltza.		EAE	
	1996	1997	1996	1997	1996	1997	1996	1997
<b>Erregistroak dantara (atestatuak, salaketak)</b>	187	176	360	364	227	235	774	775
<b>Fiskaltzan artxibatutako espedienteak</b>	86 (%46)	70 (%39.8)	150 (%41.7)	152 (%41.8)	105 (%46.3)	114 (%48.5)	341 (%44.1)	336 (%43.4)
<b>Hasitako espedienteak</b>	101 (%54)	106 (%60.2)	210 (%58.3)	212 (%58.2)	122 (%53.7)	121 (%51.5)	433 (%55.9)	439 (%56.6)

Iturria: Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Adin Txikikoen Fiskaltzak. Prestaketa SIOS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Hiru Lurralde Historikoetan, Fiskaltzek, batzaz beste, euren ezagutzara iritsitako kasuen %40 baino gehiago artxibatzen dute, eta, artxibatzerik gehienak Donostiakoan egiten dira (1997an %48 baino gehiago). Fiskaltza horren oroitidazkian jasota dagoenaren arabera, proportzio handi hori, hein handi batean, ondoko arrazoi honi zor zaio: ez dute 4/1992 Lege Organikoaren esparrutik kanpo gelditzen diren atestatu bikoiztuak edo idazkiak ez hartzeko erregistro sistema. Hauxe dio gainera, *«jasotakoaren eta egiazki jaso behar zenaren arteko aldea are handiagoa da kontutan hartzen baldin bada, hasitako espedienteetatik asko artxibatu egin direla, ikusi baita bazela espediente bat egintza bereberri buruz»*. Fiskaltzetatik diotenez, egoera honen beste sorburu bat da poliziak, maiz, salaketa egileari salatutako egintzaren tankera publikoaren berri ematen diola, salatutako gaiak halako tankerarik ez duenean. Beraz, prozedura honetan ez dago akusazio partikularraren eskuhartzea egiterik.

Erkidego Autonomoko Adin Txikikoen Fiskaltzetara iritsitako gainontzeko espedientei hasiera ematen zaie eta, berehalakoan, horren berri ematen zaio dagokion Adin Txikikoen Epaitegiari. Fiskaltzetara iritsitako kasuen %50 eta 60 artean.

Hamaikagarren taulan ikus daitekeen bezala, irekitako espedienteetan adin txikiko pertsona kopuru oso handia gertatu da nahastua.

Gehientsuenak mutikoak dira. Bataz beste, inplikaturako pertsonen %80 mutikoak dira. Sexuen arteko alde nabarmen hori bat dator, oro har, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen denarekin, eta Estatuko zenbaki osoek 1994an adierazitako aldea baino txixixeagoa da. Azken datu horien arabera, nesken partaidetza ez baitzen %10era iristen. Gauza bera esan daiteke bere bilakaerari buruz: nahiz eta oraindik ere gazteen gaiztagintza gehien-gehienez gizonezkoen kontua izan, gero eta emakume gehiago agertzen dira eta, egitez, zenbait arau-hauste motatan esku hartzen duten nesken kopurua mutikoena baino askoz ere handiagoa da (saltegi handietan egindako lapurretak eta iruzurrak, esate baterako). Hala ere, datu hori kautelaz hartu beharra dago. Izan ere, aurreko aroetan, lege-hausleak neskak izatekotan, jokabide judizialak askoz ere errazago jotzen zuen nesken atentzioa babesbidetik bideratzera, mutikoen kasuetan baino, eta, horrek, jakina, eragozten du bilakaeraren azterketa objektiboa.

### 11. TAULA: HASITAKO ESPEDIENTEAK ETA INPLIKATURAKO ADIN TXIKIKO LEGE-HAUSLEEN KOPURUA (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetekoa<sup>1</sup>)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Gasteizko Adin		Bilboko Adin		Donostiako Adin		1996	1997
	Txikikoen Epaitegia		Txikikoen Epaitegia		Txikikoen Epaitegia			
	1996	1997	1996	1997	1996	1997	(lehen sei hilabetekoa)	(lehen sei hilabetekoa)
	(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)	
<b>Hasitako espediente kopurua<sup>2</sup></b>	101	43	213	100	125	69	439	212
<b>Adin txikikoen kopurua<sup>3</sup></b>	191	60	330	142	230	97	751	299
<b>Mutikoak</b>	160	52	283	117	198	76	641	245
	(%83.8)	(%86.7)	(%85.8)	(%82.4)	(%86.1)	(%78.4)	(%85.4)	(%81.9)
<b>Neskak</b>	31	8	47	25	32	21	110	54
	(%16.2)	(%13.3)	(%14.2)	(%17.6)	(%13.9)	(%21.6)	(%14.6)	(%18.1)
<b>Adin txikikoen kopurua espediente bakoitzeko</b>	1.89	1.40	1.55	1.42	1.84	1.41	1.71	1.41

<sup>1</sup> Taula honetan 1997ko lehen sei hilabetekoari dagozkion datuak baizik ez dira biltzen, informazio bilketa urte horretako urria eta azaroa bitartean egin zelako. Estatistika judizialetan ez da konutan hartzen lege-hausleen kopurua eta nola banaturik dauden sexuari dagokionez. Horregatik, komenigarria zatekeen ldazkaritzetan berriz ere banakako zenbaketa hastea, urtea bukatutakoan.

<sup>2</sup> Taula honetan agertzen den hasitako espedienteen kopuruaren eta 10. taulan jasotako kopuruaren artean dagoen aldea gertatzen da azken taula horretako datuak Epaitegietatik datozelako, eta, hartan, berriz, Fiskaltzetatik. Ikusten da badela alde txiki txikia, estatistiken itxiera-datarik zor zaiona.

<sup>3</sup> Zenbaki honek adierazten du espedienteetan agertzen diren adin txikikoen batuketak; kontutan hartu beharra dago pertsona berbera hainbat espedientetan sarturik egon daitekeela. Beraz, uste izatekoa denez, egiazko zenbakia, txikiagoa da. Alde horretatik, ez dago zenbakirik, Gasteizko Epaitegiak bakarrik eman baitzitzakeen.

Iturria: Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Prestaketa SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.



Hasitako espedienteetan inplikaturako adin txikikoen proportzioa, 12 eta 15 urte artean dagoen populazioari buruz, (adin horiek mugatzen baitute Adin Txikikoen Epaitegien eskuduntza) 12. taulan biltzen da.

## **12. TAULA: ADIN TXIKIKOEN EPAITEGIETAN HASITAKO ESPEDIENTEETAN PARTAIDE DIREN ADIN PENAL TXIKIKO PERTSONAK, 16 URTEZ BEHEKO POPULAZIOARI BURUZ**

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
<b>12 eta 15 urte artean dagoen adinen populazioa<sup>1</sup></b>		14.512	54.447	31.634	100.593
<b>Espedienteetan inplikaturako adin txikikoen kopurua</b>	<b>1996</b>	191	330	230	751
	<b>Lehen seihilabetekoa 1997</b>	60	142	97	299
<b>12 eta 15 urte artean dagoen adinen populazioari buruz, espedienteetan inplikaturako adin txikikoak (%)</b>	<b>1996</b>	13.16	6.06	7.27	7.46
	<b>Lehen seihilabetekoa 1997</b>	4.13	2.60	3.06	2.97

<sup>1</sup> Populazio-datuak 1996ko zentsuaren behin-behineko emaitzei dagozkie.

Iturria: Eustat eta Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Prestaketa SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Ikusten da, 1996an, Arabako proportzioa Bizkaikoaren bi halako dela eta ia ia Gipuzkoakoaren bi halakoa ere.

Datu horren atzean ez omen dago Fiskaltzen jarduera. Izan ere, espedienteen hasiera eman baino lehen, 10 taulak dakarren bezala, artxiboen portzentaia prozeduraren fase horretan oso antzekoa da Bizkaian eta Araban, baina handixeagoa Gipuzkoan; are, Bizkaian hasitako espedienteak gehiago dira Araban hasitakoak baino, 1996an.

Bestalde, kontutan hartuz Arabako gizarte zerbitzuek duten estaldura handiagoa, Gasteizen, bereziki, bertan gazte populazioa pilatuta baitago, uste izatekoa da handiagoa eta eraginkorragoa dela zerbitzu horien lana gazteen gaiztagintzari aurrea hartzerakoan. Beraz, uste izatekoa denez, ez dirudi egiazki fenomeno hori Araban beste Lurraldeetako baino zabalagoa, bi halakoa, denik.

Azalpen bakarrak hortaz, detekzio fasera garamatza, hau da, agente polizial eta sozialen eraginkortasunaren mailara. Bestalde, gauza jakina denez, Fiskaltzara iritsitako kasuetarik gehienak poliziabidetik datozela, hori gogoan hartuz, esan liteke, seguru aski lurraldearteko ezberdintasunen zergatia prozeduraren fase horretan dagoela. Seguruenik, Gasteizen gazte populaziorik handiena pilatzen denez, horrek, hein handi batean, detekzio poliziala errazten du.

Estatu mailan dauden estatistika judizialek, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren oroit-idazkian bilduta daudenak, espediente kopurua biltzen dute, baina adierazi gabe zenbat pertsona dagoen nahasirik. Beraz, ezinezkoak dira populazioen arteko

alderaketak. Bestalde, Erkidego Autonomo gehienetan estatistika zehatzagorik ez dagoenez, ezinezkoa da alderaketa egiteko bidea ematen diguten datu fiagarriak eskuratzea. Hala ere, badira Kataluñako Erkidego Autonomoari dagozkion zenbakiak, eta, horrek, behintzat, erreferentzia bat eskaintzen du estatu mailan. Kataluñan 3.024koa da Adin Txikikoen jurisdikzioan hasitako espedienteetan esku hartzen duten Adin txikikoen kopurua. Beraz, 12 eta 15 urte arteko populazioaren %10 baino gehixeago.

Gazteentzako justiziaren legeak indarra hartzen duenean, prozedurak bere baitan hartuko dituen pertsonak askoz ere gehiago izango dira, Kode Penalaren 19. artikuluan aurreikusita baitago adin nagusia goratuko dela, eta, baliteke prozedura, zenbait inguruabarri lotutako kasuetan, behintzat, 18 eta 20 urte arteko auziperatuen artean ere zabaltzea.

Eusko Jaurlaritzak 1997an ikerketa egin du, ikusteko zenbat diren 16 eta 20 urte artean dauden pertsona kondenatuak, epai sendoan, delitu egile izateagatik eta EAeko Penaleko Epaitegi guztietan eta Probintzia Entzutegietan; 14 Intsrukzio Epaitegiri<sup>34</sup> dagokion espedienteen lagina ere ikusi da, azterketa honen osagarri. Ikerketak biltzen du 1996ko iraila eta 1997ko abuztuaren arteko denboraldia. Emaitez ondoko zebaki hauek eman dituzte: 16 eta 17 urte arteko 493 pertsona, etorkizunean Adin Txikikoen Epaitegien eskuduntzapean egongo direnak, eta 18 eta 20 urte arteko 921 pertsona, hauen kasuak Adin Txikikoen Epaitegietara igorri ahal izango dituzte Epaile eskudunek, egokitatzat joko balute.

Handitze hori litzateke egun, prozeduraren fase batean edo bestean kolekitbo honekin esku hartzen duten erakundeek bizkar gain duten zama hirukoiztea, hau da, hiru aldiz gehiagoko lana izango lukete. Alde batetik, kontutan hartu beharra dago, aintzat hartu gabe utzi beharko direla 12 urteko pertsonen kasuak eta 18 eta 20 urte arteko pertsonenak, berriz, ez direla beti Adin Txikikoen Epaitegietara igorriko. Baina Bestalde, kontutan eduki behar da Eusko Jaurlaritzak egindako azterketa minimotako ikerketatzat jo daitekeela, epai sendoak baizik ez baititu aztertu. Beraz, prozeduren kopurua, kopuru osoa, handiagoa da.

## 5.2. Populazioaren ezaugarriak

Behar adina daturik ez da hasitako espedienteetan nahasirik dauden nerabeen ezaugarri pertsonalen eta familiarren deskribapen osotara fiagarria eskaintzeko, Epaitegietan ez baita horri buruzko estatistikarik, salbuetsiz aldez aurretik EInera, hiru hilabetetik hiru hilabetera, igorritako egoera-orriak. Beraz, Adin Txikikoen

---

<sup>34</sup> Eusko Jaurlaritza. Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. «Euskal Autonomia Erkidegoan 16 eta 20 urte arteko pertsonen burututako gaizkiletza ekintzei buruzko azterketa», 1998 (Emaiker-ek egindako inkesta).

Epaitegi bakoitzean aztertutako espedienteetatik, txosten honetarako jasotako informazioa besterik ez da baliatu. Erreserba guztiak gogoan, kolektibo<sup>35</sup> ikertuaren tankera ez muestrala izanik, hona hemen zenbait alderdi orientabide bezala emanak:

- Arau-hausteetan parte hartzen duten Adin txikikoen kopurua 1 eta 10en artean dago. Maizen gertatzen dena da bakarrik aritzea (kasuen %42), edo binaka (kasuen %20). 102 espedienteren laginean, inplikaturako Adin txikikoen kopurua 146koa zen.

### 13. TAULA: ESPEDIENTEETAN INPLIKATUTAKO PERTSONA KOPURUAREN ARABERA AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK

Adin txikikoen kopurua	ARABA Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegia	BIZKAIA Bilboko Adin Txikikoen Epaitegia	GIPUZKOA Donostiako Adin Txikikoen Epaitegia	EAE
<b>Pertsona 1</b>	23	24	15	62
<b>2 pertsona</b>	9	10	11 <sup>2</sup>	30
<b>3 pertsona</b>	0	1	2 <sup>3</sup>	3
<b>4 pertsona</b>	1 <sup>1</sup>	1	0	2
<b>5 pertsona</b>	2	0	1 <sup>4</sup>	3
<b>6 pertsona</b>	1	0	0	1
<b>10 pertsona</b>	0	0	1 <sup>5</sup>	1
<b>Guztira</b>	36	36	30	102

<sup>1</sup> Inplikaturako pertsona bat baizik ez dago espedientaturik.

<sup>2</sup> Sei kasutan, inplikaturako pertsona bat baizik ez dago espedientaturik.

<sup>3</sup> Inplikaturako pertsona bat baizik ez dago espedientaturik.

<sup>4</sup> Inplikaturako bost pertsonetatik hiru baizik ez daude espedientaturik.

<sup>5</sup> Inplikaturako hamar pertsonetatik bi baizik ez daude espedientaturik.


Iturria: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteen basearen gainean.

- Gutxieneko adina 12koa izanik eta gehienezkoa, berriz, 15ekoa, badirudi jokabide lege-hausleak maizago agertzen direla 15 eta 14 urtetan.

<sup>35</sup> Metodologiari eskainitako zatiaren sarreran adierazten dira espedienteak aukeratzeko edukitako mugak.

## 1. GRAFIKOA: AZTERTUTAKO ESPEDIENTEETAN INPLIKATUTAKO ADIN TXIKIKOEN ADINA<sup>1</sup>

ADIN TXIKIKO PERTSONAK



<sup>1</sup> Ez dago jasota inplikaturako bi pertsonen adina.

Iturria: Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa SIIS, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteen laginaren basearen gainean.

- Adin Txikikoen prozeduran aurretikoen erregistrorik ez izatean, ez da erreinzidentzi tasarik. Espedienteen azterketan ikusten da horietan inplikaturako Adin txikikoen %40 inguru egonak zirela, aldeztatik, Adin Txikikoen Epaitegian.
- Agertzen diren ezaugarri pertsonalak oso bariatuak dira, eta maiz pilatzen dira:
  - dena den, hasteko azpimarratu behar da espedienteetan inplikaturako adin txikiko 146 pertsonetatik 44k ez dutela ezaugarri nabarmenik, edo ez da idatziz inolako aipamenik egin espedienteari dagokion txosten teknikoan;
  - gehientsuenek heziketa arazoak dituzte: zehazki, 80k eskola ez egonkortasuna agertzen dute (ikastetxe aldaketa sarriak eta eskolara ez joatea), 37k atzerapen nabarmena, 22k de factoko deseskolarrizazioa, 6 nerabek badituzte ikasketa arazoak, eta 2 analfabetismo kasu ere badira, eta, beste 54 kasutan agertzen dira aipaturako bi ezaugarri edo gehiago;
  - txostenen arabera, 55k osasun mental-arazoak agertzen dituzte; batzuetan, trastorno psikologikoak dira, bestetan jokabide arazoak, eta bestetan, azkenik, aldeztatik diagnostikatutako trastorno psikikiatrikoak dira;

- 12 nerabek drogak hartzen dituzte eta 8k alkohola; nerabeetatik 3k hala drogak nola alkohola hartzen dute;
  - 10k tratu txarrak edo abusu sexualak jasan dituzte (tratu txar kasu bi Epaitegian atzeman dira);
  - egintzak egin ziren unean, 23 babes-zentro batean harturik zeuden, eta 1 eguneko zentrora zihoan;
  - umezurtz kasu bakan batzuk ere agertzen dira (2), prostituzioa kasu bat eta adinez ez dagokien eginkizun familiarren ardura (5);
  - aztertutako espedientetan inplikaturako 146 Adin Txikiko pertsonetatik 38 ijitoak dira.
- Familia-giro eta inguru sozialaren ezaugarriei dagokienez, honatx zeintzuk diren azpimarragarri:
    - inplikaturako nerabe guztietatik 53 familia giro normalduan bizi dira;
    - familia gabeziak ikusten dira 88 kasutan (aita edo amarik ez, heziketerako girorik ez, kontrolik ez, afektibitate maila txikia e.a.) eta familia barruko liskarrak 25tan;
    - 50 familiak ez dute behar adina baliabide ekonomikorik;
    - 27 kasutan, familiakideren bat jarduera deliktibuetan aritzen da normalean;
    - 12 kasutan arazoak dira droga gehiegi hartzeagatik eta 13tan berriz, alkohol gehiegi edateagatik;
    - tratu txar arazoak aztertutako 9 kasutan azaltzen dira -gehienetan aitak amari egindakoak-;
    - osasun mental mailako arazoak 14 familitan antzeman dira. Horietatik 6 kasutan tratamendu psikiatrikopian daude;
    - era berean, familiakideen artean 3 prostituzio kasu daude.

Gehienetan, berezitasun hauek ez dira modu bakanean agertzen. Maiz, bi edo ezaugarri gehiago pilatzen dira, elkarri ematen diote indarra, eta, horrek, babesaren alorrean ikusten zen bezala, elkarbizitzan oso giro latza sortzen du: interakzio maila baxuak eta tolerantziarik eza. Horiexek dira elkarbizitza giro horietako ezaugarriak.

## 6. ARAU-HAUSTEAK ETA HARTUTAKO NEURRIAK

4/1992 Legeak, Adin Txikikoen Epaitegien Eskuduntza eta Prozedura arautzen duenak, arauaren aplikazioko esparru materiala mugatzen du Lege penaletan delituzat edo faltatzat jotzen diren egintza tipifikatueta. Legezkotasunaren printzipioa ezartzen du, eta, modu horretan ez du bere egiten gaur egun indarrean dagoen irizpidea. Irizpide horren arabera, «*probintziako eta udal mailako legeetan idatziz jasotako*» arau-hausteak eta are, baita penalki tipifikaturik ez dauden batzuek, ekarrarazi lezakete Adin Txikikoen Tutoretzako Auzitegien eskuhartzea, euren eginkizun erreformatzailearen jardunean. Konparazio batera, ihesak edo jokabide txarrak erreformako neurri baten harpenaren zioa izan zitezkeen.

Hemen ere estatistika judizial zehatzagoen hutsunea sumatzen da. Izan ere, hiru hilabetetik hiru hilabetera, eredu formalizatuaren arabera, Justziako Auzitegi Gorenara igortzen direnek, ez dute ez arau-hausteen izaera zehazten, ezta erabakitako neurriena ere.

Honen erakusgarri izan daitezke, ikerketa honen barrenean, Adin Txikikoen Epaitegietan aztertutako espedienteetan eskuratutako datuak<sup>36</sup>.

Datu horien arabera, egintzen %60 baino gehiago jabetzaren aurkako arau-hausteak dira (kalteak, lapurreta, lapurreta indarra erabiliaz, ibilgailu motordunen erabilpen ilegitimoa). %30etan pertsonen aurkako indarkeria motaren bat erabilia izan da (lapurreta intimidazioa erabiliz, lesioak, irainak eta/edo mehatxuak, eraso, sexu eraso, sexu abusua, agintaritzako agenteei eraso egitea). Gainotzekoak - %10 baino gutxiago- bestelako arau-hausteak dira: agintariei desobeditzea, desordena publikoak eta leherkariak edukitzea.

14. taulan biltzen da aplikatutako neurrien sailkapena. Txostenaren bigarren zatian aztertzen dira hiru Lurralde Historikoetan jarraitutako aplikazio-arauak, hala nola bakoitza asko ala gutxi aplikatzen den.

---

<sup>36</sup> Metodologiari eskainitako sarrerako zatian azalpenak ematen dira espedienteen aukeraketari buruz.

## 14. TAULA: HASITAKO ESPEDIENTEETAN APLIKATUTAKO NEURRIEN SAILKAPENA<sup>1</sup> (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetekoa)

Erabakitako neurriak	ARABA Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegia		BIZKAIA Bilboko Adin Txikikoen Epaitegia		GIPUZKOA Donostiako Adin Txikikoen Epaitegia		EAE	
	1996	1997	1996	1997	1996	1997	1996	1997
	(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)		(lehen sei hilabetekoa)	
Ohartarazpena	25	11	100	46	21	4	146	61
Asteburu bat eta hiruren arteko barruraztea	3	0	3	2	0	0	6	2
Zaintzapeko askatasuna	24	18	13	7	10	2	47	27
Beste pertsona edo familia batek hartzea	1	0	0	0	0	0	1	0
Zerbitzuak egitea erkidegoaren onerako	19	15	9	20	6	1	34	36
Tratamendu ambulatorioa edo tankera terapeutikoko zentroan sartzea	5	0	0	1	0	0	5	1
Zentroan barruraztea								
erregimen irekian	2 <sup>2</sup>	4 <sup>3</sup>	2	1	0	1	4	6
erregimen erdi irekian	18 <sup>4</sup>	9 <sup>5</sup>	25	5	2	0	45	14
erregimen itxian	3 <sup>6</sup>	0	2	1	3	0	8	1
<b>AZPI GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>57</b>	<b>154</b>	<b>83</b>	<b>42</b>	<b>8</b>	<b>296</b>	<b>148</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>157</b>		<b>237</b>		<b>50</b>		<b>444</b>	

<sup>1</sup> 1996an aplikatutako zenbait neurri, nahitaez, 1995an hasitako espedienteeteei dagozkie, eta, 1997an aplikatutako batzuk 1996an hasitako espedienteeteei.

<sup>2</sup> 1 zaintzapeko askatasunean betetzen ari da arau-hausteak ez egiteko eta jokabide txarra ez agertzeko baldintzarekin.

<sup>3</sup> 4 zaintzapeko askatasunean betetzen ari dira arau-hausteak ez egiteko eta jokabide txarra ez agertzeko baldintzarekin.

<sup>4</sup> 3 zaintzapeko askatasunean betetzen ari dira arau-hausteak ez egiteko eta jokabide txarra ez agertzeko baldintzarekin.

<sup>5</sup> 2 zaintzapeko askatasunean betetzen ari dira arau-hausteak ez egiteko eta jokabide txarra ez agertzeko baldintzarekin.

<sup>6</sup> Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegiko Idazkariak dioenaren arabera, hiru neurriok bi fase dituzte: lehenbizikoan erregimen itxian betetzen da, eta, bigarrenean, erregimen erdi irekian. Neurrien exekuzioko euren estatistiketan, Eusko Jaurlaritzak neurri hauek konputatzen ditu aipatutako fase horiek bereiziz. (3 neurri erregimen itxian eta 3 neurri erregimen erdi irekian). Horri zor zaio bi erakundeen egindako estatistiketan agertzen diren ezberdintasunak.

Iturria: Gasteizko, Bilboko eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Prestaketa: SJS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Adin Txikikoen prozeduran aurreikusitako neurrien xedea, batez ere, hezigarria da, eta, neurrien aplikazioan, Adin Txikikoen Epaileak, egintzen larritasuna eta

izaera aintzat hartzeaz landara, egintza horiek egiteko eragina izan duten inguruabar pertsonalak eta sozialak ere aintzat hartu behar ditu. Horregatik, aurreikusitako neurriak ez dira zehapenen eskala gradual gisa jo behar, aplikatu beharko liraketenak bakar bakarrik arau-haustearen izaeraren eta larritasunaren arabera. Are gehiago, arau-hauste berberari neurri ezberdinak ezar dakizkioke, bertan agertzen diren inguruabar pertsonalei eta sozialei erreparatuta. 15 taulak erlazio hori erakusten digu, espediente aztertuen aukeraketaren markoaren barrenean. Ikusten denez, indarra edo intimidazioa erabiliz egindako lapurretak, sexu erasoak eta abusu sexualak -horiek guztiak arau-hauste larriak-, ez dute ezein kasutan oharrazpen neurri soila erakarri. Gainontzekoetan, ikusten da modu bariatuan aplikatu direla eskuhartzeko dauden bideak.



**15. TAULA: ESPEDIENTE LAGINETAN AGERTZEN DEN ARAU-HAUSTEAREN ARABERA  
APLIKATUTAKO NEURRIAK**

	Ohartarazpena	Asteburu bat eta hiruren arteko barruratzeari	Zaintzapeko askatasuna	Beste pertsona edo familia baten harrera	Komunitatearen onerako zerbitzuak egitea	Tratamendu ambulatorioa edo tankera terapeutikoko zentroan sartzea	Zentroan barruratzeari erregimen erdi irekian	Zentroan barruratzeari erregimen itxian
Kalteak	7	0	1	0	10	1	0	0
Lapurreta	6	1	10	1	4	0	0	2
Lapurreta	8	1	11	0	2	1	4	8
Lapurreta indarra erabiliz	0	0	3	0	2	0	2	3
Lapurreta intimidazioa erabiliz	0	0	4	0	1	0	0	1
Lesioak	11	1	5	0	2	0	1	2
Desordena publikoak	3	0	1	0	2	0	0	0
Agintariei desobeditzea	1	0	1	0	0	0	1	2
Irainak edota mehatxuak	4	0	0	0	1	1	0	0
Erasoak	1	0	0	0	0	0	0	0
Agintaritzako agenteei eraso egitea	0	0	0	0	2	0	0	0
Sexu erasoa	0	0	1	0	0	2	1	1
Sexu abusua	0	0	1	0	3	0	0	0
Ibilgailu motordunaren erabilpen ilegaltimioa	0	0	1	0	0	0	0	1
Leherkariak edukitzea	5	0	0	0	0	0	0	0

Iturria: SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikiakoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteak oinarrian harturik.

# **IV. ATALA**

## **PROZEDURAK**

## 1. JARDUERA-PROZEDUREN DESKRIBAPENA

Adin txikikoen aurkako prozedurak hasten dira Fiskaltza eskudunetan. Horretarako oinarritzat hartzen dute bai atestatu polizial bat, bai partikular batek tartekatutako salaketa, bai Argibide Epaitegietan hasitako jarduerak, azken kasu horretan iturri polizialeatik etortzen badira ere.

Ertzaintzak edo udaltzaingoak egintzaren berri duenean, -maiz, egintza burutzen ari den bitartean- ustez egintzaren egile diren pertsonen **identifikazioari** heltzen dio. Arau-haustearen izaera larria ez baldin bada, pertsona identifikatzera mugatu eta dagokion atestatua igortzen du Adin Txikikoen Fiskaltzara. Egintzaren izaerari edo larritasunari erreparatuta, ordea, beharrezkoa irizten badio, pertsonaren **atxiloketari** helduko dio eta komisaldegira eramango dute. Atxilotuari bere eskubideak irakurri ondoren, baimena badu bere gurasoei edo legezko ordezkarietara deitzeko, edo, zuzenean haiei beraiei hots egiten zaie. Eta esaten zaie deklarazioa egingo dela legezko ordezkarietara beraiek izendatutako abokatu baten aurrean edo ofiziozko baten aitzinean. Askotan, komisaldegira eraman badute ere, ez da deklaraziorik hartzen. Orduan, polizia agenteak mugatzen dira legezko ordezkarietara hitz egitera mutikoa, neska edo nerabea bere zaintzalearen esku uzteko.

Hala identifikazioa baizik egiten ez denean, nola atxiloketa bat gertatzen denean, deklarazioa izan ala ez, atestatu poliziala Adin Txikikoen Fiskaltzara igorri beharra dago, edota, arratsaldeko hiru t'erdietatik aurrera gertatzen baldin bada, Goardiako Epaitegira. Azken kasu horretan, ordea, arauak aurreikusten du atestatua biharamonean igortzea Adin Txikikoen Fiskaltzara eta kopia bat Adin Txikikoen Epaitegira. Hori da behintzat, Ertzaintzaren Adin Txikikoenganako Polizia Jardueren Instrukzioak aurreikusten duena.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Fiskaltzak kasuaren **instrukzioaren** arduradun dira. Hau da, egintzak ikertu behar dituzte, behar beste proba egin, eta entzun behar da ustez egintzaren egile denak esandakoa, eta, behar izatekotan, lekukoaren esanak.

Argibideen aldian, **kasuaren artxibatzea** gerta daiteke. Hala gertatzen da salatutako egintzak arau-hauste ez diren aldi oro, ustez egintzen egilea dena 12 urtez behekoa denean (hala gertatzekotan kasua igorriko da babesaren alorreko agintari eskudunengana, beraiek erabaki dezaten mutikoa edo neska arrisku edo babesik gabeko egoeran ote dauden eta, horren ondorioz, eskuhartu behar ote duten ala ez), eta egiletza nori dagokion uste izateko behar adina elementurik ez dagoen aldi bakoitzean. Zenbaitetan, Adin Txikikoen Epaitegiei ez dagokie egintzen erabakimena, bai salatua 16 urtez gorakoa delako, bai gaia beste jurisdikzio bati dagokiolako (Familiako Epaitegiei, konparazio batera). Bada, halakoetan Fiskalak, bere jarduerak dagokion organo eskudunari igorri behar dizkio.

Gainontzeko kasu guztietan, Fiskalak **inkoazioari** heldu behar dio, hau da, espedientea hasteari, horren berri Adin Txikikoen Epaileari eman, eta, beharrezkotzat joez gero, behintzat, **kautelazko neurriak** eska ditzake. Egintzen larritasuna eta eragina ikusita, hala nola adin penal txiiko pertsonaren inguruabar pertsonalak eta sozialak aintzat hartuta, eta pertsona horren interesa beti kontutan hartuz, Epaileak kautelazko barruratzera ere erabaki dezake zentro itxi batean, berak ezinbestekotzat jotzen duen denborarako. Neurri hori aldatu edo berretsi beharra dago gehienez ere, hilabete bat iragan denean. Izaera horretako neurria hartzen denetik, Abokatu bat izendatu beharra dago eta, gurasoek edo legezko ordezkariak izendatzen ez badute, ofiziozkoa izendatuko da.

Espedienteari hasiera eman bezain laster, Fiskalak adin txikikoaren **egoera psikologikoari, edukatiboari eta familiarrari buruzko txostena** eskatu behar dio Talde Teknikoari. Era berean, txostenak bilduko du nolakoa den pertsona horren giro soziala, eta, oro har, leporatzen zaion egintza egiteko eragina eduki ahal izan duenbeste edozein inguruabar. Legeak gehienez ere, hamar eguneko epea ezartzen du txostena prestatzeko, eta, kasua korapilatsu korapilatsua izatekotan, epea luzagarria da, baina beti ere, hilabeteko epearen barrenean egin beharra dago.

Egindako txostenean, Talde Teknikoak, egokitzen jotzen badu, proposa dezake aldez aurreko **bitartekaritza** prozedura egitea (kontziliazioa edota erreparazioa). Horren bitartez, nerabeak desenkusak eskatuko dizkio biktimari, eta, behar izatekotan, konpromezua hartzen du eragindako kalte-galerak erreparatzeko. Fiskalak egokitzen jotzen baldin badu, eta ohikoa dena da teknikariek gomendatutakoa egokitzen jotzea, bitartekaritza proposatzen zaie bi parteei, eta, onartzen badute, egiten da, Talde Teknikoko kide bat edo batzuk bitartekari direla.

Fiskalak txostena Adin Txikikoen Epaileari igorriko dio. Epaileak orduan, Fiskalak proposaturik, beti ere, erabaki dezake jarduera guztien bideratzearen amaiera. Hara zeri erreparatzen dioten horretarako: egintzak larritasun handirik ez izatea, adin txikikoaren baldintzak eta inguruabarrak, arau-haustea egiterakoan indarkeria edo intimidazioa erabili ez izana, edo Adin Txikikoak biktimari eragindako kaltea erreparatu izana edo erreparatzeko konpromezua hartu izana.

Bitartekaritza proposatzen ez bada, edo ez baldin bazaio bide ematen, Epaileak esaten du noiz eta zein ordutan izango den **agertzea**, txosten teknikoa jaso eta hurrengo zazpi egunen barrenean. Agertze horretara deituak daude adin txikikoa eta bere legezko ordezkaria, Abokatu batek lagunduta, hala nahi badute, behintzat, Fiskala, Talde Teknikoa eta Talde Teknikoaren arabera, Epaileak egokitzen jotzen duen beste edozein pertsona, azken horrek esateko duena entzuteko.

Agertzean nerabeari, argi eta erraz, -Legeak dakarrenez-, adinera egokitutako hizkeran, ondoko alderdion berri eman behar zaio:

- zeintzuk dira huraxe akusatzeko egintzak;
- deklarazioa ez egiteko duen eskubidea;
- bere burua egintzen egiletzat ez jotzeko duen eskubidea;
- berak aukeratutako edo ofizioz izendatutako Abokatu baten laguntza izateko eskubidea.

Tramitealdi horretan, adin txikikoak bere deklarazioa egin dezake Epaileak berak, Fiskalak, bere abokatuak edo Talde Teknikoak egindako galderei erantzunez.

Agertzea nola doan ikusita eta Fiskalaren proposamena ikusita, Epaileak ondoko erabakiren bat har dezake:

- audientzia egitea (ahozko epaiketaren parekoa);
- jarduerak artxibatzea, horretarako motiborik badago;
- kasua igor dezake babes alorreko erakunde administratibo eskudunetara neurri hezigarriak eta formatiboak har ditzaten. Horretarako, leporatutako egintzek ez dute bereziki eragin handia izan behar, eta, egintza egiterakoan, ez da indarkeria edo intimidazio larria erabili behar, baita Fiskalak, alde horretatik, eskaerarik egin izan ez balu ere;
- kasua Epaile eskudunarengana igor dezake kasuaren erabakimena berari ez dagokiola uste duenean;
- akordio bidez, ohartarazpenaren neurria har dezake, gisa horretan espedientea bukatutzat joaz.

Argibideen eta agertzearen aldian, adin txikikoaren egintzak edo inguruabarrak ez baldin badira behar hainbatean argitzen, Fiskalak proposatzen du **espedientearen jarraipena**, hau da, instrukzioaren jarraipena. Bigarren Argibidealdi hau amaituta, Fiskalak Adin Txikikoen Epaileari espedientea igortzen dio, eta, horrekin batera, **alegazioen idazki bat** ere, eta ondoko jarduraotako bat eska dezake:

- audientzia irekitzea;
- sobreseimendua;
- ohartarazpenaren neurria hartzea;

- jarduerak igortzea Epailtzako organo eskudunari;
- jardueren igorpena babes alorreko erakunde administratibo eskudunetera, modu horretan izaera formatiboko edo hezigarriko neurriak har ditzaten.

Legeak bost eguneko epea ezartzen du Fiskalak, esandako moduan, espedientea igor dezan. Epea hori bete ez badezake, Epailari eman beharko dio atzerapenaren nondik norakoaren berri.

Fiskalak bere alegazioen idazkian eskatzen baldin badu ohartarazpenaren neurria hartzea, Epailak akordioa ematen du audientzia-saioa ireki behar izan gabe, adin txikikoari entzun ondoren.

Alegazioen idazkian audientziaren irekiera eskatzen baldin badu, Fiskalak egintzen kalifikazio juridikoa egin behar du, eskatu behar du egokitzat jotzen dituen probak egitea eta proposatu neurri egokiak.

Idazki hori ikusita, Epailak ondoko erabakiren bat har dezake:

- audientzia egitea;
- jarduerak modu arrazoituan artxibatzea;
- kasua babes alorreko erakunde administratibo eskudunetara igortzea, modu horretan neurri hezigarri eta formatibo egokiak har ditzaten;
- kasua Epaila eskudunari igortzea, uste duenean ez dagokiola berari kasuaren erabakimena.

Audientzia irekitzen denean, adin txikikoari eta bere legezko ordezkariari adierazten zaie abokatua izendatu behar dutela, oraindik inor izendatu ez badute, eta epea ezartzen da izendapen horretarako. Ezarritako denboraldi horretan egiten ez badute, ofiziozkoa izendatzen da. Izendatu ondoren, Fiskalaren alegazioen idazkia igortzen zaio eta gainontzeko jardueren berri ematen zaio. Hortik aurrera, bost eguneko epea dauka **defentsako idazkia** eta egokitzat jotzen dituen probak aurkezteko.

Idazkia jaso eta Epailak badu beste bost eguneko epea proposatutako proben egokieraz erabakitzeko. Halaber, esan behar du noiz hasiko den audientzia saioa ondoko hamabost egunetan.

**Audientzi saioan** Fiskala, Talde Teknikoko kide bat, adin txikikoa, bere abokatua eta bere legezko ordezkariak egoten dira (aparteko kasuetan salbu. Izan ere, halakoetan, Epailak kontrakoa erabaki dezake Fiskalak modu arrazoituan eskaera egiten badu). Epailak inputatuari, argi eta erraz, bere adinera egokitutako hizkeran, Fiskalak eskatutako neurrien berri ematen dio eta jakinarazten dio zein den egintza eta nola dagoen oinarriturik. Segidan, galdetzen dio ia bere burua egiten duen leporatzen dizkioten egintzen egile:

- nerabeak baietz esaten baldin badu eta ados baldin badago Fiskalak eskatutako neurriarekin, Abokatua beti aurrean dagoela, Epaileak adostasuneko akordioa ematen du, eta, egokitzat jotzen badu, Talde Teknikoko kideari entzun diezaioke;
- nerabeak ezetz esaten baldin badu, onartutako proba egiten da, eta Epaileak, Fiskalak eta Abokatuak probaren balorazioaz, egintzen kalifikazio juridikoaz eta hartu beharreko neurriaz edo neurriez esateko dutena entzuten du eta, komenigarritzat joz gero, Talde Teknikoko kideak esateko duena ere. Azkenik, adin txikikoaren alegazioak entzuten ditu.

Audientzi saioan, Epaileak agindua eman diezaioke prozedurapean dagoen nerabeari aretotik ateratzeko, egokitzat jotzen duenean. Halaber, nerabearen interesan, erabaki dezake saioak jendaurrekoak ez izatea. Komunikabideei bestalde, ez zaie inolaz ere utziko, adin txikikoaren identifikaziorako bidea eman ditzaketen irudi edo datuak lortzen edo zabaltzen.

Aurreko jarduera horiek guztiak oinarrian hartuta, Epaileak bere erabakia hartu, eta **ebazpen bat** ematen du. Egin dezake ozenki audientzia saioan berean, ondoko dokumentatzea egiteari utzi gabe, edo egin dezake idatziz, audientzia saioa bukatu eta segidako bost egunen barruan.

Hona hemen Adin Txikikoen Epaileak har ditzakeen **neurriak**:

- ohartarazpena;
- asteburu bat eta hiruen arteko barruratzeta;
- zaintzapeko askatasuna;
- beste pertsona edo familia batek hartzea;
- ziklomotoreak edo ibilgailu motordunak gidatzeko eskubidea kentzea;
- zerbitzuak egitea erkideagoaren onerako;
- tratamendu anbulatorioa;
- tankera terapeutikoko zentroan sartzea;
- zentroan barruratzeta erregimen irekian;
- zentroan barruratzeta erregimen erdi irekian;
- zentroan barruratzeta erregimen itxian.

Egintzen izaerari erreparatuta, Adin Txikikoen Epaileak, bere baitatik edo Fiskalak nahiz abokatuak eskaturik, epaia bertan behera utz dezake halako denboraldi baterako eta, gehienez ere, bi urterako. Baldintza da bi aldeak elkarren artean ados egotea. Beraz, nerabeak, egoki lagunduta, eta, kaltetuek, erreparazioko proposamen bat onartu behar dute. Are epaia bertan behera ere utz daiteke, erreparazio akordiorik ez izan arren, kaltetuek kontrako jarrera

agertzen ez dutenean edota ikusten denean oposizio hori nabarmenki funtsik gabekoa dela.

Suspentsio hori erabakitzeke, Epailleak zentzuz baloratu behar du proposatutako erreparazioaren zentzu pedagogikoa eta hezigarria, Fiskalari, Abokatuari eta Talde Teknikoari entzun ondoren, eta adin txikikoaren interesaren ikuspegitik. Aktan idatziz jasoko du zertan datzan erreparazioa eta zein den erreparazio hori betearazteko kontrolbidea. Nerabeak betetzen ez baldin badu, epaiaren suspentsioa atzera bota, eta erabakitako neurria betearazten da.

Adin Txikikoen Epaillearen autoen eta ebazpenen aurka apelazio-helegitea tarteka daiteke Probintzia Entzutegiaren aurrean, jakinarazpen egunetik hasi eta bost eguneko epe barruan.

Erabakitako neurrien berri ematen zaie betearazpenaren alorreko eskumenetan diharduten Adiministrazioei, hau da, Eusko Jaurlaritzari, eta zehatzago, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari, Bilboko eta Donostiako Adin Txikikoen Epailleek hartutako ebazpenak direnean, eta Arabako Foru Aldundiari, Gasteizko Adin Txikikoen Epailleek hartutako ebazpenak direnean. Arabako Lurraldean, eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokio barruratze neurria denean.





## **2. ESKUHARTZE-FASEEN AZTERKETA**

### **2.1. Poliziaren atxiloketa**

#### *Prozedura*

Zenbaitetan, kasuak ezagutza judizialera iristen dira partikular batek Epaitegian egindako salaketarengatik. Ohikoena ordea, izaten da Ertzaintzak edo Udaltzaingoak instantzia judizialei jakinaraztea zer gertatu den, egintzaren berri ematea, atestatu baten igorpenaren bidez.

Hasieran, behintzat, Ertzaintzako iturriek emandako informazioen arabera, eta aztergai izan diren espedienteen laginean ikusitakoaren arabera, egoerak ahalbidertzen baldin badu, agenteek ustezko lege-hausleak kalean identifikatzen dituzte, modu horretan atxiloketa saihestuz, eta egintzen berri jakinarazten diote Adin Txikikoen Fiskaltzari.

Atxiloketa egitea eta komisaldegira eramatea beharrezkoak izanez gero, bete beharreko barne arautegiak, ertzainek beren eginkizunen jardunerako araubidetzat duten arautegi horretzek, hauxe esaten du: atxiloketak indarkeria erabili gabe egin behar dira, alarmarik gabe, armak erakutsi gabe, eta, ahal baldin bada, gazteen ohiko ingurutik urrun, estigmatizazio arrisku oro ekiditeko. Ikerketa honetan elkarriketatutako adin txikiko zenbait lege-hauslek eta beraien zenbait legezko ordezkariak, ordea, diote, batzuetan ez dela arau hori aintzat hartzen. Izan ere, zenbaitetan atxiloketa egiten da esku-burdinak erabiliaz, gaztea maiz ibiltzen den toki publikoetan, auzolagunek identifikatu dezaketen tokietan, gainera.

Jarraian, ohikoena da agenteek atxilotuar bere eskubideen berri ematea, komisaldegira eraman bitartean. Komisaldegira iritsi, beti ere, eta eskubide horiek modu formalean irakurtzen zaizkio.

Adin txikikoen komisaldegiko egonaldia eta zaintza mugatu behar da ezinbestekoa den denborara, eta, gehienez ere, 72 ordukoa izango da. Izaten da 3 eta 6 orduren artekoa, eta beti jakinaren gainean dago Adin Txikikoen Fiskaltza edo Goardiako Epaitegia.

Komisaldegian dauden bitartean, atxilotu helduengandik berezita egon behar dute, eta ez dira ziegatan sartu behar eta ez dira esku-burdinak erabili behar. Aztertutako kasu batzuetan, dena den, nerabeek diote ziegetan egon direla eta esku-burdinak paratu dizkietela; Epaitegietako profesionalek diote gazteek haiei ere kontaktu dietela era horretako gertaera bakanen bat.

Erreseina osoa, hau da, arrunki «fitxa» esaten zaiona, soil-soilik egiten da posible baldin bada ustezko lege-hauslearen, egiletzaren eta egintzen gertalekuaren arteko

erlazio zuzena akreditatzea, esan nahi baita, delitu goriaren egoeran atxilotu dutenean. Erreseina da hatz-markak eta argazkia hartzea. Informazio hori biltzen da helduen artxibotik bereizita dagoen beste batean.

Egintzak larritasunik ez duenean, alarmarik sortzen ez duenean, edo Adin Txikikoen Fiskaltzak horrela baimentzen duenean -eta hauxe da egoerarik sarriena-, atxilotua uzten dute bere gurasoen edo legezko ordezkarien zaintzapean, eta, ahal den guztietan, eginbide polizietako deklarazioa saihesten da. Deklarazioa beharrezkoa baldin bada, nolana ere, egingo da aurrean legezko ordezkariak eta abokaturia daudela, gehienetan ofizioz izendaturik dagoena atxilotuaren laguntzarako txandan. Fiskaltzak horrela agintzen badu, nerabea atxiloturik daukate, aukeran, zentro batean.

Atestatua berehalakoan igortzen da Adin Txikikoen Fiskaltzetara. Ertzaintzaren jarduera erregulatzen duen barne Instrukzioaren arabera<sup>37</sup>, atxiloketa gertatzen baldin bada Adin Txikikoen Fiskaltzen lan orduetatik kanpo, ertzainek egintzen berri eman behar dute Goardiako Epaitegian eta Epaitegi horrek, orduan, hartzen du hartu beharreko erabakia atxilotua gurasoen edo bere legezko ordezkarien zaintzapean utzi behar ote den, edota beharrezkoa ote den zentro batean modu prebentiboan atxilotzea. Halakoetan, ertzainek atestatua, jarduera guztiak bilduta, biharamonean edo hurrengo lanegunean igorri behar dute Adin Txikikoen Fiskaltzara eta horren kopia Adin Txikikoen Epaitegira. Gertatzen dena, ordea, da jarduerak beti ez datozela bat araukin:

- Espedienteen laginaren azterketatik atera daitekeen informazioaren arabera<sup>38</sup>, atxiloketa gertatzen bada arratsaldeko hiru t´erdietatik aurrera, atestatua bai, Argibide Epaitegira igortzen da, baina horretantxe bukatu daitezke poliziarren jarduerak. Goardiako Epaitegiak berak, biharamonean edo hurrengo lanegunean, ohiko prozedurari jarraikiz, kasua igortzen du Epaitegi Dekanora Argibide Epaitegi bati esleitu diezaion. Adin penal txikiarena argi azaltzen baldin bada, gerta daiteke berehalakoan Adin Txikikoen Fiskaltzara igortzea. Horrela ez baldin bada, Argibide Epaitegi batera iritsi eta Epaitegi horretan ez dira adin penal txikiaz ohartuko kasua aztertzea egokitu artean. Beraz, denbora puska bat joango da dagokion Fiskaltzara igorri artean, edo Adin Txikikoen Epaitegi eskudunaren alde inhibititu artean.
- Gauza bera gertatzen da adin penal txikiarena argi gelditzen ez denean atestatua egiterakoan, edo nerabeak egintzan parte hartu duenean 16

---

<sup>37</sup> Adin Txikikoekiko Polizia Jardueren Instrukzioa. 1993an egin eta 1997an berraztertua.

<sup>38</sup> Metodologiari dagokion sarrerako zatiak kontsultatuko espedienteen sailkapenaren mugak zehazten ditu.

urtez gorako pertsonekin. Halakoetan, atestatua beti igortzen da Argibide Epaitegira.

Aurreko horrek ondorio larriak ditu.



Batetik, agertzen den arazoa da ia adin txikiko pertsoneri eman beharreko tratu polizialaren berezitasunak aintzat hartu ote diren atestatua egin denean, oraindik atxilotuaren adinaz ziurtasunik ez zenean. Alde horretatik, iturri polizialeatik diote, zalantza izanez gero, ematen dela adin txikiko atxilotuentzat aurreikusita dagoen tratua.

Bestalde, izugarri handitzen dira eskuhartze-epeak, aurretik Argibide Epaitegira iristen delako. Egindako espedienteen azterketan<sup>2</sup>, ikusten da aztertutako 102 espedienteetan inplikaturako Adin Txikiko 146 pertsonetatik, 57ri dagozkienak baizik ez direla Adin Txikikoen Fiskaltzara iritsi bost eguneko adinako epean edo epe laburragoan. Horietatik, 36 Arabakoak dira, 15 Gipuzkoakoak eta 6 baizik ez Bizkaiakoak. 6 egun eta hilabete baten arteko denboraldia behar izan dute Bizkaiako Adin Txikiko 27 pertsoneri dagozkien espedienteek, Gipuzkoako 17ri dagozkienek eta Arabako 11ri doazkienek. Hilabetea eta seiren arteko denboraldia behar izan dute Erkidego Autonomoko 22 neraberen kasuek. 8 Bilboko Epaitegiari dagozkio, beste 8 Donostiakoari eta 6, azkenik, Gasteizkoari. Badira zenbait espediente sei hilabete baino gehiago behar dituztenak eta are, kasu batean, epea urtebetekoa baino gehiagokoa da. Jokabide hauek argi agertzen dira 3 eta 4 grafikoetan, hurrenez hurren Lurralde Historikoen eta Erkidego Autonomoaren egoeraz aritzen direnak.

---


<sup>39</sup> Metodologiari dagokion sarrerako zatian, kontsultatutako espedienteen sailkapenaren mugak zehazten dira.

### 3. GRAFIKOA: ATESTATU POLIZIALA EGITEN DENETIK FISKALTZA ESKUDUNEAN SARTU ARTEKO ESKUHARTZE-EPEAK



## GIPUZKOA

ADIN TXIKIKO PERTSONAK




Iturria: SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteak oinarrian hartuta.

Espedienteak aztertzetik eratortzen diren datuen arabera, Bizkaiako egoera da denetan larriena. Bertan gertatzen baitira Fiskaltzara beranduen iristen diren kasu gehienak, aurretik Argibide Epaitegira igortzen baitira. Bizkaian ere Fiskaltzan sartu arteko eperik luzeenak gertatzen dira. Eta hori gertatzen da Bizkaiako Epaitegietako lan zama beste lurraldeetako baino handiagoa delako.

Oro har, hartuta, Erkidego Autonomoan prozeduraren fase honetan aplikatutako eskuhartze-epeak luzeegiak dira.

#### 4. GRAFIKOA: ATESTATU POZIALA EGITEN DENETIK FISKALTZA ESKUDUNEAN SARTU ARTEKO ESKUHARTZE-EPEAK - EAE

ADIN TXIKIKO PERTSONAK



Iturria: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteak oinarrian hartuta.

Egoera hori ez da onargarria. Ertzaintzaren barne instrukzioak aurreikusitako konponbideak iduri du denetan zentzuzkoena. Goardiako Epailearengana jotzea berehalako neurriak hartzeko eta Ertzaintzak nahiz Goardiako Epaitegiak kasuaren berri eman Adin Txikikoen Fiskaltzari lehendabiziko lan egunean. Gauza bera aplikagarri litzaioke udaltzaingoari. Ustezko inplikaturako pertsonen adin-txikiaz zalantzak dauden kasuetan, komenigarria da adin txikikoez esku hartzen duten kasuetarako aurreikusitako tratamendua aplikatzea, eta, azkenean, gertatzen bada Adin Txikikoak ez izatea, ba, kasua Epaitegi eskudunera igortzen da.

Modu horretan, atzerapenak kasu gutxi batzuetan baizik ez dira gertatu ahal izango, halakootan, zehazki: ustez adin nagusikoa izanik, Argibide ikerketetan ikusten denean pertsona horrek oraindik ez dituela 16 urte bete.

#### *Trebakuntza eta espezializazioa*

Zenbait Epaitegitan, profesionalak modu kritikoan aipatu dute polizia agenteek, ertzainek zein udaltzainek, prozeduraz zehazki, eta, gazteentzako justiziaz orokorrean duten ez ezagutza. Profesional hauen iritziz, zenbaitetan gaiak modu desegokian eramaten dituzte, ez ezagutza hori dela medio. Batzuetan, egintzei garrantzia kentzen diete gurasoak lasaitzeko asmoz. Orduan, gurasoak lasai daude istilua bukatu delakoan, eta, halako batean, jakinarazpenaren bidez, Epaitegietatik eskatzen zaie hara joateko, eta euren burua engainatuzat jotzen dute. Bestetan,

ordea, egintzen larritasuna aurrejuzkatzen dute. Beste kasu batzuetan, formalitate guztiak egiteak indarra eman diezaioke nerabearen jokabideari, bere burua gertaera garrantziko batean protagonistatzat ikusten baitu.

Begi bistakoa denez, prozeduraren hasierako une horietan dena datza agenteek nerabeenganako tratuan daukaten «*savoir faire*» horretan. Nolanahi ere, ustezko lege-hausleari eta bere gurasoei edo legezko ordezkariari, zuzen eta modu ulergarrian, eman behar diete haiek babesten dituzten eskubideen berri, eta era berean, jakinarazi behar diete prozedurak nondik nora jo dezakeen eta poliziak, derrigor, gertatutako egintzen berri eman diola Adin Txikikoen Fiskaltzari, eta, ez dute neurriei buruzko inolako aipamenik egingo aplikatuko diren ala ez, ez dakitenean. Ikerketa honen baitan aurrera eraman den kasuen azterketan, ikusten da ohikoena dela hala lege-hausle gazteari nola bere legezko ordezkariari esatea Fiskaltzatik berriz ere hots egingo dietela.

Ez baldin bada polizia talde espezializaturik antolatzeko aukera egiten, eta horixe da Euskal Autonomia Erkidegoko, uztailearen 17ko 4/1992 Legeak<sup>40</sup> dioena, Erkidego Autonomoko polizia-gorputzak polizia integral gisa eratzen dituen, ezinbestekoa da polizia-agenteei, gaur egun, adin txikiko atxilotuenganako tratuari buruz hartzen dutena baino prestakuntza zabalagoa ematea.

Gazteentzako justiziaren alorrean, ahots asko ari da nazioarteko testuek prozeduraotan esku hartzen duten polizia-agententzako proposatzen duten espezializazioa eskatzen. Hala gertatzen ari da instantzia juridikoetatik eta ikuspegi teknikoetatik zein teorikoetatik. Dena dela, aipatutako testuek euren gomendioa mugatzen dute hiri handietara<sup>41</sup>, uste izatekoa denez horietan handia izaten baita gazteen gaiztagintza. Populaziogune ertainetan eta txikietan -nekazaritza eremuetan, esate baterako- espezializazioa zalantzarria da, dudarik gabe, arrazoi ekonomikoak direla medio. Espezializazioaren aldeko apostua egingo balitz, beharrezkoa litzateke era horretako zerbitzua izatea egunean 24 orduz eta horrek gastu handia ekarriko luke, nekez justifika daitekeena gazteen gaiztagintzaren maila handia ez dela esan daitekeen Erkidego Autonomo batean (ikus 12 taula).

Behar bada, erdiko konponbide bat izan liteke. Batetik, arestian aipatu denez, komenigarria izango litzateke agente guztien trebakuntza hobetzea Adin txikikoen kasuen nondik norakoak hobeki jakin ditzaten. Bestalde, euren trebakuntza,

---

<sup>40</sup> 1992ko abuztuaren 11ko EAEBE.

<sup>41</sup> Nazio Batuek Adin Txikikoen Justizia Administrazioarako finkatuta dauzkaten Gutxieneko Arauek -Pekingo Arauak-, 12-1 atalean zera gomendatzen dute:

*«Sari edo bakarrik adin txikikoekin tratua daukaten poliziek, edo funtsean adin txikikoen gaizkiltzaren prebentziorako lana egiten dutenek, beraien betebeharrak hobeto burutzeko instrukzioa eta gaiketa berezia jasoko dute. Hiri handietan helburu hori daukaten polizia taldeak egongo dira.»*



nortasuna eta izaerarengatik gai hauez arduratzeko aproposak izan zitezkeen agente batzuk aukera zitezkeen, eta haien artean goardiako txanda bat ezarri. Horrek ez luke esan nahi zerbitzuan egotea, baina bai lokalizagarriak. Hori bezalako sistema batek ahalbideratuko luke komisaldegiko atentzioa propio horretarako gaitua dagoen profesional baten ardura izatea, ustezko nerabe lege-hauslea identifikatu ondoren.

### *Polizien egoitzak*

Polizia egoitzetako egonaldiak zenbait ordu iraun dezake, batez ere Goardiako Epaitegia denean prest dagoen instantzia judiziala eta beste kasu askotaz ere arduratu behar du. Tramitazioan, beraz, atzerapena gertatzen da, eta, horren ondorioz, atzerapena ere gertatzen da ustezko lege-hauslea bere legezko ordezkari edo zentro baten zaintzaperera eramaterakoan.

Komisaldegia ez daude fisikoki egoki hornituak horretarako. Ez dute propio adin txikiko atxilotuentzako gelarik. Hortaz, euren atxiloketa zenbait orduz luzatzen denean, bulego batean egon ohi dira, agente baten zaintzapean. Horixe da gehien gertatzen dena, baina ikerketa honen barruan elkarrizketatutako zenbait Adin Txikiko lege-hauslek diote ziegan egon direla komisaldegiko egonaldiak iraun duen bitartean.

Egoera benetan nahaspilatsua sortzen da egintzak gaez gertatzen direnean, eta, halaxe gertatzen da anitzetan. Zenbaitetan, gertatu da Goardiako Epaitegiak edo Adin Txikiko Fiskaltzak berak agindua ematea gaztea babeseko zentro batean sartzeko, eta delako zentro horrek sarrera hori errefusatzea behar adina kontentzio-bitartekorik ez duelako. Polizien iturriek diotenez, halakoetan, adin txikikoak, ezinbestean, komisaldegian eman behar izan du gaua.

## **2.2. Prozeduraren instrukzioa**

Prozedura instruitzeko Fiskalaren ministeritzak eskueran badu Estatuko Fiskaltza nagusiaren 1/1993, Instrukzioa, martxoaren 16koa. Instrukzio honek interpretatzen du 4/1992 Legea, eta modu horretan betetzen ditu delako Lege horrek dituen hutsune prozesal ugariak.

### *Ikerketen zabalpena*

Fiskalen ikerketak mugatuak dira. Horixe da bere eskuhartzean atzematen den disfuntzio nagusietako bat. Instrukzioak berak egoera hori aurreikusten du aipatzen duenean ez dagoela behar adina bitarteko pertsonalik eta materialik eskumen horiek betearazteko. Izan ere, iragartzen du zer nolako ikerketa-tramiteetara mugatu beharko dute Fiskalek euren horniketa hobetzen ez den bitartean.

Halaxe dio hitzez hitz: «*behar adina bitartekorik ez dagoen bitartean, Ministerio Fiskalaren ikerketaren zabalpena ez daiteke asko bereizi ondoko jarduera prozesal honetatik:*

- *Praktikatu behar dira soil-soilik ezinbestekoak diren eginbideak neurriak eskatzea bidezkoa den ala ez erabakitzeko. Horren ondorioz, espedientea hastea erakarri duten jardueretan jasota dauden eginbideak ez dira errepikatuko; horien praktika utziko da audientzia-saiorako (esate baterako, poliziaren atestatuan deklaratu duten kal tetuen edo irainduen deklarazioa; atxiloketan esku hartu zuten polizia-kideen deklarazioak).*
- *Kasu berezietan salbu, Adin Txikikoaren deklarazioa utziko da Adin Txikikoen Epailearen aurrean egingo duen hasierako agertzearen unerako (...).*
- *Behin-behineko kalifikazioa alegazioen idazkian egiten da (esate baterako, tasazioak, atzemandako drogaren azterketaren erreklamazioa), eta, erabateko auzitaratzerako funtsezko eginbideak ordea, Epaitegiari eskatuko zaizkio alegazioen idazkian berean, jurisdikzio horretan ez baita horren garrantzia handikoa egintzen kalifikazio zehatza. Izan ere, neurri egokia ezartzeko egintzen larritasuna baloratu behar baldin bada ere, datu hori ez da beti funtsezkoa, baizik eta, batez ere, neurriaren erabilpen hezigarria Adin Txikikoaren nortasunari eta interesei begira (...).*
- *Beharrezkoa da ezabatuezinezko eginbideak egitea espedientea aurrera eraman ala ez bidezkoa ote den erabakitzeko. Nolanahi ere, beharrezkoa da saihestea Adin Txikiko bat audientziara eramatea instrukzio labur eta erraz batetik erator litekeenean hasierako inputazioaren sostengu probatoriorik eza. Eginbideak egitea ezinbestekoa den kasuetan, normalena izango da GRUME<sup>42</sup> taldera jotzea eta eskatuko zaio ofizio bidez deklarazioak hartzea edo beharrezkotzat jo litezkeen beste era bateko frogaketak egitea. Eta zenbaitetan kome-nigarria izango da Ministeritza Fiskalak zuzenean egitea eginbide horietako batzuk.*
- *Era berean aurrera eraman ahal izango dira eginbide erraz errazak, espedienteak alferrik luzaeraztea ekarriko ez dutenak; horrela egintza berberengatik nahasita baldin badaude adin penal nagusiko eta txikiko*

---

<sup>42</sup> 4/1992 Legeak Polizia Judiziala aipatzen du, baina espreski ez du hitz egiten GRUME edo poliziaren adin txikikoan taldeaz.

*pertsonak, erraz izango da Argibide Epaitegietan hasitako prozedura penalean aurrera eraman diren jardueretako lekukotasuna eskatzea.»*

Dudarik gabe, egia da Fiskaltzak, gaur egun, urri horniturik daudela, eskumenak zabal zabalak direlako, eskumen horiek ez baitira 4/1992 Legearen esparruaren baitako prozeduretara mugatzen. Izan ere, Adin Txikikoen Fiskaltzek erreformaren alorrean erabakimena duten kasuei gehitzen bazaizkie euren ahalmen babeslearen jardunean hasten diren espedienteak, inkoazioen kopurua igotzen da 1997an Araban 147raino, Bizkaian 421eraino eta Gipuzkoan 223raino. Eta komenigarria da zenbaki horiei gehitzea erreforman artxibatutako eginbideak (70, 152 eta 114, hurrenez hurren), eta babesaren alorrean aztertzen ari diren kasuen segimendua eta zainketa. Halaber, beharrezkoa da kontutan hartzea Fiskaltzen eskuhartzea gerta daitekeela Familiako-Epaitegien aurrean (konparazio batera, Donostiako Adin Txikikoen Fiskalek 1996an 1083 prozeduratan esku hartu zuten Epaitegi horien aurrean).

Horrek lan zama handia dakar eta, horregatik, gertatzen dena da Adin Txikikoen Epaitegiari dagozkion espedienteetan ezinbestekora saiatzten dira mugatzen Fiskaltzatik aurrera eramaten diren eginbideak.

Alde horretatik, hauxe dio Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak (1997an) egindako Justiziaren Liburu Zuriak: *«Kontsiderazio berezia behar du Ministerio Fiskalak Adin Txikikoen prozeduran duen jarrerak. Adin Txikikoen jurisdikzioko printzipio akusatorioa espreski aintzat hartzeak ez dirudi, zenbaitetan, Fiskaltzek ordena jurisdikzional horri dioten ardurarekin bat egiten duenik. Horregatik, beharrezkoa da Ministerio Fiskala, prozedura hauetan duen eginkizunaren garrantziaz jabetzea, eta, beharrezkoa izanez gero, behar adina bitarteko materialaz eta pertsonalaz hornituko zaio bere instrukzio-lanak egokiro aurrera eraman ahal izan ditzan».*

Kasu gehienetan, beraz, Fiskalaren aurrean deklaraziorik ez gertatzean, nerabeak ibilbide judizialarekin duen lehendabiziko kontaktua Talde Teknikoa da.

Horrek baditu bi alderdi on. Honatx lehendabizikoa: gutxienez mugatzen du adin txikikoari ematen zaion hitzordu kopurua instantzia judizial baten aurrean ager dadin. Bigarrena berriz, hauxe da: Talde Teknikoetako profesionalak, hasieran, behintzat, Fiskalak baino gaituago daude nerabeekin harremanetan sartzeko eta horien konfiantza bereganatzeko, taldekideen trebakuntza eta espezializazioa dela medio.

Arazorik ere badu, ordea, hots, Talde Teknikoak soil-soilik txosten baten prestaketaren ardura duela. Txosten horretan bilduko dira egintzak egiteko edo halako jokabide deliktiboak izateko eragina eduki ahal izan duten inguruabar pertsonalak, sozialak eta familiarrak. Beraz, ez dute egintzarik baloratzen, eta, hala ere, maiz, nerabeek talde teknikoaren aurrean dute, marko judizialaren barruan, gertaeren

bertsioa eskaintzeko lehendabiziko aukera. Antzeko inguruabarretan, zaila gertatzen da ulertaraztea ez dela gertatu zena kontatzeko unerik egokia, aukera izango dutela esateko duten guztia kontatzeko, eta une horretako eginbeharra dela galdera pertsonalei erantzutea.

Azken buruan, zenbait profesionalak diotenez, Talde Teknikoek, nola halako maiztasunez, Fiskalak entzun ez duen deklarazioa entzuten dute. Kasuren batean gainera, esan izan da ia eginbiderik burutu ez izanak Talde Teknikoaren eskuhartze ez beharrezkoak sortu dituela. Halakoetan, eskuhartzeak egin bezain laster, berehalakoan jardueren amaierari heldu behar izan zaio, probarik ez zegoelako edo egiletza ez zegokiolako auzipetautako gazteari.

### *Eginbideen mugak*

Arestian aipatutako, Estatuko Fiskal Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak interpretatzen du 4/1992 Legeak, 15. artikuluari egiten dion idazketa berriaren 2garren lerroan, ezartzen duen mugaketa. Izan ere, ebazten du Ministerio Fiskalak «*Adin Txikikoen Epaitegira eskatu behar dituela bere baitatik burutu ahal izango ez dituen eginbideak egitea*». Instrukzioa ari da lege-aginduz burutu ez ditzakeen eginbideez eta banan bana aipatzen ditu zein kasutan beharrezkoa izango den Epailearen eskuhartzea eskatzea:

- Kautelazko neurriak ezartzeko (aurrerago, apartatu hau zehaztuko da).
- Etxe batean sartu eta miaketa egiteko tartean interesatuaren baimenik ez baldin badago.
- Intimitatea haustea dakarten azterketa pertsonalak edo gorputz-eskuhartzeak egiteko, baimenik ez badago.
- Komunikazioak kontrolatzeko.

### *Espedienteen artxiboa eta inkoazioa*

Kasu bat Adin Txikikoen Fiskaltzara iristen denean, lehendabizi, heltzen zaio oinarritzko eta funtsezko frogaketak egiteari, modu horretan ikusi ahal izateko kasua bere eskumenaren barrukoa ote den: beraz, ikusten da egintzak arau-hauste ote diren, eta, ustezko lege-hauslea 12 urtez gorakoa eta 16 urtez behekoa ote den. Horrela ez bada, Fiskalak kasua *erabat* artxibatzen du. Behar adina elementurik ez badago erabakitze bidezkoa den ala ez espediente hastera, eginbide informazioak zabaltzen ditu eta horrek bi bide ditu, artxibatzea ala espediente hastera. Zalantza da ia une horretan aplikagarri ote den egokieraren printzipioa, hau da, egintzen larritasun txikia ikusita, Fiskalak kasua erabat artxibatu ote dezakeen. Zalantza 4/1992 Legearen idazketa ambiguoetik dator. Estatuko Fiskaltza Nagusiko 1/1993 Instrukzioaren interpretazioaren arabera, ez da

printzipio hori aplikagarritzat hartuko. Nazioarteko testuek, ordea, kontrakoa proposatzen dute. Aurreproiektuak, bere aldetik, modu zehatzean ezartzen du.

Prozeduraren une honetan egokiera-printzipioa aplikatzearen alde emandako arrazoen arabera, kasu guztietan espedienteak hasten badira, beharrezkoa da beti Talde Teknikoak adin txikikoaren azterketa egitea, baita hasieratik beretik, egintzek garrantziarik ez dutela ikusten den kasuetan ere. Horrek, nola edo hala, injerentzia dakar ustezko lege-hauslearen eta bere familiaren intimitatean. Zalantza izpirik gabe neurritz gozako injerentzia da prozedura erakarri duen arau-haustearen izaerarekiko eta larritasunarekiko. Era berean, taldeei lan zama handiagoa dakarkie, eta, kontutan hartu behar da, taldeen lana izugarri handitu dela 16 eta 17 urte arteko, -biak barne-, gazteen kasuetan txostena prestatu behar dutenetik. Dударik gabe, horren ondorioz, atzerapen handiak gerta daitezke kasuen tramitazioan. Bestalde, egia da Adin Txikikoen prozeduraren berehalakotasunak erabateko garrantzia duela neurriaren eraginkortasunari begira eta halaxe hartu behar da aintzat; zebaitetan gainera, aukeran hobe izan liteke ez eskuhartzea, berandu eskuhartzea baino. Alde horretatik, hona lerrootara aldaturik Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak berandu eskuhartzeaz, hitzez hitz dioena *«beti antiedukatiboa eta distorsionatzailea»*.

Hala ere, Fiskaltza Nagusiak, azkenean, hautabide honen irregulartasuna adierazten du. Egintzak arau-hauste direnean, eta, 4/1992 Legean aurreikusitako moduan, behar adina elementurik dagoenean susmatu ahal izateko adin txikikoa bat izan dela egintza horien egilea, Fiskalak, nahitaez, espedientea hasi behar du. Eragozpenak eragozpen, soluzio horrek berme handiagoak ditu arau-hauste baten biktimari begira, Adin Txikiko jardunbidean ez baita akusazio partikularra egiterik. Horrek esan nahi du Fiskalak akusatu ezean, inork ez dezakeela akusaziorik egin. Egia da, Fiskalak jardueren amaiera proposatu dezakeela, baita espedientea hasi ondoren eta Talde Teknikoaren txostena hartu ondoren ere. Baina, era berean, egia da halakoetan Epaileak proposamen hori onartu ez dezakeela. Halako kasuetan ordea, iherarkian Fiskalaren gainetik dagoenak erabaki behar du, 1/1993 Instrukzioak argitzen duenez.

Hala ere, gerta daiteke espedienterik ez hastea ustezko egilea adin penal nagusira iritsi denean, egintzak egin eta kasua Fiskaltzara sartu artean, Fiskaltzak aipatu egintzen larritasun txikia iritzita, beti ere.

### *Espediente batasuna*

Egintza bakoitzeko espediente bat hasi behar da. Horra hor, Fiskaltza guztiek, gaur egun, aintzat hartzen duten printzipioa. Ez dute, beraz, espedienterik hasten adin txikikoa bakoitzeko. Hasieran, bederen, bigarren hori modu egokiagoan ados letorke Legearen azpian dagoen filosofiarekin. Horren arabera, prozeduaren xedea ez da jokabideak epaitzea neurriko zehapena ezartzeko, baizik eta nerabearen

nortasuna baloratzea hala nola heziketaren nahiz trebakuntzaren alorrean dauzkan beharrak ere baloratzea. Baina ohiko jokamoldeak dakarrenez, instrukzioa espediente bakar baten bidez tramitatzen da, modu horretan saihesteko egintza berberei buruzko ikerketak eta agertze ugariak. Fiskaltza Nagusiaren Instrukzioak proposatzen du alor honetan irizpide mistoa segi dadila. Horren arabera, espediente egintza bakoitzeko tramitatzea bazter utzi gabe, eta Fiskaltzak burututako eginbideak Epaitegira igorri ondoren, Epaitegiari eskatu behar zaio adin txikikoa bakoitzeko espedientearen irizpideari eustea eta horiek eranstea, epaitegian berean dagoeneko hasita edukiko zuen espedienteari, halakorik izatekotan.

### *Espediente inkoazioaren berri ematea Adin Txikikoen Epaitegiari*

Adin Txikikoen Epaileari berehala ematen zaio espediente hasieraren berri, baina zati honetan ustezko egintzen egilearen filiazio-datuak baizik ez dira biltzen hala nola arau-haustearen aipamen generikoa, idatziz arau-hausteari dagokion izen penala. Hauxe da, Talde Teknikoaren txostenarekin batera, zeina prestaketa bukatu bezain laster igortzen zaiona, Epaileak agertzearen unean daukan informazio guztia.

### *Kautelazko neurriak*

Espediente hasi eta Fiskalak Epaileari edozein momentutan eska diezaioke babeseko eta zaintzako kautelazko neurriak hartzea, hau da, asteburuko barruratzea, pertsona edo familia batek bere gain hartzea, tankera teraupetikoko zentroan sartzea, eta zentroan barruratzea erregimen irekian edo erdi irekian. Fiskalak izaera horretako neurriak eskatzen baditu, Epaileak erabaki behar ditu, hark proposatutako artean, beharrezkotzat jotzen dituenak. Beraz, Fiskalak bat besterik ez badu proposatzen, Epaileak horixe hartu behar du.

Halaber, kautelazko barruratzea eska daiteke zentro itxian, baina kasu honetan Legeak tratamendu berezia dakar. Izan ere, Adin Txikikoen Epaileak aukeran du neurri hori onartzea eta ez onartzea. Nolanahi ere, Legeak muga batzuk espreski biltzen ditu neurri horretarako: ez dezake hilabete bat baino gehiago iraun berretsia edo aldatua izan gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoan, oso gutxitan heltzen zaie kautelazko neurriei. Ikusten da Gasteizko Epailearen berezitasuna, inoiz edo, zaintzapeko askatasunaren kautelazko neurria erabaki baitu.

### *Talde Teknikoaren txostenaren prestaketa*

Txostena prestatzeak baditu, gaur egun, denborari lotutako arazoak. Hori gertatu da 1995eko Kode Penalak indarrean sartu zenetik. Izan ere, Kode Penalak, 16

eta 18 urte arteko pertsonen esku hartzen duten kasuen erabakimenean eskudun diren Epaitegiak behartzen ditu nerabearen egoeraz txostena eskatzera dagokion Adin Txikikoen Epaitegiaren Talde Teknikoari, ikusteko nola dagoen psikologikoki, zein den bere heziketa maila eta familiako giroa. Bada, Talde hauen lan zama izugarri handitu da, 16 taulak islatzen duen moduan:

## 16. TAULA: TALDE TEKNIKOEN 1996AN ETA 1997AN EGINDAKO TXOSTENEN KOPURUA

	Arabako Lantalde Teknikoa	Bizkaiko Lantalde Teknikoa	Gipuzkoako Lantalde Teknikoa	EAE
<b>Profesionalak</b>	4	4	3	11
<b>1996an jakinarazitako kasuak</b>	251 <sup>1</sup>	330	230	811
<b>1997an jakinarazitako kasuak</b>	308	462	412	1.182
• <b>Adin Txikikoen Epaitegitik</b>	142	365	202	709
• <b>beste Epaitegietatik</b>	166 <sup>2</sup>	97	210	473

<sup>1</sup> Araban, Adin Txikikoen Fiskalak eskatutako txostenez gain -191 1996. urtean-, Familia Auzitegien edo eskatzen dituzten beste batzuen eskariz egindakoak ere sartzen dira. Beste lurralde batzuetan, Auzitegiaren teknikari propioak dauzkate.

<sup>2</sup> Araban, Kode Penalaren ezartzearen ondorioz egindako txostenez gain, eta horiek 113 dira, Familia Auzitegiarako edo horrela eskatzen duten beste Auzitegi batzuetatik egindakoak sartzen dira (166); baina kontuan izan behar da, Talde Teknikoko profesionalak adierazten duten bezala, azken horien konplexutasuna Adin Txikikoen Auzitegiek eskatutako txostenena baino txikiagoa dela.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritza. SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak egina.

Lan zamaren handitze horrek prozeduren luzapen nabarmena ekarri du, azken urte honetan. Egoera hori arintzeko, Donostiako taldeak bere lan egiteko modua aldatu du. Kode Penalak ekarritako aldaketa gertatu baino lehen, taldekide guztiek parte hartzen zuten txosten guztien prestaketan, eta, era berean, nerabearekin eta gurasoekin edo legezko ordezkariarekin egiten elkarriketa guztietan egoten ziren. Gaur egun, ordea, profesional bakoitzak kasu baten ardura hartzen du, eta besteengana jotzen du, soil-soilik kasu nahaspilatsuak izanik taldekide baten edo batzuen eskuhartzea beharrezkotzat jotzen duenean, delako taldekideak lantzen duen espezialitatea dela kausa. Honela, kasuak arinago moldatzen dituzte, eta intromisio maila txikiagoa lortzen dute, eskuhartze sozio-educatibo garrantzitsuak eskatzen ez duten kasuetan.

Arabian txosten-molde bikoitza aplikatzen da. Batetik, ikusketa txosten bat, zailtasun handiegia agertzen ez duten kasuetarako nahikotzat jotzen dutena eta horren prestaketa dagokio Talde Teknikoko kide bati. Bestetik, txosten osoa kasurik nahaspilatuenerako (egintza larriak, arrisku edo erreinzentzia egoerak). Azken horretan, Taldean dauden hiru espezialitateen iritzia eskatzen da. Kasuen banaketa egiten da profesional bakoitzak duen lan zamaren arabera, eta, koordinazio lan guztiez Taldekide bat arduratzen da, hiru hilabeteetarako, txandaz txanda, izendatua. Nerabeak harremana izan baldin badu Talde Teknikoarekin beste

espediente baten bidez, kasua ematen zaio nerabea ezagutu eta aurrekoetan harekin harremanik handiena izan duen taldeko profesionalari. Teknikariek diotenez, egindako txosten gehienak, %75, ikusketakoak dira.

Bizkaian, kasu guztiak Taldea osatzen duten profesionalen multzoak atenditzen ditu. Horregatik, ia buru eman ezinik dabilta (3 elkarrizketa egunean), eta, beste teknikari edo zerbitzu komunitario batzuekiko kontaktu gehienak, telefono bidez egiten ari dira. Haien iritziz, txostenen bidez informatutako kasuen artean, gehienak, %80, bitartekaritzaren bidez konpon litezke, baina ez dute astirik. Beraz, ezinezkoa gertatzen zaie hautabide hori Fiskaltzari gehiagotan proposatzea.

Hiru lurraldeetako Taldeek kezka bat agertzen dute, hots, euren eginkizunen jardunean, noraino iritsi daitekeen euren eskuhartze maila pertsonen intimitatearen eskubidea urratu gabe. Haien iritzian, batzuetan, arau-haustea funtsik gabea da eta ez litzateke esku hartu behar izango. Baina, euren eginkizuna, inolaz ere, ez denez egintzen kalifikazioa zehaztea, ezinezkoa dute euren iritziarekin bateginik jokatzea.

Bestalde, Taldeek agertzen dute badela beharra trebakuntza plan bat antolatzeko. Plan horretan ikusi behar dira, batetik, atenditzen hasi berri diren 16 urtez gaineko populazioaren berezitasunak, eta, bestetik, nola jokatu drogamenpekotasunak hartuta dabilzan gazteekin, nola sexu abusuak egiten dituzten nerabeekin, edo nola ordena publikoaren aurkako arau-hausteetan eta kale istiluetan, bereziki, nahasita dabilzan gazteekin.

Zalantzarik gabe, Taldekide hauek dira gaur egun Adin Txikikoen prozeduran lan zamarik handiena bizkar gainean daramaten profesionalak. Bada, Talde hauen lanak gainera, buru ere eman behar dio beste eragozpen bati, ez baitie Bulego Judizialak Idazkariari eta Epaileari ematen dizkien administrazio zerbitzuak eskaintzen. Izan ere, Ofizialak, Laguntzaileak eta Agentek euren Araudi Organikoan<sup>43</sup> zehaztuta dauzkaten eginkizunen artean, ez da espreski aipatzen Talde Teknikoa, 1996ko araua izan arren. Horrela, beraz, Taldeetako profesionalak saiatzeko dira euren beharrei aurre egiten, eta ezinbestekoa den kasuetan besterik ez diote laguntzarik eskatzen Bulego Judizialari. Bizkaian, Fiskaltzaren Bulegoak laguntza hori eskaintzen dio Taldeari.

Egoera hori ikusita, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jotzen du teknikariak laguntzaile administratibo batez hornitzea. Erabakia ez dago hartuta, baina ez da ezinezkoa hala gertatzea. Gastu publikoaren zentzuzko erabilerari erreparatuta, gomendagarria dirudi, konponbide negoziatua lortzeak Taldeak Adin Txikikoen

---

<sup>43</sup> 249/1996 Errege dekretua, otsailaren 16koa, Justiziako Administrazioaren zerbitzuko Ofizialen, Auxiliarren eta Agenteen Gopruzten Araudi Organikoa onartzen duena.



Epaitegietan kokaturik dauden bitartean. Konponbide horren arabera, bulego judizialeko kideen eginkizun administratiboak zabalduko lirateke Talde Teknikoaren txostenetatik eratortzen diren era horretako lanetara. Bulego horiek dituzten giza baliabideak aski dira gaur egungo beharrei aurre egiteko.

Profesional hauek egindako txostenak ustezko lege-hauslearen egoera pertsonalaz eta soziofamiliarraz informazioak biltzeaz gain, bildu ere biltzen ditu ustez haren beharretarako eskuhartze mota egokienei buruzko iritziak. Orientabide horiek ez dira, inolaz ere, Fiskaltzarentzako lotesleak, Fiskaltzak bere proposamena prestatzen baitu, egintzen izaera eta larritasuna ere gogoan hartuz. Orokorrean, ohikoena da Taldeen orientabideekin bat eginik jotzea. Gipuzkoan gainera, maiz, Teknikariaren gomendioak egiten dira Fiskal eskudunekin ahozko kontsentsuak egin ondoren, eta, gauza horrek koherentzia ekartzen dio prozedurari. Izan ere, Taldeak nerabearen ezagutzaren esku jartzen duen proposamenak, gehienetan, isla izaten baitu Fiskaltzaren eskuhartzean. Bizkaian, profesionalek diotenez, azken bolada honetan, joera da txostenaren edukia nerabearen egoera pertsonalera eta soziofamiliarra mugatzea, eta, posible den heinean, saiatzeko dira eskuhartzeari buruzko orientabide zehatzak mugatzen.

### *Polizia Judiziala*

Beharrezkotzat jotzen dituen eginbideak burutzeko, Fiskalak badu Polizia Judizialera jotzeko aukera.

4/1992 Legeak, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzkoa<sup>44</sup>, Ertzaintzaren egitura organikoaren baitan sortzen du Polizia Judizialaren Taldea (112tik 115 arterainoko artikulua). Talde horretako agenteek, Botere Judizialeko Lege Organikoarekin bat eginik, ikerketagaiaren auzia daramaten Epaileen, Auzitegien edo Ministerio Fiskalen menpe daude funtzionalki, eta eginkizun horietan dihardute modu eskusiboan.

Gertatzen dena da, Fiskaltzek diotela agenteak ez daudela adin txikikoen arau-haustearen gaitan espezializaturik, eta, batez ere, eginkizun horietan, esparru horretan, jarduteko izendatutako agenteen errotazioa etengabekoa dela, eta, horrek izugarri murrizten du haien eraginkortasuna eginbideak burutzerakoan, eta, bereziki, auziperatuetako bat aurkitzerakoan. Adin Txikikoen Epaileek ere, zenbaitetan, aipatzen dute eragozpen hori. Arazo horiek saihestu litezke errotazioa kenduaz.

---

<sup>44</sup> 1992ko abuztuaren 11ko EAEAO.

## *Egoitzak*

Fiskaltzen egoitzek, Bilbon eta Donostian, bereziki, ez dute baldintza egokirik adin txikiko pertsoneri aplikagarri zaien prozeduraren intrukzioaren berariazko beharretarako. Horregatik, ez daitezke zenbait eginbide burutu. Esate baterako, errueda moduko errekonozimenduak. Gasteizen, berriz, baldintzak hobeak dira eta behar adina berme badute jardueren konfidentziasuna gordetzeko. Hasieran, arazo horrek konponbidea eduki beharko luke ez oso epe luzeetan, bai Bizkaiako, bai Gipuzkoako hiriburuetan Fiskaltzak eramango dituztelako duela gutxi zaharberitutako eraikin batera, eta, eraiki berri den batera, hurrenez hurren.

Fiskalak eskaturik prozeduran esku hartzen duten Talde Teknikoek, beren aldetik, Adin Txikikoen Epaitegietan kokaturik daude, eta, profesionalek diote badituztela leku arazoak. Gasteizen, egin berri den eraikina izan arren, ez zen behar adina bulegorik aurreikusi. Horregatik bi teknikari Adin Txikikoen Epaitegiaren gaineko solairuan daude. Bizkaian lau teknikariek bi bulegotan lan egiten dute: bi psikologoek horietako batean, eta hezitzaileak eta gizarte laguntzaileak bestean. Gipuzkoan, badira bi bulego, horietako bat gizarte laguntzaileak hartua eta bestea hezitzaileak duena. Psikologoa bere aldetik ari da erabilera anitzeko areto batean, eta areto hori Talde Teknikoak elkarriketak egiteko erabiltzen du zenbait pertsona biltzen direnean, eta, era berean, erabiltzen da agertze eta audientziak egiteko.

Teknikariek, oro har, nahiago izaten dute nor bere bulegoa izatea konfidentziasunerako bermeak eskaintzeko eta konfiantza giroa faboratzeko. Hala ere, helburu horiek lor zitezkeen Epaitegi bakoitzean areto bat kokatuz. Areto horrek balio izango luke hala elkarriketak nola bitartekaritzak egiteko. Horrela, teknikari bakoitzak ez luke bere bulegoa izango, horrek, zalantzarik gabe, koste handia ekarriko bailuke.



Bestalde, bitartekaritza maizago erabiltzea proposatzen duen joerarekin bat eginik, desjudizializazioaren printzipioaren aplikaziorako tresna gisa, zenbait ikuspegitatik aipatzen da bitartekaritza aurrera eramateko ardura duten Taldeak Epaitegietako egoitzetatik kanpo uzteko aukera. Dena dela, hori egiterakoan, hona hemen kontutan hartu beharreko alderdiak. Batetik, bitartekaritza, desjudizializazio printzipioaren baitan sartu arren, adin txikiko lege-hausleei aplikagarri zaien prozedura judizialean sartzten da, eta, nerabeen begietarako Justiziak Talde aholku emaleengan egindako delegazio bat da. Bestalde, Talde hauek, bitartekaritza alde batera utzita aritzen dira gaiari aplikagarri zaion prozedura judizialean zuzenean sartutako eginkizunetan. Esate baterako, funtsean, Fiskalarentzako txostenak prestatzea, eta, baldin badagokio, Adin Txikikoen Epailearentzako.

Azkenik, adierazi beharra dago faltan sumatzen direla nola halako diskrezioa bermatuko duten itxoin-aretoak. Gaur egun, Gasteizko Epaitegiak baizik ez dauka halako areto txiki bat xede horretarako.


## Instrukzioaren iraupena

5. eta 6. grafikoek islatzen dute zenbat denbora pasatzen den kasua Fiskaltzan erregistratzen denetik espedientea Adin Txikikoen Epaitegira igortzen den artean, eta, hori ikusten da Lurralde Historiko bakoitzean eta Erkidego Autonomoan, hurrenez hurren. Beraz, barne dago agertzeari dagokion denbora, eta, azken horren berri 2.3.apartatuan ematen da, azalpenak argiago izan daitezten. Datuok datoz Epaitegietan ikusitako espedienteen azterketatik eta arestian aipatutako erreserbak hartu behar dira kontutan datuok aintzat hartzerakoan<sup>45</sup>.

### 5. GRAFIKOA: ESKUHARTZEKO EPEA FISKALTZAN SARTZEKO ERREGISTRATZEN DENETIK ESPEDIENTEA ADIN TXIKIKOEN EPAITEGIRA ERAMATEN DEN ARTEAN




<sup>45</sup> Metodologiari dagokion sarrerako zatian laginaren mugaketak zehazten dira.



Iturria: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteen basearen gainean.

## **6. GRAFIKOA: ESKUHARTZEKO EPEA FISKALTZAN SARTZEKO ERREGISTRATZEN DENETIK ESPEDIENTEA ADIN TXIKIKOEN EPAITEGIRA ERAMATEN DEN ARTEAN - EAE**



Iturria: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteen basearen gainean.

Soil-soilik bost nerabeen kasuan epea hilabetekoa baino txikiagoa da, eta bost kasuok, beti ere, Gipuzkoan gertatuak dira. Auziperatu gehienei dagozkien kasuak, guztien %56, instruituak izaten dira hilabete bat eta lau hilabeteko epearen artean, eta ohikoena izaten da 90 eta 120 egunen arteko denboraldia. Gazteen %36ri dagozkion kasuak instruitzen dira lau hilabete eta zortzi hilabeteren artean, eta gainontzekoak, %3,4, zortzi eta hamar hilabeteren artean dagoen denboraldian.

Oro har, Donostiako Fiskaltza eta Talde Teknikoa dira denetan azkarrenak instruitzerakoan. Izan ere, oso nerabe gutxiren kasuak izaten dira Epaitegietara igorriak 4 hilabete iragan direnean, eta ia erdien kasua instruitzen da hiru hilabeteko epe barruan. Bizkaiako maiztasuna, orokorrean, mantsoagoa baldin bada ere, aztertutako espedienteetan, bakar batek ere ez du instrukzioaldia 8 hilabetekoa baino handiagoa izan. Araban eta Gipuzkoan ordea, kasuren batean edo bestean gainditu egin da epe hori.

Atzerapena hein batean gertatzen da, zenbaitetan, zailtasunak direlako ustezko lege-hausleak bere burua agertu dezan hots egin dion Talde Teknikoaren aurrean. Ohikoena izaten da, gehienez ere, hiru hitzordu dei igortzea, eta, ondoren hitzordua zuzenean Fiskaltzatik beretik bideratzen da. Hala ere, atzerapena, batez ere, gertatzen da ondoko arrazoiengatik: Poliziak ustezko lege-hauslea aurkitzeko behar izaten duen denborarengatik, txosten teknikoaren prestaketarako itxaron-epeengatik, epeak gero eta luzeagoak baitira, txostenen kopurua izugarri handitu delako, arestian azaldu denez, eta berariaz instrukzioari dagozkion beste tramitazioengatik, esate baterako jaiotze-agiriaren eskaera adina zehaztu ahal izateko.

### **2.3. Agerraldia**

Hauxe da agertzearen tramiteak adin txikikoen prozeduran betetzen duen egin-kizuna, hots, arau-haustearen ustezko egileari dagozkion eskubideen eta leporatzen zaizkion egintzen berri ematea, eta, alde horretatik, ustezko egile horrek bere legezko ordezkariaren aurrean edo, halaxe nahi izanez gero, bere Abokatuaren aurrean, egin nahi izango duen deklarazioa entzutea.

Donostian Adin Txikikoen Epaitegiko erabilera anitzeko aretoan burutzen da, eta, Gasteizen eta Bilbon, berriz, bisten aretoan. Fiskalaz gain, Talde Teknikoko kide bat ere egoten da eta, Legearen arabera, txostena ikusita, Epailleak egokitzen jotzen duen beste edozein pertsona. Gehienetan ordea, azken hori oso gutxitan gertatzen da, auziperatuaren tutoretza Administrazioari dagokion kasuetan baizik ez, halakoetan Epailleak esku artean baitarabil gurasoak ere bertan egotearen aukera.

Ez da egokitzen jotzen atentzio zuzeneko langileak, hau da, gizarte laguntzaileak edota hezitzaileak bertan egotea, presentzia horrek hauts bailezake nerabearekin ezarritako konfiantzaren lokarria eta gisa horretan eragotzi instantzia horietatik etorkizunean egin litekeen eskuhartze oro. Beraz, horien partaidetza, zeharkakoa izaten da, agertzearen aurretik Talde Teknikoarekin egindako elkarriketen bidez.

Ustezko lege-hausleari emandako informazioak argia eta ulergarria izan behar du, berariaz bere adinari dagokion ulertze mailara egokitutako hizkera erabiliz. Txostena egiteari begira elkarriketatatu ahal izan diren adin txikiko lege-hausleek diote ez dutela, oro har, prozedura ulertzen. Maiz, esku hartzen duten figurak ere

ez dituzte bereizten, ezta prozeduraren baitan burutzen dituzten egunkizunak, alboan utzita Talde Teknikoko profesionalak. Hala ere, azken horretan ere badute nola halako nahasmendurik eta nerabeen begietarako den denak psikologoak dira. Salbuespena, jakina, ohiko lege-hausleen eskutik dator, bide hori guztia ezagutzen baitute, bertan ibili izan direlako. Gazte gehienek diote ulertzen dutela haiei zuzenean esaten zaien guztia, baina ez dutela ulertzen agertzean eta audientzian azaltzen den eta eztabaidatzen den gainerakoa.

Gurasoei edo legezko ordezkarietara dagokienean, mugatua dago haien partaidetza zuzena agertzealdian eta audientzian, eta, kasuak banan-banan aztertu ondoren, esan daiteke ulermen arazoak dituztela bai batean nola bestean. Egia esateko, hitza bakar bakarrik hartzen dute Talde Teknikoekin egiten dituzten elkarrizketetan. Ohikoena izaten da gurasoek, hasieran, seme-alaben jokabidea justifikatzera jotzea edo, are, baita jokabide hori estaltzera ere jotzea. Ondoren, ordea, eskuhartzea komenigarria ikusten dute. Ondorioen gaineko beldurraren hasierako unea iragandakoan, maiz gertatzen da gurasoek aintzat hartzea konponbide egokia aurkitzeko Teknikariek egiten dituzten ahaleginak eta horien eskuhartzea eskertzen dute nola jokatu ez dakiten egoeran laguntzabidea emateagatik. Taldeetako profesionalak, euren eginkizunen jardunean, hasieran saiatzen dira familia lasaitzen eta, ondoren, daitezkeen aterabideak diseinatzen.

Alde horretatik, beharrezkotzat jotzen da Fiskaltzek eta Epaitegiek informazioa emateko esku-orriak edukitzea, irakurterrazak, prozeduraren ildo nagusiak eta profesionalen egitekoa azaltzeko; Adin txikikoari eta bere familiari azaltzeko prozeduraren zein fasetan dauden, etengabe zehaztuz une oro dagozkien esku-bideak. Esku-orri horiek komisaldegietara ere banatu zitezkeen.

Beste horrenbeste esan daiteke jakinarazpenen sistemaz. Posta zertifikatuaren bitartez edo telegrama bidez bidaltzen dira, hizkera benetan ulergaitzean. Ez dirudi egokienak direnik, ez igorpen moduak, ezta edukiak ere. Jokamoldeek modu egokiagoan bat egin behar dute errealitatearekin. Beraz, gogoan hartu behar dute gehienetan jendeak ez dakiela, oro har, nolakoa den justiziaren funtzionamendua eta nolakoa, batez ere, Adin Txikikoen justizia. Esate baterako, egokiagoa litzateke gurasoei gutun informatibo bat bidaltzea, inolako jakinarazpen ofizialik igorri baino lehen. Gisa horretan, gurasoek astia edukiko lukete seme-alaba jakinaren gainean jartzeko. Gipuzkoan, profesionalak aukeratu dute, ongi aukeratu gainera, telefono bidez abisatzea jakinarazpena bidali baino lehen.

Eguneroko jardunean ikusten da maiz agertzea eta audientzia elkarren segidan, berehalakoan, egiten direla, alferreko luzapenak galarazteko. Esan nahi baita, adin txikikoa bat baldin badator egintzekin eta Fiskalak eskatutako neurriarekin, agertzealdia bukatu bezain laster, Fiskalak Epaileari eramaten dizkio alegazioen idazkia eta espedientea, eta, Epaileak, bere aldetik, alegazioen idazkia Abokatuari eskutaratzen dio. Orduan, une horretantxe audientzia saioa hasten da, adostasunezko akordioa emanez.

Egintzak eta egiletza argi frogaturik ez daudenean, ordea, edo egintza egin izana leporatzen zaion gazteak egiletza onartzen ez duenean edo neurriarekin adostasunik erakusten ez duenean, Fiskalak prozeduraren jarraipena proposatzen du, beraz, instrukzioarena, alderdi horiek argitzeko, eta bere alegazioen idazkia prestatzeko. Espediente osoa ez da Adin Txikikoen Epailearen esku uzten ordura arte. Orduantxe ere Epaileari alegazioen idazkia bidaltzen zaio, eta Epaileak, bere aldetik, bost eguneko epea du idazki hori Abokatuari bidaltzeko, eta, horrek beste hainbat egun ditu defentsako idazkia igortzeko.

Abokatuaren egitekoa zehaztasunik gabea gertatzen da adin txikiko lege-hausleen aurkako prozeduran, gainontzeko prozedura ere anbigua den bezala. Batetik, egintza leporatzen zaion pertsonaren defentsarako eskubidea bermatu behar du, nekez penaltzat kalifikatuko ez den prozesu baten markoan. Bestalde, gogoan eduki behar du neurrien xede hezigarria, eta, horren ondorioz, ikuspegi horretatik baloratu behar du adin txikikoaren interesa. Kasu askotan, bi interes horiek kontrajarriak gerta daitezke. Izan ere, Epaitegietako profesionalak diotenez, zenbait kasutan Abokatuek, euren eguneroko eginkizunarekin bat etorriz, egintzen egiletza ukatzeari behin eta berriz eusten diote adin txikikoak egintza horietan zuzenean parte hartu izana aitortuta ere. Era berean, gerta daiteke Talde Teknikoak hitz egin izana adin txikikoarekin neurri hau edo bestearen komenigarritasunaz eta nerabeak neurri horren egokitasuna ulertu izana eta, hala ere, Abokatuak eskubideen murrizketa txikiagoko hautabideen aplikazioa defenditzea.

Egoera horiek, hein batean, gertatzen dira abokatuek ez dakitelako Adin Txikikoen prozeduraren berri eta, oro har, ez dutelako gazteentzako justiziaren filosofia ezagutzen. Ohikoa izaten da, ofizios izendatua izan eta Abokatuak lehendabiziko aldiz parte hartzea era honetako prozesu batean eta Epaitegiak berak jakinaraztea prozesu horren ezaugarriak. Egundaino, Arabako Abokatuaren Elkargo Ofizialak baizik ez du egokitzen jo gai honi buruzko ikastaroak antolatzea eta, Lurralde horretan ere, interesa erakutsi da Praktika Juridikoaren Eskolatik.

Dena dela, beharrezkoa da esatea egiazki nahi baldin bada epaiketa kontrajarria izatea, eta adin txikiko lege-hausleak defenditzeko zinezko aukera edukitzea, ez dira Abokatuaren eginkizunak esku hartzen duten gainontzeko profesionalenekin parekatu behar, prozeduraren berezitasunaren aitzakipean. Azken buruan, egintzen egiletza aitortuta ere, bada iritzi ezberdina izaterik egokien gerta daitekeen neurriaren gainean. Kasuen azterketaren barruan egindako elkarrizketetan, ikusten da, nola halako maiztasunez, ez auziperatutako gazteek, ezta legezko ordezkariak ere, ez dutela uste prozeduran Abokatuaren aldetik egiazko defentsa-jardunik izan denik, eta, esaten dute Abokatuak gutxitan azaltzen dituela desadostasunak Fiskaltzak eskatutakoari buruz.

Ez da gertatzen, eta ez da testuetan aipatzen, baina uste izatekoa da Abokatuak eska dezakeen frogetariko bat froga psikologikoak eta txosten soziofamiliarak egitea izan daitekeela Talde Teknikoaren barrenean ez dauden beste profesionalen

eskutik. Bizkaian, aldi batean, defentsak txosten psikologikoaren alderen bat zalantzan jarri zuen. Gainontzekoan, abokatu mugatzen da, gehienez ere, espedientearen agertzen diren txostenak errekurritzera. Maiz, eskola motako txostenak izaten dira.

Alderdi hauek guztiak hobetzeko, komenigarria litzateke Arabako Abokatuen Elkargoak erakutsitako interesa beste lurraldeetara ere zabaltzea. Halaber, Abokatuen eskuhartze zuzena eta eraginkorra faboratzeko, komenigarria litzateke beste instantzia batzuetatik horien eginkizuna aintzat hartzea. Badirudi, kasuren batean, defentsan ziharduenak erakutsitako interes handiak ez zuela lortu araberako erantzunik barruratze neurri baten betearazpenaldiaren baitan, edo halaxe sumatu zuen, bederen, delako Abokatuak. Izan ere, Abokatu horrek aipatu neurriaren betearazteari buruzko zenbait alderdiri buruzko interesa erakutsi zuen Eusko Jaurlaritzaren aurrean, erakunde hori betearazpenaren agintari arduraduna den heinean. Ez dirudi hori ohiko jokabidea denik, baina, hala ere, beharrezkoa da gogoan edukitzea ezen adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartzeetan pertsona horien interesak gainetik egon behar baldin badu, 4/1992 Legeak dioen gisan, ezinbestekoa dela burutzen diren jarduera guztiek elementu hori aintzat hartzea, eta, zalantzarik gabe, Abokatuaren eskuhartzea aintzat hartu behar da xede horri erreparatuta.

#### **2.4. Entzunaldia eta Ebazpena**

Helduen prozedura penalean ahozko epaiketa denari, Adin Txikikoetan audientzia esaten zaio, Auzitaratze kriminalaren legeak aurreikusia duena. 4/1992 Legeak alde horretatik deus agertzen ez badu ere, komenigarria da audientzia aurrera eramatea *«togarekin eta estratuekin egiten diren epaiketa penalei berariaz dagozkien formalitateak»* saihestuz, halaxe baitakar Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak.

Epaitegi guztiek jantziari buruz ezarria dagoen gomendioa betetzen badute ere, Donostiakoak baizik ez du tokiari buruzko gomendioa betetzen: agertzeak eta audientziak egiten dira Adin Txikikoen Epaitegiaren erabilera anitzeko aretoan, eta bertaratutako guztiak eseritzen dira mahai baten inguruan. Araban, audientzia areto batean egiten dira, txikia eta Adin Txikikoen Epaitegiak besterik erabili ez dezakeena, eta, egituraren aldetik ez da berdina baina bai antzekoa ohiko epaiketa-aretoekin alderatuta: U itxurako mahai batean, Epaillea eta Idazkaria esertzen dira auziperatuaren aurrean. Auzpiretua estradutik kanpo dago; Fiskala eta Talde Teknikoa alde batean eseritzen dira, eta Ofiziala eta Abokatuak bestean. Abokatuak da Adin txikikoarengandik hurbilago jartzen dena. Bizkaian, erabilitako aretoa ez da modu eskusiboan adin txikikoen aurkako prozeduretarako; Adin Txikikoen Epaitegiaren solairuan berean dago, baina beste atal batean, eta, horrek nerabeak atari bat gurutzatzera behartzen ditu, eta zenbaitetan, pasilo batean egon behar izaten dute zain han dabilzan guztien zaintzapean.




Audientzi saioan bertan egon behar dute Fiskalak, Adin Txikikoen Epaileak, Talde Teknikoko kide batek, ustezko lege-hausleak eta bere abokatuak. Ez da espreski eskatzen gurasoen edo legezko ordezkarien agerraldia, baina Adin Txikikoarekin batera azaltzen dira, amak, batez ere. Egokia irizten ez badio, Epaileak gurasoen edo legezko ordezkarien ez agertzea erabaki dezake, arrazoiak emanez. Nahi izanez gero, bistak dirauen bitartean, Epaileak agindua eman diezaioke Adin txikikoari aretotik ateratzeko, baina beti egon behar du audientzia hasterakoan eta bukatzerakoan.

Halaber, erabaki dezake, audientziaren interesean, saioak jendaurrekoak ez izatea. Horrek esan nahi du, halako erabakirik ezean, saioak jendaurrekoak direla. Ohikoena da Ministerio Fiskalak beti eskatzea jenderik gabeko audientzia.

Orokorrean, audientziak harritu egiten du nerabea eta, zentzu horretan, balio izaten du nerabeak kontzientzi har dezan bere jokabideak, dauzkan ondorioengatik, izan dezakeen larritasunaz. Hala ere, zenbaitetan, kontrakoa gertatu daiteke, hau da, nerabearen jokabidearen indargarri gerta daiteke, pertsona horrek hartzen duen protagonismoarengatik.

Espedientea Adin Txikikoen Epaitegira eraman eta ebazpen judiziala ematen den arteko bete beharreko epealdiak islatzen dira 7. grafikoan Lurralde Historikoetarako, eta, 8. grafikoan Euskal Autonomia Erkidegorako. Datu hauek kontsultatutako espedienteen azterketatik ateratzen dira<sup>46</sup>.


## **7. GRAFIKOA: ESKUHARTZEKO EPEAK ESPEDIENTEA EPAITEGIRA ERAMAN ETA EBAZTEN DEN ARTEAN**



<sup>46</sup> Metodologiari dagokion sarrerako zatian espedienteen sailkapenaren mugak zehazten dira.


### BIZKAIA

ADIN TXIKIKO PERTSONAK




### GIPUZKOA

ADIN TXIKIKO PERTSONAK



## 8. GRAFIKOA: ESKUHARTZEKO EPEAK ESPEDIENTEA EPAITEGIRA ERAMAN ETA EBAZTEN DEN ARTEAN - EAE

ADIN TXIKIKO PERTSONAK



Iturria: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteen basearen gainean.

Prozeduraren fase honetan ere ikusten da epeak luzatzen direla eta hori ez da batere egokia neurrien xede hezigarriari begira, xede horrek berehalakotasunik handiena eskatzen baitu.

### 2.5. Neurrien betearazpena

4/1992 Legearen arabera, neurrien betearazpena gaian eskudun diren erakunde publikoei dagokie. Estatuko Fiskaltzaren 1/1993 Instrukzioak dioenez, idazketa ez da teknikoki zuzena, hitzez hitz esaten denari erreparatuta kontraesana agertzen baita Espainiako Konstituzioan 117. artikuluan ezarritako eksklusibitate jurisdikzionalaren printzipioarekin. Horrek esan nahi du betearazpena Epaileari dagokiola, baina aurrera eramateko, baliatzen dela erakunde publikoek eskueran jarri behar dizkion bitartekoez, Auzitegi Penalen eta Erakunde Penitentziarioen artean gertatzen den bezala.

Erabakitako neurrien betearazpena aurrera eramateko bitarteko pertsonalak eta materialak, -ohartarazpena salbu, Epaileak ezarria baita-, Eusko Jaurlaritzak ematen ditu Donostiako eta Bilboko epaitegietatik datozen neurri guztiei dagokienez, eta Arabako Foru Aldundiak ere Arabako epaitegiak hartutako gainontzeko neurriei dagokienez. Txostenaren bigarren zatiak neurrien azterketari helduko dio.

**BIGARREN ZATIA**

**ERABAKITAKO NEURRIEN ETA  
HAIEN BETEARAZPENAREN  
AZTERKETA**

**V. ATALA**

**NEURRIAK APLIKATZEKO  
JARRAIBIDEAK**

## 1. ESKUHARTZE-MAILA

Neurriak ezartzeari dagokionez, jarduera judizialak ezberdinak dira Herrialde Historiko bakoitzean<sup>46</sup>.

Donostiako Epaitegia oso neurri gutxi aplikatu dituelako nabarmentzen da: 1996an, Fiskaltzak irekitako espedienteetan inplikaturik zeuden adin txikikoen %19a baino gutxiagori aplikatu zitzaion neurriren bat, eta, 1997an, aldiz, kopuru hori ez zen %12ra heldu.<sup>47</sup>

Hala ere, datu horiek aztertzeke, bitartekotza prozeduretako praktika hartu behar da kontuan. Tamalez, honi buruzko estatistikak 1997 urterako baizik ez dira, urte hori baino lehenago ez baitzen haien erregistro formalik egiten.

---

<sup>46</sup> Ikerketak ez du irekitako espedienteetan agertzen den biztanlegoaren azterketa egin. Beraz, txosten honen hildotik, ezin dira azaldu ikusitako ezberdintasunak.

<sup>47</sup> Horretaz gainera, kontuan hartu behar da, Adin Txikiko Epaitegiek emandako adin txikikoen gaineko kopuruak lortzeko, espedienteetan agertzen diren guztiak batu egin direla. Ez da aintzat hartu, baina, adin txikiko batek parte hartze bat baino gehiago izan duen. Hori dela-eta, zifra horiek txikiagoak direla jasotakoak baino esan daiteke. Izan ere, gertaeren ondorioz aplikatzen diren eskuhartzeak islatzen dituzte hauek.

## 17. TAULA: NEURRIAK ETA ONDORIOAK<sup>1</sup> 1996 URTEA

	ARABA Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegia	BIZKAIA Bilboko Adin Txikikoen Epaitegia	GIPUZKOA Donostiako Adin Txikikoen Epaitegia	EAE
Irekitako espedienteak	101	213	125	439
Espedienteetan inplikaturiko adin penal txikiko pertsonak	191	330	230	751
Hartutako neurriak adin txikiko pertsonen kopuruaren baitan	100 <sup>2</sup> (%52.4)	154 (%46.7)	42 (%18.3)	296 (%39.4)
Epaitegiko jardueren ondorioa <sup>3</sup> adin txikiko pertsonen kopuruaren baitan	91 (%47.6)	176 (%53.3)	188 (%81.7)	455 (%60.6)

<sup>1</sup> Taula honetan ez dira bitartekotzak xehatu, Adin Txikikoen Epaitegietan horri buruzko daturik ez baitago.

<sup>2</sup> Gasteizen, noiz edo noiz, pertsona berari, eta kasu bakar batengatik, neurri bat baino gehiago aplikatu zaio.

<sup>3</sup> Honetan sartzen dira bitartekotzak, artxibatzeak, eta bai epaile eskudunari bai babeserako administrazio agintariei igorritakoak.

Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Egilea: SIOS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

## 18. TAULA: NEURRIAK, BITARTEKOTZAK ETA ONDORIOAK. 1997 URTEA

	ARABA Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegia	BIZKAIA Bilboko Adin Txikikoen Epaitegia	GIPUZKOA Donostiako Adin Txikikoen Epaitegia	EAE
Irekitako espedienteak	108	210	134	452
Espedienteetan inplikaturiko adin txikiko pertsonak <sup>1</sup>	204	325	246	775
Aplikaturiko neurriak adin txikiko pertsonen kopuruaren baitan	84 (%41.2)	147 (%45.2)	29 (%11.8)	260 (%33.6)
Egindako bitartekotzak adin txikiko pertsonen kopuruaren baitan	6 (%2.9)	40 (%12.3)	48 (%19.5)	94 (%12.1)
Jardueren ondorioa <sup>2</sup>	114 (%55.9)	138 (%42.5)	169 (%68.7)	421 (%54.3)

<sup>1</sup> Epaitegiek ez dute 1997rako adin txikikoen kopurua eman, beharrezkoa baita esku-zenbaketa berriro egitea. Beraz, jasotako datuak 1996 urteko proportzioak aplikatuz lortu dira.

<sup>2</sup> Ondorioak, artxibatze edo epaile eskudunari eta babeserako administrazio agintariei igortzeagatik, eta euren proportzioa adin txikikoen kopuruarekiko.

Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza. Egilea: SIOS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Gipuzkoan, 1997an, 48 bitartekotza egin dira, hau da, urte hartan irekitako espedienteetan inplikaturiko pertsonen %20tik gertuko tasa. Aipatu tasa hori 7 puntu altuagoa da Bizkaikoa baino, eta Arabakoaren aldean, 16 puntu altuagoa. Horrela, bada, Gipuzkoan, sarri askotan, ondorioak burutzen dira arazoak konpontzeko aurretiko bideak aukeratzen direlako, nazioarte mailan gazte-justizia arloan nagusi diren printzipioekin bat.

Bestaldetik, ikus daiteke Araban aplikatutako neurriak gutxiagotu egin direla, Gipuzkoan ere proportzioa jeitsi egin dela, Araban baino gutxiago bada ere, eta Bizkaian, aldiz, mantendu egin dela. Bitartekotza kasuen handitze nabarmenak azal lezake Gipuzkoako bilakaera.

Bitartekotzen eta aplikatutako neurrien tasak kontuan hartzen baditugu, herrialdeen arteko ezberdintasunak apur bat orekatzen dira. Izan ere, irekitako espedienteetan inplikaturiko adin txikiko pertsonetatik, Araban %44.1ekin zuzeneko eskuhartzeren bat dago, Bizkaian %57.5ekin, eta Gipuzkoan, azkenik, %31.3rekin. Eskuhartzeak bitartekotza prozeduren bidez, nahiz neurriak aplikatuz egin dira.

Hori guztia dela-eta, epaileen jardueretan islatutako ezberdintasunak jardunbide-irizpide diferenteak hartzearen ondorio direla esan daiteke, bai Fiskaltzen aldetik, proposamenetan, bai Epaitegien aldetik euren erabakietan. Hala ere, ezin da ezer baieztatu, atenditutako herritar horien zer-nolakotasuna eta parte hartu duten kasuena ez baita ezagutzen.

## **2. APLIKATUTAKO NEURRIEN IZAERA**

Desberdintasun hori aplikatutako neurrien zer-nolakotasunean eta alternatiba batera edo bestera jotzeko maiztasun handiago edo txikiagoan ere ikus daiteke. 19. taulak 1996 eta 1997ko lehen seihilabeteko jarduerak jasotzen ditu. Bertan islatzen da zenbat aldiz erabili den neurri bakoitza Epaitegi eta neurri guztien baitan.



**19. TAULA: PROPORZIOA NEURRIEN APLIKAZIOAN  
(1996 eta 1997ko lehen sei hilabetekoa)**


	ARABA Gasteizko Adin Txikikoen Epaitegia		BIZKAIA Bilboko Adin Txikikoen Epaitegia		GIPUZKOA Donostiako Adin Txikikoen Epaitegia		EAE	
	Neurrien kopurua	%	Neurrien kopurua	%	Neurrien kopurua	%	Neurrien kopurua	%
<b>GUZTIRA</b>	157	100	237	100	50	100	444	100
Ohartarazpena	36	22.9	146	61.6	25	50.0	207	46.6
Asteburu bat eta hiru asteburu bitarteko barrualdia	3	1.9	5	2.1	0	0.0	8	1.8
Zaintzapeko askatasuna	42	26.8	20	8.5	12	24.0	74	16.7
Beste pertsonak edo famili nukleo batek hartzea	1	0.6	0	0	0	0.0	1	0.2
Komunitatearen onurarako egin beharreko lanak	34	21.7	29	12.2	7	14.0	70	15.8
Tratamendu ambulatorioa edo zentro terapeutiko batean sartzea	5	3.2	1	0.4	0	0.0	6	1.3
Erregimen irekiko zentro batean sartzea	6	3.8	3	1.3	1	2.0	10	2.3
Erregimen erdirekiko zentro batean sartzea	27	17.2	30	12.6	2	4.0	59	13.3
Erregimen itxiko zentro batean sartzea	3	1.9	3	1.3	3	6.0	9	2.0

Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Egilea: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Ezberdintasunak nabarmenak dira. Neurrien zer-nolakotasunei dagokienez, Gasteizko Epaitegia izan da beste pertsona edo familia-harrera aukeratzerako jo duen bakarra -behin besterik izan ez bada ere-. Donostiako Epaitegiak, bestalde, ez du inoiz asteburuko barrualdia edo tratamendu ambulatorioa egiteko neurririk erabaki. Epaitegi bakoitzean aplikatutako neurrien baitan, aplikatzeko maiztasunaz, ondokoa azpimarratu daiteke: Bizkaian (%61.6) eta Gipuzkoan (%50) askoz maizago jotzen da ohartarazpena Araban (%22.9) baino; zaintzapeko askatasun neurriak aplikazio mugatua dauka Bilboko Epaitegian (%8.4), baina epaile arabar eta gipuzkoarrek, aldiz, kasuen %26.8 eta %24an jotzen dute horretara, hurrenez hurren; komunitatearen onurarako lanak egitea Araban garatu da gehien, legehausleen %21.7ri aplikatzen baitzaio, Gipuzkoan soilik %14ra iristen den bitartean, eta Bizkaian %12.2ra; Erregimen erdirekian sartzeko neurriak %17.2ra heltzen dira Gasteizko Epaitegian eta %12.6ra Bilbokoan. Donostiako Epaitegian, berriz, %4a besterik ez da osaten; aitzitik, erregimen itxiko barrualdiak gehiago dira Gipuzkoako espedienteetan (%6), Araba (%1.9) edo Bizkaikoetan (%1.3) baino. Dena den, zifra guztiak kontuan harturik, erregimen itxiko lege-hausleen kopurua berdina da hiru herrialdeetan (3).

Beste aldetik, beraiekin barrualdia dakarten neurriei begiraturaz gero, euren izaera edonolakoa dela ere (asteburukoa, irekia, erdirekia eta itxia), ikus daiteke (9. irudia) Araban (%24.8) neurri horiek aukeratzera gehiago jotzen dela Bizkaian (%17.3) eta Gipuzkoan (%12.0) baino.

### 9. GRAFIKOA: INGURUNE IREKIA ETA BARRUALDIA (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetekoa)



Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Egilea: SII-S. Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Aurreko guztia ikusita, ondorioztatu daiteke, neurriak, irekitako espedienteetako lege-hausle gehiagori aplikatzeaz gain, dibertsifikatzeko joera ere baduela Gasteizko Epaitegiak, 4/1992 Legean aurreikusitako guztiak erabiliz, ibilgailu motordunak gidatzeko eskubide-gabetzea izan ezik; gaur egun, neurri hori ezartezina baita. Beste aldetik, Araba da, egokitzat jotzen duenean, bi neurri batera, edota baldintzapean bada ere, barrualdi-neurriaren ordez, zaintzapeko askatasuna aplikatzea erabakitzen duen bakarra. Aipatutako azken puntu hau dela-eta, Donostiako Epaitegia ere 4/92 Legean aurreikusitako epai-etenduraz baliatzen hasi da berriki.

Adin penal txikiko lege-hausleen kontrako prozeduran aurrekarien erregistrorik ez dagoenez, ezin da berrerortzeari buruzko estatistika ofizialik osatu. Ondorioz, ezinezkoa da neurrien eraginkortasuna bereiztea halako kasuetan. Argigarri modura, eta ikerketa honen bidetik, epaitegietan kontsultatutako espedienteetako neurriak zeintzuk diren saiatu gara ikusten, agiriekin adin txikiko pertsona hori aurretik Epaitegitik pasatu dela dioten kasuetako neurriak alegia. Halako kasuetan, maizenik aukeratzeko diren neurriak honakook ditugu: zaintzapeko askatasuna eta barrualdia bere modalitate guztietan, erregimen irekia, erdirekia eta itxia, hots, adin txikikoentzako prozeduretan dauden murriztaileak.

### 3. ESKUHARTZEAREN EPEAK


Bai testu teorikoek bai alor horretan diharduten profesional guztiek baieztatzen dute, neurriren bat aplikatu behar izanez gero, luzaro gabe egin behar dela. Izan ere, berehalakotasuna ezinbestekoa da ardurak hartzeko prozesuan, eta, ondorioz, hezkuntz-baloretan eskuhartzeko; zenbait egoeratan, berandu jardutea kaltegarriagoa izan daitekeela eskuhartzerik ez egotea baino kontsideratzen baita.

Lehen atalean jardunbidearen gainontzeko aldiekin egin den moduan, interesgarri jo dugu zehaztea, (zuhurtasunez, espedienteen aukeraketak ez baitzuen lagin-izaerarik)<sup>48</sup>, erabakitako neurriak aplikatzen hasteko behar izan diren denbora-epeak, Adin Txikikoen Epaileak emandako ebazpena irmo denetik.

Jarraian, ondoko irudiak neurrien multzoari dagozkion epeak islatzen ditu; aurreago, jarduerak zehaztuko dira, neurrien zer-nolakotasunaren arabera.

Autonomia Erkidegoan, espedienteen laginean, erabakitako neurrien %37a baino gehiago berehala betearazten dela ikus daiteke. Kasuetarik %51ren betearazpena lehen eta hirugarren hilabeteen bitartean gertatzen da, oro har, ohartarazpenarekin batera ebazpenak indarra hartzen duen egunetik zenbatuta.

### 10. GRAFIKOA: ESKUHARTZEAREN EPEAK, EBAZPENAK INDARRA HARTZEN DUENETIK BETEARAZPENA HASI ARTE - EAE





Iturria: SISIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikikoen Epatagietan kontsultatutako espedienteetan oinarriturik.


<sup>48</sup> Kontuan hartu behar dira espedienteen hautaketari buruz sarreran agertzen diren azalpenak, non zehazten baita zer nolako metodologia erabili den.

Hamaikagarren irudian islatzen denez, azpimarratzekoa da Gipuzkoako bizkortasuna kudeaketari dagokionez; kontsultatutako espedienteetako neurri gehienak betearazten ebaizenak indarra hartu zuen hilabetean hasi ziren. Dena den, gogoratu egin behar da Gipuzkoan aplikatutako neurriak askoz gutxiago direla. Bizkaian, ordea, erabakitako neurrietatik erdia baino gehiago data horren ondoren hasten da betearazten, batez ere, bigarren eta hirugarren hilabetetan, ebaizenak indarra hartzen duen egunetik zenbatuta.

## 11. GRAFIKOA: ESKUHARTZEAREN EPEAK EBAZPENETIK BETEARAZPENA HASI ARTE



## GIPUZKOA



Iturria: SIOS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Adin Txikiko Epaitegietan kontsultatutako espedienteetan oinarriturik.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da komunitatearen onurarako lanak egiteko neurriak zein zaintzapeko askatasunekoak gauzatzeko, eskuhartze-plangintza egin behar dela, eta, horretarako, maiz, beste zerbitzu batzuen parte hartzea behar dela. Horrexegatik, neurriaren edo hau bera osatzen duten eskuhartzeen betearazpen eraginkorra, sarri askotan, markatutako epeetan hasi beharrean, beranduago egiten da.

10 eta 11. grafikoetan islatutako epeak, ebazpenak indarra hartzen duenetik erabakitako neurria(k) betearazten hasi bitarteko epeei badagozkie ere, ezin zaizkie egotzi betearazpen arloan eskudunak diren administrazioei. Eusko Jaurlaritzak gai honi buruz eman dituen datuek bialdi bereizten dituzte: lehendabizikoa, ebazpenaren egunetik Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Justizierekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari lehen jakinarazpena eman arte; eta, bigarrena, lehen jakinarazpen horren eta betearazpen irmoaren bitarteko epea. Eusko Jaurlaritzak ebazpenean eman dituen datuak, 1996 eta 1997ko lehen seihilabetean erabakitako neurrienak dira. Hau da, hiru Herrialde Historikoetako Adin Txikikoen Epaitegiek erabakitako barrualdiak, bai eta Bilbo eta Donostiako Epaitegietan erabakitako zaintzapeko askatasunak eta komunitatearen onurarako egin beharreko lanak ere.

Informazio horrek honako puntuok argitzen ditu:

- Komunitatearen onurarako lanak direla-eta, adierazitako epe osorako (1996 eta 1997ko lehen seihilabetekoa), Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Justizierekiko Lankidetzarako Zuzendaritza neurriak betearazten hasi zen Epaitegiaren lehen jakinarazpenaren hilabetea amaitu

baino lehen, kasuen %62.2an, eta bi hilabete baino lehenago kasuen %89.2an. 1997ko lehen seihilabetekoan zehar, epeak laburragoak dira: kasuen %87a Epaileak lehen jakinarazpena eman duen hilabete berean betetzen da, eta %96a bi hilabete igaro baino lehen.

- Bilbo eta Donostiako Epaitegiek erabakitako zaintzapeko askatasuneko neurri guztiak, bat izan ezik, Epaitegiak lehen jakinarazpena eman, eta handik 17 eguneko epean hasi ziren betearazten.
- Barrualdi neurriak Epaitegiaren lehen jakinarazpenetik, edo, hala behar izanez gero, aurreko neurria amaitzen denetik, gehienez hilabete batera hasten dira betearazten.

Izan ere, kontuan hartu behar da, auzipetua aurretik ezarritako neurriren bat betetzen ari den bitartean, beste neurri bat eman daitekeela, eta, kasu horretan, bigarren neurria aplikatzeko, lehenbizikoa amaitu arte itxaron behar dela. Gerta daiteke ere, adin txikiko pertsona berarentzat, espediente bat edo gehiagoren eremuan, era berean betearazi ezin diren neurriak ematea Adin Txikikoen Epaileak. Halakoetan, Adin Txikikoen Epaileak batzuen betetzea agindu behar du, eta gainontzekoak geroko utzi. Batzuetan, atzeratze hori bitartekorik ezagatik gertatzen da. Horrela, bada, esate baterako, eremu judizialek adierazita, 1996an, zenbaitetan, barrualdi erdirekiko neurrien betearazpena atzeratu egin behar izan da, zentroen sarean leku librerik ez zegoelako.

Epe horiei prozeduraren beste aldiatarako erabiliak (txostenaren lehen atalean islatutakoak) gehitzen badizkiegu, ondoriozko epeak luzeegi bihurtzen dira; neurriaren eraginkortasuna haren berehalakotasunari atxikirik dagoela dioen eremuan bereziki.

Beharrezkoa da, beraz, prozeduraren hasieratik jarduerak bizkortzea, neurriek omen duten xede hezitzaile nagusi hori bermatu ahal izateko.

#### **4. NEURRIEN BERRIKUSPENA**

4/1992 Legeak ezartzen du Adin Txikikoen Epaileek murriztu edo indargabetu ditzaketela eman dituzten neurriak (2-5 artikulua, LTTMren 23. artikulua aldatzen duena). Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak egiten duen Lege-xedapenen interpretazioaren arabera, behar baino lehenagoko iraungitze horrek ez du arazorik sortzen: era jarraian eta etenik gabe bete behar diren neurriak, baldin eta epaileak hala erabakitzen badu, aurreikusitako eguna baino lehen amaitu daitezke, betetze eraginkorra izan dadin.

Neurria murrizteko aukerak beste arazo batzuk ere sortu ditu interpretatzerakoan. 1/1993 Instrukzioaren arabera, alde batetik, neurriaren iraupena laburtzeko

aukeraz ari dela ulertu behar da, eta, bestetik, erabakitako neurriaren orde, hain hertsatzailea ez den beste bat aplikatzeaz, beti ere, kasu bakoitzeko inguruabarren eta hasierako neurriaren betetzearen bilakaera gogoan hartuz. Halaber, hasieran erabakitako neurria ereginkorra ez dela antzematen bada, ezin izango da inolaz ere neurri murriztaileagorik aukeratu.

Hortaz, xedapen hauek ez dute erantzunik ematen lege-hausleak erabakitako neurria betetzen ez duen kasuetarako, zaintzapeko askatasun eta tratamendu ambulatorioetarako batik bat. Halako kasuetan, epaileak ondoko alternatibak baino ez ditu: adin txikikoaren kontrako beste prozedimendu bat hastea agintari judizialei desobeditzeagatik, edo, bestela, neurria erabakitzerakoan, beharbada ez dela beteko aurreikustea. Azken kasu honetan, esate baterako, barrualdi neurria erabaki dezake eta esekita utzi, haren orde, zaintzapeko askatasuna aginduz, ezarritako plangintza betetzeko eta, neurriak iraun bitartean, lege-hauste gehiago ez egiteko baldintzapean.

2. eta 17. tauletan islatzen den moduan, Gasteizko epaileak bi aukera horiek zenbaitetan erabiltzen ditu. Beste bi Epaitegietan, berriz, ez dute gehienetan bide horietara jotzen. Hala ere, badirudi Donostiako Epaitegian, arestian, kasuren batean epaitza esekitu egin dela.

## **VI. ATALA**

# **BITARTEKOTZAK EGITEKO ETA NEURRIAK BETEARAZTEKO BALIABIDEAK**



Ohartarazpen neurria Adin Txikikoen Epaileak berak betearazten du, prozedura zein entzutean zehar. Baina, neurri hori kenduta, 4/1992 Legearen esparruan adin penal txikiko lege-hausleei aplikatutako gainerako neurriek behar dute Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta Arabako Foru Aldundiko Haur, Familia eta Gazteentzako Lurralde Zerbitzuaren eskuhartzea. Bestalde, bitartekotza prozeduren aplikazioa Lantalde teknikoetako profesionalen esku dago, Eusko Jaurlaritzaren menpe, Adin Txikiko Epaitegiei atxikita eta haien egoitzetan kokaturik.

Interesgarri deritzogu eskumen horiek erabiltzeko dituzten baliabideak azaltzeari.

## 1. BITARTEKOTZAK

Lantalde teknikoek, egun, askoz lan handiagoa dute iaz baino. Zigor Kodeak indarra hartzean, profesional horien jarduteko eremua zabaldu da, eta, orain, Instrukzio- eta Zigor-epaitegietatik bidalitako 16 eta 17 urte bitarteko pertsonen ere arduratu behar dira. Epaitegiek, bere lana betetzeko, txosten teknikoak eskatu behar dizkiete adin txikiko jurisdikzioari atxikitutako profesionali. Aldaketa hauek direla-eta gertatu den kasuen gehitzea lehen ataleko 16. taulan islatu da.

Txostenak egiteaz gainera, bitartekotza prozeduretan ere eskuhartzen dute Lantalde teknikoetako profesionalak. Hori dena kontuan harturik, 1997ko lana hauxe dugu:

### 20. TAULA: LANTALDE TEKNIKOEN ATENDITUTAKO KASUAK

	Arabako Lantalde Teknikoa	Bizkaiko Lantalde Teknikoa	Gipuzkoako Lantalde Teknikoa	EAE
<b>Profesionalak</b>	4	4	3	11
<b>Eskuhartzeak</b>	314	502	460	1.276
- txostenak	308	462	412	1.182
- bitartekotzak	6	40	48	94
<b>Urteroko kasuen kopurua profesionalako</b>	78.5	125.5	153.3	116

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza. Egilea: SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Bitartekotza prozedurak maizago aplikatzearen aldeko joerak, etorkizunean, langile hauen betebeharren handitzea ekarriko du. Aurreikuspen horri eta Zigor Kodearen 19 eta 69 artikuluen aplikazioak sortuko dituen kasuen gehitzeari konponbidea emateko, Eusko Jaurlaritzak uste izan du beharrezkoa dela Lantalde teknikoetako plantila handitzea, bost profesional gehiago hartuz: 1 Araban, eta 2na Bizkaian eta Gipuzkoan.

## 2. INGURUNE IREKIKO NEURRIAK

Ingurune irekiko neurrien betearazpena, hots, egoitz-barrualdia behar ez dutenena, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Justizierekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren esku dago Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban, berriz, Arabako Foru Aldundiak du eskumena, Gizarte-ongizaterako Foru Institututan integraturik dagoen Haur, Familia eta Gazteentzako Zerbitzuaren bidez.

21. taulan, eskumen horiek betetzeko dituzten giza baliabideak islatzen dira. Ez da komunitatearen onurarako egin beharreko lanei zuzendutako bitartekoen berri eman, bai Bizkaian bai Gipuzkoan, entitate askok hartu baitute parte, kasuaren eta egintza gertatu den herriaren arabera. Tratamendu anbulatorioaren neurriak zuzenean aplikatzeko parte hartzen duten giza baliabideak ere ez dira jasotzen, Osasun Arloari dagozkiolako. Hortaz, zaintzapeko askatasun neurriak betearazteko esku hartzen duten arreta zuzeneko langileen datuak jaso dira soilik, bai eta teknikarienak ere, gai horri ematen dioten denbora aintzat hartuz.

### 21. TAULA: INGURUNE IREKIKO NEURRIETAN ATENDITUTAKO KASUEN KOPURUA LANGILEKO

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
<b>Neurriak</b>	<b>1996</b>	49	29	16	94
	<b>1997</b>	56	40	15	111
<b>Profesionalak<sup>1</sup></b>	<b>1996</b>	3.98	2.5	1.5	7.98
	<b>1997</b>	3.98	2.5	1.5	7.98
<b>Kasuen kopurua profesionaleko</b>	<b>1996</b>	12.3	11.6	10.6	11.77
	<b>1997</b>	14.1	16.0	10.0	13.90

<sup>1</sup> Zifrak ordu guztiak zenbatzean lortzen dira, eta lanaldi oso baten langile kopurua adierazten dute, urteko lanaldia 1.660 ordukoa dela aintzat hartuz.

Iturria: SIIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak egina.

Datu horietan oinarriturik, egun, kasu kopurua neurritz gainekoa ez dela esan daiteke, batez ere, kontuan hartzen badugu ardura iraunkorra eskatzen duten bakarrak zaintzapeko askatasunaren neurriak direla.

1998 urterako, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutuaren aurrekontuek 15.000.000 eta 31.550.000 pezetetako<sup>49</sup> aurrekontu sailak onetsi dituzte hurrenez hurren, Adin Txikikoen Epaitegietan erabakitako neurriak ingurune irekian betearazteko.

Aurrerantzean, haatik, gauzek aldatzera joko dute. Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketa balioetsiak aintzat hartuz gero, adin txikikoen justiziaren arloa arautzen duen Organu Legea onesteak, eta, ondorioz, Zigor Kodearen 19. artikulua indar hartzeak eskatzen baitute ingurune irekiko neurriak aplikatzeko bitartekoak gehiagotzea.

Horrela, bada, ondoko beharrak aurreikusten dira:

- Lurralde ordezkari teknikoaren plantila handitzea, 7 lanpostu sortuz.
- Hiru Herrialdeetan egunezko-zentro bana paratzea.
- Emantzipazio-zerbitzua abian jartzea (berriro gizarteratzeko programa bat eta egoitzazko hainbat plaza).

Zigor Kodearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera, 18 urtetik gorako herritarrak Instrukzio- eta Zigor- epaitegietatik bidaltzerik baldin badago, Eusko Jaurlaritzaren ustez, aurreikuspenek gora egingo dute.

### **3. BARRUALDI NEURRIAK**

Barrualdi neurrien betearaztea Eusko Jaurlaritzaren lana da, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Adin Txikikoen hiru Epaitegietan erabakitako horrelako neurriak ordaintzen dituen.

Adin Txikikoen Epaitegiek erabakitako neurriak betearazteko plangintzak, Eusko Jaurlaritzak onetsi berri duenak, Autonomia Erkidegoko adin penal txikiko lege-hausleentzako zentroen sarea egokitzeko kostu ekonomikoa, eta baita kudeaketaren kostua ere<sup>50</sup>, zehazten ditu.

1997 eta 1998 urtetarako inbertsioak 575.000.000 pezetetakoak dira, eta, Andolluko zentroa (7 plaza) eta Zumarragako zentro itxia (40 plaza) eraikitzeke

---

<sup>49</sup> Kantitate hauetan ez da kontatzen programa horietan lana egiten dutenen kostua.

<sup>50</sup> Datuak Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak eguneratu ditu.

kostuak ordaintzeaz gainera, Mendixola eta M.A. Remírez hezkuntzetxeak birmoldatzeko kostuak ere bere gain hartuko dituzte.

Kudeaketa gastuen gainean, honako datuok ematen dira:

- 1997an 222.000.000 pezeta: 167.000 pezeta Autonomia Erkidegoan martxan diren hiru zentroetako kudeaketa ordaintzeko, eta 55.000.000 pezeta adin penal txikiko lege-hausleen egonaldiak beste Autonomia Erkidegoko zentroetan finantzatzeko.
- 1998an 221.000.000 pezeta, aurreko lerroaldeko gastu-kontzeptu berberak estaltzeko (201.000.000 pezeta EAeko zentroak kudeatzeko, eta 15 eta 20 milioi pezeta bitarte beste Autonomia Erkidegoetan izandako egonaldiak ordaintzeko).
- 1999an 510.000.000 pezeta, Euskal Autonomia Erkidegoan, ordurako martxan egongo diren 4 zentroetako kudeaketa kostuak ordaintzeko, baldin eta egiten badira.

Zifra hauen arabera, 1999tik aurrera sareak izango dituen 66 egoitzazko-plaza bakoitzaren urteroko batezbesteko kostua, gutxi gorabehera, 7.700.000 pezetakoa izango da.

Arestiko aurreikuspenek ez dute kontuan hartzen Zigor Kodeko 69. artikulua indarra hartzeak ekarriko duen gehitzea; Instrukzio- eta Zigor-epaileek 18 eta 20 urte bitarteko (biak barne) pertsonen kasuak igorri ahal izango baititu Adin Txikikoen Epaitegira. Gaur egun, presoaldi neurriak ezarri zaizkio herritar hauetako askori. Beraz, ekonomi aurreikuspenei begira, gertaera hori aintzat hartu beharko da.

## **VII. ATALA**

### **KONPONBIDEEN AZTERKETA. BITARTEKOTZA ETA NEURRIAK**

Analisi honek, adin penal txikiko pertsonen arau-hausteei emandako konponbi-deak aztertu dituenak, gazteentzako justiziaren eremutik antolatzen diren eskuhartze moduei buruzko informazio teoriko eta praktikoa eman nahi du. Ez dira deskribatzen, hortaz, ez igorpena 4/1992 Legeak ezarritako babeserako administrazio agintariei<sup>51</sup> igorpena, ezta Legea aplikatzeko eremutik at gelditzen den kasuetarako aurreikusitako igorpena epaile eskudunari ere.

Aplikazio praktikoa ezagutu ahal izan da, alde batetik, Epaitegietan kontsultatutako espedienteen aukeraketaren azterketa<sup>52</sup> egin delako, eta, bestetik, kasuak ikertu direlako. Kasu hauen hildotik, nerabeak eta bere familiak elkarrizketatu dituzte, bai eta epailearen, hezkuntza-, gizarte- eta osasun-eremuko profesionalak ere, era zuzen zein zeharkakoan, neurriak aplikatzen parte hartu dutenak. Jasotako informazioak gertaerak islatzen ditu, baina baita iritziak eta ulertzeko moduak ere, sistema eta haren eraginkortasuna ezagutzeko ezinbestekoak baitira. Azken puntu honi dagokionez, zalantzarik gabe, azpimarratu behar da komenigarria dela luzetarako azterketak bultzatzea, neurri horien balorea, bergizarteratze, familian bersartze eta berrerortze mailetan, hobeki baloratu ahal izateko. Izan ere, profesionalak, oro har, zer funtzionatzen duen eta zer ez, eta noiz, asmatu egin behar dute.

Eskuhartzeko aukera bakoitzean ondokoak adierazten dira: neurriaren edukina, betearazteko instantzia eskudunak, aplikatzeko maiztasuna, eskuhartzearen epeak, behar den prozedura kasu baten edo batzuen deskribapenez ilustraturik, eta Adin Txikikoentzako justizia arautzen duen Organu Legearen aurreproiektuak honi buruz egindako aurreikuspenak.

Aipatutako epeak, V. kapituluko informazioaren osagarri, neurriak eraginkor izateko behar izan diren gutxieneko, tarteko eta gehienezko epeak biltzen dituela komeni du gogoratzea. Honi buruz, hiru gauza zehaztu behar dira:

---

<sup>51</sup> Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeen atentziorako sistemaren deskribazioa 1997ko Arartekoaren Txosten Berezian jasota dago.

<sup>52</sup> Metodologiari eskainitako zatiaren sarreran adierazten dira espedienteak aukeratzeko edukitako mugak.

- Lehenik eta behin, datu hauek, Adin Txikikoen Epaitegietan kontsultatutako espedienteen aukeraketaren azterketen ondorio direla gogoraztea, eta, beraz, zuhurtasunez hartzea. Aipatutako aukeraketaren berezitasunak txostenaren metodologi-sarreran azaldu dira.
- Bigarrenik, V. kapituluko 3. atalean neurri guztien betearazte-epeak deskribatzean esan den modura, epe horiek ebazpenak indarra hartzen duenetik betearazten hasten den arteko tartea hartzen dute, eta hainbat elementuk eragin dezake iraupen luzeago edo laburragoa izatea: besteak beste, ebazpenak indarra hartzen duenetik Adin Txikikoen Epaitegiak administrazio eskudunari, neurria betearazteko, haren jakinarazpena ematen dion arte; administrazio horrek neurriaren betearazpena prestatu edo programatzeko behar duen denbora; eta neurrien pilaketak, edo betearazpenak batera egiteko ezintasunak sortzen duten berandutzea.
- Hirugarrenik, espedienteen aukeraketan ikusitako neurri bakoitzerako betearazpen-epeen irudiak ez direla txostenean sartu aipatzea. Metodologia izan da aukera hori egiteko arrazoa: neurri aplikagarrietako batzuk oso kasu bakanetan erabaki dira, ez bakarrik espedienteen aukeraketan, baizik eta, 19. taulan islatzen den moduan, Adin Txikiko Epaitegi bakoitzak ikertutako eperako (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetekoa) hartu dituen neurrien baitan ere. Hori dela-eta, okerrera eramaten ahal gaituzten irudikapen irudiak saihestu dira.

Azkenik, argitu egin behar da kasu deskribapenen xedea, eskematikoki, prozedura batean azal daitezkeen elementu eta gertaera nagusiak biltzea dela. Hauek osatzeko, parte hartzaile batzuen edo besteen balorazioak, komentario positibo edo negatibo modura jaso dira. Hortaz, kontuan hartu behar da balorazio horiek ez dutela errealitate objektiboa islatzen, baizik eta, testuinguru hauetan inplikaturik egon diren pertsonen errealitate hori nola ikusten duten, hala nola, gertaeren egileek, lege-ordezkariek, biktimek eta profesionalek.

## **1. BITARTEKOTZA**

### **1.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

Gazte-justiziaren eremuan, bitartekotza gatazkak konpontzeko modu bat da batez ere, ohiko bide judizialen ordezkoa. Izateko, baina, beharrezkoa du marko judiziala: Zigor Kodean delitu edo hutsegite bezala tipifikatutako arau-hausteak gertatzen direnean besterik ez du esku hartuko, eta, gure ordenamendu juridikoan, adin txikikoen epaileak erabaki behar du hura aplikatzea.

Bitartekotza berandu sartu da gure zuzenbidean. Duela hogei urte baino gehiago hasi ziren mendebaldeko herrialde asko bitartekotza erabiltzen, eta hirurogei ta hamar eta laurogeiko hamarkadetan luze eta zabal hedatu da Europan barrena. Gaur egun, Alemania, Belgika, Danimarka, Eskozia, Ingalaterra eta Gales, Herbehereak, Portugal, Suedia edo Suitza bezalako herrialdeetan adin penal txikikoekin eskuhartzeko, indarrean dirauten sistemek bitartekotza burutzeko hainbat modu arautzen dute, prozesamendura iritsi orduko konponbide gisa - instrukzioarekin batera- zein zigor gisa, zentzu itxian.

Bitartekotza hezkuntz-eskuhartze bezala definitzen da. Eskuhartze horretan, aurrez aurre jarri nahi dira lege-hauslea eta bere portaera zein portaera horrek bai berarentzako nahiz biktimarentzako eta gizartearentzako oro har dituen ondorioak. Prozesu horretan, adin txikikoak bere gain hartzen du berak egindakoaren erantzukizuna, eta, hortaz, bere gain hartzen du eragindako kaltea ordaintzeko erantzukizuna. Kalte morala biktimarekin elkar-adituz zuzendu nahi da; kalte materialak, aldiz, horiek konponduz edo itzuliz. Horrela, bada, hiru bitartekotza modu daude, banan-banan zein batera aplikatu daitezkeenak:

- **Elkar-aditzea** lege-hauslea eta biktimaren arteko enkontru bat izatean datza, alde zuzenetik biak ados jarrita antolatzen dena eta bitartekariak bideratzen duena; bitartekariaren figura, gure eremuan, Lantalde teknikoaren kide batek edo gehiagok betetzen dute. Profesional horrek bideratzen du prozesua, eta, inplikatuaren ahalbideen eta kasuaren zernolakoaren arabera, kontaktua izateko modurik aproposena proposatzen du, dela buruz buruko topo egitea nola telefono bidezko elkarrizketa zein barkamen eske idatzitako gutuna.
- **Konponketa** bidez eginikoan, biktimari eragindako kaltea zuzentzeko ekintzak burutu behar ditu lege-hausleak. Ekintza horien izaera aldatu egingo da, halaberrez, kasuan kasuko: objektu baliokide bat itzuli, garbiketa edo brikolaje lanen bat egin, gertaeraren ondorioz egin behar izan diren konponketen zenbatekoa ordaindu, etab.
- **Komunitatearen onurarako egin beharreko lanak**, kaltetua komunitatea bera denean, eta ez pertsona fisiko bat, aplikatzen da, edo pertsona fisikoa izan arren nor den ez dakigunean, edo, nahiz eta nor den jakin, elkar-aditze prozesuan parte hartu nahi ez duenean.

Bitartekotza baliatzeko aukera, prozeduraren bi alditan, biltzen du espreski 4/1992 Legeak.

Alde batetik, espediente ireki zaion adin txikikoaren hezkuntz egoerari eta egoera psikologiko eta soziofamiliarri buruzko txostena egitean, kasuaren zernolakoengatik eta lege-hauslearen ezaugarriengatik halako irtenbide bat aplikatzea egoki ikus dezake Lantalde teknikoak. Halakoetan, idatziz jasoko du txostenean,



fiskalak aukera hori azter dezan gertaeren izaera eta astuntasuna aintzat hartuz. Adin txikikoen epaileari egindako proposamenetan, Lantalde teknikoen aholkuei jaramon egin eta jarduketak bukatutzat eman ditzan eskatu ohi du Fiskaltzak. Adin txikikoen epaileak erabaki hori hartzeko ahalmena du, eta hala egin ohi du, baldin eta arau-haustean bortxaz edo larderiaz jardun ez bada.

Bitartekotzaz baliatzeko bigarren aukera bat ere badago. Epaitza esekita uzten denerako aurrakusten da, hots, behin neurria eman eta gero, gertaeren izaera aintzat hartuz, adin txikikoen epaileak, ofizioz zein fiskalak eskaturik, epaitza denbora jakin baterako -bi urterako gehienez ere- esekita uztea erabakitzen duenerako, baldin eta «*adin txikikoak, behar bezala urgazita, eta kaltetuek judizioz kanpoko konponketa-proposamena onartzen badute*». Bitartekotzaz balia daiteke, halaber, kaltetuek proposamena onartzen ez badute edo ageriko ezezko funsgabea ematen badute. Autonomia Erkidegoko Adin Txikikoen Epaitzietan ez da ezagutzen bide hori erabili den kasurik.

Bitartekotzaz baliatzeko ezinbestekoak dira arestian aipatutako legezko irizpideak, baina horietaz gain, adin txikiko lege-hausleak bete egin behar ditu konponbide hori eraginkortasunez aplikatuko dela bermatzen duten beste hainbat irizpide ere, hala nola, bere erantzukizuna onartzea eta eragindako kaltea konpontzeko borondatea. Bestalde, gertaerak burutu eta berehala jardutea behar-beharrezkoa da.

Bitartekotza orokortzearen alde, berau aplikatu eta geroko berrerorketa-tasa hutsa dela argudiatzen da. Eta hala da, baina ezin da ahaztu mendebaldeko herrialderik gehienetan astuntasun gutxiko kasuetan eta noizbehinkako delitugileei aplikatzen zaizkiela bitartekotzak, eta horiek berrerortzeko probabilitatea oso-oso baxua da nahiz bitartekotza aplikatu, nahiz beste neurri bat aplikatu, nahiz neurririk aplikatu ez.

Bestalde, eta nahiz eta, berez, bitartekotza-formulak lege-hausleari erantzukizuna bere gain hartzeko aukera emateko baino areago biktimari prozeduran parte hartzeko aukera gehiago emateko sortu -biktimganganako arreta zaintzeko mugimenduen eta biktimologiaren aurrerapenen eraginez neurri batean-, gure sisteman, eta European indarrean dirauten gazte-justizia sistematik gehienetan, interesa lehendabiziko elementuan kokatzen da, adin txikiko lege-hausleak erantzukizuna bere gain hartzeko aukeran alegia. Eta horretaz gainera, prozedurak aurrera egiten duen heinean biktimari laguntzea lortzen baldin bada, hobe, baina funtsezko helburua ez da hori.

Ohiko bitartekotza eskemek ez dute aipatzen, eta aipatzekotan oso modu marjinalan egiten dute, baina bitartekotza prozesuak adin txikiko lege-hauslea eta bere familia adiskidetzeko aukera ematen duten aldetik ere aintzat hartu beharko lirakeela adierazten dute European egindako azken ikerlanek, Erresuma Batuan eta Eskandinavian egindakoek batik bat. Izan ere, sarritan, bere jarreraren

bidez ingurune hurbileneko gabeziak adierazi nahi ditu nerabeak; gabezia horiek, jakina, harremanetarako dituen arazo konpondu gabeetatik eratoritzen dira, eta nekez ekiten ahal zaie baldin eta elkarren artean komunikatzeko bideak ahulduta badaude.

Australia eta Zelanda Berrian gero eta gehiago ari dira kontuan hartzen ikuskera hori, bi herrialde horiek baitira adin penal txikiko lege-hausleekin eskuhartzeko sistema berriki aldatu duten bakarrak, horren ordeztuz justizia leheneratzailea ezartzeko. Justizia leheneratzaileko elementu nagusiak bitartekotza, elkar-aditzea eta konponketa dira, eta «*family group conference*» deiturikoak bere aplikazio tresna zuzenenak. Talde horiek eztabaida-gune berri bat osatzen dute, eta eztabaida-gune horretan, familiak, lege-hausleak berak eta biktimak, erantzukizuna bere gain hartzeko prozesuan eta aho batez hartutako konponketa-programa egitean parte har dezaten sustatzen du bitartekotza antolatzeko instantzia eskudunak. Programa aginte judizialari igorri eta hark erabakiko du programa onartu eta jarduketak artxibatzea, ala bide hori ukatu eta prozesamendua jarraitzea. Gurasoei ahalmena eman nahi zaie seme-alaben jokaera kontrola dezaten eta erantzukizuna bere gain hartu eta heltzeko prozesuan lagun diezaieten, eta horretan datza hain zuzen ere berrikuntza. Sistemaren aplikazioa berriegia da bere benetako eraginkortasuna ezagutu ahal izateko -oraingoz kontu handiz aplikatzen da, delitu arinetan alegia-, baina azterketa konparatzaile batzuen arabera, badirudi emaitzak ez direla beste beurrri batzuekin lortutakoak baino txarragoak, eskuhartzeko sistema bigun deitzen dituzten horien aurka azaltzen direnek iragartzen zutenaren kontra.

## **1.2. Aplikazioaren maiztasuna**

Bitartekotza erabiltzea oso kontu berria da gure Autonomia Erkidegoan. Orain arte noiz edo noiz besterik ez da aplikatu, oso kasu gutxitan, eta ez dugu horiei buruzko informazio estatistikorik. Jarraibide hori, baina, 1997an aldatu da: bitartekotzaren aukera modu sistematikoagoz hartzen da aintzat, batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian, eta hasiak gara dagoeneko bitartekotza prozesua eta elkar-aditze egintza dagokien espedientean dokumentatzen.

18. taulak garbi erakusten du zer-nolako garrantzia ari den hartzen gatazkak konpontzeko prozesamenduaren aurretiko bide honek.


Gipuzkoan egin diren 48 bitartekotza lanak, irekitako espedienteetan inplikaturako adin penal txikikoekin lurralde horretan egindako zuzeneko eskuhartzeen %62.3 dira -largespenak eta epaileak hala erabakita beste aginte batzuei igorritakoak kenduta-, eta ebazpen judizialetan erabakitako neurrien kopurua gaintitzen dute.

Bizkaian, 40 izan dira izaera horretako prozedurak, hau da, arestian aipaturako eskuhartzeen %21.4a.

Araba da, harrigarria bada ere -harrigarria Gasteizko Epaitegia progresista izateagatik eta bestelako neurriak aplikatzeko erakutsi duen joerarengatik bereizten delako- bitartekotza tasa baxuena duen lurraldea, eta Bizkaia eta Gipuzkoarekin erkatuz gero, aldea nabarmena da. Bitartekotza lanak eskuhartze zuzenen %6.7a baino ez dira; hori horrela da, neurri batean, komunitatearen onurarako egin beharreko lanetara maizago jotzen delako bertan.

Aldeak garbi ikusten dira ondoko irudian:

## 12. GRAFIKOA: BITARTEKOTZAK ETA NEURRIAK 1997 URTEA<sup>1</sup>



<sup>1</sup> Datuak 1997rako bakarrik eskaintzen dira, izan ere bitartekaritzari dagokion 1996ko datu estatistikorik ez baitago.

Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza. Egilea: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Bitartekotza sustatzeko asmoz, gaiari buruzko ikastaroa antolatu zuen 1997an Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak, eta bertan izan ziren hiru epaitegi-taldeak. Profesionalek bitartekotzaren bidea erabiltzearen egokitasuna azaltzen dute, baina azpimarratu egiten dute hori aplikatzeko handitu egin behar direla gaur egun dituzten giza baliabideak, batez ere kontuan hartuta Zigor Kodeak indarra hartzen duenean gazte gehiagoren ardura hartu beharko dutela Adin Txikikoen Epaitegiek.

### 1.3. Eskuhartzearen epeak

Bitartekotza formuletan, eskuhartzeko epeek prozedurari hasiera ematen zaion unean hasi behar dute, hots, poliziaren atestatua egiten den egunean, oro har. Espediente judizialean begiratu diren bitartekotza kasu apurretan, erabilitako denbora Gipuzkoako gutxieneko 96 egunak eta Bizkaiko gehienezko 189 egunak bitartekoa da, 154 egun batezbeste beraz.

## 1.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa

Bitartekotza Lantalde teknikoaren proposamenez burutzen da. Txostena egiten duen bitartean, eskuhartzeko bide hau egokiena dela ikus dezake Lantalde teknikoak, eta halaxe jakinaraziko dio orduan Fiskaltzari, zeinak, gertaeren izaera eta astuntasuna aintzat hartuz, irtenbide horren alde egin daitekeen erabaki behar duen. Donostian, prozedura bizkortzeko, kasuaz arduratzen d(ir)en Taldeko profesionalak -edo profesionalak- ahoz eskatu ohi diote baimena Fiskaltzari, eta honek ahoz eman baimena, eman beharreko baimen idatzia ondoren bidaltzearen kalterik gabe.

Bitartekotza aplikatzeko, hainbat irizpide gertatu behar dira batera: lege-hausleak gertaeretan parte hartu izana aitortzea eta erantzukizuna bere gain hartzea, erantzukizuna bere gain hartzeko ahalmena, kaltea konpontzeko borondatea, eta hartu beharreko neurria gertaeren izaera eta astuntasunaren arabera izatea (baldin eta desegituraketa-zantzurik badago edo arau-haustea oso larria bada, ez da aukera hau proposatzen).

Normalean, kasua gertuenetik bizi izan duen lantalde teknikoko profesionalaren esku geratzen da bitartekotza prozedura. Bera da biktimarekin -biktimarik egonez gero- harremanetan jartzen dena, edo komunitateko zerbitzuen laguntza eskatzen duena baldin eta biktimak elkar-aditze eta konponketa prozedurak onartzen ez baditu, edo nerabeak egindako arau-haustearen ondorioz kaltetutakoa komunitatea bera bada. Halakoetan, bitartekotza-lanaren xedea eta edukina argituko ditu, bai eta konponbide alternatibo mota honetaz baliatzea egokiena dela zergatik uste duen ere. Beharrezkotzat joz gero, elkarrizketa egingo da pertsona horiekin prozeduraren gaineko argibide zehatzagoak eskaintzearen.

Biktima ados baldin badago, bildu egingo dira biktima bera, nerabe lege-hauslea, bere ordezkari legala eta bitartekaria. Bilera Epaitegian bertan egiten da, bitartekariaren bulegoan bertan maiz (Gasteizko kasuan, ikusketa-salaren alboko salatxoan egiten dira prozedurok). Aldiz, biktima ados ez badago -zenbaitetan halaxe gertatzen baita, batez ere biktima pertsona fisikoa baldin bada, baina ez biktima instituzio bat edo komunitatea baldin bada-, lege-hausleak barkamena eskatzen dion idatzi baten bidezko bitartekotza proposatuko zaio. Bide hori, jakina, elkar ezagutu ezean soilik erabil daiteke.

Biktimarekin harremanetan jarri orduko, beharrezkoa da nerabearen baietza izatea, eta horregatik, biktimak ezetza ematen baldin badu, ez bere barkamen-eskeak ez, kasua balitz, iradokitako konponketa ez dituztela onartu hari esatea oso gogorra da. Ahalegin handia egin behar izaten da gazte bat bitartekotza prozedura batean parte hartzeko prest ager dadin, eta hori lortu eta gero, proposatutako bidea antzua dela hari esatea ez litzateke batere eraginkorra izango.

Biktima entitate bat edo komunitatea bera baldin bada, bitartekotza prozeduran parte hartzen dutenak haren ordezkariak izaten dira lehendabiziko kasuan, edo

udal zerbitzuak, sarri askotan gizarte-zerbitzuen bidez kontaktatu direnak, bigarrenen. Halakoetan, konponketaren bidezko bitartekotza egiten da, eta komunitatearen mesedetan eginiko lanen antzekoa izaten da.

Bizkaian eta Gipuzkoan, halako kasuetarako Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren bitartez, hainbat entitate publiko eta pribatuekin dituen lankidetzak itunez balia daitezke egoki iritzi gero. Hor dira Eusko Tren, Renfe edo Metro Bilbao, Cáritas-ekin sinatzeke baitago ituna.

Renferen kasuak ederki asko erakusten du elkar-aditze kasuetan ematen den lankidetzak mesedegarria. Tren konpainiak, berriz, ez du uste konponketa bidezko bitartekotza neurri egokia denik, ikuskapen lana eskatzeaz gain gaztearen segurtasunerako arriskutsua izan daitekeelako. Urteak daramatza Renfek segurtasun neurri buruzko informazio eta dibulgazio programa bat, ikastetxeetan azaltzen dena, estatu osoan garatzen. Izan ere, behin baino gehiagotan gertatu da 10 eta 18 urte bitarteko gazteek ondorio larriak izan ditzaketan ekintzak egin izana trenbideetan. Ohikoa da, ondo pasatzearen, trenetik objektuak botatzea, pasatzen diren trenen kontra harrika hastea, trenbidean oztopoak jartzea edo instalazioak txarto erabiltzea. Konpainiak Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin duen itunaren haritik, gazteek erantzukizuna har dezaten saiatzen dira bertako prebentzio- eta segurtasun-arduradunak. Sarearen eta trenen funtzionamendua erakusten diete gazteei, eta bideoak erabiliz, euren ekintzen ondorioak zeintzuk izan daitezkeen erakusten saiatzen dira, askotan arrotzak baitzaizkie. Ohartarazi egin nahi diete jende askok ordain ditzakeela euren ekintzen ondorioak, eta eurak ere izan daitezkeela arduragabekeriaren biktima. Azalpen hauek guztiak eman eta gero bitartekotza bilera bizpahiru ordukoa izaten da, euren jarreraren idatzizko ebaluazioa egiteko eskatzen zaie adin penal txikiko lege-hausleei.

Antza denez, Autonomia Erkidegoan egiten ari diren bitartekotza-lanak emaitza onak ematen ari dira, zeren Adin Txikikoen Epaitegietan ez baitzaie berritoki espedienterik ireki halako ezaugarrietako prozeduretan parte hartu duten lege-hausleei. Dena den, zuhurtasunez hartu behar dira datu hauek, lehenengo eta behin eskuhartzeko modu honek, berria izaki, balorazio egokirik egitea ahalbidetzen ez duelako, eta bigarren, gatazkak konpontzeko bide alternatibo hori, beren izaeratik eta burutu direneko zirkunstantziengatik larritzat jo ezin daitezkeen kasuetan aplikatu delako batik bat, eta horri gehitu egin behar zaio nerabearen egoera pertsonal eta soziofamiliarra normalizatuak direnean aplikatu dela.

Hala ere, lege-hausleek erantzukizuna bere gain gehiago eta hobeki hartzea bide dakar eskuhartzeko bide hau aplikatzeak, eta horrenbestez, nazioarteko literaturaren berrienean aholkatzen den bezala eta mendebaldeko hainbat herrialdeko ordenamendu juridikoek sustatzen duten bezala, bitartekotza-bidearen erabilera bultzatzea komeni da.

Jarraian, bitartekotzaz baliatzea egokitzen jo zen kasu bat deskribatzen da. Prozeduraren aldiaren segidaz gain, eskuhartu dutenen iritzia eta balorazioak ere islatu nahi izan dira.

Azalpena	Eskuhartzaileen aldeko iritziak	Eskuhartzaileen kontrako iritziak
<b>Gertaera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalteak eta ebasketa</li> <li>• Normalizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman hobezina arreba nagusiarekin</li> <li>• Amaren aldetiko gainhabesa</li> </ul>
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Normalizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman hobezina arreba nagusiarekin</li> <li>• Amaren aldetiko gainhabesa</li> </ul>
<b>Egoera soziofamiliarra nagusiarekin</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Famili nukleo normalizatua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman hobezina arreba nagusiarekin</li> <li>• Amaren aldetiko gainhabesa</li> </ul>
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• LHZ Lanbide-Hastapenerako Zentroa</li> </ul>	
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>	
<b>Gizarte zerbitzuen</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>	
<b>eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>	
<b>Eremu judizialeetiko</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>	
<b>eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>	
<b>Axiloaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ertzaintzak axilobu, identifikatu eta etxera eramana</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez zuten komisaldegira eramana</li> </ul>
<b>Fiskaltza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez nerabeak ez familiak ez dute Fiskaltzarekin harremanik izan, proposatutako bidea judizioz kanpokoa baita, eta Lantalde teknikoak baitarama</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehendabiziko bilerara familia osoa etorri zen, gertaerengatik arduratuta</li> </ul>
<b>Lantalde teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hastapeneko txostena egin zenean taldekide guztiak bertan egon ziren</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehendabiziko bilerara familia osoa etorri zen, gertaerengatik arduratuta</li> </ul>
<b>Abokatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Abokatuak ez du parte hartzen bitartekotza prozesuetan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehendabiziko bilerara familia osoa etorri zen, gertaerengatik arduratuta</li> </ul>
<b>Agertzea-Entzutea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bitartekotza prozesuetan ez da ez azaltzerik ez entzuterik izaten</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehendabiziko bilerara familia osoa etorri zen, gertaerengatik arduratuta</li> </ul>
<b>Konponbide alternatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkar-aditzea, konponketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familia ongi erantzun du, prozesu errepresiboagoa espero baitzuen. Egokiagoa deritza bide honi adin-txikiak erantzukizuna onartzeko</li> <li>• Nerabea arduratuta dego bere jarrerarengatik, eta erantzukizuna onartzen du</li> </ul>

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Neurriaren betearaztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biktimekin elkar-aditzea Talde Teknikoko kide batez antolatuta eta bideratutako bilera batean. Bertan daude nerabea eta bi kaltetuak. Ordu t'erdiko bilera. Nerabeak bar-kamena eskatu du eta eragindako kalteak konpontzeko lanak egiteko prest azaldu da</li> <li>• Konponketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kaltetuek adierazi dute argi eta garbi azaldu zitzaieela prozedura, baita halako konponbide modua aplikatzeko egokitasuna ere elkar-aditze egintza baino lehen</li> <li>• Lantalde teknikoak egiten du, telefonoz, konponketa lanen jarraipena</li> <li>• Konponketak egin bitartean ez dago inolako arazorik</li> </ul>	



## **1.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua**

Adin txikikoen justizia arloa arautzen duen Lege Organikoaren Aurregitasmoak indarra duen legeak bezalatsu arautzen du bitartekotza, baina zehaztasun handiagoz.

## **2. OHARTARAZPENA**

### **2.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

Ohartarazpena ez du 4/1992 Legeak definitzen, 1948ko Adin txikien Tutoretzako Auzitegien Legeak definitzen ez zuen bezala. Adin txikikoari errieta egitean datza, bere jarrera eta horren ondorioen desegokitasunaz jabetu dadin.

Gure eremuan, ohartarazpena aplikatzea adin txikikoen epaileari dagokio, zeinak prozeduraren hainbat alditan erabil baitezake bide hori:

- Fiskalak hala proposatzen baldin badu, Lantalde teknikoaren txostena ikusitakoan, agertzea egiten den unean bertan aplika dezake, akordioa dela medio, horrela espedientea burututzat emanaz. Horrek esan nahi du alde zuzen bidezko irizterik gabe eta frogak egin gabe burutzen dela, baina lege-hauslearen nortasunari eta gertaeren inguruabarrei erreparatuz. 4/1992 Legeak 15. artikuluko 7. erregelari ematen dion idazkeran biltzen da aukera hori.
- Agertzea egin eta gero ere erabil dezake ohartarazpena, Fiskalak aurkeztutako alegazioen idatzia ikusitakoan; adin txikiko lege-hausleari entzun eta gero, ez zaio entzuteari zertan hasiera eman zentzarazteko. Oraingoan ere, ez zaio frogak egiteari ekiten, baina arestiko hipotesian ez bezala, epaileak espedientearen edukia ezagutzen du. 4/1992 Legeko 15. artikuluko 9. erregelaren idazkeran biltzen da aukera hori.
- Azkenik, badago adin txikikoen epaileak erabakitako ebazpenaren eremuan neurri gisako ohartarazpena erabakitzea ere (17. artikulua, 4/1992 Legearen idazkeran).

Beste neurri batzuekin batean aplika daiteke ohartarazpena, neurri horien osagarri gisa. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak adierazten duenez, kasu horrekin lotuta behar du egon, ez baitira nahiko izaera generiko eta zehaztu gabeko ohartarazpenak.

Egokitasun printzipioa, ahal den neurrian jokabideak ez judizializatzeraz eta besterik ezean ahalik eta gehien desjudizializatzeraz jotzen duena, ezartzeko, gure ingurune soziokulturaleko zenbait herrialdeetan, ohartarazpenaz baliatzeko aukera dute prozeduran epailearen aurretik eskuhartzen duten beste instantzia administratibo eta judizial batzuek.


Herbehereak, Suedia edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan, esate baterako, polizi agintariak baliatzen dira eskumen horretaz, batzuetan modu informalez eta besteetan modu formalez, eta sarritan berbaldi bat izaten dute guraso zein ordezkari legalekin. Bide hau kasu asko eta askotan erabiltzen da, eta beraz, agintari judizialentzako iragazki lanak egiten ditu. Ohartarazpenaren bidea aplikatzeko, polizi-prestakuntza eta espezializazio maila handia, eskuhartzeen egokitasuna bermatuko duena, eta komunitatearen barruan duten eginkizunaren pertzepzio soziala behar dira, eta hori tradizio demokratiko luzeko herrialdeetan besterik ez dute lortu.

Zenbait estatutan, oraingoan ere Herbehereak eta Suedia aipatu behar, Ministerio fiskalak egin dezake ohartarazpena, orduan, jarduketak bukatutzat jotzen dira, eta modu horretan agertze eta entzute judizialak ekiditen dira.

## **2.2. Aplikazioaren maiztasuna**

19. taulak argi erakusten duenez, ohartarazpena da, alde handiarekin gainera, Euskadiko Autonomia Erkidegoko adin txikiko epaileek gehien aplikatzen duten neurria. 1996an eta 1997ko lehen seihilabetekoan bildutako datuen arabera, aplikatutako neurrien %46.5a era honetakoak izan ziren, hau da, Bizkaian %60a baino gehiago, eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegian, erabakitako neurrien %50a. Aldi horretan bertan, Gasteizko Epaileak, sistemak onartzen dituen aukera guztiak erabiltzera areago jotzen duena, kasuen %22.7tan jotzen du ohartarazpenetara.

### 13. GRAFIKOA: OHARTARAZPEN NEURRIAK APLIKATUTAKO NEURRIEN BAITAN (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetekoa)



Iturria: Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiak. Egilea: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Estatistika judizialek ez dituzte delitua edo hutsegitea eragiten duten gertaeren izaeraren arabera aplikatutako neurriak biltzen. Aztertutako espedienteen aukeraketaren analisisan bildutako datuek erakusten dute ohartarazpena hainbat delitu ezberdinetan aplikatu dela, baina ez dela aplikatu larderia, aginte-agenteen kontrako eraso eta sexu-eraso zein sexu-gehiegikeria bezalako jokabide larrietan.

Bestalde, espediente judizialak adin penal txikikoak epaitegian lehenago tramitatutako espedienteetan eskuhartu duela erakusten duenetan zer-nolako neurriak hartu diren aztertzean, ikus daiteke halako kasuetan ez dela ohartarazpena bezalako neurriak hartu.

### 2.3. Eskuhartzearen epeak

Erabakitzen den unean aplikatzen da ohartarazpena. Espedienteen analisisan lortutako emaitzak ikusita, ikus daiteke prozedura hauetan erabilitako denbora, polizia atestatua egiten duen egunetik zenbatuta, Bizkaiko gutxieneko 85 egunak eta Arabako gehienezko 406 egunak bitartekoa dela, hau da, 191 egun batezbeste.

Alegia, azkarren jokatu den kasuan, ia hiru hilabete behar izan dira jokabide legehausleari erantzuteko. Egia da gertaera jaso eta berehala gurasoek edo ordezkari legalek zentzarazi ohi dituztela nerabeak, eta neurri batean, eskuhartze informal horrek nola edo hala arintzen duela neurri judizialak aplikatzerakoan antzematen den berehalakotasun eza.

## **2.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa**

Ohartarazpena adin txikikoen epaileak gauzatzen du (ikusketagelan gehienetan), agertze- edo entzute-tramitean daudenen aurrean. Ohartarazpenak ez du zailtasunik erakusten, bide hori erabiltzera jotzeko egokitasunetik halabeharrez eratortzen direnak ez badira. Horren eraginkortasuna, hain zuzen ere, goitik behera alda daiteke nerabearen nortasunaren eta zirkunstantzien arabera. Bide egokia da baldin eta epailearen irudiak, agintearen ordezkaria den aldetik, gaztearengan erantzunkizun-sena esnatzea lortzen badu eta jokabide lege-hausleak berriro burutzeak bere bizitzan izan litzakeen ondorio latzez ohartarazten badie. Aldiz, ez du inolako eraginik izango, eta areago, kaltegarria izan daiteke, teknikoek dioten bezala, baldin eta bere jokabidean sendotuta sentitzen bada, dela neurria arina delako, dela parafernalia judizialarengatik, dela bien batuketarengatik.

	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Azalpena</b>		
<b>Gertaera</b>		
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hausturazko lapurreta</li> <li>• Emozio-ezegonkortasuna</li> <li>• Trebetasun psikomotore, eskuzko eta sozial onak</li> </ul>	
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Famili nukleo desegituratua</li> <li>• Babes-zentro batean bizi da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harremana du aitarekin, asteburu eta oporretan ikusten baitu</li> </ul>
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• LHZ Lanbide-Hastapenerako Zentroa</li> </ul>	
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>	
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Babeserako arloko administrazio eskudunen tutoretza</li> </ul>	
<b>Atxiloketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ertzaintzak atxilotu, komisaldegina eraman eta aitortpena egin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epaitegia berarekin harremanetan jarriko dela jakinarazi diote</li> </ul>
<b>Fiskaltza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez zaio abisatu nerabearen tutoretza daraman ikastetxeko zuzendariari (arau-haustea gertatzean oporretan zegoen familiaren etxean, eta aitari abisatzeko eskatu du, bere ohiko etxebizitza babes-zentroa dela esan gabe)</li> <li>• Aitaren etxera bidali da zitazio-gutuna, eta babestutakoa adin-ixikia izanik, tutoreari abisatu behar zitzaion</li> <li>• Babes-zentroko zuzendariak ez ditu gertaerak ezagutu, nerabeak, Epaitegian agertzeko, zentrotik irteteko baimena eskatu arte</li> </ul>

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritzia</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritzia</b>
<b>Lantalde teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Justizia munduarekin izan duen lehen harreman zuzena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabea zuzendariarekin, bera baita tutorea, eta aitarekin agertu da elkarrizketara</li> <li>• Elkarrizketaren harian, nerabeak hezitzaile batekin eta psikologo batekin hitz egin izana gogoratzen du</li> <li>• Erantzukizuna berez hartu du bere gain, eta prest agertu da kalteak zuzentzeko komunitatearen mesedetan eginiko lanak eginez</li> <li>• Zentroko zuzendariaren ustez, elkarrizketek bere ekintzak onartu eta hitzez adierazteko balio izan zioten nerabeari</li> </ul>	
<b>Abokatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diputazioko abokatua da</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Agertzea baino lehenxeago egon dira elkarrekin lehendabiziko aldiz</li> <li>• Zentroko zuzendariak dioenez, haren lana ez da hezitzailea izan: defendatzaile lanak bete ditu, baina Adin Txikiko Epaitegiako prozeduren eduki hezitzaileari erreparratu gabe</li> </ul>

Agertzea-Entzutea	Azalpena	Eskuhartzaileen aldeko iritziak	Eskuhartzaileen kontrako iritziak
<b>Neurria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabea eta, tutore legala den aldetik, babes-zentroko zuzendaria bertaratu dira</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabea harrituta geratu da sala bera eta ikusketan zenbat jende dagoen ikusketan</li> <li>• Nerabeak uste zuen neurria lanak egitea izango zela, hori baitzen Lantalde</li> </ul>
<b>Neurriaren betearaztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohartarazpena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arau-hauste bat egiten duen lehen aldia izateko, nerabeak ongi ikusten du neurria ohartarazpena mugatzea; hala ere, bere ustez, egokiagoa izango litzateke konponketa. Zuzendariak ere halaxe pentsatzen du</li> </ul>	<p>Teknikoaren proposamena. Esana zioten beste neurriren bat har zezaketela, baina terminologia arrotza ziizaionez, hartutako neurria ohartarazpena zela entzutean, lanak egitea baino neurri gogorrago bat hartu zutela uste zuen</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zentroko zuzendariaren ustez, formalismoa gehiegizkoa da, eta erabilitako hizkera ulergaitza egiten zailo erabat nerabeari</li> <li>• Zentroko zuzendariaren ustez, ohartarazpenean erabilitako hizkera eta sortutako harremana hotzegiak dira. Bere ustez, ulertzeko zailtasunak izan ditzake nerabeak</li> </ul>

## **2.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua**

Aurregitasmoak, bere 7 m) artikuluan, ohartarazpena ezartzen du adin txikikoen epaileek aplikatu ditzaketen neurrien artean, eta halaxe definitzen du: «*adin txikiko epaileak egindako errieta, burututako ekintzen astuntasunaz eta ekintza horiek izan dituzten edo izan zitzaketen ondorioez ohartarazteko egiten dena, zeinaren bidez etorkizunean halako ekintzarik berriro ez egiteko premiatzen duen adin txikikoa*».

## **3. ASTEBURU BAT ETA HIRU ASTEBURU BITARTEKO BARRUALDIA**

### **3.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

4/92 Legeak ezartzen duen asteburu bat eta hiru asteburu bitarteko barrualdiak zenbait interpretazio-arazo sortu ditu, eta horrek, praktika judizial ezberdinak ekarri ditu estatu mailan. Manua hitzez hitz hartzen dutenek, zentro batean eginiko barrualdira mugatzen dute bere edukia. Bere zentzurik zabalenean ulertzen dutenek, ordea, etxe barruko arrastatze-modalitatean ere aplikatzen dute.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak dio, prozedura arautzen duten xedapenen interpretazioa egitean, zentro batean egitekotan ezin dela erregimen irekian egin, baizik eta erdirekian, eta zentro horiek ezin direla erreforma-zentroak izan «*zeren tratamendua bertan internatuei ematen zaiena ez bestelakoa behar baitu izan*»<sup>53</sup>. Gurasoen etxean bete daitekeela ezartzen du bestalde, baldin eta gurasoek nolabaiteko kontrolarekin erantzuten badute. Barrualdiaren iraupena ezin da hogeita sei ordutik gorakoa izan, eta asteburu bat baino gehiagokoa baldin bada, elkarren segidarik gabeko asteetan bete ahal izango da.

Eskuhartzeko modu honek kritika ugari jaso ditu, arloko profesionalen eta, bereziki, zentroetako profesionalen ustez hezkuntz-aukera mugatuak eskaintzen baititu. Dударik gabe, ezin dira espero jokabide aldetiko aldaketa izugarriak eskuhartze hain laburren ondorioz, baina gogorarazi egin behar da lege-hausleen zerrenda oso zabala dela, horien zirkunstantziak zabalak diren moduan, eta egindako arau-hausteen astuntasuna ere aintzat hartu behar dela. Horrela, bada, komenigarriena

---

<sup>53</sup> Estatuko Fiskaltza Orokorren 1/93 Instrukzioaren g) atala. Hitzez hitz hartuz gero, interpretazio-arazoak sortzen ditu, zeren, gaur egun, ez baita posible zentro bat erdirekia eta era berean erreformakoa ez izatea.



ekintza-sorta zabala izatea da, eta ekintza horietariko bat asteburuko barrualdia izan daiteke. Agian, delituzko ibilbidearen hasieran eskubideak zorrotz mugatzen dituen neurri azkar bat aplikatzeak, zenbait kasutan behinik behin, erreakzioa behartu eta jokabidea pautan normalizatuagoetara zuzentzeko balio dezake. Agian, eskarmentu handiagoko internoekin izandako eztabaidek, iraupen luzeko neurriei lotutakoekin izandakoek esan nahi da, erantzukizuna bere gain hartzeko prozesua eta modu bateko edo besteko jokabideen alde onak eta txarrak kontuan hartzen lagun dezakete.

Garbi dagoena da beharrezkoa dela banakako programak aplikatzea, zentroan sartzean nerabeek dituzten premiekin bat datozenak eta, seguruenik, kontestu horietan, egun, aplikatzen direnekin zerikusirik izango ez dutenak.

### **3.2. Aplikazioaren maiztasuna**

Asteburuko barrualdia oso gutxitan erabiltzen da. 8 bider aplikatu da 1996an eta 1997ko lehen seihilabetekoan, 5 bider Bizkaian eta gainontzeko hirurak Araban.

### **3.3. Eskuhartzearen epeak**

Espediente-laginean begiratu diren eskuhartzeko epeak luze jotzen dute; izan ere, zazpi hilabete eta erdi eta urtebete luze bitartekoak dira arau-haustea gertatu dela antzematen denetik neurria aplikatzen hasten den arteko denbora zenbatuz gero, eta beraz, batezbestekoa 400 egun baino apur bat gehiagokoa da. Betearazpen-epea, ebazpena irmo bihurtzen den egunetik betetzen hasten den artekoa alegia, Arabako gutxieneko 18 egunak eta Bizkaiko gehienezko 162 egunak bitartekoa da. Aztertutako kasuen batezbestekoa 74 egunekoa da.

Eusko Jaurlaritzaren arabera, ikertzen ari garen aldian aplikatutako era horretako neurriak aintzat hartuz gero, Adin Txikikoen Epaitegiak Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari jakinarazpena egiten dion egunetik zenbatuta, 30 egun baino gutxiagokoa izaten da beti betearazpen-epea, 60 egunez luzatu zen kasu batean salbu, nerabea mediku-tratamendu espezializatua betetzen ari baitzen, eta hura bukatu arte ez zen neurria betetzen hasi.

Arestian esandakoak hauxe esan nahi du: ebazpena irmo bihurtzen denetik igarotako aldia arestiko paragrafoan esandakoa baino luzeagoa baldin bada, Adin Txikikoen Epaitegiak Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari neurria jakinarazi baino lehenago gertatu da berandutzea.

### **3.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa**

Asteburuko barrualdia ebazpen judizialaren bidez erabakitzen da, elkarren segidan bete ohi diren hiru astebururako gehienez ere, nahiz eta epaileak neurriaren aplikazio bakanduagoa erabaki dezakeen. Erabakitako ebazpena faxez eta postaz jakinarazten zaio Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta horrek zentro egokia aukeratu eta nerabea bertan sartuko dutela jakinaraziko dio zentroari. Aipatu Zuzendaritzak zentroaren izena emango dio adin txikikoen epaileari.

Daukan eragozpenik handiena da neurri luzeagoak betetzera zuzendutako zentroetan egiten dela, erregimen ireki, erdireki edo itxian, eta zentro horiek nekez egokitzen dituzte beraien jarduteko eta eskuhartzeko moduak asteburuko neurri laburretara. Hezitzaileen ustez, halako ekintzetatik ezin daiteke inolako hezkuntz emaitzarik lortu. Halako neurriak betetzean bilatzen dutena nerabea gainontzekoen bizitza-erritmora egokitzea da, zentroaren hezkuntz proiektuaren barruan egiten diren jardueretan parte hartzera behartuz, baina bertan internatutako gainontzekoekin erabilitako metodo berberak erabiliz, eskuhartzeak nerabearen egoeraren berezitasunetara egokitu gabe. Taldean kide berri bat sartzeak ez du zentroko elkarbizitza hausten, baina, gaur egun aplikatzen den moduan, ez dago hain garbi halako eskuhartzeak ustez betetzen duten bultzagarri funtzioa betetzen duenik asteburuko barrualdiak.

	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Gertaera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lapurretak</li> <li>• Osasun publikoaren kontrako delitua</li> <li>• Ijittoa</li> </ul>	
<b>Egoera pertsonala</b>		
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezkondua, seme bat eta emakumea haurdun dago</li> <li>• Emaztearen amarekin bizi da familia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emaztearen ama da familiaren euskami</li> <li>• Eixebezitzaren baldintza okerak</li> </ul>
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskolatzte gabea</li> </ul>	
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hainbat arau-hauste</li> </ul>	
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere emaztearekin izandako harremanari esker dute haren berri oinarritzko gizarte zerbitzuetan</li> <li>• Emazteak diru laguntzak ditu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte zerbitzuen bidez, emaztea Osakidetzara joaten da haurdunaldia kontrolatzera. Dauen adinarengatik, haurren tratu txarren prebentzioari buruzko ikastaro batera joatea proposatu diote</li> <li>• Oinarritzko gizarte zerbitzuko profesionalak nerabeak neurria betetzen duen bitartean duen bilakaeraz arduratzen dira</li> </ul>
<b>Eremu judizialetik eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohartarazpenak</li> </ul>	
<b>Atxiloketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ertzaintzak arau-haustea egitean atxilotu eta komisaldegira eraman zuen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabearen gurasoei abistu zaie</li> </ul>
<b>Fiskaltza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Agertzean izan du lehen harremana Fiskaltzarekin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ziegan hiru bat ordu eman dituela dio nerabeak</li> </ul>

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzailleen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzailleen kontrako iritziak</b>
<b>Lantalde Teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hau da justizia munduarekin duen lehen harreman zuzena</li> <li>• Anarekin etorri da bilerara</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldekideak berari leguntzen saiatu direla uste du nerabeak</li> <li>• Profesionalek diotenez, laguntzeko prest azaldu da eta gertaerak onatu ditu</li> <li>• Familiaren premia sozialak ikustean, oinarrizko gizarte zerbitzuekin eta osasun zentroarekin harremanetan jarri da Taldea, arlo horiek eskuhartzerik sustatzen duten jakiteko</li> </ul>	
<b>Abokatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ofiziozko abokatua da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epaitegiarekiko harremanetan beti egokitu zaito abokatu berbera, nerabeak dioenez</li> <li>• Entzutean azaldu eta eztabaidatutako guztia ulertzen duela eta ulertzen ez duena behar bezala azaltzen zaiola baieztatu du nerabeak</li> </ul>	
<b>Agertzea-Entzutea</b>			
<b>Neurria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3 asteburuko barrualdia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Barrualdi iraunkorra ustez egokiagoa litzatekeen arren, ontzat eman da neurria nerabearen famili zama aintzat hartuta</li> </ul>	
<b>Neurriaren betearaztea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko zentro batean gauzatu da neurria</li> <li>• Bera sartzeak ez du arazorik sortu zentroko bizitzan, bertako arduradunaren ustez, baina egia da, asteburua izanik, une horretan gainontzeko hiruetarik bat baizik ez zela bertan geratu, eta azken asteburuan hezitzailearekin bakarrik geratu zen</li> <li>• Nerabeak oso iritzi ona du hezitzaileeen gainean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asteburuko neurriek hezkuntz aukera oso mugatuak eskaintzen dituztelakoan daude zentroko hezitzaileak</li> <li>• Familiak eraman zuen lehen aldian zentrorra. Bigarrenean, ezin izan zuten familiak eraman, eta Ertzaintzak eraman zuten</li> </ul>

### **3.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua**

Aurregitasmoak, neurrien artean, lanak egiteko asteburuko arrastatzea biltzen du, ostiral arratsalde edo gauek igande gaua arte adin txikiko lege-hauslea bere etxean egotean datzana, epaileak agindutako lan soziohezitzaileak egiten ematen duen denboran izan ezik. Zioen Azalpenean argitzen duenez, neurri horretan asteburuko arrastatzea eta komunitatearen mesedetan eginiko lan soziohezitzaileen neurria batzen dira praktikan, eta asteburuko bandalismozko ekintzak edo eraso arinak egiten dituztenentzako pentsatua da.

## **4. ZAINZAPEKO ASKATASUNA**

### **4.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

Ingurune irekian bete beharreko neurria da zaintzapeko askatasuna, egoera horretan dagoen adin txikiko lege-hausleari banakako eskuhartze psikopedagogikoa eskaintzea eta, horrekin batera, bere jokabidea kontrolatzeko pautak ezartzea bilatzen duena. Praktikan, lege-hauslearen jardueren eta jokabidearen jarraipena -malguagoa edo zurrunagoa- egitean datza, Lantalde teknikoak egindako txostenean antzemandako gabezia edo disfuntzioetan oinarrituta egin den zaintzapeko askatasun planari doitua. Berez, bitarteko egokiak edukiz gero, eskuhartzeko aukera gehien eskaintzen duen neurria da. Baina arantzatsuen ere bada, hezkuntz kontrola eta ingurune irekia uztartzea eskatzen baitu, eta hortaz, adin txikiko lege-hauslearen aldetiko borondate apur bat eta famili ingurunearen eskuhartzea beharrezkoak dira.

Nerabea komunitate-ingurunean hobeki integratzea bilatzen du neurriak, horretarako ingurune horrek eskaintzen dituen bitarteko guztiak erabiliz, baita bere zirkunstantzia pertsonal eta soziofamiliarren arabera prestatutako banakako laguntza eskaintzea ere, bere bilakaera kontrolatuz eta bere jokabideari bide ematen dioten arrazoietan sakonduz. Batez ere, berari erreferentzi puntu bat ematean datza, berarengan aginte nahiko duen erreferentzi puntu bat, bere jarrerak zalantzan jarri eta jokabide-, hausnarketa- eta erreakzio-pautak, erantzukizunetz eta autonomiaz jarduteko gai egingo dutenak, hartzera behartzeko.

Gaitze prozesua da azken finean, eta funtsezko eduki horretan tematu dira mendebaldeko herrialderik gehienetan izen bat zein beste erabiliz garatu diren planteamendu teorikoak, zaintzapeko askatasun modu ezberdinetan oinarritzen direnak: ikuskatzeko agindu penala eta tratamendu ertaina Herbeheretan, zaintzapeko askatasuna Frantzia, Erresuma Batuan indarrean dirauten gaur egungo komunitate-neurriak -ikuskatzeko agindua eta tratamendu ertaina biltzen dutenak-, lege-hausleari manuak edo debekuak ezartzen dizkion disziplinazko

agindua Alemanian, eta probazio-sistema Suedian. Antzemandako premien arabera malguagoa edo zorrotzagoa izango den hezkuntz kontrol banakako zein taldekoaren bidez (tratamendu ertaina taldean aplikatzen da), bere jokabidea normalizatu eta ingurunean integartzeko bitartekoak eman nahi dizkiote adin penal txikiko lege-hausleari neurri horiek guztiek, erantzun moldatu gabeak ekidinez.

Ikuskapen-modalitatea, norbanakoarenganako laguntza eta orientazioa alegia, barrualdiaren hautabide bakarra izan da betidanik, eta berez ez zen hautabidea ere, zeren ez baitzen, inolaz ere, barrualdia ordezkatzeko aukera kontuan ere hartzen. 70eko hamarkadatik aurrera, ikuspuntu horretatik, ikuskapen-modalitatearen erabilera bultzatu da, kasuen portzentai altu batean ordezkapena ahalbidetzen baitute eskuhartze intentsiboko eredu jakin batzuek. «Tratamendu ertain» deitu zituzten eredu horiek, gaizki deitu ere -tratamendu, garai hartan errehabilitazioaren ideologiaren goraldia eman zelako, gaur egun nerabe eta gazteekin egindako eskuhartzeen arloan onartezina dena, eta ertaina ikuskapen eta barrualdiaren arteko bidea eskaintzen zuelako-, nagusitu egin ziren Europako hainbat herrialdetan, elkarren arteko alde nimiñoak zituzten bertsioetan.

Erresuma Batuan asmatu eta aplikatu zen lehendabiziko aldiz, gaur egun gazte-justizia arloan goren mailakoa den Norman Tutt-ek bultzatuta, neurri hori pairatzen zuten penaleko adin txikiko lege-hausleerarik %20ak besterik ez zuela benetan behar ikusi baitzuen zentroetan zeudenei buruzko ikerketa batean, zeinetan horien arriskugarritasun-maila eta hezkuntz premiak zein soziofamiliarak aztertzen zituen. Haren programak hezkuntza eta prestakuntza-programa multzo koherentea, jokabide-terapia eta aisialdirako ekintzak biltzen zituen, maiztasun eta intentsitate aldetik lege-hausleen premiei egokitutakoak. Bada, esperientzia pilotuetan eginiko ebaluazioak erakutsi zuen haren eredia aplikatu eta geroko berrerortze tasa ez zela barrualdiekin ematen zena baino baxuagoa, baina ezta altuagoa ere, eta gainera abantaila garbiak zituen, hala nola ingurune soziofamiliarrean egotea, neurriaren aldeko pertzepzio soziala eta aplikatzeko askoz merkeagoa izatea.

Neurria gaur egun ere aplikatzen da, herrialde batzuetan gazte-justiziaren sistemari gehitutako neurri gisa, eta beste batzuetan -Eskozian esate baterako- premia duten haur eta nerabeak gizarteratzeko eredu gisa, premia hori arau-hauste baten ondorioz antzemandakoa izan zein arriskua baloratzeko bestelako elementuetan oinarritutakoa izan.

Gure eremuan indarrean dirauen ereduak ez du zaintzapeko askatasuna ez definitzen ez edukiz betetzen, eta ez du aipatu ere egiten hainbat modutan aplikatzeko aukera. Betiko ikuskapen sistemarekin bat dator funtsean, eta horren arabera profesional bat arduratzen da lege-hauslearen tutoretzaz.


Praktikara eraman ahal izateko, beste arlo batzuetako profesionalen laguntza eta, batez ere, gizarte, osasun, hezkuntza eta prestakuntza-zerbitzuen laguntza,

hau da, nerabearen komunitate-ingurunea osatzen duen onarritzko sarearen laguntza behar izaten dute sarri askotan neurria aplikatzeko teknikari arduradunek. Neurriaren eraginkortasuna horien inplikazioaren arabera da hein handi batean.

## 4.2. Aplikazioaren maiztasuna

Zentzarazpenaren ondoren zaintzapeko askatasuna da Euskal Autonomia Erkidegoan sarrien ezartzen den neurria. Hiru Adin Txikikoen Auzitegiek erabakitako neurri guztien artetik %16,6ra iristen da neurri hori, Araban %26,8ra eta Gipuzkoan %24ra. Bizkaian askoz gutxiago erabiltzen da bitarteko hori: ezarritako neurrien artetik %8,4.

### 14. GRAFIKOA: ERABAKITAKO NEURRI GUZTIEN ALDEAN EZARRITAKO ZAINZAPEKO ASKATASUN NEURRIAK (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetea)



Iturria: dokumentazio eta Ikerketa Zentroak egina.

## 4.3. Eskuhartzearen epeak

Adin Txikikoen Auzitegietan kontsultatu ditugun espedienteetan ikusten diren eskuhartze epeak, beti ere prozedura hasi eta ebazpena gauzatzen den arteko tartea harturik, desberdinak dira: Gipuzkoan gutxienez 63 egun pasatzen dira eta Bizkaian gehienez 559, batez bestekoa 294 egun direlarik. Ebazpena indarrean sartzeko epeak, berriz, ebazpena ematen denetik indarrean sartzeko tartean, honelakoak dira: Gipuzkoan gutxienez 21 egun eta Bizkaian gehienez 210 egun behar izaten dira, batez bestekoa 87 eguneko epea delarik.

Neurri honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziariekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak eskuratu dizkigun datuen arabera, azterketa hau egiteko hartu den tartean (1996. urtea eta 1997ko lehen sei hilabetea) Bizkaian eta Gipuzkoan erabakitako zaintzapeko askatasun neurriak ezartzeko epeak beti dira laburragoak, izan ere Adin Txikikoen Auzitegiek ebazpena jakinarazten duten momentutik 17 egun baino gutxiago igarotzen baitira -batez bestekoa 13 egunekoa da-. Eta hori kasu bakar batean salbu horrela izan da, aipatutako kasu hori Arabako Foru Aldundiari igorri behar izan baizitzaion nerabea bizi zen lurraldea zelako; beste bi kasutan ebazpena ezin izan zen gauzatzeko hasi aurretik bete beharreko beste neurri baten betekizuna amaitu arte.

Honek esan nahi du, ebazpena finkoa egiten denetik igarotzen den epea aurreko atalean aipatua baino handiagoa denean, atzerapena Adin Txikikoen Auzitegiek neurria Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziariekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari jakinarazi baino lehen gertatzen dela.

#### **4.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa**

Lehenago ere esan dugu zaintzapeko askatasun neurria betearaztearen ardura erakunde desberdinen esku dagoela, Bizkaia-Gipuzkoetan batetik, edo Araban bestetik erabakitzen den arabera: izan ere, esandako lehen bi herrialdeetan, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Justiziariekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren eskumena da, eta hirugarrenean, aldiz, Arabako Foru Aldundiarena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Hautzaro, Gaztaro eta Familiarako Lurralde Zerbitzuaren bitartez, hain zuzen ere. Eskumenak honela banatuta egonda, jardunbideak ere desberdinak dira. Kontuan izan behar dugu Arabako Foru Aldundiak baliabide gehiago eta espezializatuagoak bideratzen dituela zaintzapeko askatasun neurriaren betearazpenera, eta horren eraginez zehaztasun handiagoz azter daitezke haien jarraibideak, Bizkaia eta Gipuzkoan neurriaren betearazpenaz arduratzen diren lurralde ordezkariak baino. Horren ondorioz, Araban egindako eskuhartzei buruzko ikuspegi osoagoa eskain dezakegu, bai alderdi positiboari, bai hobetu beharrekotzat jotzen direnei ere dagokienez.

Eusko Jaurlaritzak, aldiz, lurralde ordezkari teknikoek bitartez parte hartzen du honelakoetan; ordezkariak Bilboko eta Donostiako Adin txikikoen Epaitegien egoitzetan daude oraingoz. Zaintzapeko askatasun neurri bat ebazten denean, erabakia Giza Eskubide eta Justiziariekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari jakinarazten diote, normalean faxez edo postaz, eta hortik lurralde ordezkari teknikoak jartzen dituzte jakinaren gainean. Informazio truke honek eragiten duen atzerapena nolabait konpontzearen, erabakitako neurria bide ez formaletatik ere jakinarazten diote lurralde ordezkariari. Are gehiago, baldin eta Lantaldearekiko elkarrizketen eta beronen txostenaren ondorioz (txostenak normalean fiskaltzarekin adosten dira, bai behintzat neurriaren norakoei dagokienez) ebazten bada entzunaldian seguru aski gertatuko dena adostasunezko akordio bat izango dela, informazio



hori eta txostenaren kopia bat bidaltzen dizkiete ordezkari teknikoari, edukiaren berri izan dezan eta egin litezkeen eskuhartzeak pentsatzen has dadin. Era honetan, kasua aurretiaz ezagututa, ordezkariak agerraldiaren ondoren egin dezake bilera bat nerabearekin eta haren familiarekin, eskuhartzearen hasiera ez atzeratzeko eta azken hauei beste bidaia bat egitera ez behartzeko, eskola edo lana utzi beharrik izan ez dezaten horrela. Jardunbide honek oso emaitza onak izaten ditu, Donostiako Epaitegian azertu ditugun espedienteak begiztatzean ikusi ditugun epeek erakusten duten bezala.

Lurralde ordezkariak nerabearekin eta familiarekin harremanetan jarri ondoren, zaintzapeko askatasun plana prestatzeari ekiten diote, ikuspegi integral batetik nerabearen egoera pertsonal eta soziofamiliararen arazoei aurre egiten saiatzeko. Horretarako, gaztearen garapen pertsonalean, haren harreman sozialetan, eskolaritatean eta familiagunerako integrazio egokian eragina duten jarraibideak finkatzen dituzte: errespetatu beharreko ordutegiak, gazteari komeni ez zaizkion tokiak, gurasoen agintea onartzeko pautak, harreman sozialetako erreakzio tankerak, eskola huts egiteko ohiturari uztea. Horren guztiaren bidez bilatzen den helburua hauxe da: gaztearen baitan jokabide aldaketa eragitea, haren jokamoldearen pautak aldatu eta taldearekiko harremanetan bere buruaren jabeago izan dadin.

Horretarako guztirako, beharrezkoa dela irudituz gero, behin edo birritan joaten dira familiaren etxera (Donostiako kasuan sarritan egiten dute hori), familiaguneko kide guztiak bertan egon daitezela saiatuz. Komenigarria bada, harremanetan jartzen dira udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuekin, osasun zerbitzuekin eta dagokion ikastetxearekin. Esan bezala, harreman horiek bakar-bakar-bakarrik gauzatzen dira Lantaldearen txostenaren arabera eta nerabearekin eta familiarekin egindako elkarrizketen arabera beharrezkoak direla pentsatzen denean. Ahal dela, eskolarekiko harremanik ez izaten saiatzen dira, gaztearen estigmatizazioa ekar lezakeen faktorerik ez eragiteko. Dena dela, neurriak dirauen bitartean ikusten bada beste aukerarik ez dagoela, orduan harremanetan jartzen dira eskolarekin.

Neurria berez ondo zehaztu gabea eta, beraz, aukera asko eskaintzen dituen izanik, haren edukia oraindik oso mugatuta dago, orain arte behar adina baliabide egokirik ez dagoelako Bizkaia eta Gipuzkoan. Horixe adierazi digute prozeduran parte hartzen duten pertsona guztiak: lanlantalde teknikoek, betearazpenaren zuzeneko ardura duten lurralde ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak.

Alde batetik, neurriak ondo funtziona dezan, ezinbestekoa da familiaren beraren partaidetza, ezen gurasoek edo, oro har, familiaguneak ez badute garrantzizkotzat jotzen haien partaidetza nerabearen jokamoldea aldatzeko ahaleginean, neurriak ez du emaitza onik izango. Haiek bakarrik kontrola dezakete ezarritako ordutegiak errespetatzen direla, edo hobe zain dezakete nerabea halako toki batzuetara joaten den ala ez.

Bestalde, askotan komunitate alorreko zerbitzuen eskuhartzea ere beharrezkoa izango litzateke, gizarte eta osasun zerbitzuena batik bat, baina beti ez da posible izaten horiek behar bezain azkar lanean jartzea. Neurriaren aplikazioaz arduratzen diren adituen eta, orobat, lanlantalde teknikoetako kideen iritziz, harremanetan jartzen direnean zerbitzu komunitarioekin normalean borondate ona aurkitzen dute beraietan lan egiten dutenengan, baina, tamalez, famili eskuhartzerako zerbitzuen kasuan batez ere, tramitazioa luzatzen bada, erraz gerta daiteke halako neurri bat behar bezala aplikatzeko behar diren bitartekoak neurri-epairen bukaeran egotea erabilgai, eta ez lehenago.

Gainera, dauden bitartekoen egokitasuna ere arazo da. Izan ere, askotan, zaintzapeko askatasunerako eskuhartze oso indibidualizatuak behar dira alor komunitarioan: laguntze trinkoa, nerabeari erreferentzia baten euskarria emateko batetik, eta, bestetik, gizarteratzeko ez dauzkan jokamolde trebetasunak eskaintzeko. Kasu horietan, ordezkari teknikoaren figura eta hark betetzen dituen funtzioak ez dira nahikoak izaten inondik ere: ezinbestekoa litzateke areago zabaltzea kasuan bertan daukan zuzeneko eskuhartzea. Bestalde, kaleko hezitzaileek testuinguru honetan eduki lezaketen betekizuna espezializatuegia da, berauek behar diren guztietan beren gain har dezaten (komunitatean horrelako zerbitzuak daudenean, noski, hori ez baita askotan gertatzen), berez dauzkaten egitekoek aparte. Batzuetan horrelako ardurak hartzen dituzte euren gain, jakina den bezala. Inoiz, gainera, arrakasta izan ere izaten dute proposatzen dituzten irtenbideetan, adibidez gazte lege-hausleari bera baino adin gutxiagokoa den beste pertsona batekiko arduraren bat jartzen diotenean.

Beraz, beharrezkoa iruditzen zaigu neurri honi behar dituen giza eta bitarte baliabideak ematea ondo aplikatua izan dadin. Ildo honetatik, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Justiziarrekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak haren lurralde arduradunen taldea osatzeko asmoa dauka, eskuhartze pertsonalizatu hauek bermatzearren, eta datozen urteetan era honetako neurrien pean jarriko diren 16-17 urte bitarteko gazteei aukera hau eskaintzearren<sup>54</sup>.

Araban, sistema desberdina da. Izan ere, zaintzapeko askatasuna betearazteko ardura Hautzaro, Gaztaro eta Familiarako Lurralde Zerbitzuaren esku dago, eta horretarako zerbitzuak aditu bat dauka, Adin txikikoen Epaitegiak erabakitako neurriaren betearazpena bere gain duena; zuzeneko atentzioa, ordea, Instituto de Psicología Aplicada Clínica y Empresarial-IPACE delakoari esleitua dago.

Joan den 1997garren urtearen erdira arte, Adin txikikoen Epaitegiak zaintzapeko askatasun neurri bat erabakitzen zuenean, Arabako Foru Aldundiari jakinarazten zioten erabakiaren berri, hezitzailek egokiena izenda zezan, lantalde teknikoaren

---

<sup>54</sup> Iragarpen horiek txosteneko VI. atalean deskribitzen dira zehaztasunez.

txostenean adierazitako ezaugarrien arabera. Hezitzailea hautatu ondoren, Epaitegiari aditzera ematen zioten has zitekeela neurriaren betearazpenaren epea kontatzen, eta Haurtzarorako Lurralde Zerbitzuak nerabeari dei egiten zion hezitzailea berari eta familiari aurkeztu eta behaketa-aldiari ekiteko.

Geroztik, eta lege-hauslearen onespena dagoen kasuetan alferreko atzerapenik gerta ez dadin, jakinarazpena bide informaletatik egiten da. Izan ere, Epaitegiak idazki bat bidali ohi dio Foru Aldundiari, nerabearen identifikazioa errazteko moduko daturik eman gabe, zaintzapeko askatasun neurrirako beharko liratekeenak adieraziz eta Epailak neurria ezartzeko epaia emango duen entzunaldia egiteko egun-orduak zehaztuz. Honela, hezitzailearen izendapena aurreratu eta posible da bai bera eta bai egitarauaren arduraduna ere bertan egon daitezen entzunaldia bukatzen den momentuan. Orduan, aurkezpenak egiten dira Epaitegian, nerabeak uler dezan egitarauaren arduradunaren eta hezitzailearen eskuhartzeak zerikusia baduela neurriaren aplikazioarekin, eta Adin txikikoen Epailaren erabakiz legezaturik dagoela. Une horretan, adin txikiko lege-hauslearen eta hezitzaileen arteko lehen hitzordua finkatu eta egitarauaren arduradunari lantalde teknikoak osatutako txostenaren kopia bat eskuratzen zaio.

Kasuren batean adostasunezko erabakia hartzerik ez dagoenean, lehenagoko sistema da erabiltzen dena.

Hezitzailearen aurkezpena egiten den momentutik aurrera, hilabeteko iraupena daukan behaketa-aldia hasten da; epe horretan, aditu horrek bere ustez nerabeak dituen beharrak zehaztu behar ditu, kasu bakoitzari astean lau ordu eta erdi inguru eskainiz, gutxi gora-behera, ordu eta erdiko hiru saiotan banatuta. Informazio horietan eta txosten teknikoak bildutako datuetan oinarrituta, egitarauaren arduradun teknikoak zaintzapeko askatasunerako plana osatu eta Adin txikikoen Epaitegira eta IPACEra bidaltzen du.

Astean behin, hezitzaile guztiek bilera egiten dute IPACEko koordinatzailearekin, ardurapean dauzkaten kasu guztietan aurkitzen diren arazoez hitz egiteko. Astean behin, orobat, hezitzaile bakoitza Haurtzaro Zerbitzuak egitarauan duen arduradunarekin biltzen da, haren gain dauzkan kasuei buruz dituen gora-beherak azaltzeko. Une horretan proposa dezake, beharrezkoa iruditzen bazaio: adibidez, kasuren bati ipinitako ordutegia zabaltzea, nerabearen beharretara hobeto moldatzearen ordutegia bera aldatzea, egitarauaren edukietako bat aldatzea edota osagarrizko zerbitzuren baten eskuhartzea eskatzea. Hasieran ezarritako eskuhartze-ordutegiak aldatu egin daitezke helburuak lortu ahala aurkitzen den bilakaeraren arabera eta egindako segimenduaren arabera. Haurtzaro Zerbitzuak adierazi digunez, aldaketa posible horiek koordinazio bileretan aztertu eta egoki eta beharrezkotzat jotzen direnean erabakitzen dira. Aldiz, hezitzailearen batek esan digu normalean lehenagoko erabakiari lotzen zaizkiola, praktikan behintzat. Profesional batzuek uste dute komenigarriagoa litzatekeela ordutegiak eta ekintzak ere nerabearen bilakaeraren arabera moldatuz joatea, neurria hasten denetik

bukatzen den arte ia ordutegi berberari jarraitu ordez. Batzuetan, gainera, profesionalek uste dutenez, hezitzaileek zuzeneko harreman biderik izango balute Adin txikikoen Epailearekin errazagoa izango litzateke kasuak kudeatzea; gaur-gaurkoz, ordea, horrelako biderik ez dago, zuzenean Haurtzaro Zerbitzua baita Epaitegiarekiko harremanak bere gain hartzen dituen.

Beste alde batetik, profesionalen esanean, zaintzapeko askatasunaren aplikazioa lan-baldintza egokiek burutu behar da, bai behintzat Araban neurri honen pean jarritako hainbat eta hainbat nerabeen ezaugarriak kontuan izanda. Haien iritziz, familiarekin eta gaztearekin berarekin esku hartzeko toki bereziren bat eduki beharko lukete, haien onespenez elkarriketak eta elkarrekintzak bidezko filmatzeko, nerabeak aukera izan dezan horrela geroago bere erreakzioak aztertu eta jokamolde-tankera alternatiboak proposatzeko. Horri dagokionez, Haurtzaro Zerbitzuak esan digu familiarekin egiten diren eskuhartzeak, beharrezkotzat hartzen direnean, dagokion oinarriko gizarte zerbitzuak hartzen dituela bere gain, edo bestela zerbitzu espezializatuak berak, baina beti ere gauzatzen diren ekintza guztiak koordinatuz. Beharrezkoa iruditzen bazaie hezitzaileak gurasoekin hitz egitea haien umearen jokamoldeko zenbait punturi buruzko jokabide-ildoak markatzeko, bisita egiten dute gurasoen etxera. Bestalde, hezitzaile batzuen ustez, komenigarria litzateke lantoki moduko baliabideren bat ere edukitzea prestakuntza erako trebetasun batzuk garatzeko, gaur egun holakorik ez baitago 16 urtetik beherako gazteentzat. Haurtzaro Zerbitzuari era honetako proposamenak egin dizkieten bakoitzean, arduradunek ebatzi dute holako ezaugarriak dituen zentro bat egunezko zentroa dela. Eta berez hala da, izan ere, bai behintzat egitura fisikoei dagokienez; horrela, dauden egunezko zentroak agian erabil litezke era honetako toki bereziak martxan jarri arte, kontuan izanik horretarako Adin txikikoentzako Justizia Arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua indarrean sartu beharko dela seguru aski.

Aldundiak arazo honi dagokionez adierazi digu ezen, neurriari beste baliabide batzuk bideratzeaz gainera, lehentasuna duela gazteak jadanik joaten diren edo beren adinagatik joan beharko luketen prestakuntza-ekintzetarako asistentzia areagotzeak, berez baliabide normalizatzaile edo gizarteratzaileagoak baitira. Dena den, hori oso interesgarria litzatekeen arren, ez dio egitan erantzuten errealitateari. Erakundeen arteko koordinazioari eta elkarlanari buruzkoa den VIII. kapituluan zehaztu dugun bezala, gaur-gaurkoz hezkuntza-sistemak ez du eskaintzen alternatiba egokirik Adin txikikoen Epaitegiek erabakitako neurrien pean dauden nerabe askoren heziketa edo prestakuntzarako, ez eta haien beharrian edo gaitasunerako ere. Zalantzarik ez, zaintzapeko neurriak betearazteko planen barruan lantoki bat sortzea ezin da izan (eta ez du izan behar) heziketaren hutsune horrentzako konponbidea, baina eskuhartzearen aukera osagarri bat izan liteke nerabeen jokabidea kontrolatzeko eta haien autoestimua hobetzeko.

Gaur egun, zaintzapeko neurriaren pean dauden lege-hausleekin egiten den eskuhartzea batez ere kalean gauzatzen da (hori baita haien ingurune ohikoa),

bai eta inguruan eta famili esparruan dauden baliabide sozio-komunitarioen bidez ere. Askotan, gizarte etxeetara jotzen da nerabea lehendik antolatuta dauden ekitaldietan sartzeko. Guztiarekin ere, neurri hau aurrera eramateko berariazko toki fisikorik ez dagoela ikusten da. Bistan denez, batzuetan, kaleko lana ez da tokirik egokiena nerabearen halako kontzentrazio maila bat eskatzen duten ekintza batzuetarako. Zenbait aldiz, gizarte etxeek toki egokia eskain dezakete eta eskaintzen dute era honetako eskuhartzeetarako, batez ere beraietan lan egiten duten kaleko hezitzaileekiko harreman onari esker. Baina erraz gerta daiteke toki horiek erabili ezin izatea, dela ordutegia ona ez izateagatik, dela beste edozein arrazoiengatik (adibidez, kasuren batean gertatu den bezala, dagokion nerabea lehenagoko batean kanporatua izan delako gizarte-etxe horretatik). Foru Aldundiak esan digun bezala, holako kasuetarako badago akordio bat kaleko hezitzaileekin, haien bitartez kanporatutako nerabeak berriro onartuak izan daitezten.

Oraindik orain, Haurtzaro Zerbitzuak gatazka sozialeko nerabe talde batentzako egitarau bat jarri du abian, zaintzapeko askatasun neurri baten barruan baliabide moduan erabil daitekeena, hezitzailearekiko tutoretza-saio baten ordez, normalean.

Azkenik, txosten honetako VIII. kapituluan berriro aipatuko dugun arren, beharrezkoa da esatea gero eta argiago ikusten dela drogamenpekotasun arazoak dauzkaten gazteentzako atentzio-baliabideak ez direla nahikoak, batez ere diseinuko drogak kontsumitzen dituzten gazteen kasuan. Hutsune hori nolabait betetzeko asmoz, azken bi urte hauetan ekimen berezi batzuk hasi dira lanean erantzun berezi bat emateko ezaugarri horiek dauzkaten egoerei. Horixe da Gipuzkoako NORBERA-Nerabeei Laguntzeko Egitarauaren kasua, edota Bizkaiko HIRUSTA-Nerabeei eta Familiei Zuzendutako Prebentziozko Egitarauarena. Egitarau horiek ez daude mugatuta drogamenpekotasunaren esparrura, eta beren kezka, asmo eta arazoei erantzuteko modu egokiagoak ikasi behar dituzten gazteentzat eta beraien gurasoentzat zein gazte horiekin lan egin behar duten profesionalentzat pentsatuta daude.

Ondoren, bi ereduko kasu eskaintzen ditugu, gertatuak eta zertzeladak bilduz, bai eta haietan esku hartutakoen iruzkin positibo zein negatiboak ere.

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Gertaera</b>	Mehatxu bidezko lapurreta		
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izaera barnekoia</li> <li>• Jokamoldeak gogortasuna adierazten du</li> <li>• Nortasun eragineraza</li> <li>• Ijito arraza</li> </ul>		
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aitarik ez familian</li> <li>• Maila berekoen taldea, neurri judizialelan sartutako nerabeek osatua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ama kezkatuta dago semearekin eta ahal duen laguntza guztia ematen dio</li> </ul>	
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Derrigorrezko heziketan matrikulatua</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berez, deseskolatizaturia</li> <li>• Ez dago prestakuntza-baliabiderik ohiko curriculumera moldatzea lortzen ez duten eta lanbide-heziketa aukeratzeko erraztasun handiagoa izango luketen 16 urtetik beherako nerabeentzat</li> </ul>
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbait ebasaketa eta mehatxu bidezko lapurreta</li> <li>• Ebatzi gabeko auziak</li> </ul>		
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzeak honen aurretik</b>	• Dirulaguntzak		
<b>Ereму judizialeetiko eskuhartzeak honen aurretik</b>	• Zaintzapeko askatasuna		
<b>Atxiloketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ertzaintzak atxilotu eta ertzainetxera eramana; bertan, amari abisatu diote semearen bila joan dadin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ertzainetxean igarotako denbora ez da iristen ordu eta erdira</li> <li>• Bertan esan diete Adin Txikiakoen Epaitegia harremanetan jarriko dela haiekin berriro, hau da, nerabearekin eta amarekin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amak dio tratu desberdintasun nabaria dagoela bere ustez ijitoen kasuan</li> </ul>
<b>Fiskaltza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fiskaltzarekiko lehen harreman pertsonala agerraldi-entzunaldian izan zen</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez gazteak ezta amak ere ez dute ulertzen zertarako den Fiskala, baina Adin Txikiakoen Epailearen figuratik bereizten dute</li> </ul>

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritzia</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritzia</b>
<b>Lantalde Teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esparru judizialarekiko lehen harremana Lantalde Teknikoko psikologoarekin gertatzen da, hitzordua adierazteko bidaliako abisuaren ondoren</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ama kolaboratzeko prest azaltzen da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak ez du ulertzen heziketa- eskuhartzea. Adi egon besterik ez du egiten, badakielako bertan esaten denaren arabera joango dela erabakitzen den neurria</li> </ul>
<b>Abokatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ofizioz izendatua</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabea eta ama bista baino lehenagoko unean topatzen dira lehen aldiz abokatuarekin. Diotenez, hori da ohikoa</li> <li>• Bai nerabeak, bai eta amak ere inudipena dute abokatuak ez duela behar bezala betetzen defenisa egiteko beharra, batzuetan akusazioarekin zeharo ados baitago</li> </ul>
<b>Agertzea-Entzutea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epalleak eskuhartzaile guztiak aurkeztu dizkie bai nerabeari, bai familiari ere</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizketan hasten direnek nerabeari hitz egitean hizkera ulerterraza erabiltzen dute</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak ez daki zein den hitz egiten dutenen egitekoa</li> <li>• Gazteak ulertzen du berari hitz egiten diotenean esaten dutena, baina ez gainontzeko hizketaldiak</li> <li>• Amak dio hitz egiteko aukera eman dioten arren ez duela bere burua ikusten hitz egiteko gauza hain egoera formalean</li> </ul>
<b>Neurria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zaintzapeko askatasuna (barrualdi bat baldintzapean ordezkatzuz)</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epallearen baldintzak ez betetzeagatik, erregimen erdi-irekiko barnualdia tramitatu zen geroago</li> </ul>

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzailleen aldeko iritzia</b>	<b>Eskuhartzailleen kontrako iritzia</b>
<b>Neurriaren betearaztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Segimendua eta heziketa-kontrola, ondoko helburuok:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1- harremanetan hasten ikasi gogoeta eta erreakzio gaitasuna hobetuz</li> <li>2- jolas edo kirol jardueretan parte hartu</li> <li>3- bere eginen erantzunkizuna bere gain hartu</li> <li>4- kontzentrazio gaitasuna hobetu</li> <li>5- haren lan-prestakuntza hobetzen lagundu</li> <li>6- ama inplikatu heziketa prozesuan</li> </ol> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haren erantzunkizun maila hobetu du jokamoldearen aldean</li> <li>• Amaren agintea zati batean onartzen du</li> <li>• Zaintzapeko askatasuneko hezitzailearekin egiten diren hitzorduak joate-maila dextente hobetu da</li> <li>• Nerabeak uste du hezitzailearekiko harremana dela neurriaren alderik onena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarrekintza sozialeko paletak ez dira hobetzen</li> <li>• Barmaldi-neurriaren ezarpenaren berri izatean, bertan behera utzi du zaintzapeko askatasunaren neurriaren barruan egiten ari zen ahalegina</li> <li>• Neurriaren aplikazioa bereziki zailduta geratzen da jito arrazko nerabe bati ezartzeko denean, arbuizatzeko arrazioa bikoitza delako: batetik, lege-hausle guztiak bezala, zigortzat hartzen du; bestetik, arau baten ezarpenarekin identifikatzen du, eta arauaren kontrako «erresistentzia» onartuta dago gizartean</li> <li>• Amak uste du zaintzapeko askatasun orduak nahikoak ez direla, eta asteburuan eskuhartzetik ez egotea guztiz kaltegarria dela, gaztea orduantxe nahastien baita, inoiz baino gehiago, lege-hausteetan. Hezitzailea ere iritzi berekoa da</li> <li>• Asociación Gitana izeneko elkarteko profesionalen ustez, hezitzaile jito baten eskuhartzea oso egokia izango litzateke kasu hauetan, baina holakorik ez dago. Uste dute eskuhartzeak oso beranduak direla, heziketa-lana prebentzio moduan egin behar dela, batez ere desbiderapenaren lehen arrastoak antzematen hasten direnengan. Ikuspuntu horretatik, uste dute babes zerbitzuak, ballabiderik ez izatean, nahiago dutela nerabe listartsuekin eskuhartzetik ez edukitzea, halako moldez non askotan Epategiatik pasatzea jartzen zaien lehen muga baita</li> </ul>



Azalpena	Eskuhartzaileen aldeko iritziak	Eskuhartzaileen kontrako iritziak
<b>Gertaera</b>		
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebasketa</li> <li>• Gabezia afektiboa</li> <li>• Oldarkortasuna</li> <li>• Droga kontsumoa</li> <li>• Familiagune egonkorra</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amonak ahal duen laguntza guztia ematen dio amari</li> <li>• Harremanik ez aitarekin</li> <li>• Nerabeak dio familiararen etxean bizi diren kideen kopuru handiak zaildu egiten duela inintzitate sentimendua</li> </ul>
<b>Egoera soziofamiliarra</b>		
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola porrota oinarritzko heziketan</li> <li>• Gaur egun, Lanbide Hasierarako Zentro (LHZ) batean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola-giroan antzeman ziren jokamolde arazoak</li> <li>• LHZra joate-maila erregularra, interesa eta emaitza onak ikasgai praktikoetan</li> </ul>
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbait lege-hauste</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman-gatazkak</li> <li>• Inhesaldi batzuek</li> </ul>
<b>Gizarte zerbitzuen</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Babes zentroa (denbora laburrean) amak eskatutako zeinketa-eskari baten ondorioz</li> </ul>	
<b>eskuhartzeak honen aurretik</b>		
<b>Ere mu judiziale tiko</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohartzarazpena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amak dio ez ziola abisatu</li> <li>• Amak dio Ertzaintzak eskuak lotu egin zizkiola nerabeari atxilotu zuten beste aldi batean</li> </ul>
<b>Atxilotketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ertzaintzak atxilotua</li> </ul>	
<b>Fiskaltza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fiskaltzarekiko lehen harremana agerraldientzunaldian</li> </ul>	
<b>Lantalde Teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Alor judizialarekiko lehen harremana</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak gogoan du bi pertsonak egi ziotela elkarrizketa, baina ez du gogoratzen elkarrizketaren edukia</li> <li>• Amak uste du Lantalde Teknikoaren eskuhartzea oso onuragarria dela, eta haren proposamenek nerabea hezitzea eta laguntza ematea bilatzen dutela</li> <li>• Prozeduraren berri eta entzunaldian zehar gerta litezkeen gora-behera desberdinen berri adierazi zitetela diote</li> </ul>

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritzia</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritzia</b>
<b>Abokatua</b>			<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez amak, ezta nerabeak ere ez dute gogoratzen abokatu batek parte hartu zuenik</li> </ul>
<b>Agertzea-Entzutea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak ama ondoan zeukan agerraldi-entzunaldia egin bitartean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bai amak eta bai gazteak ere diote adin txikikoak aukera izan zuela hitz egiteko</li> <li>• Ekintzaren formaltasunari on irizien diote</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ordezkarri Teknikoak uste du entzunaldian erabiltzeko hizkera formalegia eta teknikoegia dela nerabeari zuzendua ez direnaldi guztietan</li> </ul>
<b>Neurria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zaintzapeko askatasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak ez du uste zaintzapeko askatasuna zigorra denik, lagungarri bat baizik</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun mentaleko zerbitzuen partaidetzak zailtasunak izan ditu, nerabea bizi den herrian ez dagoelako holako zerbitzurik eta itxarote zerrenda luzeegiak daudelako</li> <li>• Ordezkarri Teknikoak uste du zerbitzu horien antolaketa eta funtzionamendua ez dietela behar bezala erantzuten gazteen beharritan eta ezaugarriei. Batzuetan parte hartu nahi dute, eta geroxeago uko egiten diote esku hartzeari. Malgutasuna bultzatzeko neurriak bultzatu behariko lirateke, biztanleria nerabearen ezaugarrietara hobeto moldatzeko</li> <li>• Diagnostikoa prestatu eta bere eskuhartzea diseinatzeko lanari dagokionez, sendagileak uste du komenigarria izango litzatekeela berarentzat Epaitegian daukaten informazioaren berri jakin ahal izatea</li> <li>• Sedagilearen ustez, komenigarria izango litzateke ballabide berezituak sortzea eskuhartze alor honetako nerabeen tratamendurako</li> </ul>
<b>Neurriaren betearaztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ordezkarri Teknikoari dagokio neurriaren betearaztea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak harreman ona dauka Ordezkarri Teknikoarekin</li> <li>• Gizarte zerbitzuek familia-hezitzaile baten bidez laguntzen diute eskuhartzean</li> <li>• Nerabeak tratamendu ambulatorioan parte hartzen du</li> <li>• Gaztea erregulartasunez agertzen da Lurralde Ordezkarriak zaintzapeko askatasun planaren barruan ipinitako hitzorduetara</li> <li>• Eskuhartzaile guztien iriziz, hobetu egin dira gaztearen jokamoldearen paletak</li> <li>• Neurria bukatu ondoren ere, gazteak harremanetan jarraitzen du Ordezkarri Teknikoarekin</li> <li>• Osasun mentaleko zerbitzuan gaztea tratatzen duen sendagileak dio eskuhartzeak hasi berriak badira ere nerabeak jarrera egokia agertzen duela</li> </ul>	

## **4.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua**

Adin txikikoentzako Justizia Arautzeko Lege Organikoaren aurreproiektuak zaintzapeko askatasunaren barruan bi modalitate ditu, bata trinkoa eta bestea sinplea.

Lehendabizikoa, hots, ikuskapen trinkoko askatasuna deitzen dena, 7 h) artikuluan araututa dago, eta haren arabera, kasu bakoitzaren segimenduaren ardura duen entitate publikoak edo profesionalak ezartzen dituen jarraibide sozioedukatiiboak bete behar dira, berariaz prestatutako eta Adin txikikoen Epaileak onartutako eskuhartze-egitarauari jarraituz. Egitarauan jasota daude adin txikikoak egokitu dioten profesionalarekin izan behar dituen elkarrizketak, bai eta errespetatu behar dituen arauak ere. Testuak obligazio zerrenda bat dakar, garrantzitsuenak jasoz:

- dagokion ikastetxera erregulartasunez joatea, baldin eta lege-hauslea bere adinagatik oinarrizko derrigorrezko heziketaren etapan (16 urtera arte) badago; Epailearen aurrean ziurtagiri bidez frogatu behar da ikastetxera erregulartasunez joateko beharra betetzen dela, edo bestela joan-ezina zuritu egin behar da;
- prestakuntza, kultura, heziketa, lanbide, lan, sexu-hezkuntza, kale-heziketa eta antzeko egitarauetara joatea;
- ez joatea zenbait toki, establezimendu edo ikuskizunetara;
- aurretiaz epailearen baimenik izan gabe ez joatea bizilekutik kanpora;
- halako bizileku batean bizitzea;
- adin txikikoen Epaitegira edo izendatzen den profesionalaren aurrera pertsonalki agertzea egindako jardueren berri eman eta haien arrazoiketa aurkezteko;
- Epaileak ofizios edo fiskalaren ekimenez gizarteratzeari begira ontzat hartzen dituen beste obligazio guztiak betetzea, pertsonaren duintasunaren aurkakoak ez izatearen baldintzarekin.

Zaintzapeko askatasun sinplea, 7 i) artikuluan araututa dagoena, beste haxe da, hots, lege-hauslearen jardueraren segimendua egin eta eskolara, lanbide heziketarako zentrorra edo lantokira joaten dela kontrolatzea, lege-haustea eragin zuten faktoreak gainditzen lagunduz.

Elkarrengandik aparteko bi neurri dira, berez, eta ez funts bereko neurri bakarraren bi modalitate, trinkotasun desberdinekoak.

Aurreproiektuko 7. artikulua 2. puntuan esaten da, bestalde, zaintzapeko askatasuna barrualdi baten ondorengo neurri moduan ere erabili behar dela, praktikan agertutako beharrei erantzutearren, zentroetako zuzeneko atentzioko profesionalak askotan eskatu eta gogorarazi duten bezala. Adin penalik gabeko lege-hausleei, barrualdi-epaia bukatzen dutenean, ezinbestez eman behar zaie beraien inguru

soziofamiliarrean arian-arian berrintegratzeko bide bat, haien arazoak eta lehenagotikako bilakaera ezagutzen dituen profesional baten laguntza eta aholkuekin beti ere. Aukera hau Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 instrukzioan jasota dago gaur egun, neurri guztien errebisioa aztertzen duenean<sup>55</sup>.

Esandako 7. artikuluko horretxetako f) hizkian, egunezko zentro batera joan beharra araututa dago; haren arabera, gazteak bere ohiko bizilekuan bizitzen jarrai dezake, baina komunitatean integratutako zentro batera joan behar du, laguntza, heziketa, prestakuntza, lan eta aisialdi alorreko jardueretan aritzeko. Lehenago aipatu dugun Eskoziako kasuan aplikatzen den erdibideko tratamenduaren antzekoa da.

## **5. BESTE PERTSONA EDO FAMILIAGUNE BATEN HARRERA**

### **5.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

Harrera-neurri bat aplikatzen denean, gazte lege-hausleak derrigor joan behar du beste pertsona baten etxera edo berea ez den beste familia batenera bizitzera. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 instrukzioan, 4/92 Legearen interpretazioa egiteko orduan, aditzera ematen da harrera egiten duenak ez duela derrigor familia bat izan behar, eta, hortaz, posiblea da heziketa-talde baten barruan egitea gaztearen integrazioa.

Aukera hau benetan baliagarria izan dadin, ezinbestekoa da bertan parte hartzen duten alde guztiak ados egotea, hau da, bai adingabea, bai sorburuko familia, eta baita harrera egiten duena ere. Neurri hau erabiltzen da, bereziki, nerabearen sorburuko familian gabeziak egonda, aukera dagoenean familia horrekin esku hartzeko, neurria bukatzen denean nerabearen beharrak nolabait asetzeko modua izan dezaten; dena dela, hori bezain garrantzitsua da, bestalde, harrera egiten duen pertsonak, familiak edo taldeak ere behar adinako heziketa-gaitasuna edukitzea lege-hauslearen jarreraren normalizazioa bideratzeko.

Nerabeek ez dute erraz ulertzen neurri hau. Hasteko, eskatzen zaiolako bere familia edo elkarbizitza-gunearekin dauden arazoak onar ditzala. Gero, harrerak epe-muga duen arren, era honetako neurri baten iraupena ezin zaiolako iruditu berak egindako lege-haustearen larritasunaren heinekoa. Eta, hirugarrenik, lotura gutxi duelako lege-haustearen edukiarekin, eta, baldintza horietan, zaila gertatzen zaio neurri horretan egindako kaltearen ordainbidea dakarren ezer aurkitzea.

Nolanahi ere, neurria aplikatzen denean komeni da gogoan izatea zein baldintza bete behar diren eraginkorra eta baliagarria izan dadin. Ez da erraza era honetako

---

<sup>55</sup> Neurri hau txosteneko V. atalean aztertzen da zehaztasunez.

konponbide bat erabat egokia dela bermatzeko irizpideak aurreratzea, desberdintasun handiak daudelako egoera, nortasun eta zertzelada batzuetatik besteetara; alabaina, literatura espezializatuaren arabera, harrera egiten duen guneak lehenagoko lokarriren bat badauka gaztearekin (ahaidetasuna, laguntasuna, etab.), beharrezkoa da lege-hauslearentzako erreferentzia-figura bat egotea, hau da, agintea eta maitasuna bateratzen dakien figura bat, edozein umeren hazkunderako ezinbestekoak baitira bi faktore horiek.

Dena dela, posible da, orobat, harrera egitearen ardura hartzen duten gune familiar edo indibidualek aurretiazko inolako lokarririk ez izatea nerabearekin. Aukera honek arrakasta izan du gure inguruko hainbat herrialdetan, Frantzia eta Erresuma Batuan batez ere, ez beti gazteentzako justizia-prozedura baten barruan, baina bai jokamolde-arazo bereziak dauzkaten nerabeentzako harrera-egitarauen barruan.

Aplikatzeko den modalitatea edozein dela ere, harreragilea aukeratzerakoan ezinbesteko garrantzia dauka harreragile horrek heziketa-gaitasun egokia izateak, eta, nolahi ere, oso garrantzitsua da neurri horren zuzeneko ardura hartuko dutenei informazio argi eta zehatza ematea prozesuaren funtsezko ezaugarri buruz: neurria behin-behinekoa dela batetik, eta, bestetik, sorburuko familiarekiko harremanak egituratzea komenigarria dela, neurriaren epea bukatzen denean familia horretarako berrintegrazioa errazagoa izan dadin. Beste alde batetik, gizarte edo osasun zerbitzuen kolaborazioa edukitzea ere guztiz beharrezkoa da, neurriak dirauen bitartean sorburuko familiari berrintegrazioa errazteko moduko trebetasunak emateko eta, bertara itzuli ondoren, nerabearen jokamoldean izandako hobekuntzen iraupena ziurtatzearen.

## **5.2. Aplikazioaren maiztasuna**

Neurri hau behin baino ez da aplikatu Euskal Autonomia Erkidego osoan, Vitoria-Gasteizko Epaitegiaren ebazpenez hain zuzen ere.

## **5.3. Eskuhartzearen epeak**

Lege-haustea gertatu zenetik harreraldia hasi zen arte, oso denbora luzea igaro zen, 502 egun zehazki. Ebazpena eman zenetik kontatuz gero, ordea, harreraldia hasi arte 250 egun igaro ziren, espedientean ez dagoelarik inolako azalpenik berandutze horren arrazoiei buruz. Nolanahi ere, esan beharra dago harreraldiaren hasieraren ardura ez zela egon Arabako Foru Aldundiaren esku, Epaitegiaren beraren esku baizik, ondoren zehaztuko dugun bezala.

## **5.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa**

Autonomia Erkidegoko kasu bakarrean, Epaitegiak berak aukeratu du familia Lantalde teknikoaren eskuhartzearen bitartez, neurri hori hautatu baitzuen, harreraren alternatiba moduan. Erabakitako harrera-neurria babes alorrean esku-duntza duen administrazioari jakinarazi zioten, berau eratu ondoren, haren segimendua egiteko beharrezkoak iruditzen zitzaizkion jarraibideak ipini eta zegokion laguntza ekonomikoaz ardura zedin.

Etorkizunera begira, neurria diseinatzeko orduan eta, batez ere, familia hartzailea aukeratzekoan, logikoagoa litzateke administrazio babeslearen partaidetza ere edukitzea, geroagoko bere eskuhartze zuzena eta alor honetako esperientzia kontuan izanda. Puntu hori funtsezkotzat hartu beharra dago, bai eta, halaber, familia hartzailearen prestakuntza eta sorburuko familiagunean egin beharreko eskuhartzea ere; horrela, hain zuzen, hezkuntza-trebetasunetan gaitu eta nerabea familiaren etxera itzultzen denerako prestatu ahal izango da.

Puntu hauetan, ezin da ahaztu behar-beharrezkoa dela gizarte zerbitzuen (eta, zehazkiago, gure lurraldean gai hauetaz arduratzen direnak izanda, haurtzaro zerbitzu espezializatuen) arteko elkarlana. Bestalde, zerbitzuek berek ez dute pentsatu behar gazte lege-hausleak ez direla sartzen beren jarduera-esparruan; izan ere, sartu bai sartzen dira, haien egoera arriskugarritzat har daitekeen eta, askotan, arriskugarria den neurrian.

	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Azalpena</b>		
<b>Gertaera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lapurreta</li> </ul>	
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arriskuko taldearekiko harremana</li> <li>• Nortasun eraginerraza</li> </ul>	
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzeneko senitarteko batekin bizi da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman afektibo handia sorburuko familiagunarekin</li> </ul>
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osabidezko hezkuntza</li> <li>• Lanbide-hastapen zentroa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Banakako atentzioa zentroan, borondatezko personalaren laguntzarekin</li> <li>• Arazorik ez LHZko irakasle eta beste ikaskideekiko harreman pertsonaletan</li> </ul>
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kola arnasketa</li> <li>• Lapurreta</li> </ul>	
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kaleko heziketa egitaraua</li> <li>• Egunezko zentroa</li> <li>• Exerako laguntza zerbitzua, heziketa laguntzera bideratua</li> <li>• Udal zerbitzuek babes zentro batean sartzeko eskaria egina: ukatua, nerabearen beharretarako postu egokirik ez egoteagatik</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Teknikarien iritzi, eskuhartutako gizarte zerbitzuetako batek ere ez du lortu ondoko bilakaera galaraziteko moduko konponbide iraunkorrik</li> </ul>
<b>Eremu judizialetik eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohartarazpenak</li> </ul>	
<b>Atxiloketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gertatua egin bitartean identifikatua eta familiaren etxera eramana</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komisariara eraman ez, eta identifikazioa beste diligentsia polizialik ere egin ez</li> <li>• Prozeduraren jarraipenaren berri eman zuten</li> <li>• Familiaren esanean, ondo tratatu zituzten</li> </ul>
<b>Fiskaltza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fiskaltzarekiko lehen harreman pertsonala agertzea-entzutean izan zen</li> </ul>	
<b>Lantalde Teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haren kideak dira bai familiak, bai nerabeak berak Adin Txikikoan Epaitegiak duten zuzeneko erreferentzia bakarra</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak ez du gogoratzen elkarrizketen edukia</li> </ul>

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritzia</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritzia</b>
<b>Abokatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Abokatua ofizioz izendatutakoa da</li> </ul>		
<b>Agertzea-Entzute</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adin Txikikoan Epaileak aurkeztu zituen eskuhartzaile guztiak</li> <li>• Epaileak hurbiltasunez jokatu zuen nerabearekin, hizkera ulerterraza erabiliz berarekin</li> <li>• Sorburuko familian jarraitzeak heziketa-kontrolik bat ere ez egotea zekarren</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskuhartzaileen hizkera juridikoa da nerabearekin hitz egiten ez dutenean, eta ez berak eta ezta bere familia ere ez dituzten ulertzen haiek esandakoak</li> </ul>
<b>Neurria</b>	Familia-harrera: 2 urte		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez nerabearen, ez familiaren ustez, neurria ez zen egokia</li> <li>• Neurri hau zigortzat hartu zuten</li> <li>• Ez familiak ezta nerabeak ere ez dute ulertzen Adin Txikikoan Epaitegiaren eskuhartzeak batez ere heziketa-helburua duenik, eta, era berean, ez dute ulertzen gertatuan nahastutako beste nerabe batzuei komunitatearen onurarako zerbitzuak emateko neurria baino ez ezartzea</li> </ul>



## Azalpena

### Neurriaren betearaztea

#### Eskuhartzaileen aldeko iritzia

- Hobeak antzeman da harreraldiaren lehen fasean

#### Eskuhartzaileen kontrako iritzia

- Babes eskuduntza duen eta neurriaren betearazpenaz eta segimenduari arduratu behar duen Administrazioak ez duen parte hartu neurriaren aurreneko diseinuan, eta neurri ezegokitzat jo zuen
- Profesional guztien iritziz, familia hartzaileak ez du lortu heziketa-kontrolerako jarraibide beharrezkoak finkatzea
- Profesional batzuen iritziz, sorburuko familiak ez du behar adinako laguntzarik jaso familiarako berrintegroari begira
- Nerabeak harremanetan jarraitzen du artiskuko taldeekin
- Oinarriko gizarte zerbitzuei ez zieten jakinarazi harrera-neurriaren segimenduren berri
- Neurria erabakitzerakoan, nerabearen eta sorburuko familiaren arteko harremanak gaizki zeuden, baina, aldiz, neurria ezartzean, harreman horiek hobetuta zeuden eta haiek ez dute egokitzat hartzen emandako konponbidea

## **5.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua**

Aurreproiektuak «*familia edo heziketa-talde batekiko elkarbizitza*» bezala jasoa du neurri hau. Haren arabera, adin penalik gabeko lege-hausleak berea ez den familiagune edo heziketa-talde batean bizi beharra dauka Adin txikikoen Epaileak ipinitako denboran; familiagune horrek edo heziketa-talde horrek aurretiaz aukeratuak izan behar dute, nerabea gizarteratzeko prozesuan laguntzeko. Testua, horrela, espreski jasoa du familia-izaera gabeko talde batean txertatzeko aukeraz Estatuaren Fiskaltzaren 1/1993 zenbakiko instrukzioaren bidez onartzen hasita zegoena.

## **6. KOMUNITATEAREN ONURARAKO ZERBITZUAK EMATEA**

### **6.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

Ordainbidezko justiziaren hastapenetan oinarrituta dagoen neurri honek defen-datzaile ugari lortu ditu azken urte hauetan lege-hausleek erantzunkizuna beren gain hartzeko bide eraginkor moduan. Berez, komunitatearentzat onuragarriak diren lanak eginaraztean datza, eta, bitartekotzaren edukia aztertzean adierazi dugun bezala, ordainbide gisa har daiteke, edota epaile-ebazpenez erabakitako neurri moduan. Lehen kasuan, bide honetatik jotzen da biktimia ezagutzen ez denean, edo bakeak egiteko gogorik ez duenean berez lege-hausleak bai izan arren, edota lege-hausleak bere jokabideaz kaltetutakoa denon ondasuna denean.

Eskuhartze-aukera hau, gaur egun, Mendebaleko antolamendu juridiko guztietan aurki dezakegu eta, ia beti, prozeduraren edozein fasetan jo daiteke neurri honetara. Adibidez, Holandan -berau izanik era honetako neurria lehenago orokortu zuten herrietako bat- hainbat fasetan har daiteke neurri hau: bai instantzia polizialek berek erabakita, halako lege-hauste bat antzematen denean; bai Fiskaltzak erabakita, prozeduraren instrukzioa egiten den bitartean; bai epaile-erabaki baten ondorioz ere.

Neurria eraginkorra izan dadin, hiru baldintza bete behar dira: batetik, lege-hausleak bere gain hartu behar du egindako kaltearen erantzunkizuna; bestetik, zuzeneko lotura egon behar du lege-haustearen nolakoaren eta zerbitzuaren edukiaren artean, nahiz eta posible ere izan nerabearen trebetasunei ematea lehentasuna, balio sozialeko trebetasuna denean, baita zerbitzuaren edukiak zuzeneko loturarik ez badu ere lege-haustearen nolakoarekin; eta, hirugarrenik, neurriaren iraupenak lege-haustearen larritasunaren arabera izan behar du. Izan ere, askotan araudian zerbitzu hauetarako gutxienezko eta gehienezko iraupena ipini ohi da, 6 eta 150 ordu bitartean.

Gure herrira etorri, neurri hau apenas dagoen garatuta oraindik, ez ordea bere ezarpenaren maiztasunagatik -gaur egun, hartzen diren neurri guztien artetik %15era iristen baita-, baizik eta bere edukiagatik. Hau, batez ere, Araban da nabaria, bertan entitate bakarrarekin hitzartuta baitago neurri honen aplikazioa, aukera gutxi egonda gainera proposatzen diren ekintzen edukian. Aldiz, Bizkaia eta Gipuzkoan aukera gehiago dago, zeren eta, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena duten zenbait erakundek parte hartzeaz gainera, askotan nerabea bizi den udalerraren baliabide komunitarioen laguntza eskatu ere egiten baita.


Kalteak entitate batek jasan dituenean, zerbitzu emanaldia ordainbide moduan erabil daiteke, entitateak berak onartzekotan -askotan onartzen dela esan behar-. Horrelakoetan, komenigarria izaten da aurretiazko bitartekotza baten bidez iristea ordainbidea emateko akordiora, agerraldi-entzunalditik pasatu beharrik ez egoteko, baina hori askotan ez da posiblea izaten. Gerta daiteke, orobat, gazte lege-hausleak denbora behar izatea bere erantzunkizunaren luze-zabala onartzeko, edota, baita ere, kalteak bakeak egiteko inolako gogorik ez izatea, jasandako kaltearen ondoriozko lehen erreakzio moduan.

Nolanahi ere, lege-haustearen nolakoarekin loturarik handiena duten zerbitzu-emanaldien aplikazioa bultzatu behar da, haien heziketa-balioa bermatzeko. Egia esateko, neurri hau prozesu konplexuago baten osagarria da: nerabearen erantzunkizun-hartzearena, alegia, eta honek lehendik hasia behar du. Prozesu horretan, benetan ekiteko gaitasuna dutenak programazioaren ardura duten profesionalak dira, baina baita adin txikiko lege-hauslearen hurbileko giroa ere, hots, haren familia.

## **6.2. Aplikazioaren maiztasuna**

Gure Autonomia Erkidegoan, epaitegiaren ebazpenez erabakitzen diren eskuhartze guztietatik %15.8tan aplikatzen da neurri hau. Vitoria-Gasteizko Epaitegiak proportzio nabarmen handiagoan aplikatzen du Bilbao eta Donostiakoek baino, kasuetatik %21.7ra iristen baita bertan, beste bien proportzioa %12.2 eta %14 izanik hurrenez hurren.

## 15. GRAFIKOA: KOMUNITATEAREN ONURARAKO ZERBITZUAK EMATEKO NEURRIAK NEURRIEN MULTZOAREN ARABERA (1996 eta 1997ko lehen sei hilabetea)



Iturria: Vitoria-Gasteiz, Bilbao eta Donostiako Adin txikikoentzako Epaitegiak. SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak prestatua.

### 6.3. Eskuhartzearen epeak

Aztertu ditugun espedienteetako datuetatik abiaturik, eskuhartzeak izaten dituen epe orokorrak gutxienez 90 egunekoak dira (Gipuzkoan), eta gehienez 766 egunekoak (Bizkaian), lege-haustea antzematen denetik hasi eta ebazpena finko bihurtzen den egunera arte kontatuta; batez besteko epea 312 egunekoa da. Egun horretatik aurrera kontatuz gero, epeak 14 eguneko gutxienezkotik 281 eguneko gehienezkora iristen dira.

Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzak eskuratu dizkigun datuen arabera, erakunde honek neurriak betearazteko erabiltzen dituen epeak -erreferentzia gisa Epaitegiak neurriaren berri jakinarazten duen eguna harturik- bi hilabete baino gutxiagokoak izaten dira kasuen %80tan, eta hilabete baino gutxiagokoak kasuen %66tan. Epeak dexente luzatu ziren bi kasu baino ez daude: bata, komunitatearen onurarako zerbitzua emateko neurria atzeratu behar zelako aurreko barrualdi-neurri bat bukaerara iritsi arte; eta bestea adin txikikoa ezin aurkitu ahal izan zelako familiari etxebizitza utziarazi ondoren.

### 6.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa

Epaitegiaren erabakiz komunitatearen onurarako zerbitzuak emateko neurria hartzen den unean, betearazpenaren ardura duen aginteari jakinarazten zaio, hots, Eusko Jaurlaritzari Bizkaia eta Gipuzkoako kasuak direnean, eta Foru Aldundiari Arabako kasuak direnean.

Bizkaiari eta Gipuzkoari dagokienez, Eusko Jaurlaritzak, ondoren, fax edo telefono bidez parte ematen die lurralde ordezkariari, eskuhartzearen egitaraua prestatzeari ekin diezaioten. Normalean, ezer baino lehenago, nerabeak dauzkan ordutegi posibleak eta nahiago dituen aukerak aztertzen dituzte, eta, gero, lege-haustearen ezaugarrien arabera, ordainbide gisako ekintza bat prestatzen dute. Horretarako, harremanetan jartzen dira gertatuen kalte zuzena jaso zutenekin, eta, haiek bakeak egiteko gogoia badute eta neurriaren esanahia ulertzen badute, ekitaldi egitarau bat lantzen dute, nerabeak nolabait ordaindu ahal ditzan, era sinbolikoan bada ere, egin dituen kalteak. Aukera hau ezinezkoa bada, edo kalteak komunitateari eginak izanez gero, lurralde ordezkariak harremanetan jarri ohi dira zerbitzu komunitario publiko zein pribatuarekin, aditzera eman dezaten zein baliabide dauden beraien herrian eta, haien iritziz, zein izan litezkeen zerbitzu-emankizunerako aukerarik egokiena emango luketenak. Batzuetan, oinarritzko gizarte zerbitzuek berek eskatzen dute eskuhartzerako egokiena iruditzen zaien baliabidea. Oro har, jarrera ona aurkitzen da denen aldetik, eta zerbitzuetako arduradunak beren laguntza eskaintzen eta konponbideak ematen saiatzen dira.

Kasu hauei erantzuteko, Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmen batzuk egin ditu hiru lurralde historikoetan zerbitzuak dauzkaten hainbat entitaterekin, zerbitzu-emankizunearan erabiliak izan daitezkeelako, eta badirudi etorkizunera begira bide honetatik jarraitzeko asmoa dagoela. Oraingoan, Eusko Tren eta Renferekin eginda daude esandako hitzarmenak. Dena dela, hitzarmenak ez du esan nahi zerbitzu-emankizun oso-oso beraien barruan egingo denik. Aitzitik, proposaturiko aukeren indibidualizazioari eustea beharrekotzat jotzen da, neurri honek lotura estua edukitzen jarrai dezan ordainbidezko justiziaren oinarriekin. Gauzak horrela, aztertu dugun denbora epean (1996. urtea eta 1997ko lehen seihilekoa) 20 baino gehiago izan dira egitarauan parte hartu duten entitate publiko zein pribatuak.

Arabian, Foru Aldundiak dauka zerbitzu-emankizuna betearaztearen ardura, Gurutze Gorriarekin bakarrik izenpetutako lankidetzak hitzarmen baten bidez. Ebazpen baten jakinarazpena iristen denean, erakundearen Gazte Zerbitzuari ematen diote horren berri, nerabearen datu pertsonalak eta Lantalde teknikoaren heziketa-orientabide proposamenak adieraziz. Datu horietan oinarrituta, Gazte Zerbitzuko adituek ekitaldi proposamen bat prestatu eta behin-behineko egutegia ere finkatu ohi dute; ondoren, Gurutze Gorriko koordinatzaileak nerabeari eta haren familiari erakusten dizkio Hautzaro Zerbitzuan egiten duten lehen bileran, bertan Zerbitzu honen barruan neurriak betearazteko egitarauaren arduraduna ere dagoelarik. Bilera horretan, nerabeak on derizkion aldaketak proposa ditzake eguneri eta ekintzei dagokienez, eta borondatezkoen lantaldeak aztertzen ditu gero.

Neurri honen barruak proposatzen diren ekintzek zerikusituz jaten dute Gurutze Gorriaren ohiko lanekin (opari-paketeak prestatzea Eguberri garaian, kanpainen prestakuntzan parte hartzea, almazena txukuntzea, denbora libreko heziketa-ekintzak egiteko materiala prestatzea, denbora libreko taldeetan parte

hartzea, hirian dauden baliabideak ikustera joatea, erreferentzia bibliografikoak sartzea Gurutze Gorriaren liburutegiko datu-biltegietan, anbulantziak garbitzea, Infovol aldizkaria banatzea, soberako janariak dauzkaten kaxak hartzera joatea, eta abar). Neurria bere hartzailearen arabera egokitzeko ahaleginak egiten diren arren, askotan zerikusi gutxi izaten dute egindako lege-haustearekin, nerabea nekez kontura daitekeelarik horrela neurriak ordainbide bat izan nahi duela. Gazte Zerbitzuko arduradunek berek proposatu dute Aldundiarenak diren beste baliabide batzuk erabili ahal izatea emankizunak prestatzeko orduan: adibidez, bereziki ahulak diren gizataldeentzako erresidentziak, egitarau komunitarioak, etab.

Ildo honetatik, zenbait ekintza berri ere jarri dira abian, hala nola pertsona ezgaituentzako garraiabide moldatuetan laguntzea. Foru Aldundiak, 1997an, beste hainbat aukera ere aztertu ditu neurria hobetzearren, esparru honetarako jarraibideak prestatzeko asmoz Adin txikikoen Epaitegiarekin egindako bilera batzuetan. Alabaina, 1997. urtearen erdian, elkarrizketa hauek eten egin ziren, Foru Aldundiak esan digunez, eta puntu batzuk argitu gabe daude oraindik Epaitegiaren aldetik. Nolanahi ere, Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak beharrezkotzat jotzen du bi irizpide betetzea beti ekintza horiek diseinatzen direnean: batetik, lanposturik ez kentzea, eta, bestetik, ekintzak erantzunkizun zibileko aseguruia edukitzea.

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Gertaera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Basoan piztutako sutea</li> </ul>		
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Normalizatua</li> </ul>		
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiagune normalizatua</li> </ul>		
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskolako bilakaera normala</li> </ul>		
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago</li> </ul>		
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>		
<b>Eremu judizialeko eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat ere ez</li> </ul>		
<b>Atxiloketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Identifikazioa</li> </ul>		
<b>Fiskaltza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fiskaltzarekin inolako harremanik ez agerraldia eta entzualdia egin arte</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasieran, nerabeak eta familiak ez dute ulertzen neurriaren heziketa-helburua. Gehienbat zigorra dela uste dute</li> </ul>
<b>Lantalde Teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Alor judizialarekiko lehen harremana</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Agerraldia egin aurrean elkartzan dira lehen aldiz</li> <li>• Familia eta nerabea harrututa abokatuaren eskuhartze mugatutarekin</li> </ul>
<b>Abokatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ofiziozkoa</li> </ul>		
<b>Agertzea-entzutea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez familiak ezta nerabeak ere ez dute formalismo handirik antzeman</li> <li>• On dertzatena esan dezaketela iruditu zaie</li> <li>• Zerbitzuak badu zuzeneko zenikusirik lege-haustetarekin (basoa zaintzeko ikastaroa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak diti ez zaitola zuzena iruditzen inolako neuririk ezartzea gertatuaren erantzule handiena, adin penal nagusikoa izanik, Epaitegietan epaitua izan ez bada</li> </ul>
<b>Neurria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunitatearen onurarako zerbitzuak ematea</li> </ul>		

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaleen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaleen kontrako iritziak</b>
<b>Neurriaren betearaztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 16 orduko emankizuna</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastaroa eta eskolako ordutegia uztaizteko arazoak</li> <li>• Neurria betearazteko ardurara duen pertsonak bere lan-ordutegia aldatu behar izan du parte ahal izateko</li> <li>• Ez da urte sasoirik onena era honetako emankizun baterako, baina neurria berehala betearazi beharri lehentasuna eman behar izan zitzaien</li> </ul>



## **6.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua**

Aurreproiektuko 7. artikuluko k) hizkiaren arabera, Adin txikikoentzako Epaileak badu aukerarik adin penalik gabeko lege-hausleari halako eginbehar ordaingabe batzuk ezartzeko, bai gizartearentzat, bai behar egoeran dauden pertsonentzat onuragarriak direnak; eginbehar horiek zein izango diren erabakitzeko orduan, ahalegina egin behar da nolabaiteko lotura izan dezaten delitu edo faltatzat hartutako ekintzek eragin duten kaltearekin.

## **7. TRATAMENDU ANBULATORIOA**

### **7.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

4/1992 Legeak aipatu bai aipatzen du tratamendu ambulatorioa emateko edo zentro terapeutiko batean barruratzeko neurria, baina, Euskal Autonomia Erkidegoan modalitate ambulatorioa da ia-ia erabiltzen den neurri bakarra.

Neurri bakar modura erabil daiteke, edota beste baten (gehienetan, barrualdiaren edo zaintzapeko askatasunaren) osagarri moduan, eta normalean arazo psikologiko edo psikiatrikoak edo drogamenpekotasun arazoak dauzkaten nerabeekin. Neurri hau bideratzeko oztoporik handiena lege-hauslearen oniritzia lortzea izaten da. Benetako beharra egon ezean, osasun zerbitzuek ezin dute esku hartu, baina, gainera, beraiek diotenez, esku hartu ahal izango balute ere, haien ekimen terapeutikoak ez luke inolako eragin onik izango.

### **7.2. Aplikazioaren maiztasuna**

Tratamendu ambulatorioa oso gutxitan aplikatu da gure Autonomia Erkidegoan, epailearen ebazpenez hartutako eskuhartzeetatik %1.3 ra baino ez baita iristen. Araban, bost aldiz jo dute bide honetatik, eta Bizkaian behin bakarrik. Donostiako Epaitegiak sekulan ere ez du era honetako neurririk erabaki gure azterketak kontuan hartzen duen epean.

### **7.3. Eskuhartzearen epeak**

Ezagutzen ditugun eskuhartzearen epe bakarrak Araban aztertutako kasuenak dira, ezen Bizkaian emandako tratamendu ambulatorioaren kasu bakarrerako sarbidea Epaitegiko Idazkaritzak ez baitzuen onartu. Epeak 178 eta 180 egunekoak dira bi alditan, eta 434koak aukeratutako hirugarrenean, beti ere poliziaren argiketa egiten den egunetik hasita ebazpena finko bihurtzen den arte kontatuz. Betearazpenaren egiazko epeak, aldiz, 14 eta 28 egun bitartekoak dira.

## 7.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa

Epaileak tratamendu ambulatorioa ebazten duenean, Lantalde teknikoak eskainitako informazioan oinarrituz hartzen du ebazpena (osasan-txosten aurrekariak ere egon daitezke datu horien artean), eta neurria erabaki ondoren ekiten zaio tratamenduaren biderapenari. Bizkaia eta Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzari jakinarazten diote fax edo posta bidez, eta Araban Foru Aldundiari.

Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak bere lurralde ordezkariak jakinarazten die erabakia, hauek izanik gero epaileak erabakitakoa betetzen saiatzen direnak, sare publikoko osasun zerbitzuen laguntzaz normalean. Arabako Haurtzaro Sailak ere osasun mentalerako sare publikora jotzen du, baina arrazoizko denbora epe baten barruan eta maiztasun egokiarekin erantzuteko modurik ikusten ez duenean, atentzio sare pribatuaren zerbitzuak kontratatzen ditu, foru aurrekontuen pentzutan beti ere.

Gehien topatzen diren arazoak bi dira nagusiki: batetik, osasun mentalaren alorrean dauden itzarote-zerrendak, eta, bestetik, sare horretako profesionalek beti ez dutela ontzat hartzen alor horretatikako eskuhartzea. Bete-betean garapen prozesuan egonda, nerabeak era honetako zerbitzuetan sartzeko uzkur dira, ulergarria den bezala. Horregatik, neurri hau hartzea aukeratzen denean (bai neurri nagusi moduan, bai neurri osagarri moduan), osasun mentalaren sareko aditu baten iritzia eduki beharko litzateke, irtenbiderik egokiena zein litzatekeen adieraz dezan, baldin eta alor honetatikako eskuhartzeari on irizten badio egiatan. Bestalde, beharrezkoa da kontuan izatea bai tratamendu ambulatorioetan, bai eta barrualdi terapeutikoetan ere, ezinbesteko baldintza dela subjektuaren borondatezko onarpena. Osasun mentalerako zerbitzuen eskuhartzeari buruzko VIII. kapituluaren, 2. zatian zehazki, aztertzen dira xehekiago puntu hauek guztiak.

Bestalde, postu falta dago barrualdi terapeutikoan; apenas dagoen zentrorik edota nerabe-biztanleriaren beharrian berezietara egokituriko posturik. Oraingoz, eskasia horrek beharturik, Adin txikikoentzako Epaitegiek ez dute neurri honetara jo. Dena den, oso kontuan izan behar da drogamenpekotasun alorreko adituak ez direla izaten barrualdia dakarten terapien oso zale, aukera ambulatorioa nahiago dutelarik. Nolanahi ere, etorkizunera begira, eta legearen testuan neurria jasota dagoenez gero, Gobernuak dituen aurreikuspenetan bai dago urtero hiru postu hitzartzea komunitate terapeutikoekin<sup>56</sup>.

---

<sup>56</sup> Txosteneko VI. atalean zehazten da.

	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Azalpena</b>		
<b>Gertaera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mehatxu bidezko lapurreta</li> <li>• Oldarkortasuna</li> <li>• Nortasun eraginerraza</li> </ul>	
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiagune ezegonkorra</li> <li>• Maila ekonomiko apala</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amarekiko harreman afektibo handia</li> </ul>
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola graduatua eskuratu aurretik utzi dio ikasteari</li> <li>• 16 urte betetzean hasi da lanean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanak eta soldatak on egiten diote autoestimuari</li> </ul>
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kaliteak</li> <li>• Epaitzeko dauden auziak</li> </ul>	
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzuen laguntza ekonomiko eta sozial batzuk</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak kaleko hezitzailearekin harreman ona duela dimudi; honek zaintzapeko askatasun neurria beteazazteaz arduratutako hezitzailearekin koordinatzen du bere jardueria</li> </ul>
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekerako laguntza zerbitzua, heziketara bideratua, amak eskatuta</li> </ul>	
<b>Ereму judizialeitiko eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalitea ordaintzea</li> <li>• Zaintzapeko askatasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabearen arabera, lau bat ordulz izan da kalabozuan</li> </ul>
<b>Atxiloketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaltzaingoak atxilotuta eta polizitikira eramana</li> </ul>	
<b>Fiskaltza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fiskaltzarekiko lehen harreman pertsonala agerraldian bertan egiten da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bai nerabeak, bai amak ere uste dute badakitela zer alde dagoen prozeduran esku hartzen dutenen artean</li> </ul>
<b>Lantalde Teknikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epaitegiarekiko lehen harremana Lantalde Teknikoaren bidez izan da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak uste du elkarriketzen helburua egindako lege-hausterari buruzko informazioa aitorraraztea dela</li> <li>• Lantalde Teknikoko profesionalak uste dute nerabeak ez duela inoiz ere ulertu prozeduraren heziketa-helburua eta adi egon besterik ez zuela egiten</li> </ul>
<b>Abokatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ofiziozko izendapena</li> </ul>	

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Agertzea-Entzutea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Entzutea adostasun erabaki batekin bukatua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amaren iritzi, entzutea uste baino formaltasun gutxiagokoa da eta horregatik lasaiago geratu da</li> <li>• Uste du Adin Txikiko Epaileak ondo jakin duela nerabea ohartarazten beronen egoerari buruz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez du ulertzen zergatik egiten den entzutea, neurriarekin ados egonda</li> </ul>
<b>Neurria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tratamendu ambulatorioa (urtebete), zainzapeko askatasunaren neurri osagarri moduan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ama ados dago terapia soziofamiliarrean parte hartzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak formazko adostasuna azaldu du, baina ez du neurria onartu</li> <li>• Nerabeak uste du arbitrarioki aplikatzen dela neurri bat zein bestea</li> </ul>
<b>Neurriaren betearaztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakunde publikoak du neurria betearazteko ardua, eta eginkizun hori kabinete pribatu batean lan egiten duen psikologo bati ezarri dio</li> <li>• Neurri horren bidez nerabearen nortasunaren ezaugarri den oldarkortasunaren arrazoia bilatu nahi da, bai eta harreman sozialetarako abildadeen garapena sustatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bai amak, bai psikologoak ere uste dute neurriak emaitza onak izan dituela, hausnarketa eraginez, nerabeak uste duenari bere nahi hutsaren ondorioa izan dela</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasieran, nerabea uzkur azaldu da tratamendu terapeutikoaren aurrean. Bete beharreko zigortzat jo du, baina ez du ulertzen ez haren helburua, ezta haren baiagarritasuna ere</li> <li>• Familiaren zati batek ez du onartzen terapiari parte hartzea</li> <li>• Tratamendu ambulatorioa zainzapeko askatasun neurriarekin batera aplikatzen da, eta zainzapeko askatasuna bera eskuhartzearekin batera, kaleko hezitzaile baten babes-esparrutik. Profesional batzuek diotenez, erakunde arduradunen aldeak bi alor horiek loturarik gabe egotea inkoherentzia izango zen, hezitzaileek berek beren eskuhartzeak koordinatu izan ez balituzte</li> </ul>

## **7.5. Adin Txikikoen Justizia arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua**

Aurreproiektuak, 7. artikuluko e) hizkian jasotzen du neurri honetara jotzeko aukera. Honen arabera, nerabeak izendatu zaion zentrora joan behar du berataz arduratzen diren sendagileek adierazitako maiztasunarekin, eta «*anomalía edo alterazio psikikoa, edari alkohol-dunekiko, droga toxiko edo sustantzia psikotropikoekiko menpekotasuna edo jasaten dituzten pertzepzio-alterazioak behar bezala tratatzeko*» jarraibideak betetzeko. Neurria onartu ezean, Adin txikikoentzako Epaileak haren zertzeladen arabera beste neurri egoki bat ezarri beharko dio. Bestalde, d) hizkian, barrualdi terapeutikoaren aukera jasota dago.

## **8. BARRUALDIA**

### **8.1. Definizioa, modalitateak eta erakunde eskudunak**

Barrualdia da, 4/1992 Legeak jasotzen dituen neurri guztien artetik, eskubideak gehien murrizten dituen, adin penalik gabeko lege-hausleen aurkako prozeduran. Neurri honekin, nerabeak betekizun berezi hori duen heziketa zentro batean bizi behar du Adin txikikoentzako Epaileak egokitzat hartzen duen denboran, baina, beti ere, bi urtez gehienez, gainontzeko neurriekin gertatzen den bezala. Lege-hauste larrien kasuetan aplikatzen da normalean, hau da, indarkeria edo mehatxua erabili denean, edota egindako lege-hausteen maiztasunagatik nerabeari heziketa-gune integral bat ematea komeni denean, haren jokaeraren alor guztietan esku hartu ahal izateko.

Prozeduraren fase desberdinetan aplika daiteke. Poliziak Adin txikikoentzako Fiskaltzari edo, bestelakoan, Goardiako Epaitegiari nerabe bat atxilotu duela jakinarazten dionean, gertatuaren izaeraren eta larritasunaren arabera, prebentziozko atxiloketan edukitzea komeni dela jo daiteke, agintari judizialaren eskumenean egon dadin. Fiskaltzaren iritziz beharrezkoa bada nerabea barrualdian egotea, badaezpadako barrualdia eskatu behar dio Adin txikikoentzako Epaileari. Baldin eta Fiskalak eskatzen duena erregimen itxiko badaezpadako barrualdia bada, eta Epaileak erabaki hori ontzat hartzen badu, neurri honen iraupena ezin izan daiteke ezinbestekoa dena baino handiagoa, eta, nolana ere, gehienez ere hilabeteko epean berretsi edo berraztertu beharra dago. Azkenik, epaile-ebazpen finkoan ere erabaki daiteke barrualdiaren neurria.

Hiru barrualdi modalitate daude: erregimen irekikoa, erdi-irekikoa eta itxikoa. Esandako 4/1992 Legeak ez du inolako definiziorik ematen horiei buruz, eta, orobat, ez du behartzen neurri hori halako ezaugarri jakin batzuk dauzkaten zentroetan betearaztera, baina Estatuan dagoen joera nolabait da bereiztea batetik

zentro itxiak eta, bestetik, erregimen irekiko eta erdi-irekiko neurriak betetzeko erabil daitezkeen zentroak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, egoera oso eskasa izan da oraintsu arte. Izan ere, 1997ko abuztura arte ez zegoen neskentzako zentrorik, halako moldez non neskak gure autonomia erkidegotik kanpoko zentroetara bidali beharra baitzegoen, gehienbat Gaztela-Leon, Katalunia eta Murziakoetara, edo, bestela, erregimen irekiko neurriak izanez gero, babes sarean sarturiko zentroetan barruratzen ziren; horrela, zenbait postu hitzartuta zeuden Casa-Hogar Nuestra Sra. de la Caridad «El Refugio» (Unión Nuestra Señora de la Caridad) delakoarekin, Residencia Juvenil Adoratrices (Religiosas Adoratrices) izenekoarekin eta «Internado de la Inmaculada» (RR. Oblatas del Santísimo Redentor) delakoarekin, Bizkaian egonik hirurak. Esandako urtean Andolluko Heziketa Zentroa ireki zenetik, irtenbidea eman zaio azkenik egoera onartezin horri, berez neskentzako barrualdi zentroa baita, erregimen ireki, erdi-ireki eta itxikoa aldi berean.

Mutilen kasuan, erregimen ireki eta erdi-irekiko barrualdiak Aramaioko Mendixola eta Ortuellako Miguel Ángel Remírez heziketa zentroetan gauzatu dira eta gauzatzen dira oraindik ere. Erregimen itxiko barrualdirako ezaugarri egokiak dauzkan zentrorik ez dagoenez gero, beharrezkoa izaten da beste autonomia erkidego batzuetan daudenetara jotzea (Gaztela-Leon, Katalunia eta Murziakoetara kasu hauetan ere). Gaur egun, egoera hau konpontzeko asmoz, Eusko Jaurlaritz zentro itxi bat eraikitzen ari da Zumarragan.


Barrualdiaren neurria Mendebaleko antolamendu judizial guztietan egon da tradizionalki, erregimen oso desberdinetan bada ere, hainbestenaz non zenbait herrialdetan helduentzako penitentzia-etxeetan sartzera ere iritsi izan baita.

Gaur egun, Europako argitalpenek erakusten dutenez, barrualdien kopurua goraka doa, adituen kezka eraginez, erregimen itxian sortzen diren postuen kopurua ere goraka baitoa. Horren arrazoia normalean da presio sozial eta politiko handia dagoela neurri gogorragoak har daitezzen gazteen gaizkiletzaren aurkako borrokan. Joera hau gero eta argiago antzematen hasi da Europako herri askotan, eta, Josine Junger-Tasen mailako ikerlariek berresten duten bezala, gehiago erantzuten diote komenigarritasun politikoari eraginkortasun beharrari baino, eraginkortasun hori adin txikiko lege-hausleen heziketaren eta bergizarteratzearen ikuspegitik nahiz hiritarren segurtasunarenetik begiratuta.

## **8.2. Aplikazioaren maiztasuna**

Dauden hiru barrualdi modalitateak kontuan hartuz gero, eta alde batera utzita asteburuko barrualdia, era honetako neurriak aplikatzen diren guztietatik %17.5 dira, batez beste, Araban %22.9, Bizkaian %15.2 eta Gipuzkoan %12.0 izanik (33. irudia).

## 16. GRAFIKOA: BARRURATZEKO NEURRIAK NEURRIEN MULTZO OSOAREN ARABERA (1996 eta 1997ko lehen seihilabetea)



Iturria: Vitoria-Gasteiz, Bilbao eta Donostiako Adin Txikiko Epaitegiak. SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak prestatua.

Barrualdi motak bereiztuz gero, proportzioak ondoko hauek dira:

- Barrualdi irekia oso maiztasun gutxiz aplikatzen da. Aztertutako denbora epean, 6 kasu izan dira Araban, 3 Bizkaian eta 1 Gipuzkoan.
- Barrualdi erdi-irekia modalitaterik erabiliena da: kasu guztietatik %17.2tan aplikatzen da Araban, %12.6tan Bizkaian, eta %4an Gipuzkoan.
- Barrualdi itxiko neurriak ere oso gutxitan aplikatzen dira. Horrela, 1996garren urte osoan eta 1997ko lehen seihilabetekoan 3 kasu egon dira Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi bakoitzean<sup>57</sup>.

### 8.3. Eskuhartzearen epeak

Barrualdi irekiko neurrietan, espediente laginak oso eskuhartze-epe desberdinak erakusten ditu lurralde historiko batetik bestera, lege-haustea antzematen denetik hasi eta ebazpena finkoa bilakatzen den arteko denborari dagokionez. Neurri honen iraupena oso aldakorra da, beraz, gutxienez 55 egunetik hasita (Gipuzkoan)

<sup>57</sup> Vitoria-Gasteizko Adin Txikiko Auzitegiko Idazkari Judizialak aditzera eman duenez, hiru barrualdi neurri itxiek bi fase dauzkate: lehenengoa erregimen itxian bete behar dena, eta bigarrena, erregimen erdirekian betetzen dena. Eusko Jaurlaritzak, betetze mailari buruzko estatistiketan bi fase horiek bereiztu egiten ditu (3 neurri erregimen irekian eta 3 neurri erregimen erdirekian). Hortik datoz bi erakundeen estatistiken arteko desberdintasunak.

gehienez 568 egunetaraino (Bizkaian), batez bestekoa 195 egun izanik. Betearazpenaren epeetan, aldiz, aldeak ez dira hain handiak, gutxienez 3 egunetik hasi (Gipuzkoan) eta gehienez 79 egunetara (Arabari) iristen baita, batez bestekoa 32 egun izanik.

Barrualdi erdi-irekiko neurrietan, espediente laginak alde txikiagoak erakusten ditu eskuhartzeen epeei dagokienez. Atxiloketatik hasita ebazpena finkoa bihurtzen den arte igarotzen diren epeak ondoko bi mutur hauen artean mugitzen dira: gutxienez 124 egunetik (Gipuzkoan) gehienez 484 egunetara (Arabari), batez bestekoa 253 egun izanik. Beste alde batetik, betearazpenaren epeak gutxienez 6 egunetik hasi (Gipuzkoan) eta gehienez 251 egunetara (Arabari) iristen dira, batez bestekoa 55 egun izanik.

Barrualdi itxiko neurrietan, alde handi samarrak daude prozedura hasten denetik ebazpen finkoa hartzen den arteko epeei dagokienez: gutxienez 4 egunetik (Gipuzkoan) hasi eta gehienez 257 egunetaraino (Bizkaian), batez bestekoa 184 egun izanik. Bestalde, betearazpenaren epeak gutxienez 4 egunetik hasi (Bizkaian) eta gehienez 90 egunetara (Arabari) iristen dira, batez bestekoa 45 egun izanik.

Epeei dagokienez, beste neurri batzuekin egin den bezalaxe, beharrezkoa da zehaztea Eusko Jaurlaritzak emandako datuek erakusten dutenez Giza Eskubi-deetarako eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak barrualdi-neurrietan erabilitako epeak askoz laburragoak direla lehenago esandakoak baino, baldin eta kontatzen hasten bada Adin txikikoentzako Epaitegiak erakunde horri neurriaren berri jakinarazten dion egunetik. Izan ere, gutxienezko epea 0 egunekoa da hiru Lurraldeetan, eta gehienezkoa 21 egunekoa Bizkaian. Beste alde batetik, batez besteko epea 2 egunekoa den arren, normalean neurriaren betearazpena berehala burutzen da (0 egunetan).

Honek esan nahi du ebazpen finkoa hartzen den egunetik aurrera kontatu beharrekoak diren epeen zabaltasuna kasuan kasuko Adin txikikoentzako Epaitegiak Eusko Jaurlaritzari neurriaren berri jakinarazi baino lehenagoko fase bati dagokiola. Kasuren batean, gainera, atzerapenik ere gertatu da lehenagoko neurri baten bukaerara arte itxaron beharragatik.

#### **8.4. Prozedura eta aplikazio praktikoa**

Adin txikikoen Epaileak barrualdi bat betearaztea erabakitzen duenean, fax eta posta bidez jakinarazten dio erabaki hori Eusko Jaurlaritzari, eta erakunde honek kasu bakoitzari dagokion zentroa izendatzen du gero nerabearen sexuaren eta ezar daitekeen erregimenaren arabera. Kasuaren berezitasunak kontuan izanik, barrualdiaren hasiera berehala erabaki daiteke, edota Epaileari iruditzen zaion arte atzeratu. Orobat gerta daiteke ebazpena ematen den unean nerabeak halako denbora bat eramatea barrualdian, badaezpadako neurri baten aplikazioagatik.



Barrualdien zer-nolakoak ez ditugu hemen berriro zehaztuko, gure Autonomia Erkidegoan dauden hiru zentroyen oinarritzko ebaluaketari buruzko txostenean luze eta zabal azalduta baitaude. Halaber, gure azterlanaren zati horretara jo behar da zentroyen eta Jaurlaritzaren arteko harremanen berri izateko (Jaurlaritza baita neurria betearazteko ahalmena duen erakundea), bai eta Jaurlaritzaren eta Adin txikikoen Epailen artekoen berri izateko ere, kontrol judizialaren betekizunaren barruan.

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzailleen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzailleen kontrako iritziak</b>
<b>Gertaera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mehatxu bidezko lapurreta</li> </ul>		
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heldutasunik ez</li> <li>• Harremanetarako zailtasunak</li> <li>• Maitasun falta</li> </ul>		
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiagune egonkorra</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntasun harremana anai zahararekin (ez da bizi familiagunean)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amaren izaera zorrotz-estua</li> <li>• Harreman gogorrak semeekin</li> </ul>
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berraldi aurreko urteetan eskola huts egiten zuen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berraldi erdi-irekian dagoenetik, erregulartasunez joaten da bertako eskolara, DBH egiten ari delarik. Oraingo ikasketen emaitzak inoiz lortu dituen onenak dira, batez bestekoaren azpitik egonda ere</li> <li>• Irakasleek eta eskolako zuzendariak diote ez dutela ahalegin berezirik egin behar izan gazteaz arduratzeko, eta haren ikas-maila ez dela taldearena baino nabarmenki apalagoa. Haien ustez, jaso zituzten txostenak benetan gertatu den baino negatiboagoak zirela gazte honen kasuan</li> </ul>	
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebasketak</li> </ul>		
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzek honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 4 urte babes zentro batean</li> <li>• Etxerako laguntza zerbitzua, heziketara bideratua</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxerako laguntza zerbitzuan uste dute errakuntza dela gaztea bere familian berrintegratzera bideratzea berraldi-neuria bukatzen denean, berez familiarerikiko arbuioa dagoelako</li> <li>• Etxerako laguntza zerbitzuko hezitzaileetatik nerabearekin eta amarekin harreman gehien izandakoek diotenez, haien iritzia ez diete behin ere eskatu neurriaren aplikazioa bitartean</li> </ul>

	Azalpena	Eskuhartzaileen aldeko iritziak	Eskuhartzaileen kontrako iritziak
<b>Alor judizialaren lehenagoko eskuhartzeak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunitatearen onurarako zerbitzuak eman beharra</li> <li>• Barmaldi erdi-irekia, eta gero haren ordeez zaintzapeko askatasuna, arau-hausterik ez egitearen eta zaintzapeko askatasun plana betetzearen baldintzapean</li> <li>• Bilatu eta harrapatzeko aginduagatik atxilotuta. Epaitegira azaldu ondoren, Ertzaintzak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eramana</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak dio kalabozuan egon dela batzuetan</li> <li>• Nerabeak dio eskuak lotuta izan zituela Autonomia Erkidegotik kanpoko zentrorra garraiatu zuten bitartean</li> <li>• Gaztearen arabera, Epaitegira iritsi zenean, Bulego Judizialeko norbaitek esan zion urtebetez «opometaraz» bidaliko zutela zentrorra</li> </ul>
<b>Atxiloketa</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantalde Teknikoko profesionalak diotenez, elkarriketetan nerabeak jarraera ona azaldu eta erraztasunak eman ditu</li> <li>• Amari buruz ere beste horrenbeste diote</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oso harreman laburak izan ditu prozedura hauetan esku hartu duten abokatuekin</li> <li>• Nerabeak uste du abokatuak ez duela defendatzaile moduan jokatuzen, beti ados dagoela Adin Txikiko Epaileak dioenarekin</li> <li>• Nerabeak beti-beti ez du ulertzen agertzean eta entzutean esaten den guztia</li> <li>• Amak ez ditu ulertzen berme judizialak, adibidez nerabeart esatea bere burua gertatuen egiletzat ez jotzeko eskubidea duela. Uste du horrela gaztea gezurra esatera bultzatzen dutela</li> </ul>
<b>Fiskaltza</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen harremana entzunaldian bertan</li> <li>• Esparru judizialarekiko lehen harremana</li> </ul>	
<b>Lantalde Teknikoa</b>			
<b>Abokatuak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Abokatuak ofizioz izendatuta dago</li> </ul>	
<b>Agertzea-Entzutea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adin Txikiko Epaileak aurkeztu zituen eskuhartzaile guztiak</li> </ul>	

	<b>Azalpena</b>	<b>Eskuhartzailleen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzailleen kontrako iritziak</b>
<b>Neurria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Barmaldi erdi-irekia, hasieran Autonomia Erkidegotik kanpo; gero, trasladoa egin zen (22 hilabete)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantalde Teknikoko profesionalak uste dute hori dela neurririk egokiena, nerabearen jokamoldean izandako bilakaeraren arabera</li> <li>• Beharrezkotzat jotzen dute Autonomia Erkidegora itzulitzea nerabearen famili harremanak sendotzeko</li> </ul>	
<b>Neurriaren betearaztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurria Autonomia Erkidegotik kanpoko zentro batean hasi zen betetzen</li> <li>• Ondoren, EAErako trasladoa egin zen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez zen sartu kontentzio alorrean</li> <li>• Txandan dagoen hezitzaileak zentroko araudia eskuratu zion, elkarbizitza arauak ezagutzera emateko</li> <li>• Zentro berria lehenagokoa baino okerragoa dela uste du hasieran, baina gero alderantziz pentsatzen hasten da, eta gaur egun uste du neurriak on egin diola</li> <li>• Asteburuak familiarekin igarotzen ditu</li> <li>• Haren jokamoldea nabarmenki hobetu egin da</li> <li>• Zentroak famili-eskuhartzera egitarau bat betetzen du, amak semeaz duen irudia hobetzeko helburuaz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ama uzkur ageri da semea urtebete barru zentrotik iriarteari dagokionez</li> <li>• Hasieran, oso gutxitan joaten zen zentrorra bisitak egitera</li> <li>• Oraindik ez ditu ontzat hartzen nerabearen jokamoldean izan diren aldaketak</li> <li>• Kasu honen alderik zailena, familagunerako integrazioa da, nerabearentzat ilusionagarria izanik, familiarentzat kezagarria baita</li> <li>• Eskuhartzaille guztiek uste dute neurriaren iraupena luzeegia dela</li> </ul>

	<b>Eskuhartzaileen aldeko iritziak</b>	<b>Eskuhartzaileen kontrako iritziak</b>
<b>Azalpena</b>		
<b>Gertaera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lapurreta</li> </ul>	
<b>Egoera pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izaera lagunkoia</li> </ul>	
<b>Egoera soziofamiliarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Maila ekonomiko apala</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amarekiko harreman afektibo handia</li> </ul>
<b>Eskola-egoera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola graduatua lortu gabe</li> <li>• Lanbide heziketa hasia du lege-haustea egiten duenean</li> <li>• Gaur egun, Lanbide-Hastapenerako Zentro batera joaten da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amak zurbidea eskaintzen dio</li> <li>• Irakurtzeko arazoak</li> <li>• Desmotibazioa</li> </ul>
<b>Aurrekariak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebasketa</li> <li>• Kalteak</li> </ul>	
<b>Gizarte zerbitzuen eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntza ekonomikoak</li> </ul>	
<b>Ereму judizialeetiko eskuhartzeak honen aurretik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohartarazpenak</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beheko solairuan egongela txiki bat dago, liburutegi eta telebistarekin. Atsegina da, nahiz eta oraindik apaintzen dagoen.</li> <li>• Sukaldea guztiz ekipatuta dago (sukaldea, labea, mikrouhin-labea, hozkailua eta garbigailua), eta sukalde batek normalean dituen altzariak, etxetresna elektrikoak eta gainerako etxeko tresnak ditu, segurtasun-neurririk izan ezik: jatordu bakoitzaren ondoren labanak kontatzen dira, eta tresna eta etxetresna elektriko batzuk ez dituzte erabiltzen uzten. Sukaldea, erabiltzen ez denean, giltzez ixita egoten da.</li> <li>• Beheko solairuan sala txiki bat dago, oso argiztatua, bisita eta bilertarako. Mahaia eta sei aulki ditu. Dekoraziorik ez duenez hotza da. Egongelara okupatuta ez dagoenean, bistak hor ere har daitezke, bilera-gela baino atseginegoa baita.</li> <li>• Erabilera anitzeko tailerraren alboko garbigela bat momentu honetan trasteleku moduan erabiltzen da, horretarako beste lekunik ez dagoelako. Goiko solairuan logelan alboan dagoen bainugela hirukoitzak hiru konketa, hiru komun eta hiru dutxa jarraitu ditu. Segurtasun-arrazoiengatik, ez bainugelara sartzeko atea ez komunitateko atea ere ez dute barruko kisketanik. Horrela, bada, nerabeen pribatasuna bermatzeko, arau moduan dute bainugelak okupatuta ez daudenean atea erdi zabalik edukitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeak olgeta eta aisia-gelak ditu (ludoteka-gela eta ping-pong gela); handiak dira, erabiltzaileek aldi berean eta elkarki enbarazurik egin gabe ekintza desberdinak egin ahal izateko modukoak. Nerabeak gela horietan pozik daude, baina kanpoaldeko kirol-gunerak argi gehiago eskatzen dute.</li> <li>• Horretaz gain, zurgintza-tailerra, erabilera anitzeko tailerra eta banako programaren esparruan aurrekustitako bilera-egiteko gela daude.</li> <li>• Hezitzaileek hainbat bulego dute, eta nerabeak ezin dira bertara sartu.</li> <li>• Sukaldea guztiz ekipatuta dago. 20 metro karratu inguruko gela da eta despentsa handi bat du. Nor-maiean erabiltzen diren etxetresna elektrikoak ditu eta origi zainduak daude. Sukaldea industrial horietakoa da. Segurtasun-arrazoiengatik, armairua ixita egoten da; sukaldariak eta txandako hezitzaile arduradunak jatordu bakoitzaren ondoren mahaia-tresnak kontatzen dituzte. Nerabeek ez dute janariarik prestatzen, jardueraren baten parte ez bada. Etxetresna elektrikorik ere ez dute erabiltzen.</li> <li>• Garbitegian bi garbigailu eta lehorgailu bat daude. Kutxa izoztzaile bat ere ipini dute.</li> <li>• Goiko solairuan zabalik dagoen gune bat dago, mendirra ematen duen leihate handi batekin, eta logelak daude bi hegalki harrera dituzte. Bertan besaulkiak erabiltzen da. Eragozpena zabalik dagoela da eta horrek topaketan pribatasuna mugatzen du; dena den, bistak antolatzen direnean (larunbateretan izaten dira) asteburuan ikastetxean gelditzen diren nerabeak jardueretan okupatuta egin daitezten saiatzen da, bisitetan etenaldirik edo arazorik ez sortzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Instalazioen itxura, oro har, ez da oso atsegina, besteak beste, materialengatik (solairu batean baldosa) eta oso gutxi apaindua dagoelako.</li> <li>• Altxariak oso erabiltzak daudela ematen dute eta zenbait lekutan ez daude egoera onean.</li> <li>• Eraikineraren azkeneko solairuan jangela eta egongela espazio berean daude, sukaldearen alboan. Txapitularako gela da, eta jantokia dagoen lekuan egurrezko mahaia luzea eta eserleku korrituak daude eta aisia-jardueretarako lekuan, berriz, besaulki batzuk, liburutegi txiki bat eta telebista. Aldi berean ekintza desberdinak egiteko moduko beste gelarik ez dago; egoera hori pixkat arintzeko, erabiltzaileei beren logeletan irakurtzea edo musika entzutea uzten zale. Obrak egin ondoren, gimnasia gela erabilera anitzeko olgeta-gela moduan erabiliko da.</li> <li>• Zurgintza-tailerra, sotoan dagoela, oso handia da; jarduerak egiteko makinak ditu eta ikastetxean bizi ez diren nerabeen eta gazteen heziketarako bideratua dago. Caur egun ez da erabiltzen, hiru erabiltzaileak dagoeneko komunitate-inguruneko hezkuntza eta heziketa-jardueretan sartuta baitaude. Edonola ere, egituren egoera, bereziki tailerraren sarrerako sabaiak, estetikoki ez da bat ere egokia eta apur bat arriskutsua ere ematen du.</li> <li>• Beheko solairuan dagoen irakasgela, obra-lanetan zebiltzan gremioetako profesionalak okupatuta zuten; hortaz, ebaluazio-egunean ezin izan ziren ezaugarriak berezi.</li> </ul>



<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi telefono daude eta, horien bidez, nerabeek pribatua kanpora deitu dezakete, baina aldez aurretik baimena eskatu behar dute. Deiak nerabe bakoitzaren barrualdi-fasearen arabera programatuta daude. Azkeneko barrualdi-fasean daudenean, nahi duten beste dei egiten uzten zaie, eta ezarritako gehiengo gairiditzen duten deien zentzuetan beratek ordaintzen dute. Dena den, telefonoaren monopolioa eragozteko txandak errespetatu behar dituzte. Telefonoak bisita-gelan eta telebista-gelan daude.</li> <li>• Ez dago mantenimendu-planik. Konponketa txikiren bat egin behar denean, ikastetxea arduratzen da eta gero Eusko Jaurlaritzari faktura bidaltzen dio. Momenturen batean berritze-lanak egitea beharrezkotzat jotzen bada, Jaurlaritza bera da erabakitzeaz, aldaiketak diseinatzeaz eta gauzatzeaz arduratu behariko dena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi bainugela hirukoitzak logelaren alboan daude, eta bakoitzean hiru konketa, hiru komun eta hiru dutxa jarraitu daude. Segurtasun-arrazoiengatik, ez bainugelara sartzeko atek ez komunetako atek ere ez dute barruko kisketarik. Horrela, bada, nerabeen pribatutasuna bermatzeko, arau moduan dute bainugelak okupatuta ez daudenean atek erdi zabalki edukitzea. profesionalek eta nerabeek diotenez, arau hori errespetatu egiten da.</li> <li>• Telefonoa dago erabiltzaileek pribatua kanpora deitu ahal izan dezaten, aldez aurretik baimena eskatuta eta beti ere nerabeek, barrualdi-fasearen arabera, dagokien dei-kopurua kontuan hartuta. nahiz eta, praktikan, elkartzaketan enbarazurik ez egin, telefonoa pasabidean dago eta, beraz, pribatua hitz egiterik ez dago.</li> <li>• Ez dago mantenimendu-planik. Konponketa txikiren bat egin behar denean, ikastetxea arduratzen da eta gero Eusko Jaurlaritzari faktura bidaltzen dio. Momenturen batean berritze-lanak egitea beharrezkotzat jotzen bada, Jaurlaritza bera da erabakitzeaz, aldaiketak diseinatzeaz eta gauzatzeaz arduratu behariko dena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beheko solairuan hiru bulegoak ere daude: zuzendariaren bulegoa, koordinatzailearena, eta beste bi hezitzailearen bulego bikoitza. Txikiak dira baina espazientzialki segurtasunez eta sekretupean gordetzeko moduko agiritegiak dituzte eta irispidea mugatua da.</li> <li>• Gela bat dago, nerabeak bisitekin pribatua egon ahal izan daitezten. Gela hori beheko solairuan dago, sareraren eta bulegoen alboan. Angeluzuzeneko mahai bat dago, nahiko handia, inguruak aukeratzeko dituen; apalategi bat ere dago, nagusiki ikastetxeko hezitzaileek erabiltzen dituzten era askotako agiritekin. Altzariak eta dekorazio urria direla-eta, ez da oso gela atsegina, eta ez dirudi dituen funtzioak betetzeko dagoenik. Ikastetxea nerabeak erregimen zabalean hartzea bideratua dagoenez gero, praktikan, nerabeen eta familiakoek topagunea kanpoaldean izaten da; hala ere, barrualdiaren lehenengo urratsetan familiak harremanak errazteko, beharrezkotzat jotzen da ezaugarri horietako etxe batek bisita gela egokia izatea.</li> <li>• Sukaldea, goiko solairuan dagoela, guztiz ekipatuta dago, normalean erabiltzen diren etxetresna elektrikoekin, eta ongi zainduta dago. Segurtasun-arrazoiengatik, armairua itxita egoten da; sukaldariak eta txandako hezitzaile arduradunak jatordu bakoitzaren ondoren mahai-tresnak kontatzen dituzte. Nerabeek ez dute janaririk prestatzen, jardueraren baten parte ez bada. Etxetresna elektrikoekin ere ez dute erabiltzen.</li> <li>• Beheko solairuan garbitegi txiki bat dago, garbigailu eta lehorgailu batekin.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lau solairuetan bainugelak daude: bizitzeko solairuan bi bainugela, eta goiko solairuan, behekoan -bulegoelatik eta irakasgelatik gertu- eta tailerren gabigela bana. Ebaluazio-egunean, ezin izan zen bizitzeko guneko bainugelen itxura oso-osoa hauteman; izan ere, ikastetxeko zuzendariak esan zuenez, berritatzelanean zehar gremioetako profesionalak nahastu egin ziren eta burdinezko behatxuloak zituzten bi euste-geletako ate zaharrak jarri zituzten. Seguritasun-arrazoiengatik, ez bainugelara sartzeko ateek ez komunetako ateek ere ez dute barruko kisketarik. Horrela, bada, nerabeen pribatutasuna bermatzeko, arau moduan dute bainugelak okupatuta ez daudenean ateek erdi zabalik edukitzea.</li> <li>• Telefonoa dago erabiltzaileek pribatua kanpora deitu ahal izan dezaten, aldez aurretik baimena eskatuta eta beti ere nerabeei, barrualdi-fasearen arabera, dagokien dei-kourua kontuan hartuta. Nahiz eta, praktikan, elkarriketetan enbarazurik ez egin, telefonoa jangongelara dago eta, beraz, pribatua hitz egiterik ez dago.</li> <li>• Ez dago mantenimendu-planik. Konponketa txikiren bat egin behar denean, ikastetxea arduratzen da eta gero Eusko Jaurlaritzari faktura bidaltzen dio. Momenturen batean berritze-lanak egitea beharrezkozat jotzen bada, Jaurlaritza bera da erabakitzeaz, aldatketak diseinatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen dena.</li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>3. Bakarka erabiltzeko espazioak</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeentzako 5 banako logela eta logela bikoitz bat daude. Ebaluazio-egunean banakako logeletatik hiru okupatuta zeuden. Gaueko txanda egiten duen hezitzaileentzat ez dago logelarik, hezitzaileak gauetz zainzte eta programatze-funtzioak bete behar dituela ulertzen baita.</li> <li>• Logela guztiak kanpoaldera ematen dute, eta hamabi metro karratu inguru dute. Ohean, hiru tiraderako idazmahala, aulkia eta armairua dituzte. Armairuek ez dute aterik eta barruan apalak dituzte, arropa zintzilik ipini beharrean tolestuta jartzeko. Idazmahaietako tiraderak ezin dira giltzez itxi, segurtasun-arraioengatik baliozko edo gainerako gauza pertsonalak, baimenduak izan ezik, hezitzaileen bulegoan gorde behar baitira (eskumuturrekoak, etab.). Gauza horiek nerabeek berek apaintzen dituzten kubetan gordetzen dira. Barmaldi-fasearen arabera, logelak beren gustora jar ditzakete. Argazkiak, hormiudiak, etab. dituzte. Logelek itxura atsegina dute.</li> <li>• Segurtasun-arraioengatik, logela bakoitzera sartzeko atek behar izan dira. Hezitzaileek eta nerabeek ditonez, gaur egun ez dira beharxuloak erabiltzen. Kontrol-modu honetara hartara bultzatzen duen arazo larriren bat gertatuz gero jotzen da.</li> <li>• Logelak goizero aireztatzen dira, nerabeak gosaltzera jeisten direnean edo hezkuntza-eginkizumekin hasten ditenean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeentzako 4 banako logela eta 5 logela bikoitz daude. Alboan gaueko txanda egiten duen hezitzaileentzako logela dago. Logelak bi hegaletan daude, bisita-gela moduan erabiltzen den erdiko espazio baten bidez komunikatuta.</li> <li>• Logeletan kanpoaldera ematen duen leihoa dago baina leihoek burdinesiak dituzte.</li> <li>• Logelen azalera hamarretik hamabost metro karratu ingurura bitartekoa da, banakoak edo bikoitzak zer diren kontu. Ohean, plastikozko eseki-gailuak eta tiraderak dituen armairua, aulkia eta mahaita dituzte. Tiraderak ezin dira giltzez itxi, segurtasun-arraioengatik baliozko edo gainerako gauza pertsonalak, baimenduak izan ezik, hezitzaileen bulegoan gorde behar baitira. Logelak apaindu ditzakete, gehienez ere hiru hormiudirekin. Aukera hori obligazioak betetz eskuratu behar den pribilegioa da. Ebaluazio-egunean logela gehienek apaindura gutxi zuten. Oro har itxura soila dute, gehienbat altzariengatik, zaharrak baitira.</li> <li>• Pribatutasun-eskubidea errespetatzeko, logela bakoitzera sartzeko atek ez dute beharxulorik.</li> <li>• Logelak goizero aireztatzen dira.</li> <li>• Logelen argiztapena kanpoko panel elektriko komun batetik kontrolatzen da, eta berori manipulatzera hezitzaileak soilik joan daitezke.</li> <li>• Logeletan ez dago txirrnik, nerabeek, behar izanez gero, hezitzaileari deitzeko.</li> <li>• Tarte libreetan ere logelak erabil ditzakete.</li> <li>• Gauetz logelak ez dira giltzez ixten, salbuespen-kasuetan atek bai ixten dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzaileentzako 5 logela daude, 2 banako eta 3 bikoitz. Bigarren solairuan daude, eta alboan gaueko txanda egiten duen hezitzaileentzako logela dago.</li> <li>• Logela guztiak kanpoaldera ematen dute; berriztatzean leihoak aldatuko dira, baina ez dago burdinesiak kentzerari buruzko berririk.</li> <li>• Logelen azalera zortziatik hamar metro karratu ingurura bitartekoa da, banakoak edo bikoitzak zer diren kontu, oso espazio txikia gutxienezko altzariak ipintzeko: ohe bat edo bi, armairua, eta idazmahai bat edo bi, aulkietan. Altzariak egurrezkoak dira, lehenago bertan bizitako batzuek zurgintza-tailerrean eginak. Tiraderak ezin dira giltzez itxi, segurtasun-arraioengatik baliozko edo gainerako gauza pertsonalak, baimenduak izan ezik, hezitzaileen bulegoan gorde behar baitira. Logelak apaindu ditzakete, gehienez ere hiru hormiudirekin. Aukera hori obligazioak betetz eskuratu behar den pribilegioa da. Ebaluazio-egunean okupatutako logela gehienek apaindura gutxi zuten.</li> <li>• Pribatutasun-eskubidea errespetatzeko, logela bakoitzera sartzeko atek ez dute beharxulorik.</li> <li>• Logelak goizero aireztatzen dira.</li> <li>• Logeletan elektrizitate-etengailua bana dago.</li> <li>• Logelak ez dute txirrnik, nerabeek, behar izanez gero, hezitzaileari deitzeko.</li> <li>• Tarte libreetan ere logelak erabil ditzakete.</li> <li>• Gauetz logelak ez dira giltzez ixten, salbuespen-kasuetan izan ezlik. Aldiz, bizitzeko gunera sartzeko atea bai ixten da.</li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Logelen argiztapena kampakoko panel elektriko komun batetik kontrolatzen da, eta berori manipulatzera hezitzaileak soilik joan daitezke. Logela balkoitzean txirrina dago, nerabeek, behar izanez gero, hezitzaileari deitzeko.</li> <li>• Egunez logelen erabilera mugatua da. Horieta ikasteko edo gairorik edo zigortuta badaude baino ezin dira egon.</li> <li>• Gauzez ataez ez dira giltzez ixten, salbuespen-kasuetan izan ezik, behin eta berriro gauzez baimenik gabe iritzeko debekua betetzen ez denean.</li> <li>• Nerabeentzat logelak beren espazio pertsonalak dira, eta beren pribatutasuna errespetatzen dela diote.</li> <li>• Bainugeletan segurtasun-arrazoiengatik ez dago barruko kisketarik, baina nerabeek diote ataez zabalik ez badaude inor ez dela sartzen. Izan ere, hezkuntza-programaren puntu bat komuna erabiltzean atea ixterea ohitzea da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeek bizi diren inguruneari buruzko iritzi ona dute, eta haien zat logelak beren espazio pertsonalak dira. Beren pribatutasuna errespetatzen dela diote.</li> <li>• Segurtasun-arrazoiengatik bainugelek eta komunek ez dute barruko kisketarik. Ate bat itxita dagoenean, normalena okupatuta dagoela pentsatzea da. Atrua errespetatu egiten da. Duxkak jarraituak dira eta, beraz, ez dago inimitatean duxtzatzenik.</li> <li>• Euste-modulu bat dago eta bertan bi banako gela, bainugela oso bat eta hall bat dago. Modulu horretako bi gela horietan ez dago altzaririk, ezta lehorik ere. Hormak insonorizatuak daude eta ataez behatutua dauka. Ohea portlanezko egituraren parte da eta koltxoia eta izarak gauzez baino ez dira ematen. Hezkuntza-proiektuaren arabera, iraupen gutxiko larrialdi-kasuetan, modulu honek bi toki eskaini ditzake, esate baterako, Euskal Autonomi Erkidegotik kampakoko ikastetxeetan dauden nerabeak epailaren aurrean deklaratzera datozenean, nerabeak zentruz aldatzeko zain daudenean edo gauzez atxilotzen dituztenean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeek bizi diren inguruneari buruzko iritzi ona dute, logelak beren espazio pertsonalak dira, eta beren pribatutasuna errespetatzen dela diote.</li> <li>• Segurtasun-arrazoiengatik bainugelek eta komunek ez dute barruko kisketarik. Ate bat itxita dagoenean, normalena okupatuta dagoela pentsatzea da. Atrua errespetatu egiten da.</li> <li>• Bizitzeko gunea berritzi ondoren, bertako banako logela bat euste-lanetarako erabiliko da. Logela horrek leihoa du eta funtzio hornetarako egokituak da.</li> </ul>
<b>Larrialdietarako sistemak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nahiz eta nerabeek ikastetxean seguru sentitzen direla esan, ez dituzte larrialdietan aplikagarriak diren prozedurak ezagutzen.</li> <li>• Pertsonalekoei ez zaizkie larrialdietan jarraitu beharreko prozedurak irakatsi.</li> <li>• Beharrezko suitzalgiak daude, ongi funtzionatzen dutenak eta hornitara heltzeko eta ikusteko moduko tokietan kokatuak.</li> <li>• Sua hartzeko arrisku gehien duten altzarietako materialak (koltxoiak, besaulkiak, etab.) sukontrakkoak dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzaileek ikastetxean seguru sentitzen direla diote, baina egia esan ez dituzte larrialdietan jarraitu beharreko prozedurak ezagutzen.</li> <li>• Pertsonalekoei ere ez dituzte gai honi buruzko arauak ezagutzen, ezta ikastetxetik irten behar izanez gero zer egin behar duten ere. Ebaluatzaileen iritziz hori arazo bat da, ikastetxean barrunbe asko baitago eta egiturak laberinto itxura baitauala. Koordinatzaileak esan duenez, sute-kasuetarako irtele-simulazio bat egitea aurreikusita dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzaileek ikastetxean seguru sentitzen direla diote, baina egia esan ez dituzte larrialdietan jarraitu beharreko prozedurak ezagutzen. Pertsonalekoei ere ez dituzte gai honi buruzko arauak ezagutzen, ezta ikastetxetik irten behar izanez gero, zer egin behar duten ere. Koordinatzaileak esan duenez, sute-kasuetarako irtele-simulazio bat egitea aurreikusita dute.</li> <li>• Tailerretan, bulegoak dauden tokian eta sukaldlean suitzalgiak daude. Bizitzeko solairuan suitzalgiak hezitzailearen logelan dago, bertara heltzea zailagoa izanik.</li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Sua hartzeko arrisku gehien duten altzarietako materialak (koltxoiak, besaulkiak, etab.) sukontrakoak dira.</li> <li>Ez dago ke-detekttagailurik.</li> <li>Ez dago sute-kasuetan zer egin behar den esaten duen kartelik.</li> <li>Ez dago inolako sistemarik, bozgorailu edo txirrin bidezkorrik, ikastetxean daudenei berehala edozein arriskuz ohartaraz dakiekeen.</li> <li>Sendagaia giltzez ixitako armairu batean gordeta daude, nerabeen eskuetatik urrun. Sendagaia ematea txandako hezitzailearen ardura da.</li> <li>Janariak egitean garbitasun eta segurtasun-neurriak errespetatzen dira. Eginbizun horietaz arduratzen denak elikagaiak maneiatzeko txartela dauka.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beharrezko suitzalgailluak daude, ongi funtzionatzen dutenak eta horietara heltzeko eta ikusteko moduko tokietan kokatuak.</li> <li>Sua hartzeko arrisku gehien duten altzariak (koltxoiak, besaulkiak, etab.) ez dira sukontrakoak.</li> <li>Ez dago ke-detekttagailurik leku aproposetan.</li> <li>Ez dago sute-kasuetan zer egin behar den esaten duen kartelik.</li> <li>Ez dago inolako sistemarik, bozgorailu edo txirrin bidezkorrik, esaterako, ikastetxean dauden guztiei berehala edozein arriskuz ohartaraz dakiekeen.</li> <li>Sendagaia giltzez ixitako armairu batean gordeta daude, nerabeen eskuetatik urrun. Sendagaia ematea txandako hezitzailearen ardura da.</li> <li>Janariak egitean garbitasun eta segurtasun-neurriak errespetatzen dira. Eginbizun horietaz arduratzen denak elikagaiak maneiatzeko txartela dauka.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sua hartzeko arrisku gehien duten altzariak (koltxoiak, besaulkiak, etab.) ez dira sukontrakoak.</li> <li>Ez dago ke-detekttagailurik leku aproposetan.</li> <li>Ez dago sute-kasuetan zer egin behar den esaten duen kartelik.</li> <li>Ez dago inolako sistemarik, bozgorailu edo txirrin bidezkorrik, ikastetxean dauden guztiei berehala edozein arriskuz ohartaraz dakiekeen.</li> <li>Sendagaia giltzez ixitako armairu batean gordeta daude, nerabeen eskuetatik urrun. Sendagaia ematea txandako hezitzailearen ardura da.</li> <li>Janariak egitean garbitasun eta segurtasun-neurriak errespetatzen dira. Eginbizun horietaz arduratzen denak elikagaiak maneiatzeko txartela dauka.</li> </ul>
<b>Segurtasun-sistemak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxean sartzen direnak horretarako behar bezalako baimena dute. Sarrera burdinsare batetik egiten da eta horren irekiera ikastetxe barrutik kontrolatzen da; irekigailua dagoen tokitik ez dago bisitaria ikusterik.</li> <li>Susmorik egonez gero, bisitei ikastetxera sartzean patritketan edo boltsetan dutena erakusteko eskatzen zale.</li> <li>Lehenengo bisita hezitzaile baten aurrean egiten da beti. Pixkanaka eta kasu bakoitzaren garapenaren arabera, kontrol hori kentzen joaten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxean sartzen direnek horretarako behar bezalako baimena dute. Mendixolan karpoko burdinsare batetik sartzen dira, eta ez dago barrutik irekitzeko sistema automatikorik. M.A. Remírezen, berriz, zuzenean ate nagusitik sartzen da (ez dago sartzeko burdinsarenik). Bisitak ikastetxera debekatutako gauza edo substantziaren bat sartzen saia daitezkeela sumatzen bada, gauza pertsonalak erakusteko eskatzen zale.</li> <li>Lehenengo bisita hezitzaile baten aurrean egiten da beti. Pixkanaka eta kasu bakoitzaren garapenaren arabera, kontrol hori kentzen joaten da.</li> <li>Erabilzaileak kanpora irten ondoren ikastetxera bueltatzen direnean, dakartzaten gauza guztiak entregatu behar dituzte eta arropa arakutzen zale.</li> <li>Nerabeek ikastetxera debekatutako gauza edo substantziaren bat sartzea lortu dutela sumatzen bada, logelak eta ezkutaleku moduan erabili izan ditzaleten gainerako espazioak arakutzen dituzte.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxean sartzen direnak horretarako behar bezalako baimena dute. Mendixolan karpoko burdinsare batetik sartzen dira, eta ez dago barrutik irekitzeko sistema automatikorik. M.A. Remírezen, berriz, zuzenean ate nagusitik sartzen da (ez dago sartzeko burdinsarenik). Bisitak ikastetxera debekatutako gauza edo substantziaren bat sartzen saia daitezkeela sumatzen bada, gauza pertsonalak erakusteko eskatzen zale.</li> <li>Lehenengo bisita hezitzaile baten aurrean egiten da beti. Pixkanaka eta kasu bakoitzaren garapenaren arabera, kontrol hori kentzen joaten da.</li> <li>Erabilzaileak kanpora irten ondoren ikastetxera bueltatzen direnean, dakartzaten gauza guztiak entregatu behar dituzte eta arropa arakutzen zale.</li> <li>Nerabeek ikastetxera debekatutako gauza edo substantziaren bat sartzea lortu dutela sumatzen bada, logelak eta ezkutaleku moduan erabili izan ditzaleten gainerako espazioak arakutzen dituzte.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>Nerabeak kanpora irten ondoren ikastetxera bueltatzen direnean honako kontrol hau burutzen da: emakumezko hezitzaile baten aurrean, arropak kendu behar dituzte, barruko arropekin geldituz, eta logelari beraiantzat prest dituzten beste janzki batzuk ipini; hezitzaileak, ordutan, kendu berri dituzten arropetan ikasitxearan debekatutako gauza edo substantzianik ote dagoen kontrolatzen du.</li> <li>Nerabeek ikastetxera debekatutako gauza edo substantzian bat sartzea lortu dutela susmatzen bada, logelak eta ezkutaleku moduan erabili izan ditzaketen gainerako espazioak arakatzeko dituzte.</li> </ul>		
<b>B. PERTSONALA</b>		
<b>1. Plantilaren egokitasuna</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza-proiektuan aurreikusitako plantila hurrengoa da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinatzailea</li> <li>- Zuzendari pedagogikoa</li> <li>- Gizarte-langilea</li> <li>- Psikologoa</li> <li>- 2 hezitzaile (horien artean, gaueko 2 hezitzaile eta etxeko lanez arduratzen den pertsona bat)</li> </ul> </li> <li>Ebaluazio-egunean hiru lanpostu husik zeuden. Orduetik, jakin da horietako lanpostu bat jitoa izatearen berezitasuna duen hezitzaile batek hartu duela, eta horrek gehiago bermatzen du nortasun soziokulturala errespetatuko dela.</li> <li>12 lanpostu lanegun osokoak dira eta beste 3 lanegun partzialekoak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza-proiektuan aurreikusitako plantila hurrengoa da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendari pedagogikoa</li> <li>- Hezitzaile koordinatzailea</li> <li>- Hezitzaile gainbegiratzailea</li> <li>- Irakaslea</li> <li>- Tailerretako hezitzailea</li> <li>- Famili hezitzailea</li> <li>- 3 hezitzaile/sustatzaile</li> <li>- Hezitzaile tutorea</li> <li>- 4 hezitzaile zaindari</li> <li>- 2 gaueko hezitzaile</li> <li>- Sukaldaria</li> <li>- Garbitasun-arduraduna</li> </ul> </li> <li>Lanpostu horiek guztiak okupatuta daude, gaueko hezitzaileena izan ezik.</li> <li>Lanpostu guztiak lanegun osokoak dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plantila 15 profesionalak eratua dago: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendari pedagogikoa</li> <li>- Hezitzaile koordinatzailea</li> <li>- Gainbegiratzailea</li> <li>- Irakaslea</li> <li>- Tailerretako hezitzailea</li> <li>- Famili hezitzailea</li> <li>- Hezitzaile tutorea</li> <li>- 3 hezitzaile/sustatzaile</li> <li>- 4 hezitzaile zaindari</li> <li>- Sukaldaria</li> </ul> </li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sexuen proportzio ona mantentzen da: 15 hezitzailetatik 7 emakumeak dira eta 8 gizonak. Ikastetxearen funtzionamendua eraentzen duen organigraman txanda guztietan emakumezkoak egotea bermatzen du.</li> <li>• Txanda finkoko sistema dago, hezitzaileak ikastetxean aste-tarte berean egon daitezken; izan ere, normal-garnigotzat jotzen da nerabeez txandan nor eta zehin jarduerarako dagoen jakitea, eta hezitzaileak beti jarduera bera burutzea. Ikastetxeko koordinatzaileak izan ezik, horrek lanegun zatibituan egiten baitu lan, taldeko gainerako kideek lanegun jarraituan egiten dute lan, goizez (7:00etatik 16:00etara), arratsaldez (16:00etatik 24:00 etara) edo gauez (23:00etatik 7:00etara), eta momentu guztietan hezitzailea egotea bermatzen da. Aparteko kasuetan txanda horiek gora-beheren arabera alda daitezke (hezitzaileen bajak, nerabe-kopurua, gatazka-maila, fase bakoitzeko erabilzaile-proportzioa, samera berriak, etab.).</li> <li>• Plantilaren egituraketari eta txanda-sistemari esker une orotan zerbitzuaren beharrak estaltzen dira eta eskaintzen den lan-ordutegi egokia da. Era berean, aukera ematen da koordinazio-bilerak egiteko, nerabeekin banaka lan egiteko, bisitei harrera egiteko eta bisitak gainbegiratzeko, txostenak egiteko eta segurtasun-neurriak aplikatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Europako literatura espezializatuan aldarrikatzen dena kontuan hartuta, ez dago sexu-proportzio egokirik: 18 profesionaletatik lau baino ez dira emakumeak, eta lau horietatik hezkuntza-funtzioak bik soilik burutzen dituzte. Arduradunek desoreka hori azaltzeko, erabilzaileak ere gizonzkoak direla diote, eta egokia dela behar izanez gero, neraberen bati fisikoki eusteko gai diren langileak izatea.</li> <li>• Ezarritako txanda-sistemak momentu guztietan gutxienez bi profesional egotea bermatzen du. Arratsaldeko betatik aurrera, horietako bat gaueko hezitzailea izaten da.</li> <li>• Plantilaren egituraketari eta txanda-sistemari esker une orotan zerbitzuaren beharrak estaltzen dira eta eskaintzen den lan-ordutegia egokia da. Era berean, aukera ematen da koordinazio-bilerak egiteko, nerabeekin banaka lan egiteko, bisitei harrera egiteko eta bisitak gainbegiratzeko, txostenak egiteko, espedienteak eguneratzeko, segurtasun-neurriak aplikatzeko eta langileak trebatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 15 profisionalek egun osoz egiten dute lan, eta horietako lanpostu bat ere ez dago hutsik, ikastetxeak 1997 urteari buruz emandako datuen arabera. 1998rako ere gauza bera aurreikusten da. Ebaluazio-egunean, aldiz, egiten ari ziren obrak zirela-eta, eta etxean jende gutxi zegoelako, langile batzuk ez zeuden zuzenean nerabeekin lan egiten, esaterako, tailerreko arduraduna. Hala ere, zuzendariek esan zuenez, aldi horretan profesional horren eginkizumak, besteak beste, programatzea eta materialeak berrikustea ziren, eta bere lan-baldintzak ez dira aldatzen.</li> <li>• Lanpostu horiek guztiak okupatuta daude, gaueko hezitzaileena izan ezik.</li> <li>• Lanpostu guztiak lanegun osokoak dira.</li> <li>• Ezarritako txanda-sistemak momentu guztietan gutxienez bi profesional egotea bermatzen du. Hala ere, ebaluazioa egin zenean, jende gutxi zegoenez eta ikastetxeko hiru erabilzaileak hezkuntza-proiektuko fase aurreratuan zeudenez, gauez hezitzaile bat besterik ez zen gelditzen.</li> <li>• Europako literatura espezializatuan aldarrikatzen dena kontuan hartuta, ez dago sexu-proportzio egokirik: 15 profesionaletatik hiru baino ez dira emakumeak. Zalantzarik gabe, horren arrazola da erabilzaileak ere gizonzkoak direla eta egokia dela behar izanez gero, neraberen bati fisikoki eusteko gai diren langileak izatea. Dena den, oso emakume gutxi daude.</li> <li>• Plantilaren egituraketari eta txanda-sistemari esker une orotan zerbitzuaren beharrak estaltzen dira eta eskaintzen den lan-ordutegi egokia da. Era berean, aukera ematen da koordinazio-bilerak egiteko, nerabeekin banaka lan egiteko, bisitei harrera egiteko eta bisitak gainbegiratzeko, txostenak mantendu eta eguneratzeko, segurtasun-neurriak aplikatzeko eta pertsonala trebatzeko.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p align="center"><b>2. Pertsonala kontratatzea, aukeratzea eta kontrolatzea</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Langileak kontratatzeaz Talde Teknikoa arduratzen da. Talde Tekniko hori Koordinatzaileak, Zuzendari Pedagogikoak eta Gizarte-Langileak eratzen dute, eta horien gainbegiratzailea Gaztaroan Ekin Elkarteke Batzordea da. Aukeraketa curriculumaren eta elkartzketaren arabera egiten da. Kontratazioaren arduraduna Eusko Jaurilaritza da, baina ez du prozesuan esku hartzen. Bere esku-hartze bakarra hezkuntza-proiektuaren hasierako hezkuntza-proiektuaren hasierako onarpena izan da, bertan profesionalen taldearen ezaugarriak zehazten direla.</li> <li>Kontratu eta berehala, hilabeteko frogaldia hasten da. Frogaldi horretan zehar kontratatu berriak 15 eguneko esperientziadun profesional baten laguntzarekin egiten du lan, jarduera guztietan parte hartuz, baitalabide guztietara ohi dadin.</li> <li>Erabiltzaileak langileekin seguru sentitzen dira, emakumeekin kontziantza gehiago dutela argi eta garbi esan arren. Jakin izan denez, hezitzaile ijitoa sartu berri izana nerabeen beharretarako egokia izan da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Langileak kontratatzeaz zuzendaria arduratzen da eta horretarako ondorengo puntuetan oinarritzen da: curriculum, lehendabiziko elkartziketa, froga edo harrera-aldia, lau arreta-esparruren inguruko lana, eta aurkezgutako lanean oinarritutako bigarren elkartziketa. Horren aurrean, langilea kontratatzen da edo beste harrera-aldi bat proposatzen zaio. Kontratazio-prozedura kontratazio-pribatuaren arauekin bat dator, eta Eusko Jaurilaritza, kontratazioaren arduraduna den arren, ez du prozesuan esku hartzen. Bere esku-hartze bakarra hezkuntza-proiektuaren hasierako onarpena da, bertan profesionalen taldearen ezaugarriak zehazten direla.</li> <li>Aurrean esandakotik ondoriozta daitekeenez, frogaldia kasu bakoitzaren arabera da. Hala ere, kasu guztietan, kontratatu berriak 15 eguneko esperientziadun profesional baten laguntzarekin egiten du lan.</li> <li>Nerabeek langile guztiekin seguru sentitzen direla diote, nahiz eta, normala denez, lehentasunak dituzten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeko plantila osatzen duten 14 profesionaletatik 7k betetzen dituzten funtzioekin lotutako ikasketak dituzte: 3 pedagogian lizentziatuak dira, 2 psikologian lizentziatuak, 1 magisteritzan diplomatuak eta besteak hezitzaileak da. Gainerako profesionalek ez dute ikasketarik.</li> </ul>
<p align="center"><b>3. Pertsonalaren trebakuntza</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezitzaile guztiek lanpostuarekin lotutako ikasketak dituzte: 6k adin txikiko arau-hauleen egoitza-arretan esperientzia dute eta beste 11ek umeen gizarte-arretan.</li> <li>Ez dago trebatze-plan jarraiturik, ez Elkartearen, ezta Eusko Jaurilaritza ere, baina urteko lanorduetatik 40 trebatze-ikastarotarako erreserbatzeko aukeraren penetsatu da. Garrantzi handia ematen zaio eguneroko arreta-lanean eta pertsonalaren bileretan ikasitakoari.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Profesionaletatik hamariek betetzen dituzten funtzioekin lotutako ikasketak dituzte, eta gainerako bostek ez dute ikasketarik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Profesionaletatik hamariek betetzen dituzten funtzioekin lotutako ikasketak dituzte, eta gainerako bostek ez dute ikasketarik.</li> </ul>



<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasieran kontratatu berriak ikastetxearen filosofian, gidalerroetan, prozeduretan eta jarduera profesio-naletan trebatzen dituzte. Hurrengo puntu hauek azaltzen zaizkie: egoitza-ingurunean parte hartzeko oinarrizko jarraibideak, barne-erreglamenduan baimendutako disziplina-neurriak erabiltzeko jarraibideak, kontrol-neurri positiboak (pertsuasioa, elkarrizketa...), osasunerako hezkuntza, eta nerabeekin eta nerabeek beren artean izan ditzaketen gatazken konponbidea.</li> <li>• Trebakuntzan ez zitzaien larrialdietan jarraitu beharreko prozedurak azaldu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Batek izan ezlik, gainerako hezitzaile guztiak penaleko adin txikiko arau-hauslearen egoitza-arretan urtebete baino gehiagoko esperientzia dute, horietako lauk hirunik bost urtera bitarteko esperientzia, eta bik, berriz, bost urteko gorakoa. Aitzitik, gehienek umeen eta nerabeen gizarte-arretaren beste esparruetan ez dute esperientziarik.</li> <li>• Trebatze-plan jarraitua dago. Trebakuntza-sistema hiru urratsetan oinarritzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- lehenengo urratsa kontratazio-prozesuaren barruan dagoen froga edo hamera-aldia da;</li> <li>- bigarren urratsean hiru maila daude: jokabide-aldaketa, autoritatea eta disziplina, didaktika soziala eta ikastetxearen proiektua;</li> <li>- hirugarren urratsa zenbait lanpostutara mugatzen den mintegian datza (tutoreak, koordinatzaileak, gainbe-giratzzaileak).</li> </ul> </li> <li>• Hasieran kontratatu berriak ikastetxearen filosofian, gidalerroetan, prozeduretan eta jarduera profesio-naletan trebatzen dituzte; guztiak hezkuntza-proiektuan daude. Hurrengo puntu hauek azaltzen zaizkie: egoitza-ingurunean parte hartzeko oinarrizko jarraibideak, barne-erreglamenduan baimendutako disziplina-neurriak erabiltzeko jarraibideak, kontrol-neurri positiboak (pertsuasioa, elkarrizketa...), eta nerabeekin eta nerabeek beren artean izan ditzaketen gatazken konponbidea. Osasunerako hezkuntzarekin erlaziona-tutako gaiak ez dira ikutzen, baina nerabeek puntu hori eguneroko bizitzako taldearekin egiten dituzten jardueretan ikasten dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan-esperientziari dagokionez, gehienek aurretiazko esperientzia dute: 5ek 5 urteko gorako esperientzia, 3k 3 urteko gorakoa eta beste 5ek urtebetetik 2 urtera bitarteko esperientzia. Batek baino ez darama adin txikiko arau-hauslearen egoitza-arretan urtebe baino gutxiago lanean. 14 horietatik, 6k umeen gizarte-arretako beste esparru batzuetan ere dute esperientzia.</li> <li>• Trebatze-plan jarraitua dago. Trebakuntza-sistema hiru urratsetan oinarritzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- lehenengo urratsa kontratazio-prozesuaren barruan dagoen froga edo harrera-aldia da;</li> <li>- bigarren urratsean hiru maila daude: jokabide-aldaketa, autoritatea eta disziplina, didaktika soziala eta ikastetxearen proiektua;</li> <li>- hirugarren urratsa zenbait lanpostutara mugatzen den mintegian datza (tutoreak, koordinatzaileak, gainbe-giratzzaileak).</li> </ul> </li> <li>• Hasieran kontratatu berriak ikastetxearen filosofian, gidalerroetan, prozeduretan eta jarduera profesio-naletan trebatzen dituzte; guztiak hezkuntza-proiektuan daude. Hurrengo puntu hauek azaltzen zaizkie: egoitza-ingurunean parte hartzeko oinarrizko jarraibideak, barne-erreglamenduan baimendutako disziplina-neurriak erabiltzeko jarraibideak, kontrol-neurri positiboak (pertsuasioa, elkarrizketa...), eta nerabeekin eta nerabeek beren artean izan ditzaketen gatazken konponbidea. Osasunerako hezkuntzarekin erlaziona-tutako gaiak ez dira ikutzen, baina nerabeek puntu hori eguneroko bizitzako taldearekin egiten dituzten jardueretan ikasten dute.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proposatutako trebatze-planaren osagarri moduan, urteko lanegunetako hainbat ordu erreserbatzen dira, profesionalak beren lanpostuetan bete behar dituzten funtzioekin lotutako trebatze-ikastaroetara joan daitezzen.</li> <li>Pertsonalaren bilerak ere trebatze-tresna egokiak dira, eguneroko arreta-lanean sor daitezkeen arazo edo gatazka-egoerei konponbideak emateko aukera ematen dutena. Hala ere, bilera horietan ez dute langile guztiak aldi berean parte hartzen; taldeka egiten dira, burutu behar dituzten jardueren arabera (eguneroko bizitzako taldea, eta gainbegiratze-taldea).</li> <li>Pertsonala ez dute larrialdietan jarritu beharreko prozeduretara trebatu, baina epe laburrean egingo dela aurreikusi da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proposatutako trebatze-planaren osagarri moduan, urteko lanegunetako hainbat ordu erreserbatzen dira, profesionalak beren lanpostuetan bete behar dituzten funtzioekin lotutako trebatze-ikastaroetara joan daitezzen.</li> <li>Pertsonalaren bilerak ere trebatze-tresna egokiak dira, eguneroko arreta-lanean sor daitezkeen arazo edo gatazka-egoerei konponbideak emateko aukera ematen dutena. Hala ere, bilera horietan ez dute langile guztiak aldi berean parte hartzen; taldeka egiten dira, burutu behar dituzten jardueren arabera (eguneroko bizitzako taldea, eta gainbegiratze-taldea).</li> <li>Pertsonala ez dute larrialdietan jarritu beharreko prozeduretara trebatu, baina epe laburrean egingo dela aurreikusi da.</li> </ul>
<b>4. Pertsonala gainbegiratzea eta laguntzea</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>15 egunero egiten den koordinazio-bileretan pertsonaleko gainbegiratu eta laguntza ematen zaie. Horietara langile guztiak joaten dira, momentu horretan txandan daudenak izan ezik. Hala ere, ez dago banako gainpegiarpen-sistemarik.</li> <li>Ez Elkarteak ezta Eusko Jaurlaritzak ere ez diete hezkuntza-taldeko kideei banako zein taldeko gainpegiarpen eta laguntza-zerbitzurik eskaintzen, baina bi erakundeekin harreman onak dituztenez, arazo jakinen bat sortuz gero, beraierangana jo lezaketen. Edonola ere, bai koordinatzailea eta bai gainerako hezitzaileak ere pozik daude lan egiteko moduarekin, eta pertsonalaren bileretan behar duten laguntza jasotzen dutela diote.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Pertsonaleko guztiei bete behar dituzten funtzioak zehatz-mehatz azaltzen zaizkie.</li> <li>Eguneroko bizitzako taldearen koordinazio-bileretan pertsonaleko gainbegiratu eta laguntza ematen zaie. As-tero, banaka gainbegiratzen dituzte irakaslea, tailer-hezitzailea, famili hezitzailea eta tutoreak. Hori da gainbegiratzailearen funtzioa. Koordinatzaileak sustatzaileak banaka gainbegiratzen ditu. Asteroko bileretako gaiak nagusiki erabiltzaile bakoitzari aplikatutako banako programazioari buruzkoak dira; gutxiagotan, ostera, pertsonalekoen egoerari buruzkoak.</li> <li>Eusko Jaurlaritzak ere ez die hezkuntza-taldeko kideei banako zein taldeko gainpegiarpen eta laguntza-zerbitzurik eskaintzen, baina harreman onak dituztenez, arazo jakinen bat sortuz gero, egokitzat joko balute bererangana jo lezaketen. Bai zuzendaria eta bai gainerako hezitzaileak ere pozik daude lan egiteko moduarekin, eta pertsonalaren bileretan behar duten laguntza jasotzen dutela diote.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<b>C. ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA</b>		
<b>1. Antolaketa eta kudeaketa</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxea kudeatzeko ardurua Gaztaroan Ekin Elkarteak dauka; horrek, funtzioak talde teknikoaren bidez, eta, nagusiki, koordinatzailearen bidez burutzen ditu, Elkarteko Batzordearen gainbegirapenarekin. Eskumenak honela banatzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinatzailea pertsonala antolatzeaz arduratzen da;</li> <li>- Talde Teknikoa trebakuntzaz arduratzen da, batez ere koordinazio-bileren esparruan;</li> <li>- pertsonala aukeratzeko talde teknikoaren ardurua da; ekonomiki kudeaketa Koordinatzaileari dagokio.</li> </ul> </li> <li>• Lanpostu bakoitzaren funtzioak langileak kontratatzean ematen zaien hezkuntza-proiektuan deskribatuta daude.</li> <li>• Ikastetxeko zuzendaritzaren eta zuzeneko arretaren jarraitubideak kontrolatzeko, nagusiki, Elkarteko Batzordeari txostenak bidaltzen zaizkio:</li> <li>- urteko memoria, aurrekontu-ekitaldiaren bukaeran; - adin txikiko bakoitzaren garapenari buruzko hiruhilabeteko txostena; - hezkuntza-taldeari eta haremman-sistemari buruzko hiruhilabeteko txostena; - jarduera bakoitzaren ebaluazio-txostena.</li> </ul> <p>Eusko Jaurlaritzari lehenengo bi dokumentuen kopia bidaltzen zaizkio.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Koordinatzailea ez dagoenean, ikastetxearen arduradunak Talde Teknikoko beste bi kideak dira.</li> <li>• Proiektuan hezitzaile bakoitza gehienez ere bi nerabeen tutore izatea eta nerabe bakoitzak tutore bat izatea aurreikusten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxea kudeatzeko ardurua Berritzi Hezkuntza Elkarteak dauka, eta horrek batez ere Zuzendari Pedagogikoaren bidez burutzen ditu funtzioak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinatzailea pertsonala antolatzeaz arduratzen da;</li> <li>- profesionalen trebakuntza eta birziklapena trebatze-taldeari eta, batez ere, Zuzendariari dagokio;</li> <li>- pertsonala aukeratzeko Zuzendariaren ardurua da;</li> <li>- ekonomiki kudeaketa Berritzi Hezkuntza Elkarteko Kudeatzaileari dagokio.</li> </ul> </li> <li>• Lanpostu bakoitzaren funtzioak hezkuntza-proiektuan deskribatuta daude.</li> <li>• Zuzendaritak bi lan-taldean (eguneroko bizitzako taldea eta gainbegiratze-taldea) funtzionamendua kontrolatzen du, eta horien erantzukizuna koordinatzaileak eta gainbegiratzaileak dute.</li> <li>• Ikastetxeko zuzendaritzaren eta zuzeneko arretaren jarraitubideak kontrolatzeko, nagusiki, Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lan-kideitarako Zuzendaritzari erabiltzaile bakoitzari buruzko hiruhilabeteko ebaluazio-txostenak bidaltzen zaizkio.</li> <li>• Zuzendaria ez dagoenean, ikastetxearen arduraduna koordinatzailea da.</li> <li>• Hezkuntza-proiektuak aurreikusten duen tutoretza-sistemari esker hezitzaile erabiltzaile bakoitzaren jarrimen osoaren ardurua hartzen dute.</li> <li>• Deskoordinazioak ekiditzeko, jarduera eta txanda bakoitzean hezitzaileak jardueren fitxa, erantzun zigorgarrien fitxa, halakorik egonez gero, banako ebaluazio-fitxa eta arautegi-jarraipenaren fitxa bete behar ditu. Era berean, eguneroko liburua beietzen da. Modu horretan, hurrengo txandako hezitzaileak berehala izaten du aurretik gertatutakoaren berri. Ez dago txanden gainjarpen-tarterik.</li> <li>• Nerabeek txanda-sistema ezagutzen dute eta badirudi badakitela hezitzaile baten edo bestearen txanda noiz den.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txandak finkoak dira eta ordubeteko gainjarpen-tartea egoten da, iriteien eta sartzen diren hezitzaileek elkarrekin egon daitezen, egoerari eta nerabeen buruzko informazioa emateko eta gertaerei eta eginkizunei buruz hitz egiteko.</li> </ul>		
<p align="center"><b>2. Administrazio-erregistroak</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio-erregistroetan informazio garrantzitsu guztia dago, ikasketeko kudeaketaren eta nerabeen arretaren inguruko erabaki eta ekintza guztiak.</li> <li>• Erregistroak ongi ordenatuak, eguneratuak eta segurtasunez gordeta daude; bertara Talde Teknikoko kideek besterik ezin dute jo eta, haiak gainbegirata, gainerako hezitzaileak.</li> <li>• Eusko Jauritaritzako Giza Eskubide eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzak ez du erregistroen kalitatea kontrolatzen, aldizka bidaltzen zaizkion txostenetan ikus daitekeena salbu.</li> <li>• Erregistroak eta banako espedienteetako dokumentuak gordetzeko ez da gehieneko eperik jarri. Hala ere, taldeak dioenez, horiek gordetzea komeni da, nerabeek, ikasketetarik irten ondoren ere, agiaren bat behar izan baitezakete (osasun-kartila, ikasketazurtagiria, etab.).</li> <li>• Erregistroetan samera-data, barrualdi-neurriaren iraupena, neurri judizialean ezarritako barrualdi-erregimena, irteera-data eta identifikazio-datuak behar bezala jasota daude; kasu denean, babes-arloan eskumena duen administrazioari tutoretza edo zaintza ote dagokion adierazten da.</li> <li>• Erregistroetan pertsonalekoei buruzko datuak ere daude: izen osoa, sexua, jaiotze-data, ikasketak eta lan-esperientzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio-erregistroetan informazio garrantzitsu guztia dago, ikasketetako kudeaketaren eta nerabeen arretaren inguruko erabaki eta ekintza guztiak.</li> <li>• Erregistroak ongi ordenatuak, eguneratuak eta segurtasunez gordeta daude, eta irizpidea mugatua da. Horiek antolatzeaz eta mantentzeaz arduratzen dena Berritzi Hezkuntza Elkarteak administrazio-zerbitzua da.</li> <li>• Eusko Jauritaritzako Giza Eskubide eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzak ez du erregistroen kalitatea kontrolatzen, aldizka bidaltzen zaizkion txostenetan ikus daitekeena salbu.</li> <li>• Erregistroak eta banako espedienteetako dokumentuak gordetzeko ez da gehieneko eperik jarri.</li> <li>• Erregistroetan samera-data, barrualdi-neurriaren iraupena, neurri judizialean ezarritako barrualdi-erregimena, irteera-data eta identifikazio-datuak behar bezala jasota daude; horretaz gain, ikasketeari bidaltzen dizkioten aurretiazko txostenetan jasota degoenean, aurretik neurri judizialik ote dagoen eta babes-arloan eskumena duen administrazioari tutela edo zaintza ote dagokion adierazten dira.</li> <li>• Erregistroetan langileei buruzko datuak ere daude: izen osoa, sexua, jaiotze-data, ikasketak eta lan-esperientzia.</li> <li>• Erregistro batean istripuak jasotzen dira, baldin eta osasun-arretara jotzea beharrezkoa izan bada.</li> <li>• Tratamendu baten ondorioz sendagatak ematen badira, erregistratu egiten da.</li> <li>• Koordinatzailearen bulegoan gordetzen diren diru-gordailuak erregistratzen dira.</li> <li>• Kontabilitatea erregistroan jasotzen da.</li> <li>• Menuak erregistratu egiten dira.</li> <li>• Ezartzen diren diziplina-neurriak erregistratzen dira; alboan, nerabearen izena, zehatutako jokabidearen deskribapena, zehapen-neurriaren izaera, parte hartzen duen pertsonalaren izenak, eta gertakariaren data adierazten dira.</li> <li>• Eguneroko gertaerak, bisitak bame, erregistratzen dira.</li> <li>• Erregistroetan jasotako informazioan ez da termino estigmatizagaririk erabiltzen.</li> <li>• Administrazio-funtzioei dagokienez, Zuzendaria gertaera garrantzitsuak behar bezala jakinarazteaz arduratzen da; gainbegiratzailera, berritzi, plangintza-bileretarako eta kasuen berrikuspenetarako idazkiak prestatzeaz; erregistroak eguneratzeaz talde guztia arduratzen da; Elkarteak administrazio-langileek espedienteak antolatuta eta zaintzen dituzte.</li> </ul>	

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Istripuen erregistroa dago.</li> <li>• Ematen diren sendagaiak ere erregistratzen dira.</li> <li>• Diru-gordailuak erregistratzen dira.</li> <li>• Ikastetxeko kontabilitate guztia erregistroan jasota dago.</li> <li>• Menuak erregistratzen dira.</li> <li>• Ezartzen diren disziplina-neurriak erregistratzen dira; alboan, nerabearen izena, zehatutako jokabidearen deskribapena, zehapen-neurriaren izaera, parte hartzen duen pertsonalaren izenak, gertakariaren data eta kasuan kasuko tutorearen sinadura adierazten dira.</li> <li>• Eguneroko gertaerak, bisitak bame, erregistratzen dira.</li> <li>• Erregistroetan jasotako informazioan ez da termino estigmatizagarriak erabiltzen.</li> <li>• Administrazio-eginkizunak koordinatzailearen ardura dira: gertaera garrantzitsuek behar bezala jakinaraztea (esaterako, epaileari baimena eskatzea), plangintza-bileretarako eta kasuen berrikuspenetarako idazkiak prestatzea, ikastetxeko kontabilitatea eramatea eta erregistroak eta espediente pertsonalak zaintzea. Erregistroak eguneratzea, berriz, Talde Teknikoko kideei eta kasuan kasuko tutoreari dagokie.</li> <li>• Nerabeei astero paga ematen zaie.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzaileei astero paga ematen zaie; tutoreak gainerako dinua administrazioan laguntzen dio, aurrezteko eta gastatzeko hezkuntza-helburuetan oinarrituz.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M. A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p><b>3. Kontrol-bisitak</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurfartzako Giza Eskubide eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzako teknikoak aldirzka ikastetxera joaten dira. Bisita horiek funtzionamendua kontrolatzeko eta antolaketa eta harreman-jarribideak ezagutzeko egiten badira ere, ez daude horretarako egituratuak eta ez dira ebaluazio edo ikuskaketa-irizpide kualitatiboetan oinarritzen. Aitzitik, arazo jakinak eztabaidatzeko baimo ez dira etortzen eta nerabeekin izaten dituzten harremanak oso mugatuak dira. Erabiltzaileekin hitz eginuz gero, ikusten da Jaurfartzita nagusiki behar materialak estali behar direnean soilik aipatzen dutela.</li> <li>Fiskalak eta Epaileak ez dira asko joaten. Ikastetxeetara gehien joaten dena Vitoria-Gasteizko Epailea da.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurfartzako Giza Eskubide eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzako teknikoak aldirzka ikastetxera joaten dira. Bisita horiek funtzionamendua kontrolatzeko eta antolaketa eta harreman-jarribideak ezagutzeko egiten badira ere, ez daude horretarako egituratuak eta ez dira ebaluazio edo ikuskaketa-irizpide kualitatiboetan oinarritzen. Aitzitik, arazo jakinak eztabaidatzeko baimo ez dira etortzen eta nerabeekin izaten dituzten harremanak oso mugatuak dira. Erabiltzaileekin hitz eginuz gero, ikusten da Jaurfartzita nagusiki behar materialak estali behar direnean soilik aipatzen dutela.</li> <li>Fiskalak eta Epaileak ez dira asko joaten. Ikastetxeetara gehien joaten dena Vitoria-Gasteizko Epailea da.</li> </ul>
<p><b>D. HELBURU ETA FUNTZIOEN DOKUMENTUA</b></p>		
<p><b>1. Helburu eta funtzioen dokumentuaren edukia</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxearen dokumentazioa oso da. Gaztaroan Ekin Elkarteak egindako hezkuntza-proiektuan helburuak eta funtzioak azaltzen dira.</li> <li>Helburu nagusia pedagogikoa da: nerabeak hezitzea gizartratzeaz errazteko. Funtzio bakarra Adin Txikiko Epaitegiek erabakitako barrualdi-neurriak betetzea da, hala asteburuko barrualdi-neurriak, nola erregimen zabalakoak, erdizabalekoak edo itxikoak. Ikastetxeak zerbitzu hauek eskaintzen ditu: egoitza, heziketa, trebakuntza, kirola, kultura, eta arreta psikologikoa, pedagogikoa eta soziofamiliarra.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeen dokumentazioa oso da. Berritzi Hezkuntza Elkarteak egindako hezkuntza-proiektuaren arabera da, eta bertan Ortuellako Ikastetxean aplikatutako proiektua berritzea eta Mendixola ikastetxeko kudeaketa aukeratzera aurreikusten da.</li> <li>Helburuak eta funtzioak azaltzen dira. Helburu nagusia pedagogikoa da: normalizazioa, garapen osoa eta komunitatean integratzea bideratutako arreta psiko-sozio-erabakikoa eskaintzea. Funtzio bakarra Adin Txikiko Epaitegiek erabakitako barrualdi-neurri zabalak eta erdizabalak betetzea da. Ikastetxeak zerbitzu hauek eskaintzen ditu: egoitza, heziketa, trebakuntza, kirola, kultura, eta arreta psikologikoa, pedagogikoa eta soziofamiliarra.</li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-proiektuan puntu hauek ikutzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- ikasketxearen xedea</li> <li>- barrualdien helburuak</li> <li>- entitate arduraduna</li> <li>- sar daitezkeen pertsonen adina eta sexua</li> <li>- ikasketxearen gehieneko edukiera</li> <li>- onartzeko irizpideak (informatzeko ebazpen judiziala eta Eusko Jauritzairenen bidez izapidetzea)</li> <li>- koordinatzailearen eta pertsonaleko gainerakoek ikasketak eta lan-esperientzia</li> <li>- ikasketxearen eta bere zerbitzu eta programen deskribapena</li> <li>- osasuna zaintzeko eta sustatzeko neurriak</li> <li>- familiarikiko harremanak bultzatzeko neurriak</li> <li>- erabiltzaileen eskubideak</li> <li>- kontrol eta disziplina-neurriak</li> <li>- segurtasun-neurriak</li> <li>- nerabeak baimenik gabe agertzen ez badira hartu beharreko neurriak</li> <li>- hezkuntza-neurriak</li> <li>- kontrol eta disziplina-neurriak</li> <li>- segurtasun-neurriak</li> <li>- nerabeak baimenik gabe agertzen ez badira hartu beharreko neurriak</li> <li>- parte hartzeko bideak (biltzarra).</li> </ul> </li> <li>• Helburu eta funtzioen dokumentuan ez dira hurrengo puntuak jasotzen: <ul style="list-style-type: none"> <li>- ikasketxearen zuzendaritzaz arduratzen den pertsonaren izena</li> <li>- suteen aurkako segurtasun-neurriak</li> <li>- erlijio-askatasunaren errespetua bermatzeko neurriak</li> <li>- nortasun soziokulturalaren errespetua bermatzeko neurriak</li> <li>- neurria betearazteko ardurua duen administrazio-entitatearen kontrol-bisitak</li> </ul> </li> <li>• Dokumentu hau pertsonalekoen esku dago; ez, ordea, nerabeen eta beren legezko ordezkarien esku, pertsonaleko dokumentuaren edukia ezagutu eta ulertzen dituela ematen du.</li> <li>• Gaur egun indarrean dagoen proiektua egin berria da. Kode Penalean iragarritako gazte-justiziarik buruzko araudia indarrean sartzen denean berrikusi beharko dela penatzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-proiektuan puntu hauek ikutzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- ikasketxearen xedea</li> <li>- barrualdien helburuak</li> <li>- entitate arduraduna</li> <li>- sartu daitezkeen pertsonen adina eta sexua</li> <li>- ikasketxearen gehieneko edukiera</li> <li>- onartzeko irizpideak (informatzeko ebazpen judiziala eta Eusko Jauritzairenen bidez izapidetzea)</li> <li>- ikasketxearen eta bere zerbitzu eta programen deskribapena, duen hezkuntza-izera kontuan hartuta</li> <li>- osasuna zaintzeko eta sustatzeko neurria</li> <li>- familiarikiko harremanak bultzatzeko neurriak</li> <li>- erabiltzaileen eskubideak</li> <li>- kontrol eta disziplina-neurriak</li> <li>- segurtasun-neurriak</li> <li>- nerabeak baimenik gabe agertzen ez direnean hartu beharreko neurriak</li> <li>- parte hartzeko bideak.</li> </ul> </li> <li>• Helburu eta funtzioen dokumentuan ez dira hurrengo puntuak jasotzen: <ul style="list-style-type: none"> <li>- ikasketxearen zuzendaritzaz arduratzen den pertsonaren izena</li> <li>- hezitzaileen ikasketak eta lan-esperientzia</li> <li>- suteen aurkako segurtasun-neurriak</li> <li>- nortasun soziokulturalaren errespetua bermatzeko neurriak</li> <li>- kexa-prozedurak</li> <li>- neurria betearazteko ardurua duen administrazio-entitatearen kontrol-bisitak</li> <li>- kontrol judizialeko neurriak.</li> </ul> </li> <li>• Dokumentu hau pertsonalekoen esku dago; ez, ordea, nerabeen eta beren legezko ordezkarien esku, pertsonaleko dokumentuaren edukia ezagutu eta ulertzen dituela ematen du.</li> <li>• Gaur egun indarrean dagoen proiektua egin berria da. Kode Penalean iragarritako gazte-justiziarik buruzko araudia indarrean sartzen denean berrikusi beharko dela penatzen da.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dokumentu hau pertsonalekoen esku dago; ez, ordea, nerabeen eta beren legezko ordezkarien esku. Pertsonalekoek dokumentuaren edukia ezagutu eta ulertzen dutela ematen du.</li> <li>• Ikastetxea orain dela gutxi ireki denez, proiektua ere egin berria da. Kode Penalean iragarritako gazte-justiziari buruzko araudia indarrean sartzen denean berrikusi beharko dela pentsatzen da.</li> </ul>		
<b>E. ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK</b>		
<b>1. Erabiltzaileei zuzendutako idatzizko informazioa</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxera sartzen direnean, nerabeek dokumentu bat ematen zaie, eta bertan beren eskubideak zehazten dira, hala indarrean dagoen ordenamendu juridikoan begiztatutako eskubide orokorrak, nola ikastetxearen antolamendu eta funtzionamenduan aurreikusitako eskubide bereziak. Horretaz gain, dokumentu horretan elkarbitzarako arauak eta agindutakoa betetzen ez denerako aurrekusten diren zehapenak deskribatzen dira zehatz-mehatz. Aurkezpena eta, oro har, idazkera erabiltzaileen adinarekin bat datozen arren (marrazkiak), obligazioak, pribilegioak eta zehapenak ezagutzen badituzte, dokumentua ulertzeagatik baino, tutoreen ahozko azalpenengatik, bilzarretako eztabaidengatik eta praktikarengatik da.</li> <li>• Ez da nerabeek eta familiakoei ikastetxearen funtzioen eta antolaketaren ikuspegi orokorra eskainiko liezaiekeen hezkuntza-proiektuaren bertsisio laburturik egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxera sartzean nerabeek etxearen funtzionamendua erantzen duten elkarbitzarako arauen kopia ematen zaie; bertan beren eskubideak, obligazioak eta arauak betez gero, dituzten pribilegioak, eta agindutakoa bete ezean aplikatzen zaizkien zigorrak azaltzen dira. Horretaz gain, disziplina-neurriak eta baimenik gabe agertuko ez balira jasango litzaketan ondorioak aipatzen dira. Erabiltzaileek araudi aplikagarria ongi ezagutzen dute, negusiki harrera-urratsean ematen zaizkien ahozko azalpenak eta eguneroko esperientzia direla eta. Nerabeekin hitz eginez gero, erreglamendua une guztietan buruan dutela ikusten da.</li> <li>• Dokumentuak ez du kanpoetik kexatzeko bide formalik ote dagoen aipatzen, ezta barmuko bideak zehaztu ere, baina kegak aurkezteko aukera aipatzen du; horretarako, begirunez, arazoa zein den eta zein konponbide proposatzen den azaldu behar dira.</li> <li>• Funtzionamenduari buruzko erregimen orokorra gela bakoitzean eskura dago. Informazioa oso modu arautuan aurkezten da, luze eta xehe ahalik eta datu gehien emanez. Hezitzaileen eta nerabeen elkarriketetan beti presente dago.</li> <li>• Ikastetxearen zuzendaritak dioenez, dokumentu baten bidez familiei esku-hartzeetan jarraitzen diren helburuak eta funtzioak azaltzen zaizkie modu laburtuan. Famili hezitzaileak Familientzako Erregimen Orokor bana ematen dte.</li> </ul>	



ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p><b>2. Parte-hartzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilzaileek, neurri batean, aplikatzen zaizkien banako planean parte hartzen dute: beren jarduerak aukeratzeko eta ikastetxean dauden bitartean izango dituzten urratsen heziketa-helburuak zehazteko aukera dute. Era berean, ezarritako helburuak lortu ahala banako planetan egiten diren aldizkako berrikuspunetan parte hartzen dute.</li> <li>• Ez dute antolaketa eta funtzionamendu-arauak zehaztean parte hartzen. Altxatzeko, duxatzeko, gosalteko, jardueretara joateko, jateko eta irieteko, besteak beste, ezarritako ordutegietara egokitu beharra daukate. Hori hezkuntza-metodoaren parte da, nerabeak, oro har, ez baitaude egunerokotasunera eta autodisziplinara ohituta. Momentuz, gune komunien dekorazioan ez dute asko parte hartu, hezitzaileek horretara bultzatzen dituzten arren. Eskatu duten gauza bakarra jangela bi guneetan zatitzea izan da, horietako bat olgeta-jardueretarako erabilzeko asmoz.</li> <li>• Elkarbizitza-arauak ikastetxearen funtzionamenduari buruzko erregiamenduan ezarrita daude; hala ere, batzuetan, onargarritzat jotzen den jokabideari buruz eztabaida daiteke (esaterako, arropak elkar aldatzea erregiamenduan arabera debekatua dago, ingurune itxi batean botere-harremanak susta ditzakeela pentsatzen baita; aldi, praktikan onartu egiten da, elkarrekin bizi diren neskalagun hurkoen artean edo ahizpen artean ohikoa baita).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilzaileek banako planetan «urrats-kontratu» delakoen bidez hartzen dute parte. Nerabeen hezkuntza-prozesua urratsen sistema progresiboan ezarritako hezkuntza-kontratuaren bidez bilakatzen da. Kontratu horietan lortu beharreko helburuak, horiek lortzeko erabi daitezkeen bideak eta epeak jasotzen dira (normalean bi hilabeteko iraupena dute). Kontratu hezitzaile tutorearen eta gazteraren arteko adostasunean oinarritzen da, nahiz eta, nerabeek ditonez, beren parte-hartzea puntu jakinetara mugatzen den.</li> <li>• Urrats-sistema honetan, hezkuntza-kontratu berrit egiteko helburuak eta emaitzak berrikusten dira.</li> <li>• Erabilzaileek ez dute antolaketa eta funtzionamendu-arauak zehaztean parte hartzen. Altxatzeko, duxatzeko, gosalteko, jardueretara joateko, jateko eta irieteko, besteak beste, ezarritako ordutegietara egokitu beharra daukate. Hezkuntza-metodoaren parte da, nerabeak, oro har, ez baitaude egunerokotasunera eta autodisziplinara ohituta. Aldaketak egiten direnean, ezagutzera ematen zaizkie horietara egokitu daitezen. Gune komunien dekorazioan gehienbat kartel adierazgarriak egiten hahidatzeneko tonua erabiltz.</li> <li>• Elkarbizitza-arauak ikastetxearen funtzionamenduari buruzko erregimen orokorrean ezarrita daude, eta nahitaez bete behar dira.</li> <li>• Parte hartzeko bide formalak turovretza-elkarrizketak dira, naguski urrats-kontratuaren edukia adostasunez finkatzen direnekoak. Bestalde, egunero, gosaldu ondoren erabiltzaileek eta koordinatzaileak bilerak egiten dituzte, eta foro modukoak dira, besteak beste, jarduerak, gogo-aldarteak eta ohiturak komentatzeko edo proposamenak aurkezteko.</li> <li>• Proiektuak familielekin esku-hartzea aurreikusten du, baina ez, ostera, beraien parte-hartzerik. Beraiekin egitea komeni diren jarduerak Esku-hartze Soziofamiliarren Programan jasota daude; programa hori familia bakoitzari aurkezten zaio eta hartzen diren konpromisoak horiek zehazien dituen kontratua sinatuz formalizatzen da.</li> <li>• Urrats-kontratuak eta eskuharman soziofamiliarreko kontratuak erabakiak idatziz jasotzen dira.</li> <li>• Ez dute pertsonala modu berezian treratu, arreta-bideak erabiltzale batzuen berezitasun soziokulturalera egokitu ahal izan ditzaten. Oro har, beharrezko neurriak kasuan-kasuan eta puntu garrantzitsuen inguruan hartzen dira. Adibidez, Mendokola ikastetxean erlijio musulmaneko nerabe bat bizi da, eta janarietan dituen elikaduramugak errespetatzen dira (ez du txerrikirik jaten). Mota horietako egoerak konpontzeko laguntza behar izanez gero, hezitzaileak eguneroko bizitzako taldearen koordinazio-bileran planteatzen du. Edonola ere, argi eduki behar da pedagogi proiektuak jokabideak homogeneizatzea beharrezkotzat jotzen duela; ez, aldi, hezkuntza-eskuharmana homogeneizatzea, hezkuntza-taldeak dienez, ahalik eta banakoena izan behar baita.</li> <li>• Erabilzaileek ditonez, urrats-kontratuaren apur bat esku hartzen dute; gainerako gauzetan ez dute ez parte hartzen, ezta parte hartzeko beharrik edo gogorik adierazten ere.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzeko bide formalak, alde batetik, tutoretza-elkarrizketak dira; horiek nerabeek eskatzen dituzenean edo egokitzat jotzen direnean egiten dira, gutxienez ere astean behin. Bestalde, biltzarrek ere daude; horietan txandako langileak eta nerabeak parte hartzen dute eta hamabost egunero egiten dira.</li> <li>• Biltzarretako eztabaidak eta erabakiak ez dira idatziz jasutzen.</li> <li>• Nerabeek diotenez, jarduerak antolatzeko orduan beren iritzia kontuan hartzen da, baina gainerakoe-tan, berriz, hezitzaileek nai dutena egiten da; diotenez, kasu horietan irizkiak arrazoitzen dituzte, baina berentzat arrazoiak garrantzirik edo esanahirik gabekoak izaten dira.</li> <li>• Familiek ez dute ikasketetako funtzionamenduarien antolaketa parte hartzen, baina banakoak planetan hezkuntza eta trebakuntza-helburuak ezartzean irizkiak emateko aukera izaten dute.</li> </ul>		
<p><b>3. Pribatutasuna eta isilpekotasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzaileek diotenez, eskaintzen zaien tratua ona da, hezitzaileek elkarrizketarako jarrera dute (beren iritziz, batzuetan gehiegizkoa ere), eta beren eskubideak errespetatzen dira. Profesionalengan, kideengan, oro har pertsonengan, eta gaunzengan, bereziki besteen jabetzarengan errespetuzko jarrera izan dezatela sustatzen dute.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezitzaileek nerabeei eskaintzen dieten tratua ona da. Nerabeak, oro har, hezitzaileekin dituzten harremanekin pozik daudela ematen du. Pertsonengan errespetuzko jarrera izan dezatela saiatzzen da.</li> <li>• Segurtasun-arrazoiengatik erabiltzaileei logelak kisetak iztea debekatzen zaie. Normalean hezitzaileek atea jo eta nerabeak erantzun baino lehen barrura sartu, edo atetik jo gabe zuzenean sartzen dira.</li> <li>• Bainugeletako ateek ere, segurtasun-arrazoiak direla-eta, ez dute barruko kisetarik; dena den, araua da, komuna itxita dagoenean okupatua dagoela pentsatzea eta, beraz, erabili ondoren atea zabalik uztea. Arau hori bai hezitzaileek eta bai erabiltzaileek errespetatzen dute, baina ikasle txerara sartzen direnean beharrezkoa da nerabeek komuna erabiltzean atea ixtera ohitzea. Mendixola ikasketxean duxak jarraituak dira eta, hortaz, ez dute pribatua garbitzerik. M.A. Remirez ikasketxean, aldez, banakoak dira. Dena den, ebaluazioa egin zenean, obreraz arduratzen ziren gremioetako profesionalen hutsigiteagatik, bainugeletan aintzinarako eusguneetako ateari ipini ziren, beharbulok dituztenak, eta hori ez dator pribatutasuna bermatzeko beharrenekin bat.</li> <li>• Erabiltzaileek ez dute beren barruko arropak garbitzerik. Nerabeen erantzunengatik, ez du ematen haiek ere hori egitea nahi dutenik.</li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Segurtasun-arrazoiengatik erabiltzaileei logelak kisketat ixtea debekatzen zaien. Normalean hezitzaileek atea jo eta nerabeek erantzun baino lehen barrura sartzen dira; horrela, bada, beren intimitatea zeharo mugatua dago. Ateetako behatxuloak neurri batean behaketa eskatzen duen arazoren bat gertatuz gero soilik erabiltzen dira.</li> <li>• Bainugeletako ateek ere, segurtasun-arrazoia direla eta, ez dute barruko kisketarrik; dena den, araua da, bainugela itxita dagoenean okupatua dagoela pentsatzea eta, beraz, erabili ondoren atea zabalik uztea. Arau hori bai hezitzaileek eta bai erabiltzaileek errespetatzen dute, baina ikastetxera sartzen direnean beharrezkoa da nerabeak komuna erabiltzean atea ixtera ohitzea. Dutsak jarraituak dira eta, hortaz, ez dute pribatua garbitzerik.</li> <li>• Espresuki ez dago jasota nerabeek berek barruko arropa garbitu ahal izatea, baina hezitzaileek diotenez, ez litzaiteke horretarako baimena emateko eragorpenik egongo. Nerabeak berak dira eginkizun hori egin nahi ez dutela diotenak. Beren iritziz, hezitzaileak horretarako daude.</li> <li>• Pertsonalekoak sexu-gatez arduratzen dira. Txanda bakoitzean emakumezkorik egotea bermatu nahi da. Era berean, adin txikiokoekin logelan edo bainugelan egon behar bada, emakumezko hezitzailea izan dadila saiateren dira, baina hori ez da beti ahal izaten, eta nerabeak horren aurrean ez daude pozik. Hezkuntza mailan sexua nahiko presente dago; izan ere, ebaluazio-egunean emakumezko nerabeek jarraera soziokultural matxista ikusi zitzaienten, bai egin nahi zituzten jardueretan, bai besteekin harrernametan.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizonezko eta emakumezko profesional-kopuruan desproporzioa dago, gehienak gizonezkoak baitira, horren arrazoiak izaki, erabiltzaile guztiak mutilak direla eta krisi edo biolentzia-uneetan gazteek eusteko fisikoki gai diren pertsonak behar direla. Dena den, emakumezkoen ordezkaritza eskasa ez dator Europako literatura espezializatuan aldarrikatutakoarekin bat.</li> <li>• Gazteek eskutitzak pribatua idatzi eta jaso ditzakete, horren aurka debeku judizialik egon ezean.</li> <li>• Nerabeek telefonoz pribatua hitz egin dezakete, horren aurka debeku judizialik egon ezean. Egin ditzaketan deien kopurua astero programatzen da, barnualdi-urratsaren arabera. Egunean gehienez ere del bat jaso dezakete, hori ere barnualdi-urratsaren arabera. Bi ikastetxeetan telefonoa ez dago elkarrizketak pribatua izateko moduko tokietan. Hezitzaileek diotenez, gazteren bat telefonoz hitz egiten ari denean urrun mantentzen dira, eta nerabeek hori berresten dute. Ortuellan dagoen ikastetxean debekatua dago telefonoz hitz egiteko alboko sukaldara edo komunera sartzea. Dena egiteko txandan dagoen hezitzailearen baimena behar da.</li> <li>• Dokumentu konfidentzialak zuzendariaren despatxuan gordetzen dira, informazioaren isilpekotasuma bermatzeko moduan; despatxua nerabeek sartzerik ez duten bulego-gunean dago.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeek eskutituzak pribatuan idatzi eta jaso ditzakete, aurreitazko baimenik gabe eta, beti ere, horren aurka debeku judizialik egon ezean.</li> <li>• Erabiltzaileek telefonoz pribatuan hitz egin dezakete, horren aurka debeku judizialik egon ezean. Egin ditzaketen deien kopurua astero programatzen da, barnaldi-urratsaren arabera. Azkeneko urratsera iristen direnean, nahi beste deitu dezakete, baldin eta denbora librean telefonoa erabiltzeko txandak errespetatzen badituzte eta deien zenbatekoa ordaintzen badute. Deiak jaso ditzakete; jaso ditzaketen deien kopurua ere barnaldi-urratsaren araberakoa da. Telefonoa bai irakurtzeko eta musikarako gelan, bai bilera-gelan erabili daiteke, eta aurretik beti baimena eskatu behar da.</li> <li>• Espedienteetako dokumentu konfidentzialak koordinatzailearen despatxuan gordeitzen dira, konfidentzaltasun osoz. Bertan talde teknikoko kideak ez badago, atea beti gitzez itxita egoten da.</li> </ul>		
<b>4. Kexa-prozedura</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago barrutik kexatzeko bide formalik. Normalean garrantzi gutxiago gauze kexatzen dira eta, egitekotan, kasuan kasuko tutorearen aurrean egiten dute. Neraberen batek esan duenez, nahiz eta koordinatzailea eta hezitzaileak harremanetan egon, behar izanez gero, kexa ez litzateke lehenengoaren aurrean aurkeztuko.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago barrutik kexatzeko bide formalik -idatzizkonik-; hala ere, nerabeei sartzean ematen zaien funtzionamenduan buruzko erreglamenduak dio, kexatu nahi izanez gero, beginuz egin behar dela, argi eta garbi arazoa zein den azalduz eta konponbideak proposatuz. Normalean tutorearen edo jardueraren arduraduna den hezitzailearen aurrean nahiz taldeko eguneroko bileran aurkezten dira.</li> <li>• Kexak kanpotik aurkezteko bideak ere ez daude erreglamenduan idatziz jasota. baina hezitzaileek diote erabiltzaileek kexa formala aurkeztea nahi izanez gero badakitela norengana jo. Nerabeek badakite adin txikiako epailearengana jo lezaketela.</li> <li>• Talde-bileretan ezta baldatzen diren kexak ez dira erregistratzen. Elkarrizketa pertsonaletan edo talde-jarraipenean aurkezten direnak, berriz, tutoreak ebaluazio-itxan erregistratzen ditu.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sartzean ematen zaien eskubideen eta obligazioen dokumentu horretan, Eusko Jauritzaiko Giza Eskubideen eta Justizia-erliko Lan-kidetzarako Zuzendaritzara eta epaitegira jotzeko aukera begiztatzen da, baina ez da nola egin azaltzen. Eusko Jauritzaia edo epaitegira jo dezaketela jakin arren, ez dira berez horretaz mintzatzen.</li> <li>• Barrutik egiten diren keak ez dira erregistratzen, idatziz aurkeztu ezean, eta hori ez da gertatzen.</li> </ul>		
<b>F. ERABILTZAILEEI ESKAINTZEN ZAIEN BABESA</b>		
<b>1. Bisiten eta pertsonalaren zaintza</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxera sartzeko burdinsarea zeharkatu baino lehen bisita guztiak beren datuak eman behar dituzte. Nerabeak bisitatzea datozenean, hasiera batean hezitzaileak bertan egon behar du; kontrol hori hezitzaileak bertan egon behar du; kontrol hori pixkanaka gutxitzen edo kentzen joan daiteke, kasuaren bilakaeraren arabera. Bisiten izenak, ordua eta iraupena egunero erregistratzen dira. Debekatutako substantzia edo gauzaren bat sartu nahi dela susmatzen bada, bisiten gauza pertsonalak erregistratzen dira.</li> <li>• Pertsonaleko kontratatu berriek 15 eguneko frogaldia izaten dute, eta aldi horretan erabiltzaile batek lagunduta egon behar dute; horrek arreta-lanerako jarraibideak azaltzen dizkie eta beren lan leekin seguru sentitzen direla diote.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxera sartu baino lehen bisita guztiak beren datuak eman behar dituzte. Nerabeak bisitatzea datozenean, hasiera batean hezitzaileak bertan egon behar du; kontrol hori pixkanaka gutxitzen edo kentzen joan daiteke, kasuaren bilakaeraren arabera. Bisiten izenak, ordua eta iraupena egunero erregistratzen dira. Bisiten gauza pertsonalak debekatutako substantzia edo gauzaren bat sartu nahi dela susmatzen bada baino ez dira erregistratzen.</li> <li>• Pertsonaleko kontratatu berriek 15 eguneko frogaldia izaten dute, eta aldi horretan erabiltzaile batek lagunduta egon behar dute; horrek arreta-lanerako jarraibideak azaltzen dizkie eta beren lan egiteko modua gainbegiratzen dute.</li> <li>• Nerabeek pertsonalekoekin eta ikastetxeko gainerakoekin seguru sentitzen direla diote; hala ere, zailena beste nerabeekiko harremanak direla adierazten dute. Arauak ongi ezagutzen dituztenez modu ezegokian erabil ditzakete, batzuetan beren onurarako, bestetan besteei kalte egiteko.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p><b>2. Erabiltzaileak babesteko prozedura</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonalekoek gehiegikeriazko jokabideak dituztela jakiten edo susmatzen denean nola jardun behar den ez dago idatziz jasota.</li> <li>• Ez dirudi profesionalek aukera hori aurreikusten dutenik.</li> <li>• Aitzitik, nerabeen artean sor litezkeen gehiegikeriazko egoerez bai arduratzen dira. Erreglamenduak egotez bai arduratzen dira. Erreglamenduaren arabera, hitzekin edo keinuekin iseka egitea, kidea edo hezitzailea irainitzea, mehatxuak eta eraso fisikoak jokabide zehagarririk dira.</li> <li>• Badakite ikastetxetik kampo ere gehiegikeriak jazo daitezkeela.</li> <li>• Ez dituzte pertsonaleko guztiak modu berezian tratu, gehiegikeriak edo gehiegikerien biktima edo egile izan diren nerabeak izan ditzaketan behar bereziak antzeman ahal izateko. Hala ere, batzuek aukera hori izan dute, Berritzu Elkarteak AVAJM Elkartearen (tratu txarrak jasan dituzten umei laguntzeko elkarteak) fundatzaileetako bat izan baitzen, eta bertan nerabe batzuei tratamendu berezia aplikatzen baitzaie.</li> <li>• Telefonoaren alboan eta erabiltzaileen begien bistan ez dago larrialdietan deitu ahal izateko telefono-zenbakirik (Eusko Jauriaritza, epaitegia, Ertzaintza).</li> <li>• Nerabeek langileekin babestuta sentitzen direla diote.</li> <li>• Gauza larriren bat gertatuz gero, tutore edo zuzendaritza joko luketeela diote; arazoa hezitzaileekin izanez gero, epaitegira jozko aukera aipatzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonalekoek gehiegikeriazko jokabideak dituztela jakiten edo susmatzen denean nola jardun behar den ez dago idatziz jasota, baina lehendabiziko neurria susmoak zuzendariari edo koordinatzaileari jakitera ematea izango litzateke.</li> <li>• Ez dirudi profesionalek aukera hori aurreikusten dutenik.</li> <li>• Aitzitik, nerabeen artean sor litezkeen gehiegikeriazko egoerez bai arduratzen dira. Erreglamenduaren arabera, hitzekin edo keinuekin iseka egitea, kidea edo hezitzailea irainitzea, mehatxuak eta eraso fisikoak jokabide zehagarririk dira.</li> <li>• Badakite ikastetxetik kampo ere gehiegikeriak jazo daitezkeela.</li> <li>• Ez dituzte pertsonaleko guztiak modu berezian tratu, gehiegikeriak edo gehiegikerien biktima edo egile izan diren nerabeak izan ditzaketan behar bereziak antzeman ahal izateko. Hala ere, batzuek aukera hori izan dute, Berritzu Elkarteak AVAJM Elkartearen (tratu txarrak jasan dituzten umei laguntzeko elkarteak) fundatzaileetako bat izan baitzen, eta bertan nerabe batzuei tratamendu berezia aplikatzen baitzaie.</li> <li>• Telefonoaren alboan eta erabiltzaileen begien bistan ez dago larrialdietan deitu ahal izateko telefono-zenbakirik (Eusko Jauriaritza, epaitegia, Ertzaintza).</li> <li>• Nerabeek langileekin babestuta sentitzen direla diote.</li> <li>• Gauza larriren bat gertatuz gero, tutore edo zuzendaritza joko luketeela diote; arazoa hezitzaileekin izanez gero, epaitegira jozko aukera aipatzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonalekoek gehiegikeriazko jokabideak dituztela jakiten edo susmatzen denean nola jardun behar den ez dago idatziz jasota.</li> <li>• Ez dirudi profesionalek aukera hori aurreikusten dutenik.</li> <li>• Aitzitik, nerabeen artean sor litezkeen gehiegikeriazko egoerez bai arduratzen dira. Erreglamenduak egotez bai arduratzen dira. Erreglamenduak egotez bai arduratzen dira. Erreglamenduaren arabera, hitzekin edo keinuekin iseka egitea, kidea edo hezitzailea irainitzea, mehatxuak eta eraso fisikoak jokabide zehagarririk dira.</li> <li>• Badakite ikastetxetik kampo ere gehiegikeriak jazo daitezkeela; hala ere, ez dituzte pertsonalekoak modu berezian tratu, gehiegikeriak edo gehiegikerien biktima edo egile izan diren nerabeak izan ditzaketan behar bereziak antzeman ahal izateko.</li> <li>• Telefonoaren alboan eta erabiltzaileen begien bistan ez dago larrialdietan deitu ahal izateko telefono-zenbakirik (Eusko Jauriaritza, epaitegia, Ertzaintza).</li> <li>• Nerabeek pertsonalarekin babestuta sentitzen direla diote.</li> <li>• Gauza larriren bat gertatuz gero, amari esango lioketeela edo adin txikiaren epaitegian salatuko luketeela diote.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<b>G. ARRETA-LANERAKO JARRAIBIDEAK</b> <b>1. Barrualdi-urratsak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurri judizialak ezarriako barrualdi-erregimenaz aparte, ikasketxean hezkuntza-programa urratsen bidez antolatzen da: hasieran oinarritzko hainbat arau barneratu behar dituzte (garbitasuna, errespetua, oihiturak...), piskamaka, beren ezaugarri pertsonal eta familiarren arabera, nolabaiteko autonomia lortu arte, beti ere neurriaren iraupena kontuan hartuta.</li> <li>• Urrats-sistema hori erreferentziakoa da, hortaz, ez zaie nerabe guztiei automatikoki aplikatzen. Bai eduki eta bai iraupen aldeak bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara egokitzen da; hori talde teknikoak, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzak eta adin txikikoen epaitegiak aldez aurretik adostasunez erabakitzen dute.</li> <li>• Urrats batetik bestera pasatzen direnean ospatu egiten da, horrek hobetu eta aurreratu egin dutela esan nahi baitu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-proiektuaren arabera, nerabeei beren prozesua kontuan hartzen duen hiru urratseko sistema aplikatzen zaie. Urrats bakoitzerako banako hezkuntza-proiektuak egiten dira, bertan, lortu beharreko helburuak finkatuz. 1998ko urtarriletik Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzak, Berritu Hezkuntza Elkartearekin batera, hasiera edo harrera-urratsean aldaketak sartu ditu, eredu komun batera egokitzeko.</li> <li><u>Harrera-urratsa:</u> Bi modalitate daude, adin txikikoen epaileak hartutako neurrian aurreikusitako barrualdi-erregimenaren arabera aplikatuko direnak. <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Lehenengo modalitate erregimen zabaleko barrualdi-kasu guztietan aplika daiteke, eta barrualdi erdizabalean aplikatzen dena da, baldin eta bigarren modalitateara jotzera bultzatzen duten inguruabar berezirik ematen ez bada.</li> <li>Bi aldi berezitzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoeta:</li> <li>• 24 ordu irauten du;</li> <li>• gela nerabearena da (inoiz ez euste-moduluan, halakorik dagoenean, Mendixolan moduan);</li> <li>• jatorriak jangelan egiten dira, hezitzaile baten laguntzan;</li> <li>• jarduerak oinarritzko oihiturak bereganatzearekin, logela garbitzearekin, eta txandako hezitzailearen eskuharmentarekin zerikusia dute.</li> </ul> </li> <li>- Normalizazio progresiboa: Bi azpialdi berezitzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• lehenengoak hurrengo ezaugarriak ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>* 6 eguneko iraupena du;</li> <li>* nerabeak ikasketxe barruan egiten diren jarduera guztietan hartzen du parte;</li> <li>* tutorearekin eta ikasketxeiko pertsonal teknikoarekin elkarrizketa pertsonalak ditu;</li> <li>* gela nerabearena da;</li> <li>* jatorriak jangelan egiten dira, taldeko gainerakoekin;</li> <li>* denbora librean logelan egon behar du ikasketxearen funtzionamenduari buruzko erregimendua ikasten;</li> <li>* kanpora irteteko aukera du, talde-jardueretan parte hartzera, baldin eta ihes egiteko arriskurik ez badago;</li> <li>* dei egunero jaso ditzake;</li> <li>* dei bat egin dezake;</li> <li>* familiakoek bisita bat izan dezake;</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> </li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programatutako urratsak hurrengoak dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sarrera edo 0 urratsa: Guxtienez 6 ordu irauten du eta gehienez 48 ordu. Helburua beharrezko garbitasun eta osasun-ohiturak bereganatzea da, hezkuntza-komunitatean integratu ahal izan dadin, eta galdutako zaiakion jokabide-arauak eta agindutako bete ezean jasan behariko dituen ondorioak ezagutu ditzan. Hausnartzeko eta ikastetxera egokitzeko urratsa da. Bete behariko dituen hezkuntza-urratsak, galdutako zaiakion betekizunak eta edukiko dituen pribilegioak ematen zaizkio ezagutza. Urrats honetan hezitzaile bat du bere gainean eta gainerako profesionalak ezagutzen ditu. Denbora guztian logelari egon behar du, giltzaperatuta, eta ez du ez heziketa ez elkarbizitza-jardueretan parte hartzen. Ikastetxeak emandako arropak erabiltzen ditu.</li> <li>- Egokitze edo 1. urratsa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Guxtienez 15 egun irauten du eta gehienez 2 hilabete.</li> <li>• Helburuak derrigorrezko jarduerak ezagutzea, pixkanaka horietan sartzea, horietatik onura ateratzea eta elkarbizitza-arauak bereganatzea dira.</li> <li>• Urrats honetara pasatzean, nerabeak bere kasuaren jarraipena eramango duen tutorea izendatzen zaio.</li> <li>• Nerabeak jarduera guztietan parte hartzen du, irteerakoetan izan ezik.</li> <li>• Afal ondoren logelara itzuli behar du, oheratu baino lehen ordubetez lan egiteko.</li> <li>• Giltzaperatuta egoten da.</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• bigarrenak hurrengo ezaugarriak ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>* 7 eguneko iraupena du;</li> <li>* nerabeak ikastetxe barruan egiten diren jarduera guztietan hartzen du parte;</li> <li>* tutorearekin eta ikastetxeko pertsonal teknikoarekin elkarbizitza pertsonalak ditu;</li> <li>* gela nerabearena da;</li> <li>* jatorduak jangelan egiten dira, taldeko gainerakoekin;</li> <li>* denbora librean taldearekin dago;</li> <li>* kanpora irtereko aukera du, talde-jardueretan parte hartzera, baldin eta ihes egiteko arriskunik ez badago;</li> <li>* deiak egunero jaso ditzake;</li> <li>* bi dei egun ditzake;</li> <li>* familiakoen bisita bat izan dezake.</li> </ul> </li> <li>b) bigarren modalitatea erregimen erdizabaleko barmaldi-kasuetan soilik aplikatzen da, nerabeek ikastetxera sartzean jokabide ezegokiak dituztenean (agresibitatea, gehiegizko urdurtasuna, ihes-arriskua) edo egoera fisiko txarrean daudenean (alkohola edo gainerako drogak kontsumitzea). Bi aldi bereizten dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoeta: <ul style="list-style-type: none"> <li>• gehienez 24 ordu irauten du; salbuespeneko kasuetan epe hori 48 ordu luza daiteke nerabea oso egoera txarrean sartu bada, aldez aurretik adin txikiakoen epaitegiari ezagutzera emanez;</li> <li>• gela eusgunean dago;</li> <li>• jatorduak eta norberaren garbitasuna ere eusgunean egiten dira;</li> <li>• jarduerak onarritako ohiturak bereganatzea bideratuak daude (norberaren garbitasuna, janariak, garbiketa,...);</li> <li>• txandan dauden hezitzaileen eskuharmenik egoten da.</li> </ul> </li> <li>- Normalizazio progresiboa: bi azpialdi bereizten dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• lehenengoak hurrengo ezaugarriak ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>* 6 eguneko iraupena du;</li> <li>* nerabeak ikastetxe barruan egiten diren jarduera guztietan hartzen du parte;</li> <li>* gela nerabearena da;</li> </ul> </li> <li>* jatorduak jangelan egiten dira, hezitzailearen laguntza;</li> <li>* denbora librean logelari egon behar du ikastetxearen funtzionamenduari buruzko erregiamendua ikasten;</li> <li>* tutorearekin eta ikastetxeko pertsonal teknikoarekin elkarbizitza pertsonalak ditu;</li> <li>* deiak egunero jaso ditzake;</li> <li>* dei bat egun dezake;</li> <li>* familiakoen bisita bat izan dezake.</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul>	



ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p>• Pribilegioak izaten hasten da: bere amopak erabili ahal izatea, eguerdian denbora librea, familiakoan bisitak, telefono-deiak, eta egunero 4 zigarro erretzea, hartara ohiuta balego.</p> <p>- Elkarbizitza edo 2. urratsa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gutxienez 3 hilabeteko iraupena dauka eta neuria amaitu arte traun dezake.</li> <li>• Helburua nerabeak hezte eta trebatzea da, errazago gizarteratu daitezen eta horretarako egoera personal hobea eta harremanak izateko gaitasun handiagoa izan ditzaten.</li> <li>• Urrats honetan zehar, pixkanaka murrizpenak gainditzen joaten dira, ikastetxean nolabait bizitzen soilik egotea lortu arte, hezkuntza eta trebakuntza-jarduera guztietan parte hartuz.</li> <li>• Bai borondatezko eta bai derrigorrezko jardueretan duen bilakaera positiboa bada, komunitate-ingurumeko heziketako, lan-aurreko eta aisiako baliabideetan sar dadin izapideak egiten hasten da.</li> <li>• Printzipioz, gauzez atea ixten zaie, baina norma-lena hori egin behar ez izatera heltzea da.</li> <li>• Urrats honetatik aurrera, astero diru-kopuru bat ematen zaie, astean bi dei jaso edo egin ditzakete, epailearen baimenarekin asteburuetan eta oportuntan beren etxera joan daitezke, eta logela apaindu dezakete.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• bigarrenak hurrengo ezaugarriak ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>* 7 eguneko iraupena du;</li> <li>* nerabeak ikastetxe barruan egiten diren jarduerara guztietan hartzen du parte;</li> <li>* kanpora irteetako aukera du, talde-jardueretan parte hartzera, baldin eta ihes egiteko arriskunik ez badago;</li> <li>* tutorearekin eta ikastetxeko pertsonal teknikoarekin elkarriketa pertsonalak ditu;</li> <li>* gela nerabearena da;</li> <li>* jatorduak jangelan egiten dira, taldeko gainerakoekin;</li> <li>* denbora librean taldearekin dago;</li> <li>* deiak egunero jaso ditzake;</li> <li>* bi dei egin ditzake;</li> <li>* familiakoan bisita bat izan dezake.</li> </ul> </li> </ul> <p><u>Behaketa-urratsa</u></p> <p>Ikastetxera sartzean hasten da eta hilabete inguru irauten du. Helburuak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- garapen-eremu guztiei buruzko informazioa jasotzea;</li> <li>- arazoak, gabeziak eta baliabide pertsonalak identifikatzea;</li> <li>- egin beharreko esku-hartzea zehaztea.</li> </ul> <p><u>Eskuaharman-urratsa</u></p> <p>Nerabeari eta bere familiari zuzendua dago.</p> <p>Nerabeari dagokionez, garapenaren oinarriko ohiturak bereganatuz (norberaren garbitasuna, garbiketa eta ordena, elikadura), ezagutzaren eta jokabidearen garapena sustatuz, alderdi afektiboa garatzera, heziketa edo/eta lan-aurreko irakas-prozesura, eta laguntza sozialerako sare berrien sormena sustatzera bideratua dago. Banako hezkuntza-proiektuan oinarritzen da, eta proiektu hori hezkuntza-kontratuaren, jardueren programaren eta eskuaharman psikopedagogikoaren programaren bidez gauzatzen da.</p> <p>Familiari dagokionez, famili eskuaharmanari buruzko programa egiten da.</p> <p><u>Gizarteratze-urratsa</u></p> <p>Programazio osoaren helburua nerabea ingurune sozial eta kulturean integratzea da.</p> <p>Helburuak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• itzuliko den gizarte-famili ingurunean gero eta egun gehiago igarotzea;</li> <li>• nerabearen autonomia eta erantzukizuna sustatzea heziketa edo/eta lan-baliabideetan jarraitzeko;</li> <li>• nerabearen gizarte-ingurumetik gertuko laguntza sozialaren sareak bermatzea;</li> <li>• familiarekin egiten den lana areagotzea;</li> <li>• beharrezkotzat jotz gero, kasuan kasuko zerbitzu sozialekin barnualdi osteko jarraipen-plana egitea.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p>- Autonomia edo 3. urratsa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurria amaitu arte irauten du, eta erregimen erdizabalean edo zabalean egoten dira.</li> <li>• Helburua nerabeei ahalik eta autonomia pertsonal handiena ematea da.</li> <li>• Komunitate-inguruneke hezkuntza edo trebakuntza-jarduera arautuetan eta aisia-jardueretan, besteak beste, hartzen dute parte, lagunekin irteera uzten zaie, etab.</li> <li>• Behar dituzten dei guztiak egin eta jaso ditzakete, aldez aurretiko baimenarekin, astero etxera joan daitezke, eta ematen zaien paga aurreko urratseko pagaren bikoitza da.</li> <li>• Asteburuko barrualdi-neurriak 1. urratsean hasten dira, eta kautelazko barrualdiak 0 urratsean.</li> </ul>		
<b>2. Pertsonalaren eta erabiltzaileen arteko harremanak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalen jardunak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan jasotako jarduera-printzipioekin, helburuekin eta helburuekin eta funtzioekin bat datoz.</li> <li>• Nerabeek diotenez, hezitzaileek haiekin harreman onak izaten saiatzen dira; hatak, ostera, hezitzaileekin hitz egitea saihesten ahalegintzen dira, hainbeste arrazoiak aspertu eta enbarazu egiten baitiie; nahiego dute ezer ez azaltzea, zer, nola eta zergatik azaltzea baino. Eta hori da, hain zuzen ere, Andolluko hezkuntza-proiektuaren xedea: nerabeak pentsatzera eta errealitateari aurre egitera bultzatzea, jokabide-kontsignak automatikoki jarraituzera mugatu ez daitezen.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalen jardunak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan jasotako jarduera-printzipioekin, helburuekin eta funtzioekin bat datoz.</li> <li>• Nerabeek diotenez, hezitzaileek haiekin harreman onak izaten saiatzen dira. Astero egiten diren tutoretza-bileretan (elkarrizketa pertsonala) hezitzailearekin konfiantza bereziko harremanak izateko aukera dute. Bestalde, erabiltzaileen iritziz, hezitzaile gehiegi daude, eta horrek eguneroko bizitza zailago egiten du: «kontrolatu beharra dago batzuen eta bestearen aurrean esan edo egin daitekeena».</li> <li>• Nerabeengana zuzentzeko orduan duten hitz egiteko era egokia da; ikusi ahal izan denez, naturaltasunez hitz egiten diete, oro har egoki den autoritatezko edo familiantezko tonua erabiltz.</li> <li>• Ukitze fisikoa ere naturala eta egokia da.</li> <li>• Beharrezkoa izanez gero, euste-fisikoko neurriak aplikatzen dira –nerabeari eustea–, besteei, bere buruari edo gauzei kalterik egin ez diezaion.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bestalde, pertsonalekoak beraiei laguntzen saiatzen direla diote. Horren aurkako adibideren bat ipintzen dutenean, beti gauza materialei buruzkoa da (zerbait erostea ukatzea, garestiegiztat edo ezegokitzat jotzeagatik, esaterako).</li> <li>• Nerabeengana zuzentzeko orduan duten hitz egiteko era egokia da; ikusi ahal izan denez, naturaltasunez hitz egiten diete, oro har egoki den autoritatezko edo adiskidetasunezko tonua erabiliz.</li> <li>• Ukitze fisikoari dagokionez, nerabeek emakumezko hezitzaileetan eskertu egiten dute (telebista elkarrekin ikustea, orrazten laguntzea, etab.); gizonezko hezitzaileenganako, aldiz, gaitzespena erakusten dute.</li> <li>• Beharrezkoa izanez gero, euste-fisikoko neurriak aplikatzen dira -nerabeari eustea-, besteei, bere buruari edo gauzei kalterik egin ez diezaien.</li> </ul>		
<b>3. Normas de convivencia</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarbizitza-arauak argi eta garbi jasota daude, nerabeek ikastetxera sartzean ematen zaien eskubideen eta obligazioen dokumentuan, ikastetxearen funtzionamenduari buruzko erreglamenduan eta hezkuntza-proiektuan.</li> <li>• Arauen benetako funtzionamendua ezagutzeko tresnarik zuzenekoenak praktika, biltzarretako eztabaidak eta tutoreekiko elkarrizketak dira.</li> <li>• Hezkuntza-taldeko kide guztiak ikuspuntu bera dute, indarreniazko haserrealdiak sailhesteko edo tratatzeko erarik hobeena ir buruz eta beren jardunak erregla-menduari egokitzearen inguruan. Nerabeek aurrekoa berresten dute, baina hezitzaile batzuek besteak baino zorrotzagoak direla diote.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarbizitza-arauak argi eta garbi jasota daude, erabiltzaileei sartzean ematen zaien ikastetxearen funtzionamenduari buruzko erregimenean. Ikastetxeko bizitza eraentzen dute, eta hezitzaileekin edo nerabeekin hitz egiten den bakoitzean present daudela ikusten da. Bizitzeko jarraibideak oso arautuak daude, izan ere, aplikatzen den ereduaren esparruan arauak barneratzea elementu nagusia da eta.</li> <li>• Arauen benetako funtzionamendua ezagutzeko tresnarik zuzenekoenak praktika eta tutoreekiko elkarrizketak dira. Ezaugarri hauetako nerabeentzat arauak ikastea oinarritzkoa da; hala ere, bakoitzak, ikastetxe barruan zein kanpoan, arau horiek era ezberdinean erabiltzen ditu. Kasu batzuetan, dena hain arautua dago eta nerabeek arauak hain ongi ezagutzen dituzte, ezen arauak beren onurarako erabiltzera iristen direla: besteak beste, beren logeletan egon nahi badute, logeletan egotera behartzen dituen zehatutako edozer egiten dute; kide bat zigor dezaitela nahi badute, enbarazu egiten diote, erreakzio zehagarria izatera iristen den arte; Gehiegizko egokitze horrek profesionalak kezkatzen ditu, hezkuntza-helburuak lortzea zailago egiten baitu. Nerabe batzuek ditotenez, arauetara egokitzen dira ikastetxeko erregela eta egoera hobeagoa lortzeko modua delako; baina ez dira konturatzen ikasten dituzten jokabide-pautak beren ohiko gizarte-ingurunean zein baliagarri izan daitezkeen.</li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ereklamenduak ez ditu ustez eskubideak urratzen dituzten disziplina-neurri jakinak espresuki debekatzen, baina profesionalek tratatu txarra debekatzen dela diote.</li> <li>• Ikusi denez, eta erabiltzaileekin eta profesionalekin izandako elkarrizketetatik ondorioztatu denez, ez dirudi egitegizko disziplina-neurriak aplikatzen direnik, hala nola, tratatu txar fisikoak, hitzezkoak, emozionalak, edo oinarritzko jatorduak kentzea.</li> <li>• Hezkuntza-proiektuan aplikatutako jarduketaren printzipioak jokabide ona sarizera bideratuak daude, onargarriak ez diren jokabideak zigortzeko zehapenezko neurrietara jotzera mugatu beharrean. Hori urrats ezberdinak gainditzean datza. «Moraliki» sartzen dituzte, autosatisfazioa autonomiarako tresna moduan garatzen saiatuz.</li> <li>• Zehapenak horien oinarri diren gertakariaren proportzioak izaten dira eta gertakaria jazo eta berehala aplikatzen dira; horretaz gain, kaltea konpontzea eta, kasua denean, biktimarekin adiskidetzea sustatzen da. Hala ere, nerabeen iritziz, zehapenak, ereklamenduarekin bat datozen arren, proportzioagabeak dira.</li> <li>• Profesionalek ez dute zehapena aplikatzeko koordinatzailearen baimenik behar, baina egunero gertakarien berri ematen dute, erregistro batean jasotzen dira. Arazorik larrienak talde teknikoan eztabaidatzen dira eta, beharrezkotzat jotz gero, Eusko Jaurlaritzari edo epaitegiri ezagutarazten zaizkie.</li> <li>• Kalteak ekiditzeko nerabeak nahitaz fisikoki geldiarazi behar badituzte, ahalik eta indarkeriarik gutxienarekin egin behar da. Momentuz, hezitzaileek eta nerabeek ditotenez, ez da horrelakorik gertatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-taldeko kide guztiak ikuspuntu bera dute, indarkeriazko haserredialdik sailhesteko edo tratatzeko erarik hobeenera buztu, bai eta beren jardunak erregulamentu-erregulazioekin egokitzearen inguruan ere. Nerabeek beren jokabideen ondorioak argi dituztela diote; hori teoria konduktista eta kognitiboan oinarrituta irakatsi zailak da (ondorioei lotutako pentsamendua). Hala ere, hezitzaile batzuk beste batzuk baino zorrotzagoak dira diote.</li> <li>• Ereklamenduak ez ditu ustez eskubideak urratzen dituzten disziplina-neurri jakinak espresuki debekatzen, baina profesionalek edozein zigor fisiko debekatzen dela diote.</li> <li>• Ikusi denez, eta erabiltzaileekin eta profesionalekin izandako elkarrizketetatik ondorioztatu denez, ez dirudi erregulamentuan aurrekusten ez diren disziplina-neurriak aplikatzen direnik. Dena den, azpimarratzekoa da jokabideak larriak direnean 15 egun arte euste-moduluan egonarazi ahal izango dituztela, hori ez dator gainerako sistema juridikoetan aurrekusten denarekin bat, ezta Adin Txikiakoen Justiziarik buruzko Lege Organikoaren Aurreproiektuarekin bat ere.</li> <li>• Duela gutxi Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzak eta Berritzi Hezkuntza Elkarrekin jokabide larrien kasuan aplikatzen ziren disziplina-prozedurak aldatu dituzte; horretarako, jarduteko protokoloa egin dute eta berregokitze kognitibo konduktualaren alda izena ipini diote.</li> <li>• Zehapenak horien oinarri diren gertakariaren proportzioak izaten dira eta gertakaria jazo eta berehala aplikatzen dira; horretaz gain, kaltea konpontzea eta, kasua denean, biktimarekin adiskidetzea sustatzen da, ikaskuntzaren teoriaren printzipioak jarraituz.</li> <li>• Hezkuntza-proiektuan aplikatutako jarduketako printzipioak jokabide ona sarizera bideratuak daude, onargarriak ez diren jokabideak zigortzeko zehapenezko neurrietara jotzera mugatu beharrean. Hori urrats ezberdinak gainditzean datza.</li> <li>• Langileek ez dute zigorra aplikatzeko zuzendariaren baimenik behar, baina egunero ematen dute gertakarien berri, erantzaun zigorgarrien fitxan jasotzen.</li> <li>• Kalteak ekiditzeko nerabeak nahitaz fisikoki geldiarazi behar badituzte, ahalik eta indarkeriarik gutxienarekin egin behar da.</li> <li>• Jokabide larrien kasuan disziplina-prozedurara jotzea koordinatzaileak (eguneroko biritzako taldearen iritzia jasotzen baitu) eta gainbegiratzaileak (arlo ezberdinen iritzia jasotzen baitu) egiten duten bilera eztabaidatzen da, zuzendariaren oniritziarekin.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p><b>4. Erabiltzaileak baimenik gabe ez agertzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko erreglamenduan nerabea agertzen edo bueltatzen ez bada zer egin behar den zehazteko jarraibideak azaltzen dira. Bueltan egongo zela pentsatzen zenetik ordubete ixaroten da; epe horretan atzeratzen ari dela eta horren arrazoia adierazteko abisatzen ez bada, ihes egindakotzat jo eta Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzari eta adin txikikoen epaitegiari ezagutarazten zaie. Hala ere, profesionalak diote, hori gertatuz gero, nerabearen pertsonalitatea, ezaugarriak eta barnean egon den bitartean izan duen garapena hartuko liratekeela kontuan; kasuaren arabera, agertzen ez dela jakinarazi baino lehen nerabea aurkitzen saiatuko litzateke.</li> <li>• Ikastetxea martxan jarri denetik inork ez du ihes egin.</li> <li>• Nerabeek badakite baimenik izan gabe agertzen ez badira ezartzen zaien zehapena zein den.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabea baimenik gabe agertzen ez bada -ihes egin duelako edo baimenarekin atera arren bueltatu ez delako- zer egin behar den zehazteko idatzizko jarraibiderik ez dago. Hala ere, horren inguruan Eusko Jaurilartzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzarekin hitzez honako hau adostu dute: nerabea ez dagoela ziurtatzen duen hezitzaileak koordinatzaileari emango dio horren berri, eta horrek, berriz, zuzendariari; ihesa ezagutarazteko fitxa bete ondoren, Jaurilartzari jakinaraziko zaito, eta horrek, berriz, epaitegiari aditzera emango dio, bilatzeko agindua eman dezan. Nerabea bueltatuz gero, hori ere jakinaraziko da. Nerabea agertzen ez denetik Eusko Jaurilartzari jakinarazteko ordubeteko epea dago, eta epaitegiari aditzera emateko, berriz, 24 ordukoa.</li> <li>• 1997an nerabeak baimenik gabe agertu ez diren kasuak egon dira.</li> <li>• Nerabeek badakite baimenik izan gabe agertzen ez badira ezartzen zaien zigorra zein den.</li> <li>• Gertakari horien ondoren, hezitzaileek nerabearekin gertatutakoaren arrazoiei buruz hitz egiten dute, esku hartzeko neurririk egokienak hartzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabea baimenik gabe agertzen ez bada -ihes egin duelako edo baimenarekin atera arren bueltatu ez delako- zer egin behar den zehazteko idatzizko jarraibiderik ez dago. Hala ere, horren inguruan Eusko Jaurilartzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzarekin hitzez honako hau adostu dute: nerabea ez dagoela ziurtatzen duen hezitzaileak koordinatzaileari emango dio horren berri, eta horrek, berriz, zuzendariari; ihesa ezagutarazteko fitxa bete ondoren, Jaurilartzari jakinaraziko zaito, eta horrek, berriz, epaitegiari aditzera emango dio, bilatzeko agindua eman dezan. Nerabea bueltatuz gero, hori ere jakinaraziko da. Nerabea agertzen ez denetik Eusko Jaurilartzari jakinarazteko ordubeteko epea dago, eta epaitegiari aditzera emateko, berriz, 24 ordukoa.</li> <li>• 1997an nerabeak baimenik gabe agertu ez diren kasuak egon dira.</li> <li>• Nerabeek badakite baimenik izan gabe agertzen ez badira ezartzen zaien zigorra zein den.</li> <li>• Gertakari horien ondoren, hezitzaileek nerabearekin gertatutakoaren arrazoiei buruz hitz egiten dute, esku hartzeko neurririk egokienak hartzeko.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍEZ HEZIKETA ZENTROA
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebaluazioa hasi zenean, ikerketa-taldeari asteburuko baimenaren ondoren aurreko gauean heldzekoa zen erabiltzaileetako bat baimenik izan gabe bueltatu ez zela ezagutarazi zizaion. Egoera egiaziatu zenean, txandako hezitzailea gau horretan bertan koordinatzailearekin harremanetan jarri eta hori, berri, familia-ekin kontaktuan jartzen saiatu zen; hala ere, solilik erabiltzailearen artearekin hitz egitea lortu zen eta horrek ez zekien neba non zegoen; dena den, kezkatu egin zen eta gauetz eta hurrengo goizean berriro deitu zuen. Goizean zuzendariari eta Eusko Jaurlaritzari egoeraren berri eman zitzaion. Goizeko 10,30etan oraindik ez zekiten ezer, baina koordinatzaileak esan zuenez, ospitaleetara eta polizia jo zuten, istripurik izan ote zuen galdetzeko, eta erantzuna ezezkoa izan zen. Zuzendaria ez zen bedurtu, hezkuntza-proiektuan oso aurreratu zegoen nerabea izanik, jokabide nahiko normalizatu batzuen eta lehenengo aldia baitzen. Nerabea ikastetxera arratsaldetako lehenengo orduetan itzuli zen.</li> </ul> <p>Argi ikusten da, nerabearen jokabidearengan konfiantza zutenetz, taldeak malgutasunez jokatu nahi izan zuela.</p> <p>Edonola ere, kasu hauetan Eusko Jaurlaritzari eta epaitegiari horretarako epeetan jakinaraztea beharrezkozat jotzen da, nahiz eta, gero, gertakaria azaltzeko arrazoiak emanez eta arrazoituz gaztearengan ondorio negatiborik ez eragin.</p>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<b>H. ARRETA-EREMUAK</b>		
<b>1. Hezkuntza</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko profesional guztiak hezkuntza eta trebakuntza oinarritzotzat jotzen dituzte. Arreta-planak kultura oinarritzotzat jotzen dituzte. Arreta-planak kurrikularen edukia banakatzen du, nerabe bakoitzaren beharrei eta gaitasunari egokitu dakien eta, kasua denean, hezkuntza-zikloaren garapena bermatzen dadin. Hala ere, nerabe gehienek oso gazte etengabeko ikasketak.</li> <li>• Ikastetxe honek eta gainerakoek hezkuntzarekin arazo larria dute. Nerabeak erregimen itxian daudenean, ezin dira komunitate-ingurunean dauden eskolotara joateko ikastetxetik irten eta, hortiaz, hezkuntza-kurrikulua ikastetxeko ikasgelan burutzen dute. Hala ere, ikasketak mota hori ez dago Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak homologatua eta, beraz, ez da ofizializatzen.</li> <li>• Nerabeen hezkuntza-maila autonomi erkidego honetako batezbestekoarena baino txikiagoa da.</li> <li>• Kontzentratzeko arazo handiak dituzte; horrela, bada, kurrikularen helburuetako bat zailtasun horiek gainditzea izaten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko profesional guztiak hezkuntza eta trebakuntza oinarritzotzat jotzen dituzte; hala ere, barrualdi-neuriaren iraupenak eremu horietan eta gainerakoetan lan egiteko aukera baldintzatzen duela diote.</li> <li>• Ikastetxeko erabilzaileen ikasketak oso baxuak izaten dira, beti Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoarekin baino baxuagoak. Dena dela, ikastetxera sartzen direnetik neurria amaitu eta irretzen diren arte erabilzaile gehienek hezkuntza-maila asko hobetzen da.</li> <li>• Kontzentratzeko arazo handiak dituzte; horrela, bada, kurrikularen helburuetako bat zailtasun horiek gainditzea izaten da.</li> <li>• Normalean, beren ekimenez ez dituzte beren erantzukizuneko eginbeharrak betetzen; hasierako urratsetan beren buntak motibatzea asko kostatzen zaie.</li> <li>• Banako kurrikularen eta laguntza-ikasgelara joatearen helburu nagusia eskola normalizatueta lehenbailehen bergizteratzeko aukera izatea da.</li> <li>• Hasierako urratsetan errespetu-falta eta eta gatazka-harremanak direla-eta nerabeen eta hezitzaile-taldearen artean arazoak egoten diren arren, normalean harreman onak izatera iristen dira; taldeko zenbait kideekin konfiantza-harreman egokiak ere -hezkuntza-loturak- izaten dituzte.</li> <li>• Erabilzaileek taldeko lanak egiteko gaitasuna izaten dute, baldin eta argi eta garbi zehaztutako arauekin bat badatoz.</li> <li>• Nerabeen autoestima eta duintasunarekiko errespetua gogor landu behar izaten da, baita kideen sentimenduekiko errespetua ere, norbait espioziozko akertzat izateko joera izaten baitute.</li> <li>• Elkarriketa pertsonaletan beren sentimenduak azaltzera iristen dira; nerabe jitoei sentimenduak kanporatzeko orduan erraztasun handiagoa ikusten zaie.</li> <li>• Brikastetxetan irakaskuntza, behaketa-aldian antzeman diren beharren arabera antolatzen da. Gaur egun nerabe batzuk Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI), Lanbide-hastapenatarako Ikastetxera (LHI), ONCEko lan-aurrerketa-erabiltzaileekin, eta komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxera, joaten dira.</li> <li>• Ikastetxean laguntza-ikasgela dago, pedagoگوaren zuzendaritzapean. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez du irakaskuntza hori ofizializatzen. Pedagoگو Zuzendaritzako arduradunak egoera zaila dela diote, nahiz eta komunitate-ingurunean ikastetxeek hezkuntza eta heziketa-baliabideetan laguntza handia ematen dioten. Bai nerabeek eta bai hezkuntza-taldeak lehenbailehen nerabe guztiak eskolatzeko eta ikasketak ofizializatzen dituzte beharra dagoela diote.</li> <li>• Kurrikulua nerabeen beharretara eta gaitasunera egokitzea bi programazio-moten arabera egiten da, epe luzean esku hartu ote daitekeen ala epe laburreko heziketa aplikatu behar ote den kontuan hartuta.</li> </ul>	

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Banako kurrikulua izatearen helburu nagusia eskola normalizatuetan lehenbailehen bergizartaratzeko aukera ematea da.</li> <li>• Nerabe guztiak beren logeletan eskolako etxekolanak egiteko idazmahaita dute.</li> <li>• Kurrikulua garapen integrala lortzera bideratua dago eta hala arlo intelektualean nola garapen fisiko eta pertsonaleko arloetan eta autonomi sustapenean eragiten du.</li> <li>• Hezkuntza-helburu nagusi bat nerabeen erantzukizun-zentzua garatzea da, haien elkarbizitza-pautak eta autonomi maila hobetu daitezzen.</li> <li>• Ahal den neurrian eta baldin eta nerabearen barmaldi-modalitatearen aurka ez badaoa, komunitate-ingurunean hezkuntza-jarduerak astero ebaluatzen dira eta, horretarako, eguneroko jarduera-erregistroaren fitxak eta autoebaluazioaren fitxak erabiltzen dira. Hiru hilabetero, hezkuntza-ebaluazio orokorra egiten da.</li> <li>• Hezkuntza-helburu nagusi bat nerabeen erantzukizun-zentzua garatzea da, haien elkarbizitza-pautak eta autonomi maila hobetu daitezzen.</li> <li>• Ahal den neurritan eta baldin eta nerabearen barmaldi-modalitatearen aurka ez badaoa, komunitate-ingurunean egiten diren jardueretan parte har dezatela bultzatzen da.</li> <li>• Nerabeei beharrezko orientazioa eta laguntza ematen zaie; horretaz gain, ikasketetan zein heziketan, pertsona moduan, eta jokabide aldetik izan duten garapena behar bezala ezagutzera ematen zaie, haien motibazioa areagotu dadin.</li> <li>• Xedea autoestima bultzatzea da, horregatik, trebeak izateagatik nabarmentzen direneko jarduera edo gaiak modu berezian lantzen dira.</li> <li>• Nerabe batzuei eskaini behar zaien hezkuntza-orientazioaren inguruan egon litekeen irizki ezberdinak Talde Teknikoan eztabaidatzen dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeek logeletan eskolako etxekolanak egiteko idazmahaita dute, baina hezkuntza-arturadunek diotenez, egin beharrik taldeka egiten dituzte, konpentsatzeko izaera dutenean izan ezlik.</li> <li>• Erabiltzaileek kontzentratzeko gaitasun mugatua dute, egunean zehar ikasgelako eta tailerreko jarduerak eta psikologi esku-hartzeko eta sustapen soziokulturalerako programak burutzen dira.</li> <li>• Banako planaren bidez erabiltzailearengan gai jakinetarako duten abilezia berezia eta lehentasuna sustatu nahi dira.</li> <li>• Erabiltzaileak klaserara joaten diren ikastetxeko arturadumekiko harremanez ikastetxeko ikasgela-arturaduna eta gainbegiratzailera arduratzen dira.</li> <li>• Kurrikulua garapen integrala lortzera bideratua dago eta hala arlo intelektualean nola garapen fisiko eta pertsonaleko arloetan eta autonomi sustapenean eragiten du.</li> <li>• Hezkuntza-jarduerak astero ebaluatzen dira eta, horretarako, eguneroko jarduera-erregistroaren fitxak eta autoebaluazioaren fitxak erabiltzen dira. Hiru hilabetero, hezkuntza-ebaluazio orokorra egiten da.</li> <li>• Hezkuntza-helburu nagusi bat nerabeen erantzukizun-zentzua garatzea da, haien elkarbizitza-pautak eta autonomi maila hobetu daitezzen.</li> <li>• Ahal den neurritan eta baldin eta nerabearen barmaldi-modalitatearen aurka ez badaoa, komunitate-ingurunean egiten diren jardueretan parte har dezatela bultzatzen da (heziketa- eta prestakuntza-zentroak, aisialdiko taldeak, kirol eta kultur elkarteak, e.a.). Nerabeak nolako motibazioa duen edo ikasturteko zein alditan sartu den ere kontuan hartzen da, noski.</li> <li>• Nerabeak beren gizarteaz eta kulturaz edo kultura-aniztasunaz arduraratzeko ahalginak egiten dira. Esate baterako, jatorri arabiarreko nerabeak Arabiako kultur elkarte batekin harremanetan jarri zituzten.</li> <li>• Nerabeei beharrezko orientazioa eta laguntza ematen zaie; horretaz gain, ikasketetan zein heziketan, pertsona moduan, eta jokabide aldetik izan duten garapena behar bezala ezagutzera ematen zaie, haien motibazioa areagotu dadin. Hori guztia nagusiki tutoretza-bileren bidez egiten da.</li> <li>• Hezkuntzako pertsonalaren eta gainerakoen esku-hartzea koordinatzeko, eguneroko bizitzako bilera, arlo-elkarrizketak eta gainbegiratzailaren eta koordinatzailearen koordinazio-lana daude.</li> <li>• Irizki-desadostasunak arlo bakoitzeko arturadunak konpontzen ditu, hau da, gainbegiratzeko arturadunak eta koordinatzaileak. Azkeneko instantzian zuzendariak erabakitzen du.</li> </ul>	



ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p><b>2. Osasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahal denean, bakoitzaren espedientean osasun-historia eta nerabearen arreta egokia bermatzeko beharrezko informazioa jasotzen dira. Hala ere, hori ez da ohikoa izaten, gazteek berak eta beren familiarek horren inguruan ezer jakiten ez dutenez gero, informazio hori jasotzea oso zaila izaten baita.</li> <li>• Medikuaeren irizpidearen arabera, osasun integraleko plana aplikatzeko aukera baloratzen da: prebentziozko neurriak, aginak zaintzea, ikusmena, entzumena, etab. Ikasketxean denbora gutxi egoten direnez gero, iraupen ertain edo luzeko tratamenduak aplikatzeko konfiantzarik ez dagoela ikusten da, neurria bukatutakoan horien jarraipena nekez egiten baita.</li> <li>• Gaur egun ikasketxean bizi diren nerabeen osasun-arretaz Osakidetza landa-gunean duen zentrua arduratzen da.</li> <li>• Adimen-osasuneko arazoez arduratzeko, ikasketxeak Arrasateko Ospitale Psikiatrikoko Umeen eta Gazteen Unitatearekin lankidetzaz hitzarmena du.</li> <li>• Profesionalek nerabeen osasun-beharrak ezagutzen dituztela dirudi, eta beharrezkoa denean espezialistei aholkua eskatzen diete.</li> <li>• Nerabeen osasunari buruzko erabakiak hartzeko orduan berariaikin hitz egiten da.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bakoitzaren espedientean osasun-beharren arreta egokia bermatzeko beharrezko informazioa jasotzen da. Informazio hori, kasuan kasuan, nerabea ikastetxera sartzean bidaltzen diren txostenen bidez edo/eta barruan dagoen bitartean egoki izateagatik egin direnen bidez lortu da.</li> <li>• Ikastetxera sartzen direnean, osasun-azterketa osasun-arazoak dituztela sumarazten duen arazoiren bat dagoenean soilik egiten zate. Ez zate sistematikoki azterketa osoa egiten.</li> <li>• Beharrezkoa denean, nerabea kasuan kasuko osasun-etxera eramaten da eta, horrek, egokitzat jotzen badu, arreta espezializatuta bidaltzen du, ohiko funtzionamendur-pautak jarraituz.</li> <li>• Profesionalek nerabeen osasun-beharrez arduratzen direla dirudi, eta beharrezkoa denean espezialistei aholkua eskatzen diete.</li> <li>• Nerabeen osasunari buruzko erabakiak hartzeko orduan berariaikin hitz egiten da.</li> <li>• Osasunerako hezkuntza sustatzen da. Ikasketxean, Osakidetza, besteak beste, humengo gaiet buruz argitaratu dituen foiletoak daude: elikadura osasuntsua, tabakoa, alcohola edo gainerako drogak kontsumitzearen ondorioak, eta sexu-harremanak gaixotasun transmitigarriak kutsatzeko arriskurik gabe izateko jarraibideak. Bestalde, astero ematen den programatutako jarduera-arlo bat osasunaren sustapena da eta bertan puntu horiek guztiak ikutzen dira.</li> <li>• Pertsonalekoek beren jokabidea osasunerako hezkuntzako programetan zehaztutako jarraibideetara egokitzen saiatzen dira (esaterako, hezitzaileen bulegoetan baino ez dute erretzen, edo, jangeletan, baldin eta gazteek ere bertan erre badezakete).</li> <li>• Tabako-erretzea erregulatuta dago eta izandako jokabidearen arabera irabazten edo galtzen den pribilegioa da.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasunerako hezkuntza sustatzen da. Ikasketxean, Osakidetzak, besteak beste, hurrengo gaiet buruz argitaratu dituen folietoak daude: elikadura osasuntsua, tabakoa, alkohola edo gainerako drogak kontsumitzearen ondorioak, eta sexu-harremanak gaixotasun transmitigarriak kutsatzeko arriskurik gabe izateko jarraibideak. Bestalde, kurrikuluan aurreikusitako eskuharren-esparru bat osasunaren sustapena da eta bertan puntu horiek guztiak ikutzen dira.</li> <li>• Pertsonalekoek beren jolabideak osasunerako hezkuntzako programetan zehaztutako jarraibideetara egokitzen saiatzen dira (esaterako, hezitzaileen bulegoetan baino ez dute erretzen).</li> <li>• Erabiltzaileek ikasketxearen kanpoaldean soilik erre dezakete, eta zigarro-kopurua bakoitzaren planean ezarritako helburuen arabera izango da.</li> </ul>		
<b>3. Aisia eta eskulanak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasketxeak aldizka aisiarako eta eskulanetarako programa prestatzen du. Horretarako, erabilera anitzeko talerra dauka eta bertan elektzitate, brikolaje eta jostuntza-jarduerak burutu daitezke. Emakumezko nerabeek jostuntza-jarduerak espresuki eskatu zituzten, gainerako aukerak emakumezkoentzat baino gehiago gizonetzkoentzat zirela pentsatzen zutelako. Aplikatzen den erregimena kontuan hartuta, ikastetxetik kanpoko kultur eta kirol-jardueretan parte hartzea sustatzen da eta, horretarako, jarduera horiek nerabe bakoitzaren planean antolatzen dira, beraien parte-hartzearekin.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ikasketxeek aisia-jardueretarako programa dute. Ortuellako ikasketxean mota horretako jarduerak buntzeko mugatua dago. Espazioa oso txikia da. Olgetarako gela bakarra dago -nahiz eta gimnasiarako gunea ere funtzio horretarako erabiltzen hasi den-, jantokia ere dena; hortaz, nerabeek ez dute aldi berean eta enbarazurik egin gabe jarduera ezberdinak egiterik. Ebaluazio-egunean, jende gutxi zegoenez eta nerabeek komunitate-ingununean integratuta zaudenez ez zen arazorik sortu. Etorkizunean erregimen zabaleko barnualdi izatera bideratuko den arren, arazoa aintzakotzat hartzea komeni da. Mendixolan, berriz, jarduera horietarako espazioak egokiak dira. Erabiltzaileek ditotenez, mugapen bakarra kanpoko kirol-gunearen argizapen-gabezia da; hala ere, ebaluazio-eguna eta gero, argizapen-lanetarako aurrekontua onartu dela esan da. Komunitate-inguneko jardueretarako dagokienez, zaila egiten da jarduera ezberdinak eskaintzea, behintzat barnualdiaren hasierako urrasetan, nerabeek hezitzaile batek lagunduta joan behar baitute.</li> <li>• Banako hezkuntza-proiektuan nerabeek lehenetsuna edo trebetasun handiena erakusten duten kultur eta kirol-jarduerak aurreikusten dira.</li> <li>• Pertsonalekoek jarduerak antolatzeke orduan gogo handia eta dinamismoa dutela ikusten da, baina batzuetan kanpoaldean jarduera ezberdinak eskaini ahal izateko gutxiegi dira.</li> </ul>

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxea oraindik ez dago guztiz ekipatua; gaur egun ezin dira lorezaintza, baratzezaintza eta granjajarduerak egin, nahiz eta etorkizunerako aurreikusien diren.</li> <li>• Pertsonalekoek jarduerak antolatzeko orduan gogo handia eta dinamismoa dutela ikusten da: hala ere, ikastetxean nerabe gutxi bizi izateak eginkizun hori zaildu egiten du eta talde handiago batek eskainiko lituzkeen parte hartzeko eta harremanak izateko aukerak murrizten ditu.</li> <li>• Ikastetxe barmuan tokia dago, nerabeek aldi berean jarduera ezberdinak egin ahal izan ditzaten.</li> <li>• Kultur jarduerak sustatzen dira. Egunero jasotzen dituzte egunkariak, eta pixkanaka liburutegirako liburuak erosten ari dira, nahiz eta ebaluazio-egunean liburutegian liburu asko ez egon.</li> <li>• Nerabeek gehien gustatzen zaizkien jarduerak proposatzeko aukera dute, eta hezkuntza-taldekoek hortek egiten ote dauden erabakitzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Alderdi batzuetan kultur jarduerak sustatzen saiatzen da, esaterako, antzerkiak antolatuz. Beste zenbait alderditan, berriz, ez da interesik ikusten; liburutegian, esaterako, liburu gutxi daude, eta ez dirudi egunkaria irakurtzea ere sustatzen denik.</li> <li>• Nerabeek gehien gustatzen zaizkien jarduerak proposatzeko aukera dute, eta hezkuntza-taldekoek hortek egiten ote dauden erabakitzen dute. Talde horrek erabakia jarduerak egingo liratekeen egun berean ematen du ezagutzera, eta zenbait erabiltzailek alde aurretik jakitea gustatuko lituzkiekeela diote.</li> </ul>	
<b>4. Nortasun soziokulturala</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeen nortasun soziokulturalarekiko errespetua bermatzea nahi da. Kontuan hartuta ebaluazio-egunean bizitzen zeuden hiru nerabeetatik bi jirtoak zirela, talde teknikoak egokitzat jo zuten arraza bereko hezitzailea kontratatzea, harremanak errazteko eta gainerako profesionalak beren kultura ezaugarriak hobeto ezagutu zituzten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeen nortasun soziokulturala errespetatzeko eskaintzen diren bermeak apur bat mugatuak dira. Alde batetik, jokabideak homogeneizatzeko ezberdintze-seinuak salhesten ditu eta, esaterako, jatorduen zehar nerabeei gaztelania ez diren hizkuntzetan hitz egitea debekatzen zaie, guztiek ezagutzen duten bakarra hori baita. Bestalde, ezagutzen ez diren berezitasunak ere daude, eta profesionalak nerabeek berek ikastetxera sartzean hornen berri eman behar dutela uste dute. Dena den, banako hezkuntza-planekin egoera hori arindu nahi da.</li> <li>• Gurbiespen edo errespetu falta erakusten duen edozein adierazpen zigortzen da eta, hortaz, baita kultur ezaugarrietan oinarritzen direnak ere.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>Banako planek, hezkuntza-programa aplikatzeko, bidezkoetat jotzen diren berezitasunak jasotzen dituzte. Esaterako, nerabe bat sexu-gatez hitz egiten zitzaionean eroso sentitzen ez zela ikusi zen; horrela, bada, bere programan osasunerako hezkuntzari buruzko atala banaka hartu da, gai hori pixkanaka lantzeko asmotan.</li> <li>Ikastetxeko giroak, neurri batean, nerabeen nortasun soziokulturala isladatzen du. Esaterako, bisita-egunean, alxia-une orotan musika flamenkoa entzuten zen.</li> </ul>		
<b>5. Alimentación</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkadura osasuntsua eta orekatua da, eta bai kanitatez bai barietatez egoki den dietan oinarritzen da.</li> <li>Menuak egunero desberdinak dira, eta nerabeak elikagai berriak dastatzera bultzatzen dira. Erosketez eta janariak lehentasunak kontuan hartzen saiatzen da, dena den, edozein jatekotik guxtieneko kanitiate bat jan behar dute derrigorrez. Ez dindi erabiltzaileek janariekin gozitzen dutenik; guztiek jateko gogorik eza erakusten dute.</li> <li>Zehapen gisa ez da janariarik kentzen, berandu albatzeagatik zuhurtziako ortuan gosaltzera jaisten ez direnean izan ezik.</li> <li>Nerabeek ez dute ez erosketetan ez janariaren prestaketan parte hartzen, programatutako hezkuntza-jardueraren baten parte ez bada; esaterako, menu orekatuak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkadura osasuntsua eta orekatua da, eta bai kanitatez bai barietatez egoki den dietan oinarritzen da.</li> <li>Menuak egunero desberdinak dira, eta nerabeak elikagai berriak dastatzera bultzatzen dira. Erosketez eta janariak lehentasunak kontuan hartzen saiatzen da, baina helburua elikatzeko ohitura berriak sortaraztea da. Errijo musulmaneko erabiltzailearen berezitasun kulturalak errespetatzen dira.</li> <li>Erabiltzaileek janariekin gozitzen dute. Batek baino gehiagok janaria oso ona dela eta sukaldaria oso atsegina dela dio.</li> <li>Zehapen gisa ez da janariarik kentzen. Nerabe batek jaten ez badu, utzi duen jatekoa gordetzen da arratsaldean (askarian) jan dezan.</li> <li>Erabiltzaileek ez dute ez erosketetan ez janariaren prestaketan parte hartzen, programatutako hezkuntza-jardueraren baten parte ez bada.</li> <li>Gosari, bazkari, askari eta afari-uneak atseginak dira, ikastetxean dauden hezitzaileak nerabeekin batera jartzen direla.</li> <li>Komunitate-baliabideetara joateagatik oso goiz gosaltzen duten nerabeek jatorduen artean snacken bat prestatzeko aukera dute. Segurtasuneko arrazoiengatik denbora horretan zehar sukaldia itxita egoten da.</li> <li>Jatorduak ezarrita daude eta ezin dira aldatu, salbuespeneko kasuetan izan ezik.</li> </ul>	

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gosari, bazkari, askari eta afari-uneak atseginak dira, ikastetxean dauden hezitzaileak nerabeekin batera jartzen direla. Azken honek nahiago izango zuten berek bakarrik jatea, askatasun handiagoz hitz egiteko. Ikusi denez, elkarrikizetak hezkuntza-taldekoek bultzatzen dituzte, baina erabiltzaileekin etengabe hitz egiten dute.</li> <li>• Jatorriaren artean ez dago snacken bat prestatzeko aukerarik. Segurtasuneko arrazoiengatik jatordua ez denean sukaldean ixita egoten da.</li> <li>• Jatordiak ezarrita daude eta ezin dira aldatu, salbuespeneko kasuetan izan ezik.</li> <li>• Etxetresna elektrikoak eta sukaldeko gainerako tresnak sukaldean normalean erabiltzen direnak dira. Segurtasuneko arrazoiengatik, beharrezkoak diren mahai-tresna kopurua besterik ez dago, eta jatordu bakoitzaren ondoren kontatu egiten dira. Giltzez itxita armairu eta tiraderetan gordetzen dira.</li> <li>• Janariak prestatzeko arduraduna, elikagaia prestatzen eta manipulatzeko erabiltzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxetresna elektrikoak sukaldean normalean erabiltzen direnak dira, Mendixolako sukaldean izan ezik, industrial horietakoa baita. Gainerako sukalde-tresnak ohikoak dira baina, segurtasuneko arrazoiengatik, aiztoak zerra-erakoak dira. Segurtasuneko arrazoiengatik baita ere, beharrezkoak diren mahai-tresna kopurua besterik ez dago, eta jatordu bakoitzaren ondoren kontatu egiten dira. Giltzez itxita armairu eta tiraderetan gordetzen dira.</li> <li>• Janariak prestatzeko arduraduna, elikagaia prestatzen eta manipulatzeko erabiltzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeek beren adinakoen ohiko arropekin janzten dira, eta beren janzteko erarekin pozik daude.</li> <li>• Ikastetxera sartzean beharrezko arroparik ez badute, ikastetxeak uzten die. Edozein kasutan, kirola egiteko ekipoa ematen zaie.</li> <li>• Nerabe bakoitzak bere arropak erabiltzen ditu, arropak elkar trukatea debekatuta baitago.</li> <li>• Hezitzaileak nerabeek beren buruak garbitzera eta itxura zaintzera bultzatzen saiatzen dira, baina norberaren gustuak errespetatzen dituzte.</li> <li>• Ikastetxera sartzen direnean, garbitasun-ohiturak ezartzeari, nerabeek gehienetan ez baitituzte izaten lehentasuna ematen zaio: astean hirutan eta kirola egin ondoren dutxa hartzea, komunera joan eta gero eskuak garbitzea, eta egunean bitan aginak garbitzea.</li> </ul>
<p><b>6. Itxura pertsonala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak beren adinakoen ohiko arropekin janzten dira, eta beren janzteko erarekin pozik daude.</li> <li>• Ikastetxera sartzean beharrezko arroparik ez badute, ikastetxeak uzten die. Kasu horietan, barrualdi-erregimenak aukera ematen dienean, berak izaten dira, hezitzaile batek lagunduta, arropak aukeratu eta erosten dituztenak, aldez aurretik ezarritako ekonomia mugen barruan.</li> </ul>		

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko erreglamendiak arropak elkar aldatzea debekatzen du, botere-harriemanak susta ditzakeela eta, hortaz, gehiegikeriara bultz dezakeela penaltzen baita. Aldiz, onartzea erabaki da, elkarrekin bizi diren neskalagunen edo ahizpen artean ohikoa baita.</li> <li>• Hezitzaileak nerabeak beren buruak garbitzera eta itxura zaintzera bultzatzen saiatzen dira eta, egokitzat jotzen badute, aholkuak ematen dizkiete. Edonola ere, nerabeek, beren adinean ohikoa den moduan, beren kideen intziei lehentasuna ematen diete.</li> <li>• Ikastetxera sartzen direnean, garbitasun-ohiturak ezar-tzeari lehentasuna ematen zaio, nerabeek gehienetan ez baitituzte izaten: astean hirutan eta kirola egin ondoren dutxa hartzea, komunera joan eta gero eskuak garbitzea, eta egunean bitan aginak garbitzea. Une horretan baita ere, sartzean daramatzaten arropak garbitu eta desinfektatu egiten dira, eta azterketa bat egiten zaie ilean parasitunik ote daukaten ikusteko.</li> <li>• Itxura pertsonalari lotuako puntuetan ere berezitasun soziokulturalak kontutan hartzen saiatzen da. Esate-rako, neraberren batek parasitoak edukí dituenean, ez dute ilea moztera behartu, nahiz eta erosoena izan, emakumezko jiftoentzat ile luzeak garrantzi handia baitauka.</li> </ul>		

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<b>I. ARRETAREN PLANGINTZA</b>		
<b>1. Banako Hezkuntza-Proiektua</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxera internatzeiko ebatzen judiziala betetzera datozen nerabeei banako plana egiten zaie, Hezkuntza-Proiektu Pertsonalizatua-HPP deritzana.</li> <li>• Neurri bat betetzera sartzen direnean, epailak barnaldirako ezarri duen denbora ezagutzen dute; aldi, kautelazko neurria denean, ez dute jakiten, gehieneko epe moduan entzunaldi-eguna ezarri denean izan ezik. Ebaluazio-egunean Andolluko ikastetxean bizitzeko zuzen hiru nerabeetatik bat egoera horretan zegoen; dagoeneko bost aste zeramatzan barruan. Behin, nerabe bat beste ikastetxe batetik lekualdatzen ari zirela ikastetxe honetan sartu zuten eta, berriz ere Euskal Autonomia Erkidegoan zegoenez, ez zekien beste barrualdi bat betetzen ote zen edo, aitzitik, askatasunean jarri behar zutela.</li> <li>• Hezkuntza-proiektuan azaltzen denez, nerabea bere etxetik ikastetxera etortzean, egokiema senitartekoren baieak eta hezkuntza-taldeko kide batek -ahal izanez gero, famili hezitzaileak edo Zuzendari pedagogikoak lagunduta etor dadila da.</li> <li>• Ikastetxera sartzen direnean ez da bertan Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzako kiderik egoten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arreta-jarraitibideak azaltzean adierazi denez, ikastetxera sartzean nerabeei banako hezkuntza-proiektua egiten zaie; bertan, lortu beharreko helburuak, eta horiek lortzeko bideak eta epeak ezartzen dira. Proiektu hori urratsze urratske sistemaren esparruan aldira berrikusten da.</li> <li>• Ebaluazio-egunean ikastetxean bizitzen zuzen nerabe guztiak, bat kenduta, kautelazkoa ez zen barrualdi-neurria betetzen ari ziren eta bazekiten neurri horrek zenbat iraugun zuen.</li> <li>• Gazte bat egoera berezitan zegoen: kautelazko barnaldira-eguna bukatu eta Ortuellako ikastetxean gelditu nahi zuela esan zuten. Ebaluazioa egin zenean, Epaitegia eta Eusko Jaurlaritzak gazte horri eskaini zekizkiokeen aukerak aztertzen ari ziren.</li> <li>• Nerabeek ikastetxeko bizitzari buruzko irizki ezberdinak dituzte. Batzuek modu positiboan ikusten dute, beren bizitzako urrats bat markatzen duen zedarrria bailitzan. Baten batek dio: «hau soldadutza egitea bezalakoa da; hemendik irritean heldua izango naiz». Beste batzuek, aldi, egokitzeko zailtasunak izan dituztela diote; lehenengo urratsa eusgumean (egun bat) oso gogorra da, batez ere, neraberen baten esanetan, beti horrelakoa izango dela pentsatzen baitute; horrek ikastetxera sartzean urrats-sistema zertan datzan eta eusgumean zenbat denbora eman behar duten ulertu ez ditelako da. Gaur egun, aipatutako urrats-sistemaren aldaketari esker, ikastetxera sartzean salbuespen kasuetan baino ez dituzte eusgumeetara eramaten. Bestalde, zenbait kasutan, barnaldira bukatutakoan, nerabeek ikastetxean eta laguntza jasotzen jarraitu nahi dutela eskatzen dute, baita epe luzeetarako ere.</li> <li>• Sartu baino lehen izaten duten informazioa, nagusiki, esperientzia bera izan duten nerabeek emandakoa da.</li> <li>• Sarrera-egunean, nerabeek gurasoetako batek edo legezko ordezkariak lagunduta, bakarrik, edo Ertzaintzak ekarrita etortzen dira (azken kasu hori, epaia eman eta berehala sartzen direnean edo beste ikastetxe batetik lekualdatzen dituztenean gertatzen da).</li> <li>• Sarrera-eguna laneguna bada, koordinatzaileak, txandako hezitzaileak eta gainerako erabiltzaileekin jarduerak burutzen ari diren hezitzaileak egoten dira. Jaieguna bada, berriz, txandako pertsonala soilik egoten da.</li> <li>• Ikastetxera sartzean ez da bertan Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzako kiderik egoten.</li> <li>• Erabiltzaileak harrera-urritsean sartzen dira; beren logeletan edo eusgumean isolatzen dituzte, ezarri zaien barrualdi-neurriaren eta ikastetxera sartzean duten egoeraren arabera. Urtais hori bukatu arte ez dute ikastetxea bisitatu ezta beren kideak ezagutzen ere.</li> <li>• Erregimen orokorra eta ikastetxeko erregimendua ematen zaie, hortien edukiarekin ohiu daitezten; era berean, tutorearekin eta txandako hezitzailearekin elkarrizketak izaten dituzte eta horietan ikastetxearen funtzionamendua eta erregimenduaren eta erregimen orokorraren edukia azaltzen zaie.</li> </ul>	

<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak 0 urratsean sartzen dira, neurria erregimen zabalekoa edo asteburukoa denean izan ezik, kasu horietan 1. urratsean sartzen baitira; beren logeletan egoten dira, giltzaperatuta, ez dute jardueretan parte hartzen, pertsonalekoak ezagutzen dituzte eta funtzionamendur-erreglamendua ikasten dute. Ekartzen dituzten arropak kentzen zaizkie, garbitzeko eta, kasua denean, desinfektatzeko, eta ikasketxeak beste arropa batzuk ematen dizkie. 1. urratsetik aurrera (gehienez ere ikasketxean sartu eta 48 ordura) beren arropak erabili ditzakete, beren kideak eta ikasketxelako barrunbeak ezagutzen dituzte eta jardueretan parte hartzen hasten dira.</li> <li>• Ikasketxera sartzen direnean funtzionamendur-erreglamendua ematen zate, hasierako gogoeta-aldian edukiarekin ohitu daitezten.</li> <li>• Pertsona bat nerabeari bere logela antolatzen laguntzeaz arduratzen da.</li> <li>• Sartzean sarrera-erregistro bat idazten da, sarrera-ziurtagiria, eta bertan nerabea ikasketxeraino lagundu dute pertsonen datuak jasotzen dira.</li> <li>• HPP-Hezkuntza-Proiektu Partesionalizua 1. urratsaren bukaeran hasiera edo behaketa-txostena idatzi ondoren egiten da, beti ere, ikasketxean sartu eta 15 eguneko epean.</li> <li>• HPPan, lortu beharreko helburuak, horretarako komeni diren bitartekoak eta neurriez arduratzen diren pertsonak zehazten dira.</li> <li>• Proiektu horien edukia komunitate-inguruneke etorkizunera egokitu nahi den arren, ez da beti erraza izaten, nerabeen beharrei egokitutako baliabide arauturik eza dela-eta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sartzen direnean sarrera-erregistroa idazten da.</li> <li>• Banako hezkuntza-programa ikasketxera sartzen direnetik hila bete inguruko itaupena duen behaketa-urratsaren ondoren egiten da. Harrera-urratsaren hasieran izendatzen zaien gainbegiratzailak egiten du eta horretarako hurrengo jarduerak hartzen ditu kontuan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- ikasketxera bidaltzeko aurretiazko txostenen berrikuspena,</li> <li>- banako behaketa-erregistroa (eguneroko bizitza),</li> <li>- eskuharmen-eremu ezberdinetatik egindako behaketa,</li> <li>- maila zehazteko frogak,</li> <li>- psikodiagnostikoa,</li> <li>- eremu soziofamiliarreko ebaluazioa.</li> </ul> </li> <li>• Hezkuntza-programa pertsonalizatua, lortu beharreko helburuak, horretarako komeni diren bitartekoak, epeak eta neurriez arduratzen diren pertsonak zehazten dira.</li> <li>• Proiektu horien edukia komunitate-inguruneke etorkizunera egokitu nahi den arren, ez da beti erraza izaten, nerabeen beharrei egokitutako baliabide arauturik eza dela-eta. Dena den, hezkuntza-proiektuko azkeneko urratsa ingurunean bergizarteratzera bideratua dago, eta tutoreak, famili hezitzailearekin batera, nerabearen etorkizuneko garapena aurrerakusi eta, beharrezkotzat joz gero, erabilzailaren bizilekuko komunitate-inguruneke baliabide erabilgarrieekin harremanetan jartzen da.</li> <li>• Erabilzailak beren hezkuntza-proiektuan ezarritako helburuak zehazten parte hartzen dute, nahiz eta, diolenez, hezitzailearen iritzia beti beren irizien gainetik egon. Familiak, modu pasiboan izan arren, famili eskuharmeneko kontratua parte hartzen du.</li> <li>• Tutorea harrera-urratsaren hasieran izendatzen da eta bere izena hezkuntza-proiektuan jasotzen da. Astean behin nerabearekin tutoretza-bilerak izaten ditu. Nerabeak beste arduradun bateliko lehentasuna badauka ez zaio tutorez aldatzen; bai, ostera, nerabea eta tutorea bat ez badatza.</li> <li>• Nerabeak urrats bakoitzeko hezkuntza-kontratuarekin ohituta daude (arauen kopia bat dute), baina ez, ostera, banako hezkuntza-proiektu osoarekin.</li> <li>• Asteroko tutoretza-bileran eta tutoreak gainbegiratzailarekin izaten duen bileran, urrats bakoitzeko hezkuntza-kontratuan aurreikusitakoaren egokitzapena eta nerabea horiek lortzen izan duen garapena eztabaidatzen dira; hiru hila betero talde osoak berrikusten du. Hiru hila betero, jardueren programazioa egiten da.</li> <li>• Berrikuspen horien aldirikakotasuna erregistro ezberdinen bidez egiaztatzen da eta horien martxa onaren arduraduna gainbegiratzaila da.</li> </ul>	



<b>ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA</b>	<b>M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeak azken helburuak eta helburu espezifikokoak finkatzen laguntzera bultzatzen dira; eta berean, ahal den neurrian -oro har hezkuntza eta heziketa-arloetan-, famili hezitzailearen eskuharmanaren bidez, familiaren laguntza ere izaten da.</li> <li>• I. Urtratsean, nola garatzen ari diren eta ikastetxeko bizitzara nola moldatzen ari diren aztertzeko, tutore-arduradun baina izendatzen zate. Azpimarratu da, nerabeak hezitzailearen batekin harreman bereziki onak baliu, hezitzailea aldiatu eta ordezkatu litekeela. Momentuz ez da halakorik gertatu.</li> <li>• HPPetan, lortu beharreko helburuak, horretarako epeak eta erantzukizunak zehazten dira. Proiektu bat gainditzean beste urrats batera pasatzen da eta HPP berrikusi egiten da, berorren edukia adin txikiagoaren behar eta gaitasun berrietara egokitzeko.</li> <li>• Nerabeek helburuak eta horiek lortzeko bideak ezagutzen dituzte, baina ez dute HPParen eduki osoa ezagutzen.</li> <li>• Jarraipen-txostenak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- jardueren jarraipenerako hamabost eguneroko txostenak. Tutoreak egiten ditu;</li> <li>- lauhileko txostenak: HPPak baloratzeko eta eskuharman-eremuak ebaluatzeko txostenak dira, eta ondorengo aldian aplikatzeko gomendioak sartzen dira; berrikuspen horiek antolatzeaz arduratzen dena talde teknikoa da.</li> </ul> </li> <li>• Aldizkako txosten horiek egiaztatzeko HPPen erregistroa, ebaluazio-erregistroa, jardueren eguneroko erregistroa, gertaeren aparteko erregistroa eta hamabost eguneroko jarduerarako ebaluazioen erregistroak ditugu.</li> <li>• Adin txikiokoez ez dute beti programazio hauen esanahia ulertzen; askotan, pribilegioak eskuratzeko bideztat hartzen dituzte.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeek beren urrats-kontratuaren edukia ondo ezagutzen dute; dokumentu horren idazkera argia da eta ez dauka ulertzeko zailtasunik. Edonola ere, azpimarratzea komeni da, nerabeak beren gain hartutako konpromisoetara moldatzen badira ikastetxean daudelako dela, hori baita funtzionatzeko eta pribilegioak eskuratzeko modua. Ez dirudi ezartzen zaizkien jokabide-pautak horiek kanpoko bizitza errealerako ballagarriak direla ulertzen dutenik.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M. A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<p><b>3. Familiarekiko harremanak</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezitzaile bat, bereziki, nerabeen eta beren familien arteko harremanak sustatzeaz eta, ahal den neurrian, hobetzeaz arduratzen da. Nerabea ikastetxera sartzean familiakoren batek lagunduta etor dadila salatzen da. Ikastetxean dagoen bitartean eta irteerak baimenduta ez dauden aldietan gurasoak eta anai-amebak bisitan etortzeko animatzen dituzte. Horretaz gain, lortutako hobekuntzak mantentzeko, ikastetxetik irtezen direnean familiara egokitu daitezen egiten da lan.</li> <li>• Ikastetxean bilera-gela txiki bat dago, argitsua, baina hotza eta inpersonala, ez baitu apaingarririk, ebaluazio-egunean behintzat. Altzariak -mahaia eta sei aulki- berria da eta oso garbiak daude.</li> <li>• Familiako lehenengo bisitak gainbegiratuak dira, hezitzailea bertan egoten dela. Gauza bera gertatzen da, agindu judizial bidez horrela ezartzen bada. Batzuetan nerabeek eta familiak nahiago dute hezitzailea bertan egotea elkarrizketa berotu dezan, askotan zaila izaten baita.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezitzaile bat, bereziki, erabiltzaileen eta beren familien arteko harremanak sustatzeaz eta, ahal den neurrian, hobetzeaz arduratzen da. Famili ingurunean ere esku hartzen du, nerabea ikastetxetik irtelean bergizartera dadila errazteko. Urrats bakoitzean, familiari deliak egitea, familiako deliak eta bisitak aurreikusten dira.</li> <li>• Famili eskuharreneko programa eta horretan oinarrituz egiten den kontratua nerabea famili ingurunean bergizarteratzeko helburuak lortzera bideratuak daude.</li> <li>• Ikastetxean bisitiei harrera egiteko gunea dago; oso argitsua da eta mendira ematen duten bista ederrek ditu. Logelak daudeneko bi hegialak bananitzen dituen gunean dago, eta ez da espazio banandua, pasagunea baizik; hainbat besaulki dituen hall handi baten modukoa da. Egoera honek ez du nahi izango litzatekeen pribatutasuna bermatzen; dena den, bisitak larunbatetan izaten direnez eta asteburuetan ikastetxean gelditzeen diren nerabeentzat jarduerak antolatzen direnez, bisitetan ez da enbarazurik egiten.</li> <li>• Familiako lehenengo bisitak gainbegiratuak dira, hezitzailea bertan egoten dela. Gauza bera gertatzen da, agindu judizial bidez horrela ezartzen bada. Pixkanaka gainbegirapen hori ezabatzen joaten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezitzaile bat, bereziki, erabiltzaileen eta beren familien arteko harremanak sustatzeaz eta, ahal den neurrian, hobetzeaz arduratzen da. Famili ingurunean ere esku hartzen du, nerabea ikastetxetik irtelean bergizartera dadila errazteko. Urrats bakoitzean, familiari deliak egitea, familiako deliak eta bisitak aurreikusten dira.</li> <li>• Famili eskuharreneko programa eta horretan oinarrituz egiten den kontratua nerabea famili ingurunean bergizarteratzeko helburuak lortzera bideratuak daude.</li> <li>• Ikastetxean nerabeak bisitak pribatutasunean izateko moduko gela dago. Gela hori beheko solairuan dago, sarrearen eta bulegoen alboan. Angeluzuzeneko mahai nahiko handia du, inguruan aulkia dituenak; apalategi bat ere dago nagusiki ikastetxeko hezitzaileek erabiltzen dituzten era askotako agiriak dituenak. Ezaugarriak eta altzariak dirrela-eta, eta gutxi dekoraturik dagoelako, ez da oso gela atsegina, eta ez dirudi dituen funtzioak beteatzeko dagoenik. Hala ere, ikastetxea nerabeak erregimen zabalean hartzea bideratua dagoenez, nerabeen eta familiako lehenengo topagunea kanpoaldean izaten da. Edonola ere, barrualdiaren lehenengo urratsetan, ezaugarri horretako etxe batek bisita gela egokia izatea beharrezkoztat jozen da.</li> <li>• Familiako lehenengo bisitak gainbegiratuak dira, hezitzailea bertan egoten dela. Gauza bera gertatzen da, agindu judizial bidez horrela ezartzen bada. Pixkanaka gainbegirapen hori ezabatzen joaten da.</li> </ul>

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDIXOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<b>4. Helduarora igarotzea</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Nerabeak helduarora igarotzean orientatuko dituen gidaririk ez dago. Aldiz, bajako azken txostena egiten da eta bertan gaztearen gaitasun eta garapenerako egokitzat jotzen diren helburuak eta proposamenak azaltzen dira.</li> <li>Edonola ere, ikasketxean dauden bitartean helburu nagusia nerabeak burujabe izateko prestatzea da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- harremanak egiteko eta mantentzeko gaitzea;</li> <li>- autoestima garatzeko gaitzea;</li> <li>- lan-munduari eta, seguraski, langabeziari aurre egiteko prestatzea;</li> <li>- eguneroko bizitzarako irakastea eta trebatzea;</li> <li>- beren sexualitatea ulertzeko eta sexu-harreman arduratsuak izateko gaitzea.</li> </ul> </li> <li>Neurtia bukatzen denean, ikasketeko gizarte-langileak bere gain nerabearen garapenera jarraipena egiteko konpromiso informala hartzen du.</li> <li>Nerabeek nahiago dute irteerari buruz ez hitz egitea: batzuek ez dute ilusiorik egitearik nahi, beste batzuk, aldiz, pesimistak dira ikasketxean ikasten dutena zertarako balioke ote dien pentsatzean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Nerabeak helduarora igarotzean orientatuko dituen gidaririk ez dago. Hala ere, bakoitzaren hezkuntza-proiektuan horretarako bideak ezartzen dituen bergizartzaratze-urratsa aurreikusten da: eskuharman-eremuen arabera bergizartzaratze-proposamenak ematen dira, eta horietan oinarrituz kontratua egiten da. Ikasketxetik irteerakoan, betetzen ote den ikusteko, jarraipena egiten da; beharrezkoa izanez gero, nerabeari eta familiakoei laguntza ematen zaite eta, horretarako, konponbideak eskaintzeko egokien jotzen dituzten komunitate-zerbitzuekin harremanetan jartzen dira.</li> <li>Edonola ere, ikasketxean dauden bitartean helburu nagusia nerabeak burujabe izateko prestatzea da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- harremanak egiteko eta mantentzeko gaitzea;</li> <li>- autoestima garatzeko gaitzea;</li> <li>- lan-munduari eta, seguraski, langabeziari aurre egiteko prestatzea;</li> <li>- eguneroko bizitzarako irakastea eta trebatzea;</li> <li>- beren sexualitatea ulertzeko eta sexu-harreman arduratsuak izateko gaitzea.</li> </ul> </li> <li>Barruan dauden nerabeak eszeptikoa dira ikasketxean ikasten dituzten ohiturak, jokabideak eta ezaguerak kanpoan zertarako balioke ote dien pentsatzean. Hala ere, zuzendariak dionez, barrualdia bukatutakoan nerabeek horren inguruan egiten duten ebaluazioa positiboa izaten da.</li> <li>Nerabe gehienek itzulitzeak beldurra eta larritasuna eragiten dizkiela azaltzen dute argi eta garbi. Beren famili inguruneak laguntzaren bat eskaintzen dienean soilik egoten dira baikor. Hezitzaile-taldeak dienez, hori arazo larria da, askotan familia ez baita nerabeak hartzeko gaitua egoten, edo ez dituzte horretarako baliabide egokiak izaten. Bergizartzaratze eta emantzipatze-zerbitzua sortzeko beharra azaltzen dute.</li> </ul>	
<b>5. Ikasketxean eskaintako laguntza profesionala</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>HPPan nerabeek izan litzaketen arazo sozialen eta jokabidezko, hunkipenezko eta adimen-osasuneko arazoan ebaluazioa jasotzen da. Horretarako, beharrezkotzat joz gero, ikasketxeak Arrasateko Ospitale Psikiatrikoko Umeen eta Gazteen Unitatera jotzen du, horrekin hitzarmena du-eta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasketxeko hezitzaileek, behar badute, kanpoko baliabideak erabili ditzakete; aitzitik, ikasketxe kanpoko profesionalek bertan esku hartzea ez da aurreikusten. Hezkuntza-ikuspuntutik desegokitzat jotzen da, erantzuleen iritziz, erreferentziako figuren inguruan nahasmena sor baitlitzkeen; horretaz gain, diotenez, kanpokoek egin dezaketena ikasketxe barrutik ere egin daiteke.</li> </ul>	

ANDOLLU HEZIKETA ZENTROA	MENDKOLA HEZIKETA ZENTROA	M.A. REMÍREZ HEZIKETA ZENTROA
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeko hezitzaileek, behar badute, kanpoko profesionalen laguntza jaso dezakete. Ebaluazio-egunean, esaterako, jostuntza ikastetxekoa ez zen pertsona batek irakasten zuen. Egoitza-esparruan hezitzaileak ez diren pertsonak esku hartzea positibotzat jotzen da.</li> </ul>		
<b>6. Banako espedienteak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Banako espedienteak segurtasunez gordetzen dira, informazioaren isilpekotasuna bermatzeko moduan: koordinatzailearen bulegoan artxibatuta daude, banako karpetak ezin dira kanpotik identifikatu, eta talde teknikoko kideren bat ez badago bulegoa beti itxita egoten da.</li> <li>Nerabeek ez dute espedienteetara iristenik.</li> <li>Espedienteetan egindako oharretan ez da hitz estigmatizagarririk erabiltzen.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Banako espedienteak informazioaren isilpekotasuna bermatzeko moduan gordetzen dira: zuzendariaren bulegoan artxibatuta daude eta irispidea mugatua da.</li> <li>Artxiboak ondo antolatuta daude, informazio-motaren arabera azpibanatuta. Zuzendaria horiek eguneratzeaz eta mantentzeaz arduratzen da.</li> <li>Nerabeek ez dute beren espedienteetara iristenik, baina eskatzen badute kopia bat ematen zaie. Horrelakorik gertatu da.</li> <li>Espedienteetan egindako oharretan ez da hitz estigmatizagarririk erabiltzen.</li> </ul>

## **VIII. ATALA**

# **ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA**

Adin txikiko lege-hausleei ezar lekiekeen prozeduran parte hartzen duten profesional guztiak bat datoz gauza batean: bermearekin lana egin nahi bada erakundeen arteko koordinazioa ezinbestekoa da. Borondate hori egon badagoen arren, aspektu batzuetan koordinazio falta nabari da. Prozedurari dagozkionak, egintza detektatzen den unetik justiziak bere ebazpena ematen duen bitartekoak eskuhartze faseen azterketan azaldu dira. Orain, erabakitako neurriaren ezarpenerako baldintzetan zuzenean eragiten duten erakundeen arteko harremanak aztertzea dagokigu, eta, horretarako, kasuen azterketaren eta barrualdi zentroen ebaluaketaren markoan detektatutako disfuntzioak hartuko dira erreferentzia gisa.

## **1. HEZKUNTZA**

Haur-Justiziaren eta Hezkuntzaren alorrean lana egiten duten profesionalekin eduki ditugun elkarrizketen bidez aurkitu dira zenbait gai erantzuna eman beharrekoak. Batzuk zuzenean eskolatzearen eta justiziaren arteko harremanei bakarrik dagozkie, beste batzuk, aldiz, eremu zabalagoa hartzen dute.

- a) Talde Teknikoetako profesionalen esanetan, azken urte hauetan gero eta gehiago eramaten dira justiziaren eskuetara eskola eremuan gertatzen diren egintzak; egintza horiei, orain arte, eskolan bertan bilatzen zitzairen konponbidea diziplina-arauak ezarriz eta gertakizunetan aktiboki edo pasiboki parte hartutakoekin bitartekaritza lana eginaz. Normalean, gertakizun horiek zauriren batzuk eragin ditzaketen eskolako ikaskideen arteko borrokaldiak izan ohi dira; mehatxu edo indarkeria kasu isolatuak ere gerta ohi dira, baina kasu horietan ez da auzitan jartzen justiziaren eskuhartzea. Lehenengo kasuan, kontuan izanik egintza horiek delitu edo falta direnez gero, justiziaren alorrari dagokionez, ez da zalantzan jartzen Epaitegiek egintzak ezagutzeko daukaten eskuduntza, baina zera gertatzen da, bi aldeek parte hartu dutela aktiboki istiluen sorreran eta garapenean, eta zauriak batek bakarrik eragin dituela; edonola kontrakoa ere gerta zitekeen. Hori guztia kontuan izanik, eta jarrera horiek oso puntualak direla jakinik, agian eskola barruko soluzioa berdin eraginkorra izango litzateke eta ez hain traumatikoa.

Egia da, normalean, ikastetxeak, dauzkaten bitartekoekin saiatzen direla kasu horientzat soluzioak bilatzen, baina gurasoak edo biktimaren ordezkari legalak izaten dira salaketa aurkeztea erabakitzen dutenak, eta horretarako eskubidea badute. Epaitegiak beraien aldetik, batez ere Donostiako eta Bizkaiko kasuetan, arazoari kontziliazio bidez, eta hala dagokion kasuan, erreparazio bidez erantzuten saiatzen dira, eta horrela prozeduraren alderdirik traumatikoenari, alegia agerraldiari eta entzunaldiari aurre egiten zaio.

Agian, era horretako egoerei aurre egin ahalko litzaike eskola mailan informazio eta berriemate sistema bat balego; sistema horren bidez hurrei eta nerabeei eta horien gurasoei adieraziko litzaike bi ikasleren artean kontrajartze nabaria dagoenean beti hobeak direla soluzio paketsuak, adiskidetzea bilatzen dutenak, eta ahal denero hobe dela justiziaren zirkuitoan ez sartzea. Horretarako, baliagarria litzateke hezkuntza alorreko profesionalak nerabeen arteko liskarren konponbiderako gaietan prestatzea, eta kontziliazio bide horietan adituak diren Talde Teknikoen kideen aholkularitza eduki ahal izatea.

- b) Adin Txikikoen Epaitegietatik pasatzen diren adin txikiko lege-hausle gehien-gehienek hezkuntza mailako gabezia larriak daukate: aztertu diren espedienteen artean 146 kasutan, Talde Teknikoetako txostenek ziotenez 80k eskola gora-behera nabariak zituzten (ikastetxe aldaketa sarriak eta absentismo maila altua); 37k atzerapen handia zeramaten ikasketetan, 22 nerabe *de facto* eskolaratu gabe zeuden, 6 nerabek ikasketa arazoak zeuzkaten, eta 2 analfabetismo kasuak ziren, eta ezaugarri horietako bi edo gehiago 50 kasu baino gehiagorengan aurki zitezkeen. Datu horiek, guztiei ezarri ezin bazaizkie ere, arazoa egon badagoela eta noraino iritsi daitekeen adierazten dute.

Garbi dago, nerabe horiek beraien ezaugarriengatik, eta sarritan baita bizi dituzten zirkunstantzi pertsonal eta sozialengatik ere heziketa premia bereziak daukatela. Hezkuntza Sistema Orokorraren Antolamenduari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak<sup>58</sup>, zeinak Arrazoen Azalpenean aitortzen baitu hezkuntza sistemak aukera ematen duela «*diskriminazioaren eta desberdintasunaren kontra borrokan aurrera egiteko, horiek jaiotza, arraza, sexu, erlijio kontuengatik izan edo gizartearen dinamikarekin etengabe agertzen direlarik ere*», espreski adierazten du arazo batentzat soluzioa bilatu nahi dela, alegia derrigorrezko eskolaratzea amaitu eta lanerako gutxieneko adinaren arteko desfasearentzat. Eta egia da desfasea desagertarazten duela, izan ere derrigorrezko

---

<sup>58</sup> 1990eko urriaren 3ko EAO.

eskolaratzea 16 urte arte igotzen baitu (5. artikulua). Baina arazoak hor darrai.

LOGSE legeak artikulua desberdinetan ondokoa adierazten du:

- ikasketa behar bezeriak dauzkaten ikasleen ezaugarrietara egokituko direla (3-5 art.);
- derrigorrezko bigarren hezkuntzako dozentziaren antolaketak, 12 urtetik 16 urte bitartekoak alegia, ikasleen behar, trebetasun eta interesen aniztasunari erantzungo diola (21-1 art.);
- hezkuntza sistemak behar adina baliabide edukiko dituela, aldi batean edo modu iraunkorrean hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleek sistema berean ikasle guztientzat ezarritako helburu orokorrak lor ditzaten (36-1 art.);
- helburu horiek lortzeko, hezkuntza sistemak irakasle eta profesional kualifikatuak eduki beharko dituela, eta ikasleei helburuak lor ditzaten errazteko curriculumen beharrezko egokitzapenak eta sailkapenak egin beharko dituela (37-1 art.);
- hezkuntza administrazioek, gizarte baldintzengatik oinarritzko hezkuntzaren helburu nagusiak lortzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzat egoera hori konpentsatuko duten giza baliabideak eta baliabide material beharrezkoak jarriko beharko dituztela, eta ikastetxeek beraien antolamendua eta programazioa ikasleen behar berezietara egokitu beharko dituztela (65-3 art.);
- bigarren hezkuntzako helburuak lortzen ez dituzten ikasleentzat berme sozialerako programa bereziak antolatuko direla, bizitza aktiboan sartzeko edo ikasketen jarraitzeko aukera emango dien oinarritzko eta lanbide mailako heziketa emateko, eta hezkuntza administrazioek era horretako programez osaturiko heziketa eskaintza nahikoa egingo dutela (23-2 eta 3 art.).

Garbi dago araudi horrek eta garatzen duten xedapen desberdinek aukera berdintasuna bermatu nahi dutela. Egiaz, ordea, errealitatea helburuetatik oso urrun dago. Alde batetik, testu legeetan heziketa premia berezietaz hitz egiten denean gutxitan onartzen da ezaugarri horiek oso ohikoak direla arazoak dauzkaten nerabeengan ere (hiperaktibitatea, jarrera arazoak, konzentratzeko gaitasun mugatua, etab.). Bestalde, nerabe horien liskar mailarekin beldurtu egiten da beti ere era horretako egoerei aurre egiteko gaitu gabe dagoen irakaslegoa, beste ikasleen arreta eta partaidetza zailtzen baitute besteek beraien jarrerarekin.



Edonorekin hitz egiten delarik ere, garbi dago eskolek ez dituztela beraien ikasleen artean eduki nahi, eta ikasle liskarti horiek ez dutela maila eman ezin duten eta curriculuma atsegin ez zaien eskoletara joan nahi, eta horietan daukaten jarrera badaukate, nabarmentzeko aukera bakar hori geratzen zaielako da. Guzti horregatik behin eta berriz botatzen dituzte ikastetxeetatik aldi baterako<sup>59</sup>, eta horrek eskola-desegonkortasun larri batera daramatza, eta, kasu batzuetan, *de facto* deseskolaratze egoeretara, eta hezkuntzako agintariek ez diote arazo horri erantzun egokirik ematen.

LOGSE legea indarrean sartu arte, hezkuntza alorrean zeuden estrukturek heziketa konpentsatzailea deitzen zena irakasten zuten, eta estruktura horiek derrigorrezko hezkuntzaren (14 urte) eta lanerako gutxieneko adinaren arteko zubi-lana egiten zuten. Hezkuntza mota horretan praktikari ematen zitzaion lehentasuna teoriaren gainetik, eta hezkuntza maila oso txikiarekin adin horretara iritsi eta egokitzapen curricularren beharrean zueden ikasleei ikasten zutenaren abantailak ikusteko moduko irakaskuntza ematen zieten. Legedi berriarekin eta derrigorrezko oinarrizko hezkuntza 16 urte arte igotzearekin, estruktura horiek desagertu egin ziren hezkuntza araututik. Egia esan, oraindik jarraitzen dute, eta hezkuntzako ikuskariek badirudi ezikusiaarena egiten dutela, izan ere ez baitago beste alternatibarik. Eta kontua zera da, itxuraz ikastetxe horietan lortzen dituzte nerabe horiek emaitzarik onenak, eta ikastetxe horietan bakarrik dirudi dagoela irakaslegoa nerabe horiek tratatzeko prestatua.

Gazte Justiziaren alorrak adin txikiko lege-hausleekiko zaintzapeko askatasun edo barrualdi neurriak hartzen dituenen, neurri horiek zuzenean praktikan jartzeaz arduratzen diren profesionalak aurkitzen duten lehenengo arazoetako bat, nerabeen behar eta gaitasunetara egokitutako hezkuntza baliabide bat aurkitzea izaten da. Lana ez da erraza: albo batera utzia duten hezkuntza zirkuitoan berriro sartzeak ez luke ezertarako balioko, hezkuntza konpentsatzailea ematen duten garai bateko zentroak oso urriak dira (Arabian bat, Bizkaian bi eta Gipuzkoan bat ere ez), eta gizarte berme programetan eta lanbide heziketako sarrera zentroetan ezin dira 16 urte arte matrikulatu. Batzutan, lanbide heziketako zentro horiek, kasuaren larritasuna kontuan hartuta, onartzen dituzte oraindik bertan sartzeko adin legalera iristen ez diren nerabeak. Beste batzutan, curriculum desberdinen ikasgelak deituetaz baliatzen dira; gela horiek oinarrizko hezkuntza zentro batzuek sortuak dira, arrazoi desberdinengatik ohiko erritmoa jarraitzeko gaiatsunik ez daukaten ikasleentzat. Ikasgela

---

<sup>59</sup> Oinarrizko hezkuntzaren derrigortasuna, azken batean ikastetxe publiko batetik ikaslea behin betirako botatzeko aukera ematen badu ere, ez du biderik ematen hezkuntza sistematik betirako botatzeko.

horiek, zeinak sortzeko ahalmena ikastetxeko zuzendaritzak baitauka, ez dira ugariak eta, filosofia integratzaile batera gehiago edo gutxiago egokitu edo ez, profesionalek diotenez ez dirudi gaur oraindik behintzat beharrei modu eraginkorrean erantzuten dietenik.

Beraz, irtenbide partzialak dira guztiak, eta batzuk irregulartasunaren mugan daude, gainera. Hezkuntzako antolamendu juridikoaren aginduz aukera berdintasuna sustatu eta eskuduntza daukaten administrazioak horretarako bideak jartzera behartuta daudenean ez dirudi bidezkoa gauzek horrela funtzionatzea.

- c) Azkenik, barrualdi zentroetan dagoen hezkuntza arazoa planteatzen da. Oinarrizko hezkuntza eskubidea ez da bertan behera geratzen zentro batean barrualdi bat egin behar denean eta, halere, Hezkuntzaren alorretik ez da ezer egiten ebazpen judizial bategatik aldi batean beraien ingurunean ikastetxeetako eskoletara joan ezin diren adin txikikoei atzitzeko.

Gaur egun, hiru barrualdi-zentroek ikasgela bana daukate erregimen itxian edo kanpoko jardueretara joan ezinda erregimen erdi-irekian dauden nerabeentzat. Ikasgela horiek, kanpora eskolara irteten direnentzat ere erabiltzen dira. Ezin da esan ikasgela horiek hezkuntza zentroak direnik, normala den bezala tamaina, estruktura eta funtzionamendu aldetik eta araudiak beharrezko homologaziorako eskatzen dituen baldintzak betetzen ez dituztelako. Heziketa zentro homologatu bati atxikitzeak aukeraz hitz egin da, baina irtenbide hori oraindik ez da onartu. Horrek, noski, hezkuntza administrazioiko irakaslegoa esleitzea ekarriko luke.

Momentuz, soluziorik ezak egoera irregular bat dakar, eta hori are larriagoa da kontuan hartzen bada barrualdi neurriak ez direla bat etortzen eskola-egutegian iragarritako ikasturte edo hiruhilabeteekin.

Egoera honentzat alternatiba egokiak lehenbailehen bilatu behar dira, berez hezkuntza eta prestakuntza mailan aukera oso murrizak dauzkan kolektibo bati daukan eskolaratze eskubidea bermatzeko. Adin Txikikoen Justizia arautzen duen Lege Organikoa indarrean sartzearen ondorioz Gazte Jutzizaren alorrean 16 eta 17 urte arteko lege-hausleak, eta kasu askotan 18 eta 20 urte artekoak ere sartu izanak erakutsiko du arazoa zeinen zabala den. Bien bitartean komenigarria litzateke Eusko Jaur-laritzako Justizia eta Hezkuntza Sailek elkar hartuta dauden premientzako irtenbide egoki bat bilatzen joatea. Gaur arteko elkarrizketen bidetik ez da oraindano akordiorik lortu.

## **2. OSASUN MENTALEKO ZERBITZUAK**

Adin Txikikoen Epailak tratamendu anbulatorio neurriren bat ezartzea komenigarria ikusten duenean, horretara Talde Teknikoaren txostenean oinarrituaz iristen da. Horrek esan nahi du, aurretik sendagile-txostenen bat ez dagoen kasuan, tratamendu anbulatorio psikologiko edo psikiatrikoaren aukera egiten denean, ez dela ezagutzen sendagileek erabaki horri buruz alde aurretik eduki dezaketen iritzia.

Osasun Mentaleko Zerbitzuek batzuetan uste dute ez Justizian bakarrik, baita Gizarte Ongizate eta Hezkuntza alorrean ere beraien programa eta zentroetaz gizarte eta hezkuntza mailako gabeziekin zerikusia daukaten jarrera-arazoei erantzuteko baliatzen direla, eta ez horrenbeste arazo egiaz psikologiko edo psikiatrikoak konpontzeko. Horien iritziz, kasu batzuetan era horretako eskuhartzea gomendagarria den arren, kasu gehienetan nortasun mailan preskuntza prozesuan dagoen pertsonari ahal dela diagnosi psikiatrikoa ez zaio egin behar.

Droga kontsumitzen duten nerabeen desintoxicaziorako tratamenduen kasua beste bat da. Sendagileek diotenez, tratamendua eraginkorra da pazienteak bere borondatez parte hartzen duenean. Nerabeak nahi ez badu, eta batzuetan nahi izatea edo ez izatea une bateko kontua izan ohi da, osasun zerbitzuek ezin dute esku hartu.

Horrezaz gain, baliabideak urriak dira eta horiek erabiltzeko malgutasunik ez dago. Normalean esaten da, kontsulta eskatzen denean, osasun mentaleko zentroetan itxarote zerrenda luzea dela eta sarritan hilabete eta erdi itxaron behar izaten dela. Horren ondorioz, neurria ezartzeaz arduratzen direnak beharrezkoa ikusten dutenean osasun sare pribatura jo beharrean aurkitzen dira.

Praktikan, zerbitzu eskudunek esku hartzeko dauzkaten epeen luzera eta desintoxicatze tratamenduan parte hartzeko borondate esijentzia kontraesanean sartzen dira. Oro har, nerabe bat era horretako tratamendu bati ekiteko prest azaltzen denean, unea aprobetxatu eta ahalik eta bizkorren hasi behar da lanean, bestela, gerta daiteke erabakiaren eta benetako eskuhartzearen arteko denbora horretan nerabea iritziz aldatzea. Nerabeari, egiten duen ahaleginaren truke berehalako interesa agertu behar zaio. Noski, horretarako alde aurretiko zita sistemarekin funtzionatzen duten zerbitzuek malgutasunarekin jokatu bekarko lukete. Osasun zerbitzuaren egoera ulergarria da, noski: egunero salbuespenak onartuko balitu, ez lituzke hitzartutako zitak errespetatuko. Baina egia de ere nerabeekin malgutasunez jokatu behar dela, une egokia presentatzen denean aprobetxatu ahal izateko. Bestalde, ez dira ezta horrenbeste, eta, beraz, beraiekin egingo liratekeen salbuespenek nekez desestrukturatuko lukete atentzioaren estruktura.

### 3. GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuak dira, agian, Gazte Justiziaren esparruarekin harremanik zuzenena daukatenak. Neurri-proposamenera iristeko txosten teknikoak egiteko informazioa zerbitzu horiei eskatzen zaie, eta beraien lankidetzak eskatzen da sarritan zaintzapeko askatasuna, familia harrera edo komunitatearen onurarako zerbitzuak egitea bezalako neurriak ezartzeko orduan, eta barrualdi neurriaren ondoren gizartean eta familian bergizarteratzeko prozesuan parte hartzea ere eskatzen zaie.

Lehenengo zereginak ez du arazorik sortzen. Oinarrizko gizarte zerbitzuek eta haur zerbitzu espezializatuek beraien laguntza eskaintzen dute Administrazio Publikoen eta Administrazioaren Prozedura Amankomunaren arteko Harremanetarako legeak 4. artikuluan aurrikusten duen administrazioen arteko lankidetzak printzipioaren aritiko, beti ere informazioa ezagutu dezaketen pertsonak isilpekotatasunaren printzipioa errespetatu beharrean daudela kontuan izanik.

Neurri baten betekizunean parte hartu behar denean, eskuhartze epeak luzatu egiten dira. Zaintzapeko askatasunen kasua nahiko garbia da Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban arazoa ez da maila berean planteatzen, Haurtzarorako Lurralde Zerbitzua delako neurria ezartzeko eskuduna. Bilboko eta Donostiako Epaitegietako Ordezkaritza Teknikoek, zaintzapeko askatasun kasuan familia-eskuhartzearen beharra ebaluatzea komeni dela erabaki dezakete, eta jarduera hori planean iragarritako beste jarduera edo kontrolei gehitzen zaie. Kasu horietan, dagokion haurtzaro zerbitzuarekin jartzen dira harremanetan aukera hori kontuan har dezan. Eskaria egin eta baiezko edo ezezko erantzuna eman arteko epeak nahiko luzeak izan daitezke, batzuetan hiru hilabetetik gorakoak.

Komunitatearen onurarako zerbitzuak egiteari dagokionez, horiek arinago bideratzen dira, normalean lege-hauslea bizi den herriko oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez, eta horiek jakinarazten dizkie ordezkaritza teknikoari udalerrian zein jarduera bideragarri dauden neurria bete ahal izateko. Profesionalek euren borondatez parte hartzen dute era horretako neurrietan, eta ez dute trabarik jartzen, baina batzuetan baita aipatzen dute beraien ordutegia malgutu behar izaten dutela nerabearen aukeretara egokitzeko.

Familia harrera-neurriei dagokienez, esperientzia, oraindik, oso mugatua da. Adin Txikikoen Epaitegietatik orain arte era horretako neurri bat bakarrik ezarri da, eta kasu bakar horretan jarraipena egin behar zuen arduradunak adierazi du ez zitzaizola galdetu neurri aukera horren egokitasun edo bideragarritasunaz, eta berari beti desegokia iruditu zitzaizola. Haurtzarorako Zerbitzuari harrera mailan dagozkion eginkizunak kontuan izanik, jarduerak alde aurretik koordinatzea komeniko litzateke, neurri ahalik eta egokiena hartu eta hori burutzeko baldintzarik onenak izateko.

Barrualdi neurria amaitzen duten nerabeak gizartean eta familian bergizarteratzeko prozesuan gizarte zerbitzuek daukaten partaidetzari dagokionez, normalean dagokion zentroko familia-langilearen eskariz parte hartzen dute, langile hori izaten baita nerabearen irteera eta bere familia gunera itzultzeko baldintzak prestatzen dituena. Kasu horietan, eta hala badagokie, ahal diren laguntza ekonomikoak kudeatzen dituzte, zentroko langileari herrian dauden alternatiba bideragarrietarako orientazioak ematen dizkiete, eta haurtzarorako zerbitzu espezializatuarekin koordinaturik familia gunean eskuhartzeko egokitasun maila aztertzen dute.

## **IX. ATALA**

# **NEURRIEN KONTROLA ETA EBALUAZIOA**

## **1. NEURRIEN BETEKIZUN MAILAREN KONTROLA**

Neurriak indarrean sartzeko orduan, Adin Txikikoen Epailea Administrazio eskudunek bere eskura derrigor jarri behar dituzten baliabide material eta pertsonaletaz baliatzen da. Egungo egoeran, esan da Bizkaian eta Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzako Justizierekiko Lankidetzarako eta Giza Eskubideen Zuzendaritza arduratzen dela eginkizun horretaz, eta Vitoria-Gasteizko Epaitegiak erabakitako barrualdi neurriak betearazteaz ere arduratzen da, eta Arabako Foru Aldundia arduratzen da, berriz, lurralde horretako Epaitegian hartutako beste neurriak betearazteaz.

Orain arte adierazitakoak esan nahi du Epaileak daukala neurria betearaztearen kontrol juridikzionala, eta Administrazio eskudunei dagokiela neurriaren betekizunean dagoen bilakaeraren berri aldiro, baina baita gertakizunen bat dagoenean ere ematea. Hau betetzen da: espedienteetan badaude neurrien ezarpenaz arduratzen direnek bidalitako exekuzio-txostenak, hala ingurune irekian ezarritakoak, nola barrualdiei dagozkienak ere.

Gertakizunak ere jasota daude: irteera-baimen eskariak, zaintzapeko askatasun-zitara agertu ezagatikoa neurriaren betekizun eza, traslado eskariak, etab.

Idatzizko informazio horrezaz aparte, ez da ikusten zentroetara kontrol-bisitak aldiro egin direnik edo ingurune zabalean neurriak betetzen ote diren zuzenean ikuskatu denik. Noizean behin, Epaileek zentroak bisitatu dituzte, bereziki eta sarriago Vitoria-Gasteizko epaileak.

Fiskalek ere ez dute betetzen Kode Zibila eta Judiziamendu Zibilaren Legea partzialki aldatzen duen Adin txikikoen babes Juridikorako urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak 21. artikulua bidez ezartzen dien zainketa betekizuna<sup>60</sup>. Maila batean, bitarteko material eta pertsonalik ez edukitzearen ondorioa da hori guztia. Fiskaltzaren batetik jakinarazi da zentroetara joan beharrak arazoak sortzen dituela, dirua aurreratu eta aurrerago kobratu behar izaten delako. Noski,

---

<sup>60</sup> 1996ko urtarrilaren 17ko EBO.

horretarako diru kantitate bat izendatuta edukitzea komeniko litzateke, izan ere Fiskaltzen betekizunak adin txikikoak aurkitzen diren zentro guztiei, babes-zentroei barne baitagozkie, eta betekizun hori burutuko balitz urtean desplazamendu asko egin beharko liriateke<sup>61</sup>.

Neurriak betetzeaz zuzenean arduratzen diren administrazioek ezartzen dute kontrol moduren bat neurriak bete arazteaz arduratzen diren erakunde pribatuen gain, baina neurri horiek ere ez dira guztiz eraginkorrak gertatzen.

Eusko Jaurlaritzak aldiro jasotzen du barrualdi neurriren bat betetzen ari den nerabe bakoitzari buruzko informazio idatzia. Txosten horietan hezkuntza mailako bilakaeraren edo gertakizun bereziren baten berri ematen da. Bi kasuetan, Justiziarekin Lankidetzarako eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak dagokion Epaileari ematen dio informazio hori, hala behar izanez gero dagozkion neurriak har ditzan. Zuzendaritzak, edonola, bidalitako informazioaren kopia bat gorde egiten du, eta baita beharrezkoa denean justiziatik emandako erantzuna ere. Horrek, barrualdian dauden nerabe guztiei buruzko etenik gabeko jarraipena bermatzen du, bai teoriarik behintzat. Eta nerabeak asko ez direnez gero, Eusko Jaurlaritzako teknikariek horien egoera nahiko zehazki ezagutzen dute.

Barrualdi esturturetan jarraitzen diren atentziorako benetako pausoen kontrola ez da jarduketa arau hain zorrotzetara egokitzen. Zuzendaritzak sarri bisitatzen ditu zentroak, baina, oro har, behar edo gertakari bereziei erantzuten diete. Ez daude kontrol-bisita bezala esturaturatuak, eta, beraz, izaera horretako eskuhartze kasuetan egokitzen diren helburuak, metodoak eta erizpideak ez dira jarraitzen. Normalean zentroko Zuzendariarekin edo Koordinatzailearekin, edo heziketa taldeko kideren batzuekin bileraren bat egiteko izaten dira, eta beti ez da erabiltzaileekin lasai hitz egiteko aukera egoten. Kasu horietan erabiltzaileekin edukitzen den harremana azalekoa baino ezin da izan, eta hain zuzen nerabe gehienentzat Eusko Jaurlaritzaren zentroari beharrezko bitarteko materialak eskuratzen dion erakundea baino ez da: ez dute Adin Txikikoen Epailearen aurrean eskuhartzeen eta horien kalitatearen bermatzaile-arduradun bezala ikusten.

Europako sistema bat baino gehiagotan gomendatzen da kontrol-bisiten beharra eta horiek hileroko egiteko premia, babesaren alorrean gertatzen zen bezala, eta hori arrazoi honegatik ikusten da: sarritan arrisku egoera larrian dauden pertsonak jasotzen dituzten zerbitzuek eman beharrekiko atentzioaren kalitatea erraz eta bizkor alda daitekeelako. Taldearen osaketan gerta daitekeen edozein aldaketak -eta barrualdien iraupenak sarritan eragiten ditu aldaketa horiek-, edo kideren batek edozein momentutan eduki dezakeen krisi sakonen batek kolokan jar dezakete zentroaren funtzionamenduaren oinarrian dagoen harreman-oreka. Pertsona zailak izaten dira horiek, arazoz josiak, eta erasotzaileak ere izan daitezke.

---

<sup>61</sup> Erreforma-zentroak 3 bakarrik dira, baina babes-zentroak 63.



Elkarbizitza-erregimena nahitaez bete beharreko arau zorrotzetan oinarritzen da, eta arau horiek ez betetzeak eskubide kenketa handia ekar dezake. Era horretako zentro bat kontrolatuta edukitzea eta guztien banakako beharrei erantzutea, nabarmen konplexua da, eta gure inguruko beste herrialde batzuetan egin diren azterketetan ikus daitekeen bezala, sarritan egoerak hezitzaileen kontrol-gaitasuna gainditu egin dezakete. Egia da gertakari arazotsuak tratatzeko prestatuak daudela, eta egia da baita nahitaezko jarduera eta erreferentzia markoa bermatzen duten funtzionamendu-arauak eta hezkuntza-proiektu bat dauzkatela, baina horreke ez du esan nahi giroa eta harremanak okertu ezin direnik. Kasu horietan, atentzioaren kalitatea arriskuan jartzen da, noski, eta sarritan kontrol-elementuak behar izaten dira.

Arrisku instituzionalari ere daukan garrantzia eman behar zaio. Barrualdi-zentroak erabateko instituzio edo erakundeak dira Goffmanek horietaz ematen duen ikuspegiaren ildotik. Txikiak izanik, era horretako estrukturei berez dagozkien arriskuak txikiagoak gertatzen badira ere, ez dira erabat desagertzen, neurri handi batean hezkuntza-proiektua guztiz arauetan oinarritua dagoelako. Horri, gainera, zentro horietan egoten diren pertsonen ezaugarriak gehitu behar zaizkie: nerabe liskartiak eta heziketa funtzioak betetzen dituzten adineko pertsona kopuru handia. Osaketa horrek, krisi momentuetan indar-harremanak sorrarazi ditzake, eta horiek atentzioaren kalitatean oso bizkor eta txarrerako eragin dezakete.

Administrazioak kanpotik, baina baita justiziak ere ezar ditzaketen kontrolak, sarritasun egokiarekin eginez gero, okertze bidean dauden egoera berriz bidera dezakete, horretarako atentzio zuzenean parte hartzen duten profesionalen gauzak egiteko zenbait moduren desegokitasuna eta erabiltzaileen beharrentzat egokiagoak diren soluziobideak bilatzeko premia ikusaraziz.

Maila honetan, barrualdi-kasuetan ikusten diren gabezia berdinak antzematen dira ingurune irekian ezartzen diren neurrietan ere: kontrola, funtsean, neurriak ezartzeaz arduratzen diren profesionalen Administrazio arduradunei aldiro bidaltzen dizkien txostenen arabera ezartzen da, eta Administrazio arduradunek txosten horien berri Adin Txikikoen Epaileei jakinarazten diete. Arabako Foru Aldundian zaintzapeko askatasunak emateaz arduratzen den zerbitzuak bakarrik dauka ezarrita kontrol-ikuskapen zuzen eta bereziko mekanismo bat. Mekanismo hori honela garatzen da: neurriak betearazteko programaren ardura daukan teknikariak banaka elkarrizketatzen ditu zaintzapeko askatasunukeko hezitzaileak astero, dagozkion kasu guztien jarraipena egiteko. Kontrol-elementuak programako teknikari-arduradunaren eta IPACEko koordinatzailearen artean erabakitzen dira; aldiz, jarraipen-elkarrizketen bidez helburuak berraztertzen dira, eta programaren garapen zuzena lortzeko beharrezkoak ikusten diren orientabide teknikoak ematen dira.

Alabaina, jarduera-eredu horiek ez dute eskuhartzeen kontrol zuzenerako elementurik ematen, eta ezta profesionalen behar izanez gero laguntza psikologikoa

emango liekeen banakako ikuskapenerako sistematik ere. Bestalde, nerabeen eta programaz arduratzen den teknikariaren arteko harremana kasuaz arduratuko den hezitzailearen aurkezpen eguneko harremanera mugatzen bada ere, beharrezkoa ikusiz gero gehiagotan ere eman daiteke, adibidez nerabeari neurria betetzeko ezarri zaizkion baldintzak betetzen ez dituen kasuan. Gainera, 1998ko urtarrila geroztik, teknikari-arduradunak Haurtzaro Zerbitzuko «Gizarte Trebetasunen Tailerra» zuzentzen du, eta bertan Taldeko psikologoak ere lana egoiten du; zaintzapeko askatasunean egon eta komenigarria den kasuan nerabeak tailer horietara joa ten dira.

## **2. ZERBITZUEN EBALUAKETA**

Barrualdi nahiz ingurune irekian ezartzen diren neurriak, horiek ezartzeaz arduratzen diren profesionalak ebaluatzen dituzte. Horretarako jarraitzen duten estruktura, normalean, hezkuntza-programa baten antzekoa izaten da: helburuak markatzen dira, horiek lortzeko bitartekoak eta epeak erabaki, eta, aldiro, neurriaren iraupenaren arabera, jarraipen edo azken ebaluaketa txostena egiten da, bertan jasotzen direlarik eskuhartzearen aspektu positiboak eta negatiboak. Azken batean, nerabearen bilakaeraren banakako ebaluaketa egiten da.

Gaur arte ez da eskuhartzeen kalitatea ezagutzera bideratutako zerbitzuei buruzko, alegia eskuhartze-pausoen inolako ebaluaketarik egin, eta ezta horiek denboraren joanean eraginkorrak ote diren jakiteko aukera emango lukeen azterketarik ere. Eta hori gertatzen bada, gure inguruan gizarte laguntza eremuetako zerbitzuen ebaluaketarako dagoen defizit kulturalagatik gertatzen da, eta neurri batean baita Adin Txikikoen Epaitegiek erabakitako neurriak indarrean jartzeko orduan eskuduntzen inguruan egon den auzi luzeagatik ere. Espero dezagun etorkizunean Giza Eskubideen eta Justiziarekin Lankidetzarako Zuzendaritzak, betekizun hauek duela bi urte eskuratu zituenetik oso aktiboa agertu baita, ebaluaketarako sistemak martxan jartzea, gure inguruko herrialdeetan erabiltzaileen eskubideak bermatzeko eta jarduera profesionala ongi burutzeko ezinbesteko baldintza bezala jotzen baitira.

**HIRUGARREN ZATIA**

**LABURBILKETA ETA  
GOMENDIOAK**

**X. ATALA**

**LABURBILKETA**

## **1. SARRERA: HELBURUA, ESPARRUA ETA METODOLOGIA**

Txosten honetan Euskal Autonomia Erkidegoan lege-hausleekin erabiltzen den eskuhartze sistema aztertzen da. Xedeak hauek dira: gaurko egoerari buruz egiazko ikuspegi osoa ematea, jarduera onaren elementuak antzematea eta zabaltzea, eta ikusi denez disfuntzioak dauzkaten alderdiak hobetzeko bideak proposatzea, ikerketa berriek eta nazioarteko testu aplikagarriek emandako jokabideak aintzakotzat hartuz.

Esparrua Adin Txikikoen Epaitegien Eskuduntza eta Prozedura Arautzeko Legearen Erreformari buruzko ekainaren 5eko 4/1992 Legean zehazten da, hau da, 12 eta 15 urte bitartekoekiko eskuhartzea bertan jasota dago.

Txostena egitean bi zati bereizi dira. Lehenbizikoan, gazte-justizia sistema alorrari buruzko zenbait erreferentzia teoriko eman eta gure esparruan indarrean dagoen eredia deskribatu da, lege aplikagarriak, eskumenen banaketa, alor honetan parte hartzen duten Organo eta erakundeen osaketa eta prozeduraren urratsak zehatz mehatz azalduz. Bigarren zatian, adin penal txikiko lege-hausleen aurkako prozeduraren barnean aplikagarri diren neurriak, ezartzeko bideak eta kontrol eta ebaluaketa bideak ere aztertzen dira.

Erabilitako metodologiak bi oinarri ditu, gaiari buruzko literatura berriena eta gaia ukitzen duten zerbitzu eta erakundeetatik ahoz edo idatziz jasotako informazioa. Beste aldetik, errealitatea hobeki ezagutzeko eta argia egiteko asmoz 1996an eta 1997ko lehenengo seihilabetekoan irekitako 100 espediente judizial aztertu dira, hiru barrualdi zentroen ebaluaketa burutu da eta banakako 12 kasu aztertu dira, adin txikiko lege-hausleei, gurasoei eta neurriak ezartzen partehartze zuzena izan duten profesionalei elkarriketak eginez.

## **2. MARKO TEORIKOA ETA MARKO JURIDIKOA**

Egun, mendebaldeko herrietan oinarritzko hiru eredu daude adin penal txikiko lege-hausleekiko eskuhartzean: justizia eredia, babes eredia eta egindako kaltearen ordainbide-justizia eredia. Lehenengo ereduaren ezaugarri nagusia prozedura

bat, gehien bat judiziala ezartzea da, prozesu bermeak errespetatuz; prozeduraren markoan askotan hezkuntza helburuak dituzten neurri penalak edo, gutxienez, zehapenezkoak erabaki daitezke. Bigarren ereduari, norberaren eta familia eta gizarte mailako gabeziek hartzen dute lekurik garrantzitsuenak, legea hausteko jokaerak sortzean erabakigarritzat jotzen baitira. Eredu honetan gizarte zerbitzuei dagokie gazteen beharrei era egokienean erantzutea. Hirugarren ereduaren oinarria gazteek beren jokaeren ondorioez ardura hartzeko egokitasunean datza, ondorioen aurrean jarraraziz eta adiskidetze, kaltearen konpontze edo kaltetuari kendutako ondasunaren itzultzeaz baliatuz.

Gure esparruan indarrean dagoen eredu justizia eredutik hurbil dago nabarmenki, hezkuntza helburuak dituzten zehapen neurriak ezartzen baitira. Hala ere, beste eredu zenbait ezaugarri agerian ditu: alde batetik, gazteen beraien edo alderdi soziofamiliarreko egoerak kontuan hartzen dira oso. Beste aldetik, bitartekaritza eta kaltea konpontzearen aukera ematen du.

Adin penal txikikoek legea hausten dutenean, eskuhartzea, gure zuzenbidean, Adin Txikikoen Epaitegien Eskuduntzak eta Prozedura Arautzeko ekainaren 5eko 4/1992 Legearen arabera arautzen da. Adin Txikikoen Tutoretzako Auzitegiei buruzko Legearen 15. artikuluan inkonstituzionalitate adierazpenak esparru honetan utzi zuen hutsunea betetzeko, urjentzia bidez onartu zen lege hori. 1995eko Kode Penal berriak, 19. artikuluan, adin penala 18 urtetan ezartzen du eta, 69. artikuluan, Adin Txikikoentzako Justiziarako arautegia 18 urtez goitiko eta 21 beheitikoentzako erabiltzea ere aurreikusten du. Adin Txikikoen Epaitegien eskuduntzen handitze hauek, hala ere, adin penal txikikoen erantzukizun penala arautzen duen arautegia indarrean egon arte bertan behera geratu dira. Gaur egun, bada Adin Txikikoentzako Justizia Arautzeko Lege Organikoaren Aurreproiektua, baina ez da oraindik testua onartu eta, onartuta ere, urte bete baino gehiago beharko du indarrean sartzeko.

Indarrean dagoen arautegiaren ezaugarri nagusiak hauexek dira:

- Adin Txikikoen Epaileek arau-hauste penaltzat jo daitezkeen egintzetan aritu diren adin penal txikiko pertsonen ezartzeko neurriak zehatz ditzaten marko malgua ezarten du, beti ere haien interesa baloratuz.
- Behar diren prozesu bermeak ezarten ditu, Epailearen inpartzialitatea mantentzeko Ministerio Fiskalaren esku uzten du izapidea eta Epaileari prozesuaren amaiera erabakitze eskuduntza zabalak ematen dizkio, ondorio samingarriak, ahal den neurrian, saihesteko.
- Neurrien gehienezko iraupena ezartzen du, baita epaia bertan behera uzteko aukera eta ezarritako neurriak adin penal txikikoaren egoeraren garapenaren arabera berrikusteko aukera ere.

Autonomia esparruan ez da adin txikiko lege-hausleekin arautegi berezirik ezartzen, eta oraindik arautu gabe daude Adin Txikikoen Epailleek hartutako neurriak betearaztea, Epailleen eta betearazte hori dagokien administrazioen arteko koordinazio bideak, neurriak betearazteko zentroek eta zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak eta hauen gainean ezarri behar diren kontrol-bideak. Etorkizunerako, Haurrak eta Gazteak Babesteko eta Laguntzeko Legeak, zirriborroa egina duenak, hutsune hau bete beharko luke, neurri batean behintzat.

Adin Txikikoen Epailleek hartutako neurrien gauzatzea eztabaidagarria izan da urte askotan Eusko Jaurlaritzaren eta Lurralde Historikoen Foru Organoen artean. Erakunde guztiek esparru honetan ardurak hartzeari ezetza emateak egoera larria sortu zuen, neurri judizialen betearaztea oso mugatuta geratu baitzen eta betearazteko behar diren zentro eta zerbitzu sarearen garapena gelditu egin baitzen. Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak bakarrik ikusi zuten parte hartzea beharrezkoa. Lehenengoak, bere lurraldean, zenbait ardura hartu zuen, 1993tik aurrera zaintzapeko askatasunari buruzko neurrien betearaztea eta 1995etik aurrera komunitatearen onerako zerbitzuak egitea, alegia. Bigarrenak, zuzeneko jarduerari buruzko bere eskuduntzak erabiliz, barrualdien ardura hartu zuen. 1996tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak, Kode Penal berrian aurreikusitako handiagotzeak zirela eta, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bidez neurri guztiak burutzeko ardura hartu zuen. Gaur egun, erakunde hau eta Arabako Foru Aldundia harremanetan daude, Araban aurrerantzean ingurune irekiari buruzko neurriak betearazteko erakunde eskuduna zehazteko.

### **3. ZERBITZU SAREA ETA ATENDITUTAKO POPULAZIOA**

#### *Zerbitzu sarea*

Ondorengo hiru zerbitzu hauek hartzen dute parte zuzenean 4/1992 Legearen babesean garatutako prozeduretan: Poliziak, Organo Judizialek eta neurriak betearazteko Administrazio eskudunek.

Euskal Autonomia Erkidegoan batez ere Ertzaintzak eta Udaltzaingoak hartzen dute parte kasu horietan. Horretarako, esparru honetan jokatzten duten gainerako profesionalek eskatu bide dutenaren aurka, ez dute adin txikikoentzako unitate berezirik sortzen.

Organo Judizialak Adin Txikikoentzako Fiskaltza eta Adin Txikikoentzako Epaitegiak dira. Bi Organo hauek dagokien lurralde historikoan eskudun dira. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Fiskaltzek Adin Txikikoentzako bina fiskalen ardurapean daude. Fiskal hauek, indarrean dauden legeen arabera, babesaren esparrura ere zabaldua dute eskuhartzea. Karrera fiskalean adin penal txikikoekiko eskuhartzeaz ez dago espezialitaterik. Adin Txikiko Epaitegiak, hiru

lurraldeetako hiriburuetan kokatuak eta lur eskuduntzak dituztenak, Epaille-magistratu banaren ardurapean daude. Bilbo eta Gasteizkoak Adin Txikikoen Epailleen funtzio bakarrak dituzte eta Donostiakoak jarduera hori eta Instrukzio Epaillearena ere burutzen ditu. Funtzioak betetzeko Bulego Judizial baten laguntza dute, Epailletza-idazkari batek zuzendua eta ofizial, laguntzaile eta agente batek osatua.

Talde Teknikoak Adin Txikikoen Epaitegietan kokatzen dira eta lan harreman, psikologia eta hezkuntza alorretako profesionalak osatzen dituzte. Administratiboki Eusko Jaurlaritzaren menpe badaude ere, Adin Txikikoen Epaitegietara atxikita daude eta Ministerio Fiskalak eskatuta jarduten dute, txosten teknikoak eginez eta bitartekaritzak antolatuz. Indarrean dauden legeen arabera, agerraldi eta entzunaldietan ere parte hartzen dute.

Hauek dira gaur egun neurriak betearazteko erakunde eskudunak: Eusko Jaurlaritza, Giza Eskubideen eta Justizierekiko Elkarlanerako Zuzendaritzaren bidez, eta Arabako Foru Aldundia, Haur, Gazte eta Familiaren Lurraldeko Zerbitzuaren bidez. Eusko Jaurlaritza autonomia esparruan hartutako barrualdi neurri guztien gauzatzeaz arduratzen da, baita Bilbo eta Donostiako Adin Txikikoen Epaitegiek hartutako ingurune irekikoez ere. Horretarako hiru Lurralde-ordezkarien laguntza du, bi Bizkaian eta bestea Gipuzkoan. Horiek auzitegi-etako egoitzetatik betetzen dituzte beren funtzioak. Arabako Foru Organoa Gasteizko Adin Txikikoen Epailleak hartutako ingurune irekiko neurrien betearazteaz arduratzen da. Bere funtzioak betetzeko, neurrien betearaztea dagokion hezkuntza programan tekniko bat dago. Arabako Foru Aldundiak, gainera, enpresa baten zerbitzuak kontratatzen ditu, Instituto de Psicología Aplicada Clínica y Empresarial-IPACerenak, alegia. Bai Eusko Jaurlaritzak, bai Arabako Foru Aldundiak zenbait neurri zehatz betearazteko beste erakundeekin elkarlanean aritzeko hitzarmenak egiten dituzte.

### *Atenditutako populazioa*

Adin Txikikoen Fiskaltzek eta Adin Txikikoen Epaitegiek 1996. urterako eta 1997ko lehengo sei hilabeterako emandako kopuruen arabera, prozedura horien esparruan, fiskaltzetan urtean 775 kasu erregistratzen dira. Horietatik %40 baino gehixeago Fiskaltzan bertan artxibatzen dira, egintzek legea hausten ez dutelako, salatuak 12 urte behitikoak edo 16 urte goitikoak direlako, edo salatuak arau-haustearen egilea den frogatzeko zantzurik ez dagoelako. Gainerako espedienteek hasiera ematen zaie, dagokion Adin Txikikoen Epaitegiari berri emanez. Espedienteetan gazte bat edo gehiago egon daiteke nahasita, Autonomia Erkidegoko batez bestekoa hasitako espedienteeko 1.71 lagunekoa da. Nahasitako % 80 baino gehiago gizonezkoak dira.

12-15 urte bitarteko biztanlegoari dagokionez (Adin Txikiko Epaitegien eskuduntzak mugatzen dituzten adinak dira), espedienteetan nahasirik dauden



gazteen proportzioa %7.46 izan da 1996an eta %2.97 1997ko lehengo seihilabetean. Arabako kopurua beste lurralde historikoetako baino handiagoa da, argi eta garbi.

Adin txikikoentzako justizia arautegia onetsi eta gero Adin Txikikoen Epaitegien eskuduntza esparruan sartuko diren pertsonei buruz Eusko Jaurlaritzak egindako estimazioen arabera, kopuru horiek hirukoiztu egingo dira.

Auzitegietan kontsultatutako espedienteen azterketatik lortutako informazioaren arabera, nahiz eta jakin aztertutako populazioa lagin bezala ezin dela hartu, arauhauste gehien 15 urtetan egiten dira, legea hausten dutenen artean eskola arazoak eta batzuetan benetako deseskolaratze kasuak daude, eta familiaren inguruko gabeziak ere normalak dira (gurasoen hezitzeo gaitasunik eza, kontrol eza etab.).

#### **4. PROZEDURAK**

Laburbilduz, poliziak egindako identifikazio edo atxiloketarekin hasten da prozedura. Hori Ertzaintza edo Udaltzaingoaren atestatu batean islatzen da. Atestatua agintari judizialei bideratzen zaie, dagokion Adin Txikikoen Fiskaltzara, alegia. Fiskaltzak, bere esku dauden datuen arabera eta beharrezkotzat jotzen badu, espedienteari hasiera ematea edo ez erabakitzen du. Bidezkoa ez bada, espedientea artxibatu egiten du. Bidezkoa bada, hasiera eman eta honen berri Adin Txikikoen Epaileari ematen dio. Orduan, Talde Teknikoari txosten bat eskatzen dio. Profesionalek, txostena egiteko, gaztearekin eta gurasoekin edo legezko ordezkariekin elkarriketak egiten dituzte eta, komenigarria bada, beste zerbitzu eta profesionalengana jotzen dute. Txostena bukatu eta Fiskaltzari igortzen zaio. Talde Teknikoak, beharrezkoa ikusten badu, bitartekaritza eta kaltea konpontzeko neurria proposa ditzake. Fiskalak onesten badu, bitartekaritza erabakitzen da eta txostena Epaileari igortzen dio jardueren amaiera eskatuz. Bitartekaritza bidezkoa ez bada, Taldeak proposatu ez duelako edota proposatu baldin badu, Fiskalak, egintzen izaera eta larritasuna ikusita, egokitzen jotzen ez duelako, txostena auzitegira igortzen du, hor agerraldi eguna zehazteko. Agerraldi honetan Epaileak gazteari bere eskubideak azaltzen dizkio eta honen adierazpenak entzuten dira. Momentu horretan, Epaileak bost aukera ditu: babes gaitetako agintari administratiboari kasua bideratu, berari ez dagokiola uste badu txostena Epaile eskudunari bideratu, ohartarazpenaren neurria hartu, jarduerak artxibatu edo entzunaldia egin. Horretarako, fiskalak alegazio idazkia aurkezten du eta defentsaren abokatuari bideratzen dio. Defentsaren abokatuak entzunaldian egon eta idazki bat prestatu behar du. Entzunaldian, gertaerekin eta proposatutako neurriarekin adostasunik bada, Epaileak erabakitzen du. Horrela ez bada, alderdi bakoitzak bere argudioak azaltzen ditu: Talde Teknikoari entzuten zaio, baita gazteari ere, eta gero Epaileak erabakitzen du. Askotan, prozesua ez luzatzeko denak ados badaude, agerraldia eta entzunaldia batera egiten dira.

Epaileak har ditzakeen neurriak hauek dira: ohartarazpena, bat, bi edo hiru asteburuko barrualdia, zaintzapeko askatasuna, beste pertsona edo familia batek babesean hartzea, ziklomotor edo ibilgailu motordunak gidatzeko eskubidea kentzea, tratamendu ambulatorioa, zentro terapeutiko batean sartzeta, zentro batean erregimen ireki, erdireki edo itxian barrualdia. Kaltea konpontzeko aukera bada, epaia bertan behera utz dezake.

Hauek dira prozedura honen esparruan ikusten diren akats nagusiak:

- Batzuetan, poliziaren atestaturia Goardiako Auzitegira igortzen da, atxiloketa Fiskaltzen ordutegitik kanpo egin baita. Horrela gertatzen denean, atestaturia, ohiko bidetik, Instrukzio Auzitegiari bidaltzen zaio askotan eta denbora luzea pasatzen da atestaturia dagokion adin txikikoen fiskaltzara iritsi arte.
- Poliziaren egoitzetan ez dago adin txikikoez arduratzeko leku egokirik eta agenteen prestakuntza ez da beti gazteen berezitasun eta beharretarako egokiena.
- Fiskaltzetan instrukzio eginbideak oso mugatuak dira, baliabide eza dela eta, hein batean.
- Talde Teknikoen lanak ugaltu egin dira, 16 urte goiti eta 18 behitkoei zabaldu baitzaie esparrua. Horrek prozeduraren fase honetan eskuhartzearen epea luzatu egiten du. Hein batean, hori ere bada bitartekaritza prozedurak gehiagotan ez proposatzeko arrazoia, jardueraren alor honetan parte hartzen duten profesional guztiek konponbide egokienetza jotzen badituzte ere. Bulego Judizialek lanaren alderdi murrizetan bakarrik laguntza administratiboa emateak arazo hau areagotu egiten du.
- Batzuetan, Talde Teknikoetako profesionalen ustez, ez gertaeren izaera, ez hauen larritasuna, ezta gaztearen beraren eta alor soziofamiliarreko ezaugarriak ere ez dira txosten konplexu eta zehatzak egiteko arrazoi. Txosten horiek, gainera, familiaren intimitatean, beharrik gabe, sudurra sartzeta eragin dezakete.
- Talde Teknikoetako profesionalek gai zehatzetan trebatzeko aukera gehiago izan behar dutela uste dute, hala nola, sexu delituengatik prozesatutakoekin eskuhartzea edo droga konsumitzailekin eskuhartzea.
- Agerraldian eta entzunaldian, Adin Txikikoen Epaileek eta besteek adin txikikoeekin hizkuntza argia, erreza eta esandakoa ulergarria izateko modukoa erabiltzen badute ere, gainerako argudioetan konplexuegia da, eta gazteak, eta, askotan, haien familiak, edukiak eta ondorioak ulertzeko arazoak izan ditzakete.

- Abokatuaren eskuhartzeak zenbait zailtasun eragiten ditu. Prozeduraren berezitasunak ez ditu askotan ezagutzen eta gazte eta familiarekin, lehenengo aldiz, entzunaldia bera baino lehentxeago bildu ohi da. Gainera, prozeduraren berezitasunak direla eta, bere partehartzea anbigua suertatzen da. Horregatik, gazteen behar eta berezitasunei begiratzen ez dienez gero, auzitegi-tako profesionalek ez dute orokorrean haren partehartzea ontzat ematen eta gazteek eta familiek ez dute defentsaren funtzioa aintzat hartzen.

## **5. NEURRIAK EZARTZEKO BIDEAK**

Aztertutako denboraldiko (1996. urtea eta 1997ko lehenengo seihilabetea) jarduera judizialtan desberdintasunak ikusi dira neurriak ezartzean. Azpimagarria da Donostiako auzitegiak hartutako neurrien kopurua Bilboko edo Gasteizko auzitegienak baino txikiagoa izatea. Lurralde historiko horretan aurretiko bitartekaritza prozesuetara gehiagotan jotzeak estaltzen du, hein batean, desberdintasun hau. Bi aldagai hauek, hau da, neurrien kopurua eta bitartekoen kopurua kontuan harturik, hurrengo hauek dira hasitako espedienteetan inplikaturako gazte kopuruari buruz, 1997an esparru judizialetik egindako eskuhartze zuzenaren tasak: Araban %44.1, Bizkaian %57.5 eta Gipuzkoan %31.3.

Neurrien izaerari buruz hauxe ikusten da: Gasteizko auzitegiak bakarrik erabaki du eta kasu bakar batean beste pertsona edo familia batek babesean hartzeko neurria eta Donostiako auzitegiak ez du inoiz ere asteburuko barrualdi edo tratamendu ambulatorio neurrietara jo. Aplikazioaren maiztasunari buruz, hau da, auzitegi bakoitzak aplikaturako neurri multzoan duen proportzioari buruz, hurrengo alde hauek azpimarra daitezke: Bizkaia eta Gipuzkoan, Araban baino gehiagotan jotzen dute kargu hartzera; zaintzapeko askatasuna gutxitan ezartzen da Bilboko auzitegian eta Arabako eta Gipuzkoako Epailerek, berriz, lautatik behin ezartzen dute; komunitatearen onurarako zerbitzuak ematea Araban sarriagotan erabiltzen da Gipuzkoa eta Bizkaia baino; erregimen erdirekiko barrualdia Gipuzkoan beste bi Lurraldeetan baino askoz ere gutxiagotan ezartzen da; hiru auzitegiak osotara hirutan jo dute barrualdi itxira. Aztertutako denboraldian ingurune irekiko neurri mota guztiak hartuta, Araban hartutakoen %75 dira, Bizkaian %83 eta Gipuzkoan %88. Gainerako kasuak barrualdi neurriei dagozkie (asteburukoak, erregimen ireki, erdireki eta itxikoak).

Informazioa lortzeko erabili den kasu hautaketa lagin mailakoa ez dela jakinda ere, Adin Txikikoen hiru Auzitegi-tan kontsultaturiko espedienteetan ikusi diren eskuhartzeen epeen arabera, aplikaturako neurrien herena baino gehiago berehala betearazten da, heren hori batez ere kargu hartzei dagokiena delarik. Neurri gehienak ebazpena indarrean sartu eta eta lehenengo eta hirugarren hilabete bitartean hasten dira. Kasu guztietan Gipuzkoan beste Lurraldeetan baino

azkarragoak dira, neurrien kopuru osoa askoz txikiagoa baita, baina, beste aldetik, baita jarduerak eraginkorragoak direlako ere.

## **6. KONPONBIDEEN AZTERKETA**

### ***Bitartekaritza***

Bitartekaritzak ohiko bide judizialen ondoan auziak konpontzeko beste era bateko bideak ematen ditu, esparru judizialaren beharra badu ere: kode penalean tipifikatutako arau-hausteen kasuetan baino ez da erabiltzen, eta gure ordenamendu juridikoan Adin Txikikoen Epaileek hartu behar dute ezartzeko erabakia. Adin txikikoak ardura hartzeko prozesua burutzen du, egin dituenak bere gain hartzen ditu eta ondorioz sortutako kalteak konpontzeko ardura ere hartzen du. Kalte morala kaltetuarekin adiskidetzearen bidez zuzentzen da eta kalte materialak konpontzearen edo itzultzearen bidez. 4/1992 Legearen arabera, bitartekaritza prozeduraren bi zatitan erabil daiteke: izapidean zehar, jarduerak bukaraziz, edo ebazpenaren ondoren Epaileak epaia bertan behera uztea komenigarritzat jo eta artxibatzea kaltearen konponketara baldintzatzen duenean.

Gure esparruan, 1997tik aurrera sarriago aplikatu da, lurraldeen arteko desberdintasunak nabarmenak badira ere: Gipuzkoan 48 bitartekaritza prozedura, Bizkaian 40 eta Araban 4 bakarrik. Gipuzkoarako emandako kopurua Donostiako auzitegiarena baino handiagoa da, bitartekaritzak hasitako espedienteetan inplikaturako gazteekin burutu direnentzako eskuhartzeen artean %62.3 baitira, Epaileek erabakitako artxibatze eta beste agintariei bideraketak kanpoan utziaz. Gainerako beste % 37.7 ebazpen judizialen bidez hartutako neurriak dira.

### ***Kargu hartzea***

Kargu hartzea adin txikikoa ohartaraztean datza, bere jokaera desegokiaz eta horren ondorioez jabe dadin. Adin Txikikoen Epaileak zuzenean betearazten du, bai agerraldian, entzunaldia ireki gabe, bai ebazpen judizialean hartutako neurri gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoan neurri hau besteak baino askoz gehiagotan ezartzen da. 1996an eta 1997ko lehenengo seihilabetekoan erregistratutako datuen arabera, aplikatutako neurri kopuru osoaren %46.5 izaera honetakoa zen, Bizkaian %60 baino gehiago eta Donostian %50. Gasteizko Epaileak sistemak ematen dituen aukera guztiak erabiltzeko joera du, horregatik kargu hartzea beste Lurraldeetan baino gutxiago erabiltzen da, hartutako neurrien %22.9an, alegia.

### ***Bat, bi edo hiru asteburuko barrualdia***

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioaren interpretazioaren arabera, asteburuko barrualdia barrualdiko zentroetan burutu daiteke, baita etxe barruko arresto moduan ere, gurasoen edo legezko ordezkarien etxean, horiek nolabaiteko kontrola ziurtatzen badute.

Profesional gehienek neurri hau kritikatu egiten dute, iraupen murriztak hezitzeko aukera gutxi ematen baitu. Horregatik, gutxitan erabiltzen da, 1996. urtean eta 1997ko lehenengo seihilabetean 8 aldiz baino ez da aplikatu.

### ***Zaintzapeko askatasuna***

Ingurune irekiko neurri hau legea hautsi duenaren jarduerari eta jokaerei nolabaiteko intentsitatez jarraitzean datza, erreferentziazko pertsona bat emanez. Pertsona horrek badu aginte nahikorik gazteak bere jokaerak zalantzan jarrazteko eta, erantzukizunez eta menpekotasunik gabe jarduteko, pentsatzeko eta erantzuteko bideak hartzeko gai izateko.

Bizkaian eta Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Elkarlanerako Zuzendaritzak hartzen du betearaztearen ardura, horren barnean dauden eta auzitegietak egoitzetatik jarduten duten Delegatu Teknikoen bidez. Araban, Arabako Foru Aldundiak ditu betearazteko eskuduntzak eta lauguntza zuzeneko funtzioak IPACE-Instituto de Psicología Aplicada Clínica y Empresarial-i esleituz jarduten du.

Zaintzapeko askatasuna da kargu hartzearen ondoren Euskal Autonomia Erkidegoan maizen erabiltzen den neurria. Adin Txikikoen hiru Auzitegiek hartutako neurrien artetik %16an agertzen da, Arabako Lurralde Historikoan %26.7an eta Gipuzkoan %24an. Bizkaiak, berriz, neurrien % 8.4an soilik erabiltzen du.

### ***Beste pertsona edo familia baten harrera***

Neurri honen oinarria Adin Penal Txikikoen Epailleek erabakitako denboraz beste pertsona batekin edo bere familia ez den edo berarekin bizi ez den familia batekin bizitzea da. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Instrukzioak, 4/1992 Legea interpretatzean, babes zentroak ez duela familia izan behar ulertzen du, beraz, hezkuntza taldeetan ere gauza daiteke.

Neurriaren alde garrantzitsuena inplikaturako alderdien onspena izatea da, hau da, gaztearena, jatorrizko familiarena eta harreran jasotzen duen familiarena. Bada elementu garrantzitsu gehiagorik: harreraz arduratzen direnen hautaketa

eta prestakuntza prozesu egokia, eta neurriak irauten duten bitartean jatorrizko familiarekin eskuhartzea, hau, gaztea itzultzean, heziketa burutzen gai izateko.

Aztertutako denboraldian Euskal Autonomia Erkidegoan behin bakarrik erabili da.

### ***Komunitatearen onurarako zerbitzuak egitea***

Neurri hau kaltea konpontzeko justizia hastapenetan oinarritzen da eta komunitatearen onurarako jarduerak egitean datza. Kaltea konpontzeko moduetariko bat edo erabakitako ebazpen juridikoa izan daiteke. Eragin egokia lortzean hiru faktore daude, funtsean: legea hautsi duenak egindakoaren ardura bere gain hartzea, neurriaren iraupena egindakoaren araberakoa izatea, eta ematen diren zerbitzuak eta egindako kalteen artean harreman zuzena izatea. Kasu batzuetan, ordea, eta azaldutako azkeneko faktorearen aurka bada ere, nerabearen gaitasunen aprobetxamendu sozialari lehentasuna ematen ahal zaio.

Autonomia Erkidegoan maiz ezartzen da, aplikatutako neurrien %5.7an hain zuzen. Arabak du tasarik altuena, agian bitartekaritza neurriak gutxiagotan ezartzen direlako. Gasteizko Epaileak hartutako neurrien % 21.6 komunitatearen onurarako zerbitzuak dira. Bizkaiko eta Gipuzkoako tasak %12.2 eta %14 dira, hurrenez hurren.

Ikerketa taldearen ustez, Arabak zailtasun bereziak ditu neurri hau ezartzeko, gaur egun betearaztearen ardura duen Arabako Foru Aldundiak gai honetan elkarlanean aritzeko hitzarmen bakarra baitu eta burutzeko beti erakunde berberarengana jotzen baitu. Horregatik, emandako zerbitzua egindako kalteari ahalik eta lotuen izateko aukerak, eta gaztearen behar bereziei egokitzekoak ere mugaturik daude.

### ***Tratamendu anbulatorioa***

Tratamendu anbulatorioa arazo psikiko edo psikologikoak dituzten gazteentzat erabiltzen da, baita drogaren menpe dauden gazteentzat ere. Ezartzeko, sare publikoko Osasun mental zerbitzuetara edo, beharrezkoa bada, sare pribatuko zentro eta profesionalengana jotzen da.

Aztertutako epean sei kasutan erabili da (5 aldiz Araban eta behin Bizkaian). Ezartzean sortzen diren zailtasunik haundien jatorrian hauek daude: Osasun Mental Zentroetako itzarote zerrendak, drogaren menpe dauden gazteei laguntza emateko baliabide murrizak, eta, tratamenduak eragin ona izan dezan, legea hautsi duenaren baietza eta borondatea lortu beharra.

## **Erregimen ireki, erdireki eta itxian barrualdia**

Indarrean dauden legeek aurreikusten dituzten neurrien artean, barrualdia da eskubideak gehien mugatzen dituenak. Gazteak horretarako eratu den zentro batean bizi behar du. Adin Txikikoen Epaileak erabakitzen duen iraupena, gehienez, gainerako neurriena bezala, bi urtekoa da. Lege-hauste larriak gertatu diren kasuetan aplikatu ohi da, bortizkeria edo beldurraraztea izan direnean. Lege-hausteen maiztasunak agintzen duenean ere ezartzen da, gazteari hezkuntza esparru osoa eman behar zaionean, portaeraren arlo guztietan jokatu ahal izateko. Ezartzean, fiskalak proposatutako kautelazko neurria, edo prozedura bukaeran ebazpen judizialean hartutako neurria izan daiteke.

Legeak, deskribatzen ez baditu ere, hiru barrualdi mota bereizten ditu. Adin Txikikoentzako Justizia Arautzeko Lege Organikoaren anteproiektuan, berriz, mota bakoitzaren ezaugarriak ematen dira:

- erregimen irekian, zentroan bizi behar da, baina hezkuntza proiektuan programatutako jarduera guztiak ingurune komunitarioko zerbitzuetan garatzen dira;
- erregimen erdirekian zentroan bizi behar da, baina prestakuntza, hezkuntza, lan eta aisia jarduerak ahal denean zentrotik kanpo gara daitezke;
- erregimen itxian, zentroan bizi behar da eta bertan garatu heziketa, hezkuntza, lan eta aisia jarduerak.

Barrualdi mota guztiak kontuan hartuz, asteburukoak izan ezik, aplikatutako neurrien kopuruaren %17.75 dira, Araban barrualdia %22.9an egiten da, Bizkaian %15.2an eta Gipuzkoan %12an. Motarik erabiliena barrualdi erdirekia da. Horren zioa zentroek orain arte izan duten funtzionamenduan dago, gazteak hiru barrualdi motak egin behar baitzituen (hasieran ez zen zentrotik ateratzen, gero zenbait jarduera kanpoan egiten zituen eta azkenean jarduera guztiak kanpoan egiten zituen). Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren norabideak funtzionamendu hau adostutako erregimenaren izaeraren eskaerari egokitzen saiatzen dira.

Barrualdiak Erkidego Autonomoko hiru zentro hauetan burutzen dira:

- Andollu Heziketa Zentroa: neskontzako erregimen irekia, erdirekia eta itxia; 6 postu daude;
- Mendixola Heziketa Zentroa: mutilentzako erregimen irekia eta erdirekia; 11 postu daude;
- Miguel Ángel Ramírez Heziketa Zentroa: mutilentzako, hasiera batean erregimen irekiko nerabeak hartzera bideratua; 8 postu daude.

Gaur egun ez dago mutilak erregimen itxian hartzeko posturik. Honelako neurria hartzekotan, beraz, beste Erkidego autonomo batera joan behar dute gazteek. Eusko Jaurlaritza 40 postuko zentro itxi bat eraikitzen ari da, eta horrek 1999tik aurrera egoera hau konpondu egin beharko luke.

Zentroetan egindako ebaluaketak honako alderdi adierazgarri hauek agertzen ditu:

- Zentro guztiek dute hezkuntza proiektu idatzia, baita elkar bizitzeko arauak eta zehapenak azaltzen dituen funtzionamendu arautegia ere.
- Orokorrean, nerabeek ontzat ematen dute hezitzaileen jokaera.
- Mutilak hartzen diren zentroetan, arauak ezartzeko joera handia dago, eta araudien gaia solas guztietan agertzen da. Neskentzako zentroan, ezartzen bada ere, ez dago besteetan dagoen arautegiaren erabateko presentzia, eta aplikazioa irizpide malguagoz eta kasuen ezaugarrien arabera egiten da, nonbait.
- Nerabeen partehartzea eskasa da.
- Ziurtasun arrazoiak direla eta, komunek ez dute krisketarik, baina intimitate-eskubidea errespetatzen da, ez baita sartzen atea itxita dagoenean. Geletan, berriz, ez da beti dei egiteko eta baimena itxaroteko araua betetzen.
- Kanpoko erreklamazioak egiteko ez dago bide idatzi formalik, nerabeek Adin Txikikoen Epaitegieta jotzea dutela erakusten badute ere.
- Andollu eta Mendixola zentroetako instalazioak egokiak dira. Miguel Ángel Ramírez zentrokoak, berriz, ez dira horren egokiak dagozkien funtzioetarako eta adin txikikoen beharretarako.
- Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzaren ordezkariak eta Organo Judizialekoak zentro hauek maiz bisitatzen badituzte ere, bisita horiek ez dira sistematikoak, eta ez dira zerbitzua kontrolatzeko irizpide eta prozedura zehatzekin egiten.
- Familiara eta gizartera itzultzeko prozesua errazteko ez dago emantzipazio zentro edo zerbitzurik. Dena den, Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzara Zuzendaritzak holakoak etorkizun hurbilean sortzea aurreikusi du.



## **Neurriak betearazteko epeak**

Neurriak betearazteko epeetan, hau da, ebazpenak indarra hartzen duenetik neurria betearazten den arteko epeetan, neurri motaren arabera desberdintasun handiak nabari dira. Lurraldeen arteko desberdintasunak ere handiak dira. Hautatutako espedienteen azterketa ikusita, Gipuzkoan dute arintasunik handiena. Hala ere, komenigarria da epeek bi aldi dituztela jakitea. Lehenengo aldia ebazpena indarrean sartzen denetik betearazteko eskuduna den administrazioak horren berri izan arte zabaltzen da. Bigarrenak, ebazpenaren berri ematetik gauzatzea benetan hasi arteko denboraldia hartzen du. Lehenengo aldian berandutze gehiago eta luzeagoak izaten dira. Beste aldetik, kontuan hartu behar da atzerapena aurreko neurri bat bukatzeko behararen ondorioa izan daitekeela.

Nolanahi ere, eskuhartzeko epe osoei esparru honetan aplikatutako neurriek izan dezaketen hezkuntza helburua bermatzeko luzeegi irizten zaie.

## **7. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA**

Aplikatutako neurrien azterketaren esparruan, gazteentzako justiziaren alorreko eskuhartzetan eragin zuzena edo zeharkakoa izan dezaketen zenbait gairen ondorioak ikusi dira.

### **Hezkuntza**

Hezkuntzaren alorrean, profesional guztien arabera, alorrekoak barne, sistemak ez die ohiko curriculumera moldatzeko arazo larriak dituzten gazteei erantzun egokirik ematen, are gutxiago gatazkak sortzeko jokaera erakusten dutenei. LOGSEk ezarritako aldaketak baino lehen, hezkuntza konpentsatzaileko zentroetan aurkitzen zuten gazte horiek heziketa esparrua. Gaur egun, zentro hauek, araututako hezkuntzatik kanpo arduratzen dira oraindik ere. Lanbide mundura hurbiltzeko zentroek ere laguntzen dute, gazteak sartzeko legezko adina bete baino lehen (16 urte) hartuz, ikasturtean zehar urteak egiten badituzte. Dena den, modu honetan lortutako postuak ez dira nahikoa eta, batzuetan, benetako deseskolaratzea ere suertatzen da. Guztiek aukera berdinak izatea aldarrikatzen duen LOGSE legearen izpiritutik eta benetako beharretatik hurbilago dauden konponbideak lortu beharko lirateke.

Bestalde, barrualdi zentroetako heziketa gelak ez daude Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren aldetik homologatuta. Barruan dauden nerabeei hezkuntza eskubidea bermatzeko konponbidea bilatu beharra dago.

## **Osasun zerbitzuak**

Gaur egun, osasun mentaleko zentroetako zerrendak luzegiak dira nerabeen beharrei behar den premiaz aurre egiteko. Horregatik, sare pribatura jo behar da batzuetan. Jokatzeko malgutasuna emango luketen eta nerabeen ezaugarri bereziei aurre egin ahal izango lieketen bideak ezarri beharko liriateke; are gehiago, tratamendu guztietan baietza eta borondatea oso inportante direla eta adin honetan gaztea elkarlanerako prest dagoen momentua aprobetxatu behar dela kontuan hartuta.

## **Gizarte zerbitzuak**

Agian gaur egun gaztearentzako justiziarekin elkarlan zuzenena horiek egiten dute. Horiei eskatzen zaie neurrien proposamenak oinarritzen dituzten txosten teknikoak egiteko informazioa, haiengana jotzen da, sarritan, zaintzapeko askatasuna, familia harrera eta komunitatearen onerako zerbitzuak egitea bezalako neurrien aplikazioetan elkarlanean aritzeko eta, horiek laguntzen dute, bestalde, barrualdia bukatu eta geroko gizarteratze eta familiratze prozesuan ere.

Beren esku dagoen guztietan laguntzen badute ere, eskuhartzeko epeetan zenbait disfuntzio nabaritu dira, batez ere familia harrera programak ezarri beharreko kasuetan. Baliabidea abian jartzeko behar duten denbora, askotan, luzeegia da.

## **8. NEURRIEN KONTROLA ETA EBALUAKETA**

Neurriak betetzeari buruzko kontrola Adin Txikikoen Epaileari dagokio. Honek, kontrola burutzeko, administrazio eskudunei aldizka eskatzen die neurrien garapenari buruzko informazioa, baita aplikazioan zehar nabarmendutako edozein alderdiri buruzko informazioa ere. Kontrola, ezarritako neurri guztietan egiten da. Barrualdi neurriei dagokienez, Epaileek eta fiskalek noizean behin zentroak bisitatzen dituzte, nahiz eta sarriagotan egita komeni izan, nerabeak beraiei hurbil dakizkien eta betetzen dutenera ohi daitezen, behar dutenean erabil dezaketen instantziara ohitzeko alegia.

Bestalde, neurriak betearazteko erantzukizuna daukaten administrazioek kontrol zuzenerako mekanismo gehiago beharko lituzketela ere ikusten da. Kontrol bide hauek aldizka aplikatu beharko liriateke, zentroa edo zerbitzua, bere funtzionamenduan, laguntzaren kalitatea bermatzeko beharrezko irizpide material, pertsonal eta funtzionalei egokitzen zaien egiaztatzeko tresnak erabiliz.

Bukatzeko, esan behar da neurrien aplikazioetan nerabeen banakako ibilbide eta aurrerapenen eta eskuhartzeen eraginkortasun ezaren ebaluaketak egiten badira ere, eskuhartzeen kalitatea neurtzeko ez dela kanpoko ebaluaketarik burutu.

**XI. ATALA**  
**GOMENDIOAK**

## **ESPARRU TEORIKOA, ESPARRU JURIDIKOA ETA ESKUDUNTZA BANAKETA**

### **1. Egindako kaltearen ordainbide-justiziako printzipioen aplikazioa**

Bitartekaritza, adiskidetzea eta kalte-ordainbidea adin txikiko lege-hausleen ardura hartzeari egokitzea eta, beraz, eskuhartzearen xede hezitzailea lortzeari, hala nola biktimaren eta komunitatearen partehartze aktiboari, indarrean dagoen lege ordenamenduan aurreikusten diren egindako kaltearen ordainbide-justiziaren hastapenetan oinarrituriko jarduera tresnen erabilera indartzea aholkatzen du, eta baita ezartzeak eskatzen dituen bitarteko pertsonal eta materialak antolatzea ere. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 1997an egindako Justiziaren Liburu Zuriak gai honen inguruan adierazten duen bezala, adin penal txikiko lege-hausleenganako eskuhartzea arautzeko lege-testu berriak, *«jurisdikziora heldu baino lehen nahitaezko bitartekaritza mekanismoak ezartzea»* kontuan hartzea komenigarri izango litzateke.

### **2. Adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartzeak erregulatzeko araudiaren onarpena**

Estatu mailan Adin txikiko lege-hausleenganako eskuhartzeak erregulatzeko araudia onartzea premiazkoa da, indarrean dagoen ekainaren 5eko 4/1992 Adin Txikiko Epaitegien Prozedura eta Eskuduntzaren Erreformari buruzko Lege Organikoaren hutsuneak beteko ditzan. Kode penalaren azken 7. xedapenean ezarritakoarekin bat, araudi hau onartzen denean bakarrik sartuko da indarrean bere 19. artikulua eta ezarri ahal izango da bere 69. artikulua, non, hurrenez hurren, erantzukizun penalerako adin nagusitasuna 18 urtera igotzen baita eta adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartze-araudi erregulatzailerako 18 urte baino gehiagoko eta 21 baino gutxiagoko pertsonen zabalteak baimentzen baita.

### **3. Neurriak betearazteko bitartekoen araudi erregulatzaileraren onarpena**

Nahitaezkoa da, era berean, Eusko Jaurlaritzak, duen eskuduntza araugilearen barnean, Adin Txikikoen Epaileek onartutako neurriak betearazteko zentro eta zerbitzuek bete behar dituzten baldintza material, pertsonal eta funtzionalak erregulatzeko Lege bat egin eta onartzea. Bestalde, araudi honek Organo Judizialen eta neurriak betearazteko Administrazio erantzuleen arteko koordinazio tresnak zehaztea gomendatzen da, hala nola betearaztean parte hartzen duten zentro eta zerbitzuen gain bi aldeetatik ezarri beharreko kontrol tresnak jartzea.

### **4. Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko eskuduntza arazoaren ebazpena**

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Epaitegiak onartutako ingurune irekiko neurriak gauzatzeari buruzko eskuduntza arazoa epe laburrean ebaztea komeni da, Lurralde honetako adin penal txikiko lege-hausleen interesak bermatzeaz gain, Kode Penalaren 19. eta 69. artikuluetan aurrikusten diren eskuduntzak zabaltzearen ondorioz sortuko diren beharretara egokituko den konponbidea bilatzeko.

## **ZERBITZU-SAREA**

### **5. Poliziaren prestakuntza eta txanda espezializatua**

Adin txikiko pertsonen ezaugarrietara eskuhartzearen egokitzapena bermatzearen, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren prestakuntza hobetzea gomendatzen da eta goardia txanda bat ezartzea, non ezaugarri hauetako atxilotze bat izatekotan, adin txikiko pertsonekin eskuhartzean espezializaturiko agente talde bat aurkitzeko moduan egon beharko bailuke.

### **6. Polizia Judiziala**

Polizia Judizialak, Auzitegi edo Fiskaltzek eskatuta garatzen dituen eskuhartzeak eraginkorrak izan daitezen, komeni da eginkizun hauek betetzen dituzten eta adin txikikoen jurisdikzioaren zerbitzuan dauden agenteak beti berdinak izatea edo postuan epealdi nahiko luzean irautea, helburu hori betetzen dela bermatzeko.

## **7. Poliziaren egoitzak egokitzea**

Gaur egun poliziaren egoitzek atxilotutako adin penal txikikoen egonaldirako leku egokirik ez dute. Egiturak nerabeen eta gazteen behar berezietara egokitzea komeni da, indarrean dagoen araudiari eta nazioarteko testuen iradokizunei kasu eginez.

## **8. Erakunde Judzialen espezializazioa**

Komeni da, Botere Judzialaren Kontseilu Nagusiak bere Justiziaren Liburu Zurian gomendatutakoarekin eta Adin Txikikoentzako Justizia erregulatzeko Lege Organikoaren Aurreproiektuan aurreikusitakoarekin bat, adin txikikoen jurisdikzioan parte hartzen duten Epaila, Fiskal eta Abokatuek espezializatzeari ekitea. Alde honetatik, Abokatuen Elkargoetatik txanda espezializatu bat antolatzea baliagarria izan daiteke.

## **9. Fiskaltzen bitartekoen egokitzea**

Fiskaltzek ez dute 4/1992 Legeak esleitzen dizkien izapide eginkizunetan aritzeko beharrezko bitartekorik, eta, beraz, ez daude Kode Penalaren 19. artikulua indarrean sartzeak ekarriko duen eskuduntzen zabalkuntzarako prest. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Izapideak eta Adin Txikikoentzako Justizia Erregulatzeko Lege Organikoaren Aurreproiektuak azaltzen duten bezala, karrera fiskalaren plantila egokitzea eta dagozkien eginbideak burutzeko behar dituzten bitarteko materialez hornitzea gomendatzen da.

## **10. Talde Teknikoak bitartekaritza lanak egiteko indartzea**

Bitartekaritza alternatibak zabalkiago aplikatzeko, beharrezkoa da Talde Teknikoak baliabide pertsonalez hobeki hornitzea eta horien prestakuntza indartzea, edo, egokiago jotzen bada, bitartekaritza alorrean espezializatutako Taldeak sortzea.

## **11. Profesionalen prestakuntza iraunkorra**

Prestakuntza iraunkorreko planak ezartzea gomendatzen dugu, adin penal txikiko lege-hausleenganako eskuhartze sisteman parte hartzen duten profesional guztien ezagupenak etangabe berritu eta gaurkotu ahal izateko.

## **12. Bulego Judizialak Talde Teknikoei laguntzea**

Talde Teknikoak Adin Txikikoen Epaitegietako bulegoetan kokatuta dauden bitartean, gastu publikoaren razionalizazioa dela eta, gomendagarria da Bulego Judizialek administrazio funtzioetan laguntza ematea, prozedurak arintzeko xedez.

## **13. Talde Teknikoentzako bulegoak**

Talde Teknikoen kokapena edozein dela ere, komeni da erabilitako bulegoetan zenbait areto, beharren arabera bat edo bi izatea, elkarrizketak eta ados jartzea eta bitartekaritza egintzak burutzeko egokiak izango direnak.

## **14. Itzarongelak**

Gazteentzako justizia prozeduraren eremuan adin txikiko pertsonak jasotzeko bulego guztiek itzaroteko gelak izan behar dituzte, pribatutasun eskubideari zor zaion begirunez, diskreziorik handiena bermatzeko.

## **15. Agerraldiak eta entzunaldiak burutzeko aretoak**

Nazioarte mailan gomendatutakoaren arabera, agerraldiak eta entzunaldiak burutzeko aretoak bista aretoen ohiko diseinukoak ez izatea komeni da, izan ere nerabeen beharrentzako egokiagoak baitira Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/1993 Izapideak adierazten duen moduan, eta baita oholtzarik ez egotea eta bistak mahaiaren inguruan burutzea ere, Donostiako Epaitegian egiten den bezala.

## **ATENDITUTAKO POPULAZIOA**

### **16. Hiru Lurralde Historikoetan era bereko estatistika egitea**

Gaur egun, ez da biltzen adin penal txikiko lege-hausleen gaineko estatistika zehatzik, ezta neurri batzuren edo besteren eraginkortasun handiagoa edo txikiagoa zehazteko beharrezko daturik ere. Justizian eta administrazioan informazioa biltzeko era bereko sistema jartzea komeni da; horrek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bere Justiziaren Liburu Zurian egindako gomendioa haintzat hartuta, ikerketa soziologikoak eta estatistikoak egiteko bidea emango luke, eta horien bidez xedapen arau-emaileak ezartzeak gazte-delinkuentzia tasetan duen eragina ezagutu ahalko litzateke.

## **PROZEDURAK**

### **17. Adin penal txikiko pertsonen identifikatze, atxilotze, aitortza, eta poliziaren egoitzetan egin behar duten egonaldirako baliozkoak diren jarraibideak**

Adin penal txikiko pertsonen identifikatze, atxilotze, aitortza, eta poliziaren egoitzetan egin behar duten egonaldirako araudian ikusten diren berezitasunen aplikazio zorrotza beharrezkoa da. Alde horretatik, gaur egun erabilitako irizpidea ezartzea sustatu behar da, hau da, adin penal txikiko pertsonak poliziaren egoitzetan atxilotu eta lekualdatzea, ahal bada, saihestea, eta, edozein modutan, kalabozoko egonaldia saihestea.

### **18. Atestatuak, haietan adin penal txikikoak diren edo bide diren pertsonak sartuta daudenean, Adin Txikikoen Fiskaltzetara sistematikoki igortzea**

Polizia-atestatua igorri eta Instrukzio Auzitegi eta Goardia Auzitegien bidez izapidatzearen ondorioz Adin Txikikoen Fiskaltzan sartzeko erregistroan sartu arte egun atzematen diren atzerapenak saihesteko, atxiloketa Fiskaltzen lanorduetatik kanpo gertatzen denean, partehartzaileran bat adin txikikoa dela susmatu edo ezagutzen bada polizia agenteek Fiskaltza horietara hurrengo egunean edo hurrengo lanegunean zuzenean igortzea gomendatzen da.

### **19. Beharraren araberako txosten teknikoen aniztasuna**

Fiskaltzek eskatuta Talde Teknikoek burututako txostenak adin txikiko ustezko lege-hausleen beharretara egokitzea gomendatzen da, eta arrazoi pertsonal edo soziofamiliarrek, eta gertaeren izaerak eskuhartze behar berezirik erakusten ez duten kasuan edukia mugatuaz. Bide hau Gasteizko eta Donostiako Epaitegietan ezartzen hasia da, prozedurak azkartzeko eta familien intimitatean sudurra ez sartzeko.

### **20. Talde Teknikoaren barruan koordinatzailearen txandakako figura orokortzea**

Gasteizen txandakako izaeraz dagoen koordinatzailearen figura Bilboko eta Donostiako Epaitegietara esleitutako Talde Teknikoetara zabaltzea gomendatzen da. Figura hau kasuak banatzeaz eta Fiskaltza eta Auzitegiekiko harremanez arduratuko litzateke, eta Taldeko kideen artean desadostasunak izanez gero, egin beharreko txosten mota erabakitzeko pertsona egokia izan daiteke.



## **21. Informazio-liburuskak egitea**

Nerabeen eta beren legezko ordezkarien aldetik dauzkaten eskubideen eta dagokien prozeduraren ezagupen hobea bermatzeko, informazio-liburuska batzuk egitea gomendatzen da, argi idatziak eta erabiltzaileen ulermen mailara egokitutako hizkuntzan idatziak, une bakoitzean dituzten eskubideak eta epai jardueraren aldi ezberdinak azalduko dituztenak. Liburuska horiek Komisaldegi gutzietan, Adin Txikikoen Fiskaltzetan, Adin Txikikoen Epaitegietan, Talde Teknikoak lekutzen diren egoitzetan eta erabakitako neurriak betearazteko Administrazio eskudunen egoitzetan eskuragai izatea komenigarri da.

## **22. Ahozko informazioa**

Era berean, prozeduran parte hartzen duten profesionalek, aldi bakoitzean, horren jarraipenari eta nerabeak dauzkan eskubideei buruzko azalpen argiak ematea komeni da. Ikuspuntu horretatik Abokatuen partehartze aktiboagoa, nerabeen beharretara egokituagoa eta adin txikikoen jurisdikzioan ezarri daitekeen prozeduraren berezitasunei egokiagoa gomendatzen da. Aldi berean, agerraldietan eta entzunaldietan erabiltzen den hizkuntza, ahal den neurrian nerabeen eta beraien familien ulermen gaiatsunera egokitzea gomendatzen da.

## **23. Prozeduraren pausoetan erabilitako denbora gutxitzea**

Gaur egun prozedura ezartzeko behar diren epeak gehiegizkoak dira. Haren esparruan ezarritako neurriei egozten zaien xede hezitzailea kontuan izanik, jarduerak berehalakotasun handia eskatzen dute, beraz, prozedura bizkortzeko lan-modu berriak sartzea nahitaezkoa da.

## **NEURRIAK EZARTZEKO BIDEAK**

### **24. Ingurune irekiko neurriak betetzeko beharrezko baliabide pertsonal eta materialak eskura izatea**

Beharrezkoa da ingurune irekian neurriak betearazteaz arduratzen diren Administrazioek neurri horiek betetzeko beharrezko baliabideak egokitzea edo sortzea. Behar hau Bizkaian eta Gipuzkoan atzematen da bereziki zaintzapeko askatasun neurriak betearaztean, Lurralde horiek ez baitaude zuzeneko eskuhartzea bermatzeko pertsonaz hornituta. Komunitatearen onurarako zerbitzuak egitera behartzen dituen neurrien eraginkortasuna nerabearen beharretara egokitzearen eta arau-haustearen jatorriak prestazioaren edukiarekin duen harremanaren baitan

dago. Horrela, hiru Lurraldeetan alternatiba bideragarriak gehitzea komeni da, baina Araban batik bat, bertan gaur egun esparru horretarako erakunde bakar bat baitago hitzartua.

## **25. Asteburuan barrualdi neurriak betetzeko bitartekoen egokitzea**

Asteburuko barrualdi neurria betetzeak, gaur egun gutxi erabiltzen denak, espreski diseinaturiko jarraibidea behar du. Egungo sistema ez da egokia nerabeak barrualdi zentro baten bizitzan duen partehartze soilean oinarritzen delako, eta zentroaren eginkizunak iraupen luzeagoko neurrietara bideratuta dagoelako. Dena den, zentro horietan ezartzea egokia izan arren, beharrezkoa da neurriaren iraupen laburrera egokitu diren eskuhartze motak proposatzea.

## **26. Izaera terapeutikoko zentroan barrualdi neurriak betetzeko baliabideak izatea**

Gaur egun zentro terapeutikoen ez diete adin txikiko pertsonen behar bereziei erantzun egokirik eskaintzen. Dauden baliabideak nerabeen behar berezietara egokitzea beharrezkoa da, neurria ordenamendu juridikoan aurreikusita dagoela jakinda.

## **27. Mutikoek barrualdi itxi-neurriak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak izatea**

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago mutikoek erregimen itxian barrualdi neurriak betetzeko prestatutako zentrorik. Horrelako ezaugarriak izango dituen zentro bat eraikitzen ari dira Zumarragan, eta pentsatzen da 1999an zabaldu ahalko dela. Bere diseinu eta antolakuntzan zerbitzuaren kalitatea bermatuko duten irizpide material, pertsonal eta funtzionalak izatea eta bertan izango diren adin txikiko pertsonen eskubideen errespetura egokitzea gomendatzen da.

## **28. Nerabeei eta horien familiei zuzenduriko barrualdi ikas-zentroei buruzko informazio-liburuska egitea**

Nahiz eta zentro guztiek beren helburu eta eginkizunak zehazten dituen hezkuntza-proiektua eduki, eta sartu eta berehala nerabe guztiei zentroaren funtzionamenduari kopia eman, ona litzateke argitasunez eta nerabeen ulermen mailara egokitutako hizkuntzan zentroaren helburu eta funtzioak azalduko lituzkeen informazio-liburuska bat eskaintzea. Adin txikiko pertsona bakoitzari eta horien

ordezkari legalei ale bana ematea gomendatzen da, Epaitegian, barrualdi neurria ezarri eta gero, erreklamazio edo iradokizunen bat aurkeztea beharrezkoa edo egokia ikusten badute zein instantzia administratibo edo judizialetara jo dezaketen zehazki azaldu behar zaielarik.

### **29. Ingurune irekiko neurria betetzeko egun erabiltzen diren epeak laburtzea**

Prozeduraren beste aldietan bezala, neurriaren zenbait zati edo zenbait neurriren betetze eraginkorrari ekiteko egun erabiltzen diren epeak, gehienbat zaintzapeko askatasuna eta tratamendu anbulatorioaren kasuetan, egozten zaien helburu hezitzailea betetzeko luzeegiak dira, helburu hau eskuhartzeen berehalakotasunera oso baldintzatuta baitago. Erakunde eskuhartzaileei beraien jardunak bizkortzea gomendatzen zaie, bereziki ebazpen batek irmotasuna hartzen duen egunetik betearazteko Administrazio eskudunari haren edukiaren berri eman arteko epeak laburtzea alegia.

### **30. Ingurune irekiko neurriei buruzko informazio-liburuska bat egitea**

Ingurune irekiko neurriak betearazteaz arduratzen diren Administrazio eskudunei neurri bakoitzaren edukia, helburuak eta funtzioak nerabean ulermen mailara egokitutako hizkuntzan eta argitasunez azalduko dituzten informazio-liburuskak egitea gomendatzen zaie. Liburuska horien ale bana adin penal txikiko pertsona bakoitzari ematea gomendatzen da, hala nola bere legezko ordezkari, Epaitegian, barrualdi neurria ezarri eta gero, erreklamazio edo iradokizunen bat aurkeztea beharrezkoa edo egokia ikusten badute zein instantzia administratibo edo judizialetara jo dezaketen zehazki azaldu behar zaielarik.

### **31. Barrualdi zentroetan hobekuntza estruktural batzuk sartzea**

Barrualdi zentroetan ingurune fisikoa hobetzeko zenbait aldaketa egitea gomendatzen da. Aramaio eta Ortuellako zentroetan leihoen burdinesien ordez, ixteko sistema berriak jartzea egokia izango litzateke; bai erabiltzaileentzat bai inguruan bizi direnentzat segurtasun berme berberak izango litzukete eta ez lirateke hain nabarmenak izango. Ortuellako zentroak, bestalde, beste berrikuntza lan batzuk beharko lituzke, gaur egungo egoeran baldintza egokietan 8 neraberen barrualdia bermatzeko leku txikiegia eskaintzen baitu. Zentroak, era berean, tenperatura baldintza egokia bermatuko lukeen berokuntza sistema bat jarri beharko luke. Azkenik, gerta daitezkeen arrisku egoerak saihesteko, zentro guztietan hustuketa simulazio sistematikoak egitea gomendatzen da.

### **32. Barrualdi zentroetan ezargarri diren zehapenak egokitzea, Adin Txikikoen Justizia Erregulatzeko Lege Organikoaren Aurreproiektuko aurreikuspenen araudia betetzen ez den kasuetarako**

Gaur egun zentroen funtzionamendua zuzentzen duen araudian aurreikusitako zenbait zehapen ez dira egokiak Adin Txikikoen Justizia Erregulatzeko Lege Organikoaren Aurreproiektuaren arabera, eskubideak mugatzen dituelako. Eta hori, nagusiki, Mendixola Hezkuntza Zentroaren haritik dator, bertan nerabe zigortuak indarrez egotera behartzeko zona bat baitago. Nahiz eta oraindik indarrean ez egon, europar ikerkuntzarik berrirenak gomendatutakoarekin bat datozen xedapen batzuetara egokitzea komeniko litzateke.

### **33. Barrualdi hezkuntza-zentroetan pribatutasun eskubidearen bermea**

Segurtasun arazoek jartzen dituzten mugak aintzat hartuta, egituren diseinuan, funtzionamenduan, zerbitzuaren antolaketan eta harreman jarraibideetan, barneratutako nerabeen pribatutasun eskubidea bermatzeko beharra kontuan hartzea nahitaezkoa da.

### **34. Barrualdi hezkuntza-zentroetan baimenik gabe ez itzultze kasuetarako jarraibideak arautzea**

Agintari eskudunek, barrualdi epai-neurri bati helduta dagoen nerabea baimenik gabe zentrori itzultzen ez den kasuan ezartzeko jarraibideak idatziz jartzea gomendatzen da.

### **35. Barrualdi hezkuntza-zentroetan tutoretza bikoitzaren sistema**

Langilegoa erabiltzaileen beharretara hobeki egokitzea bermatzeko, tutoretza sistema bikoitza ezartzea gomendatzen da, gizonezko eta emakumezko bana, ahal izanez gero.

### **36. Transizio programa baten diseinua eta aplikazioa**

Barrualdi neurriei buruz gaur egun agertzen den arazo nagusietariko bat nerabea zentrotik irten eta bere inguru soziofamiliarrean berriro sartzeko unea da. Prozesua azkartuko duen programa ahal den epe laburrean diseinatzea eta abian jartzea

gomendatzen da. Programak kontuan hartu beharko du nerabeak familiara itzultzeko edo bere aldetik bizitzen hasteko daukan prestakuntza, eta baita familiaren prestakuntza ere. Azken aspektuari dagokionez, programa honen eta gizarte zerbitzuen esparruan garatzen diren eskuhartze eta hezkuntza familiarren programen artean lankidetzeta eta koordinazio bideak ezartzea komeniko litzateke.

### **37. Parte hartzeko tresnen hobekuntza**

Nerabeari eta horren ordezkari legalei haren garapen pertsonalean, harremanetan hezkuntza mailan eta osasunean eragin zuzena izan dezaketen erabakietan parte hartze maila handiagarako bideak emango dizkieten mekanismoak bultzatu behar dira.

### **38. Ereklamatzeko bide formalak**

Beharrezkoa da neurriak betearaztea erregulatzen duen araudiak, barrura nahiz kanpora begira dauden erreklamazio bideak argi eta garbi zehaztea, eta informazio hori argi eta nerabeen ulermen mailara egokitutako hizkuntzan idatzitako liburusketan agertzea. Liburuska horiek Epaitegietan, Fiskaltzetan eta betearazpenaz zuzenean arduratzen diren zerbitzuetan eskura egotea komeni da.

### **39. Lanbide beharretara egokitzen den prestakuntza iraunkorra**

